

Arabako

migrazio-fenomenoaren


azterketa diagnostikoa

2019



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**ikus
pegi** Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración



Arabako migrazio-fenomenoaren azterketa diagnostikoa

2019



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ikus
pegi

Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración

Izenburua: Arabako migrazio-fenomenoaren 2019ko azterketa diagnostikoa

Talde teknikoa: José Antonio Oleaga (zuzendaria)
Maite Fouassier
Irene Ruiz
María José Martín
Arkaitz Fullaondo
Imanol Sancosmed
Gorka Moreno
Taide Arteta
Ikuspegi — Immigrazioaren Euskal Behatokia

Dokumentazioa: Antonio Gómez
Ikuspegi — Immigrazioaren Euskal Behatokia

Maketazioa eta
diseinu grafikoa: Roberto Saenz
Emilia Oleaga

ISBN: 978-84-7821-943-8

Lege gordailua: LG G 97-2020

Aurkibidea

SARRERA	7
HELBURUAK	11
METODOLOGIA	15
1. ERROLDAKO DATUAK	23
1. Sarrera	25
2. Eremu handiak eskualdeka	35
3. Atzerritar jatorriko biztanleen banaketa	51
4. Adin-Egitura	65
5. Gakoak eta gomendioak	79
2. BIGARREN MAILAKO ITURRIETAKO EGITURAZKO DATUAK	83
1. Etxebizitza	85
2. Gizarte Zerbitzuak, prestazio ekonomikoak eta DBE	103
3. Lan-merkatua	143
4. Hezkuntza	169
5. Gakoak eta gomendioak	183
3. ARABAKO HERRITARREK ETORKINAK DIRELA ETA DITUZTEN PERTZEPZIOEN ETA IRITZIEN ANALISIA	193
1. Atzerritar jatorria duten pertsonen etorrena	197
2. Gizarte hartzailean hautemandako ondorioak	211
3. Eskubide eta zerbitzuetarako sarbidea	219
4. Elkarbizitza-ereduak eta harremanetarako espazioak	229
5. Eredu kulturalak mantentzea	243
6. Begikotasun-maila	263
7. Estereotipoak	267
8. Immigrazio-politika	279

9. DSBE eta gizarte-laguntzak	285
10. Tolerantzia-indizea	291
11. Laburpena	301
12. Ondorioak	309
4. ARABAN BIZI DIREN ATZERRITARREN AHOTSA	315
1. Diskurtsoen analisia	317
2. Gakoak eta Aholkuak	367
3. Eranskina	377
5. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK	387



SARRERA

Gure inguruko gizarte-errealitatea aldatzen ari da. XXI. mendearen hasieratik, orain arte ezezaguna zitzaigun gizarte-prozesu baten lekuko izan gara: atzerritarrek gure herrialdera etortzea, nagusiki beren oraingo eta etorkizuneko itxaropen pertsonalak eta familiakoak hobetzeko asmoz.

Baina, ikusi dugunez, iristen diren pertsona guztiak ez dira arrazoi ekonomikoen-
gatik edo bizi-proiektu bat gauzatzeko asmoz etortzen. Askoz ere dramatikoagoak
diren arrazoiengatik sortu diren migrazio-prozesuak ikusten ari gara: gerrak, hon-
damendi naturalak eta halakoak direla-eta beren bizitzak salbatzeko emigratu bes-
te aukerarik ez duten pertsonak.

Oraingoz, XXI. mendean daramatzagun urte gutxi hauetan, pertsonen mugikorta-
sunaren etengabeko gorakada izan dugu ezaugarri, aurreikuspen guztiak gaindi-
tuz. 2008ko krisialdi handiaren aurretik, gure inguruko migrazio-prozesu gehienak
aukera ekonomiko hobeen bila mugitzeagatik sortzen ziren. Alabaina, 2014tik eta
2015etik aurrera, gora egin du iritsi diren atzerritarren kopuruak, eta, dirudienez,
aldatu egin da gure gizartera etortzen diren pertsonen profila.

Hori ikusi genuen batez ere Siriako gerratik –baina baita beste leku batzuetatik
ere– ihes egiten zuten errefuxiatuen krisiaren kasuan; alegia, 2015eko errefuxia-
tuen Europako krisi deituriko horretan. Une horretan, agerian geratu zen migra-
zio-prozesuen zentzua ez dela unibokoa eta arrazoi bat baino gehiagoren ondorioz
gerta daitezkeela.

Oraintsuago, migrazio-prozesuen aldaketa gehiago ikusi ditugu gure inguruan:
2018ko udako “migratzaileen” fenomenoari buruz ari gara. Afrikatik etorritako
pertsona askok Mediterraneoaren mendebaldea erabiltzea erabaki zuten Europa-
ra iristeko; izan ere, ordura arte gehien erabiltzen zen bidea, Mediterraneoaren
erdialdekoa (Italia), itxi egin zen. Pertsona horien migrazio-plana desberdina da:
gure artean geratzeko asmoz etorri beharrean, gure lurretan denbora bat besterik
ez dute igaro nahi, hemendik Europa erdialdera eta iparraldera joateko.

Horri guztiari gehitu behar zaio gero eta adingabe gehiago iristen direla bakarrik
espainiar estatura eta gure lurraldera; adingabe horiek Ipar Afrikakoak izaten dira
nagusiki. Datuen arabera, etorkinen kopurua hirukoiztu egin da 2015 eta 2018 ar-
tean; 2018an, 12.000 pertsona iritsi ziren espainiar estatu osora, eta, horietatik,
1.000 baino gehiagok EAera jo zuten.

Arrasto guztien arabera, Euskadik migrazio-mugimendu garrantzitsuen jomuga edo bideko etapa izaten jarraituko du datozen urteetan ere. Horren arrazoia da gure egoera ekonomiko, soziodemografiko eta gizarte-ongizatekoak iradokitzen duela pertsona gazteak behar izango ditugula gure gizartearen zahartzea arintzeko; lan egiteko adinean dauden pertsonak beharko ditugu, gure lan- eta okupazio-egituraren desorekei aurre egiteko. Gainera, laneskua beharko dugu gure ongizate-estatuak dakartzan beharrei erantzuteko, etxeetan eta mendekotasuna duten pertsonekin, adingabeekin eta adinekoekin lan eginez. Hala, “dei-efektu” deiturikoa sortu da.

Gainera, egungo testuinguru geopolitikoan, pentsa dezakegu Europara sartzeko mendebaldeko bidea oso garrantzitsua izango dela migratzaile afrikarrentzat datozen urteetan, eta Euskadi migrazio horien bidean dago. Egindako kalkuluen arabera, 2018an, Afrikatik etorritako 6.500 pertsona inguru igaro ziren gure lurraldetik Europaranzko bidean.

Gainera, uste zabaldua da euskal gizarteak eta bertako erakundeek betebeharrak bat dutela gure inguruko pertsona ahulenekin, gizarte-bazterkeriarako arrisku handia dutenekin, eta horrek tentsioak sortzen ditu gure ongizate-estatuari bere horretan eustean.

Adierazle makroekonomikoek krisialditik ateratzen ari ginela adierazi zutenetik (2014tik eta 2015etik aurrera), 10.000 atzerritar inguru etortzen dira urtero EAera. Pertsona horiek guztiak bizi-proiektu baten bila etortzen dira, gure gizartean geratzeko asmoz. Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkestaren azken datu erabilgarrien arabera (EABI 2014), EAEn bizi diren atzerritarren % 87,8ren asmoa da Euskadin geratzea datozen bost urteetan, eta % 80,0rena hamar urte baino gehiago geratzea. Pertsona horiei gehitu behar zaizkie hurrengo urteetan gure lurraldea Europaren erdialdera eta iparraldera joateko bideko etapa gisa erabiliko duten guztiak, lehen aipatu bezala.

Nazioarteko dinamikek erakusten dute gizarte-mugikortasunak areagotzen jarraituko duela etorkizun hurbilean, eta horrek gizarte-tentsioak sorraziko ditu, zailtzarrik gabe.

Arabako Lurralde Historikoan, gure auzo, herri eta hirien osaera sozial eta demografikoaren fisionomia nabarmen aldatu da XXI. mende honetan. Duela hogeitau urte ez zegoen ia atzerritarrik gure gizartean (1998an, Arabako biztanleen % 1,6 besterik ez), eta, gaur egun, % 10 izatera iritsi dira (zehazki, 2018an % 11,4). Gainera, Araba atzerritarren ehuneko handiena duen EAEko lurraldea da, Bizkaiaren (% 8,88) eta Gipuzkoaren (% 9,5) gainetik.

Hiru lurraldeetan, atzerritar gehienak latinoamerikarrak badira ere, Arabako datuak pixka bat aldentzen dira Bizkaiko eta Gipuzkoako datuetatik; izan ere, bertako atzerritarren artean, pisu erlatibo txikiagoa dute latinoamerikarrek (Arabak % 41,9, Bizkaian % 51,1 eta Gipuzkoan % 45,9). Araban, gainera, Ipar Afrikako edo Magrebeko pertsonen komunitate handi samar bat dago: atzerritarren % 22,4 Ipar Afrikatik datoz (Gipuzkoan % 13,7 eta Bizkaian % 11,0).

Alde horien arrazoi nagusia da desberdintasunak daudela Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako produkzio-ereduetan. Araban, nekazaritza-sektoreak pisu handiagoa du, eta, horrenbestez, gizonezkoen lanesku gehiago behar da (historikoki, Ipar Afrikakoak). Aldiz, kostaldeko lurraldeetan, batez ere Bizkaian, lanesku gehiago behar da pertsonen zaintzarako, etxeko lanak egiteko eta zerbitzuetan, ostalaritzan edo industrian aritzeko.

Testuinguru horretan, Arabako Foru Aldundiak honako hau du helburu: gizarte-giro egokia lortzeko eta gure herri eta auzoetako pertsona guztien (horien jatorria edozein dela ere) arteko bizikidetza hobetzeko lan egitea. Konpromisoa argia du pertsona guztiek herritar gisa dituzten eskubideak defendatzeko eta etengabe borroka egiteko tratu-berdintasunaren alde eta bereizkeria ororen kontra.

Hala, Arabako Foru Aldundiak jarduketa-plan bat egin nahi du herritarren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren arloan, horren bidez gizarte-arrakastarako bermeekin egin ahal izateko aurre etorkizuneko erronkei. Horretarako, baliagarria izango da *Arabako migrazio-fenomenoaren 2019ko azterketa diagnostiko* hau, funtsezko elementu eta abiapuntu gisa, plan hori idazteko behar den informazio guztia emateko.

HELBURUAK

Azterketa honen bidez lortu nahi ditugun hainbat informazio-helburu planteatuko ditugu atal honetan. Denak ere helburu nagusi baten mende daude:

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO MIGRAZIO-FENOMENOAREN
DIAGNOSTIKO BAT EGITEA, HORI OSATZEN DUTEN ZAZPI KUADRILLEN
BEREZITASUNAK DESKRIBATUZ, DATUEK AHALBIDETZEN DUTEN HEINEAN.

1. mapa. Araba eta bertako zazpi kuadrillak¹



¹ Hauek dira kuadrillen izen ofizialak: Añana, Ayala/Aiara, Campezo-Montaña Alavesa/Kanpezu-Arabako Mendialdea, Gorbeialdea, Laguardia-Rioja Alavesa/Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla, Llanada Alavesa/Arabako Lautada eta Vitoria-Gasteiz. Dena den, txosten honen irakurketa arintze aldera, izen hauek erabili-ko ditugu: Añana, Aiara, Kanpezu-Arabako Mendialdea, Gorbeialdea, Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla, Arabako Lautada eta Vitoria-Gasteiz.

Helburu nagusi hori lortze aldera, beharrezkotzat jotzen dugu hura adierazten eta eratzen duten elementuei buruzko informazioa biltzea, alderdi zehatz hauen inguruan:

Erroldako datuak


- Gaur egun Araban dauden migrazio-fluxuak aztertzea, Arabako kuadrilletan dauden errealitate berezien panoramika bat osatuz.
- Atzerriko nazionalitatea eta/edo jatorria duen biztanleriaren osaera deskribatzea Arabako zazpi kuadrillean.
- Araban bizi diren atzerritarren eta/edo atzerritar jatorria dutenen datu soziodemografikoen eta errolda-datuen errealitatea aztertzea eta deskribatzea.

Bigarren mailako iturrietako egiturazko datuak

- Araban bizi diren atzerritarren eta/edo atzerritar jatorriko herritarren lan-arloko egoera ezagutzea, datuak zazpi kuadrillen arabera bereizita, ahal den heinean.
- Araban bizi diren atzerritarren eta/edo atzerritar jatorriko herritarren gizarte-laguntzen egoera ezagutzea, datuak zazpi kuadrillen arabera bereizita, ahal den heinean.
- Araban bizi diren atzerritarren eta/edo atzerritar jatorriko herritarren bizitoki eta etxebizitzekin lotutako egoera aztertzea, datuak zazpi kuadrillen arabera bereizita, ahal den heinean.
- Araban bizi diren atzerritarren eta/edo atzerritar jatorriko herritarren hezkuntza-arloko egoera ezagutzea, datuak zazpi kuadrillen arabera bereizita, ahal den heinean.
- Atzerritarrei eta/edo jatorri atzerritarra duten herritarrei arreta emateko estrategiak, programak eta/edo ekintzak proposatzea, Arabako lurraldeko bizikidetzak hobetze aldera.

Arabako herritarrek etorkinak direla eta dituzten pertzepzioen eta iritzien analisia

- Arabako herritarrek atzerriko immigrazioaren fenomenoari buruz 2018an izan dituzten pertzepzioak, iritziak eta jarrerak ezagutzea eta deskribatzea.



- Arabako herritarren eta EAEko herritar guztien jarrerak, iritziak, pertzepzioak eta portaerak alderatzea.
- Atzerritarrei eta/edo jatorri atzerritarra duten herritarrei arreta emateko estrategiak, programak eta/edo ekintzak proposatzea, Arabako lurraldeko bizikidetza hobetze aldera.

Araban bizi diren atzerritarren ahotsa

- Araban bizi diren atzerritarren diskurtsoak sakon aztertzea: bizikidetza, beharra, ingurunearekiko eta pertsonetikiko interakzioa, helburuak, motibazioak, etab.
- Batez ere Latinoamerikako, Errumaniako, Portugaleko, Asiako, Ipar Afriko (Magreb) eta Afrika Erdialdeko (Saharaz hegoaldeko Afrika) herritarren diskurtsoak aztertzea.
- Arabako lurraldeko kuadrilletan zer-nolako irudia, pertzepzioa eta gogobetetze-maila duten aztertzea.
- Beren inguruari buruz zer balorazio egiten duten aztertzea, eta antzeko jatorriko, beste jatorri batzuetako eta euskal jatorriko pertsonekin duten interakzioaren maila eta kalitatea deskribatzea.
- Hainbat esparruri buruz dituzten iritziak eta balorazioak ezagutzea: hezkuntza, etxebizitza, euskarari eta gaztelaniari hezkuntzan ematen zaien balioa, etab.
- Araban bizi diren atzerritarrek jasan dezaketen bereizkeriaren esparru eta jardunbide potentzialak ezagutzea.
- Erlijioak pertsona horien bizitzetan duen zeregina deskribatzea.
- Bertako eta/edo euskal jatorriko herritarrekin integratzeko prozesuei buruz duten ikuspegia eta iritzia ezagutzea (zer alderdi diren funtsezkoak), arreta berezia emanez lan-arloari.
- Atzerritar jatorriko herritarren etorkizuneko itxaropenak deskribatzea, arreta berezia emanez beren diskurtso proiektiboari eta beren seme-alabek duten garrantziari.
- Herritar horiek euskal administrazioari buruz egiten duten balorazioa aztertzea, arreta berezia emanez foru- eta udal-esparruei, eta, ahal den heinean, neurriak proposatzea herrietan eta auzoetan duten egoera hobetzeko.
- Atzerritar jatorriko herritarrei arreta emateko estrategiak, programak eta/edo ekintzak proposatzea, Arabako lurraldeko bizikidetza hobetze aldera.



METODOLOGIA

Metodologiari dagokionez, azterlanaren ezaugarriak eta proposatutako helburuak direla eta, lau zati bereiziko ditugu. Dena den, berez, lau zatiek helburu partzial berak dituzte eta, noski, azterlanaren helburu nagusiari erantzuten diote.

Erroldako datuak

Lehen zati honetan, beharrezkotzat jo dugu Arabako lurraldeko biztanleen erroldan jasota dagoen informazioa zehatz-mehatz aztertzea.

Atzerritarren migrazio-mugimenduen gizarte-errealitateari hobeto doitzen zaion panoramika bat lortze aldera, Arabako udalerri guztietako udal-erroldekin egin dugu lan, Arabako zazpi kuadrilletako bakoitzean dauden udalerri guztietako informazioa bateratuz eta, hala, kuadrilla guztien panoramika bat osatuz.

Bigarren mailako iturrietako egiturazko datuak

Udal-erregistroetako errolda-informazioa osatze aldera, bigarren mailako kanpoko informazio-iturrietatik jasotako zenbait adierazle esanguratsu aztertu ditugu. *Gasteizko migrazio-fenomenoari buruzko ikerketa-diagnostikoan (2014)* izandako esperientzia hartu dugu abiapuntu gisa, Arabako lurraldean bizi diren atzerritar jatorriko herritarren deskribapen oso zehatza ematen diguten adierazleekin lan egiteko. Adierazle horiek lau multzo handitan bildu ditugu:

- Lan-egoera eta lan-merkatua
- Hezkuntza
- Etxebizitza
- Gizarte-baliabideak eta DSBE

Bigarren mailako kanpoko informazio-iturrietara jo dugu; nagusiki erakunde hauetara: EIN, Eustat, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, Lanbide, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila, Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua, Euskal Osasun Zerbitzua.

Gizarte-baliabide eta -laguntzen arloan, informazio-iturri desberdinek datu-kopuru desberdina eskaintzen dutela ikusi dugu, batzuek aldagai jakin batzuei buruzko informazioa jasotzen baitute, beste batzuek lortzen ez dutena. Komenigarria litzatekeela datu-base horiek biltzeko, osatzeko eta egiteko prozesuak hobetzea, horien homogeneotasuna hobea izan dadin eta erabilgarriak izan daitezen ingurunearen eta bertako pertsonen gizarte-errealitatearekin bat datozen ekintza politikoak planteatzerakoan.

Gainerako esparruetan, kasu batzuetan, mugak aurkitu ditugu datuak kuadrillen arabera bereiztean; ondorioz, ez dugu azterketan gehitzeko moduko udal-daturik edo berariaz kuadrillen arabera banatutako daturik. Hori gertatzen da, adibidez, lan-arloko enpleguaren datuekin (kontratutako pertsonak); kasu horretan, lurralde-mailako datuak baino ezin izan ditugu eskuratu. Dena den, xehetasun horiek zehatzago aztertuko ditugu dagozkien kapituluetan.

Arabako herritarrek etorkinak direla eta dituzten pertzepzioen eta iritzien analisia

Garrantzitsua da jakitea nola erantzuten dien Arabako gizarteak gure lurraldera iritsitako atzerritarren harira gertatzen ari diren aldaketek. Gizarte-aldaketako prozesu orotan, beharrezkoa da egoerara egokitzeke zenbait etapa izatea, identitate-elementuen galerari eta sortzen diren ziurgabetasunei aurre egiteko. Hori dela eta, Arabako gizartearen errealitatearen diagnostiko doitua lortze aldera, erabaki genuen Arabako gizarteak beste jatorri bateko pertsonak iristea dela-eta dituen jarrerei, pertzepzioei eta iritziei buruzko informazioa eskuratzeko tresna bat erabiltzea. Helburu horrekin, hain zuzen, inkesta kuantitatibo bat egin genion gure publikoaren lagin adierazgarri bati.

Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokian, Barometro bat egiten dugu urtero, eta han jasotzen dugu nola erantzuten dion euskal gizarteak atzerritarren immigrazioari. Hori aprobetxatuz, Arabako lagina handitu dugu eta 2018ko Arabako Barometroa egin dugu.

Hala, harremanetan jarri gara Araban bizi diren 18 urtetik gorako herritarrekin, eta erdiegituratutako galdetegi bat helarazi diegu (galdera batzuk itxiak dira eta besteak irekiak, inkestatuek nahi bezala erantzuteko).

Guztira, 1.200 inkestarekin aritu gara lanean; horrenbestez, Arabako lurralde osorako, lagin-errorea, gehienez, +/-% 2,83koa izan da, eta estatistikako konfiantza-maila, % 95ekoa, kasu okerrenean ($p=q=0,5$). Gasteizen, 600 inkesta egin ditugu (100 sei barrutietako bakoitzean), eta beste 600, gainerako lurraldean (100 gainerako udalerri arabarrak barnean hartzen dituzten beste sei kuadrilletako bakoitzean). Gasteizko Kuadrillako lagin horrekin (600 inkesta), bermatzen dugu gehieneko lagin-errorea +/-% 4koa izatea, eta estatistikako konfiantza-maila, % 95ekoa, kasurik okerrenean ($p=q=0,5$). Kuadrilla bakoitzeko 100 inkestekin, berriz, horietako bakoitzean gehieneko lagin-errorea +/-% 10ekoa izatea bermatzen dugu, eta estatistikako konfiantza-maila, % 95ekoa, kasurik okerrenean ($p=q=0,5$).

Aukeratutako laginketa mota esleipen sinple bidez estratifikatu da, kuadrillaren aldagaia kontuan hartuta (100 kuadrilla bakoitzean, Gasteizen izan ezik, non 600 inkesta egin diren), eta udalerrriaren tamainaren, adinaren eta sexuaren arabera kuotekin. Ondoren, inkestak haztatu ditugu Arabako lurralde osoaren tabulazio orokorrean. Etxebizitzak ausazko ibilbideen sistemaren bidez aukeratu dira, eta, guztira, 60 laginketa-puntu erabili dira, zazpi kuadrilletan banatuta.

Gero, inkestak euskarri digitalean grabatu dira, datuen ustiapen eta tabulazio estatistikoa egiteko. Aldagai bakarreko eta aldagai biko estatistiketan ohikoak diren estatistiko deskribatzaileak erabili ditugu:

- Maiztasuna (absolutuak)
- Portzentajeak (horizontalak eta bertikalak)
- Zentrora joeraren neurriak
- Sakabanatze-neurriak
- Independentzia-testa
- Hipotesien egiaztapena: test parametrikak eta ez-parametrikak

Hala, aldagai anitzeko estatistika-prozedurak aplikatu ditugu, hala nola kluster-sailkapenaren analisiak, *k-means*ak eta analisi diskriminatzaileak, korrespondentzia sinpleen faktore-analisiak eta segmentazioaren eta AID tipologiaren analisiak.

Arabian bizi diren atzerritarren ahotsa

Azkenik, atzerritar nazionalitatea, jatorria eta/edo arbasoak dituzten pertsonen ahotsa ere entzun nahi genuen. Pertsona horien diskurtsoak biltzea da azterketaren zati honen helburu nagusia, barneko eta kanpoko bigarren mailako informazio-iturrietatik jasotako informazioa –aurrez aztertutakoa– osatzeko eta kontraste-puntu bat izateko.

Horrenbestez, kapitulu honek atzerritarren eta/edo atzerritar jatorriko pertsonen ahotsak ditu ardatz, eta beren motibazioen, nahien, arazoan, sentimenduen, itxaropenen eta abarren berri izatea da asmoa. Hori guztia bat etorritik ikerketa honen helburu nagusiarekin: migrazio-fenomenoari eta Arabako gizarte-errealitatean duen eraginari buruzko informazioa biltzea eta aztertzea.

Gure asmo eta helburuek zerikusia dute atzerritar jatorriko pertsonen diskurtsoekin: nola bizi izan duten gure udalerrira iritsi arteko migrazio-bidaia, nola sentitzen diren, nolakoak izaten ari diren beren integrazio-prozesuak, zer oztopo dituzten, zer laguntza izan dituzten edo izaten ari diren, zenbateko gogobetetze-maila duten ingurunearekin, zer-nolako harremanak dituzten euskal herritarrekin eta beste etorkin batzuekin, zenbaterainoko ongizate pertsonala duten, etorkizunerako zer itxaropen dituzten, bereizkeriarik hautematen ote duten, etab.

Horretarako, eztabaida-taldetan oinarritutako inkesta kualitatibo bat egin dugu. Zehazki, 18 talde egin ditugu; horietako bakoitzean, bi sexuetako pertsonak sartu ditugu, denak 18 urtetik gorakoak eta hainbat jatorritakoak. Sei talde Gasteizen osatu dira, eta gainerako hamabiak, Arabako kuadrilletan (bakoitzean bi). Eranskinetan jaso ditugu dinamiketara etorri diren pertsonen profilak.

Talde bakoitza osatzen duten pertsonen profilak erabakitzeke, udal-erroldean bildutako informazioa hartu dugu oinarri gisa. Dena den, ikusi dugu tresna horrek zailtasunak sorrarazten dituela atzerritarren gizarte-errealitatea behar bezala islatzeko; izan ere, kolektibo hori euskal jatorriko herritarrena baino askoz ere dinamikoagoa da eta askoz ere gehiago mugitzen da. Aztergai dugun kolektiboak berezko duen ezaugarri horri gehitu behar diogu hainbat udalerritako erroldean jasotako informazioa ez datorrela bat kasu batzuetan: erroldeko altak, erroldeko bajak, bildutako datuen kalitatea... Komenigarria litzateke informazioa biltzeko eta eguneratzeko prozesuak hobetzea, horrek eskuratutako informazioaren kalitatea hobea izatea ekarriko bailuke, zalantzarik gabe.

Hala, kuadrilla bakoitzaren eztabaida-taldeak osatzean, desfaseak ikusi ditugu udal-erroldek ematen dituzten datuen eta dinamika egiteko uneko errealitatearen artean, eta horrek izugarri zaildu du taldeak antolatzeke prozesua.

Komenigarria litzateke, halaber, hauen arteko koordinazioa hobetzea: Arabako Foru Aldundia, Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, Arabako Udalak eta bizikidetzaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren arloan lan egiten duten pertsona guztiak. Hartara, ikerketa-prozesuak errazteaz gain, ahaleginak bateratuko lituzkete eta eraginkortasun eta efizientzia handiagoa izango lukete komunitateko planak, programak eta ekintza-proiektuak abian jartzeko garaian, gure auzo, herri eta hirietako bizikidetzak hobetzeko xedearekin.

Hauek dira antolatutako taldeen ezaugarriak, Gasteizen eginikoetatik hasita:

- 1T taldea: magrebtar jatorriko emakumeak, seme-alabekin eta gabe, bikotekidearekin eta gabe, lanarekin eta gabe, lan ezberdinekin, zenbait adinetakoak, etab.
- 2T taldea: Saharaz hegoaldeko jatorriko emakumeak, seme-alabekin eta gabe, bikotekidearekin eta gabe, lanarekin eta gabe, lan ezberdinekin, zenbait adinetakoak, etab.
- 3T taldea: latinoamerikar jatorriko emakumeak, seme-alabekin eta gabe, bikotekidearekin eta gabe, lanarekin eta gabe, lan ezberdinekin, zenbait adinetakoak, etab.
- 4T taldea: pakistandar jatorriko gizonak, seme-alabekin eta gabe, bikotekidearekin eta gabe, lanarekin eta gabe, lan ezberdinekin, zenbait adinetakoak, etab.
- 5T taldea: jatorri magrebtarreko gizon gazteak, seme-alabekin eta gabe, bikotekidearekin eta gabe, lanarekin eta gabe, lan ezberdinekin, zenbait adinetakoak, etab.
- 6T taldea: Saharaz hegoaldeko jatorriko gizon gazteak, seme-alabekin eta gabe, bikotekidearekin eta gabe, lanarekin eta gabe, lan ezberdinekin, zenbait adinetakoak, etab.

Kuadrilletan eginiko taldeek osaera hau daukate:

- 7T Aiara taldea: errumaniar jatorriko emakumeak, seme-alabekin eta gabe, bikotekidearekin eta gabe, lanarekin eta gabe, lan ezberdinekin, zenbait adinetakoak, etab.

- 8T Aiara taldea: latinoamerikar jatorriko gizonak, seme-alabekin eta gabe, bikotekidearekin eta gabe, lanarekin eta gabe, lan desberdinekin, zenbait adinetakoak, etab.
- 9T Kanpezu-Arabako Mendialdea taldea: magrebtar jatorriko emakumeak, seme-alabekin eta gabe, bikotekidearekin eta gabe, lanarekin eta gabe, lan desberdinekin, zenbait adinetakoak, etab.
- 10T Kanpezu-Arabako Mendialdea taldea: errumaniar jatorriko gizonak, seme-alabekin eta gabe, bikotekidearekin eta gabe, lanarekin eta gabe, lan desberdinekin, zenbait adinetakoak, etab.
- 11T Guardia-Arabako Errioxa taldea: latinoamerikar jatorriko emakumeak, seme-alabekin eta gabe, bikotekidearekin eta gabe, lanarekin eta gabe, lan desberdinekin, zenbait adinetakoak, etab.
- 12T Guardia-Arabako Errioxa taldea: portugaldar jatorriko gizonak, seme-alabekin eta gabe, bikotekidearekin eta gabe, lanarekin eta gabe, lan desberdinekin, zenbait adinetakoak, etab.
- 13T Añana taldea: portugaldar jatorriko emakumeak, seme-alabekin eta gabe, bikotekidearekin eta gabe, lanarekin eta gabe, lan desberdinekin, zenbait adinetakoak, etab.
- 14T Añana taldea: magrebtar jatorriko gizonak, seme-alabekin eta gabe, bikotekidearekin eta gabe, lanarekin eta gabe, lan desberdinekin, zenbait adinetakoak, etab.
- 15T Gorbeialdea taldea: latinoamerikar jatorriko emakumeak, seme-alabekin eta gabe, bikotekidearekin eta gabe, lanarekin eta gabe, lan desberdinekin, zenbait adinetakoak, etab.
- 16T Gorbeialdea taldea: latinoamerikar jatorriko gizonak, seme-alabekin eta gabe, bikotekidearekin eta gabe, lanarekin eta gabe, lan desberdinekin, zenbait adinetakoak, etab.
- 17T Arabako Lautada taldea: magrebtar jatorriko emakumeak, seme-alabekin eta gabe, bikotekidearekin eta gabe, lanarekin eta gabe, lan desberdinekin, zenbait adinetakoak, etab.
- 18T taldea: elkarrizketa ireki eta sakona, pakistandar jatorriko gizonak. Elkarrizketa ireki eta sakona pertsona erreferente batekin Arabako Lautadako udalerrietako batean.

Gainera, dinamika horien bidez erantzuna eman nahi izan diegu, halaber, atzerri-tar jatorriko pertsonen oztopoak eta beharrak hautematearekin zerikusi handia goa duten ikerketa-helburuei, arreta berezia jarritz emakumeen errealtateari, baita lehentasunezko lan-lerroei eta egin beharreko ekintza zehatzei ere.

Eztabaida-taldeak antolatzeke, lehenik eta behin, Arabako Foru Aldundiko teknikarien eta dinamika hartu dituzten herrietako udalen laguntza jaso dugu. Hala ere, beste askok ere aktiboki hartu dute parte, batzuk maila indibidualean, eta beste batzuk erakundeen bitartez, taldeen profilak osatzeko lana erraztuz. Horien artean, hauen laguntza eta lankidetzaz azpimarratu nahi ditugu:

- Gasteizko CARITAS
- Euskadiko CEAR
- Arabako Kuadrilletako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
- ADRA Fundazioa (Gasteiz)
- Egoiliar Afroamerikarren Elkarte (AFRO)
- Aniztasunaren aldeko emakumeen elkarte
- Al Indimay elkarte
- Gasteizko Elkarte Musulmanen Plataforma
- AFRICA-EUSKADI Kultur Elkarte
- Senegaleko Immigranteen Elkarte (MBOOLO-ELKAR)
- COLOMBIA-EUSKADI elkarte
- Berri-ÑANN elkarte


Pertsona horiei guztiei, banakakoei, erakundeei eta udaletako teknikariei, eskerrak eman nahi dizkiegu, bihotzez, eskuzabalki parte-hartzeagatik eta laguntzeagatik azterketa honetan.


Eztabaida-taldeak Gasteizko eta Kuadrilletako udalek utzitako lokaletan bildu ziren, 2018ko urriaren 1etik 30era bitartean. Ikuspegiko teknikariek eta Ikuspegiko teknikari laguntzaileek dinamizatu zituzten; azken horiek hainbat jatorritakoak dira, kasu bakoitzerako egokia zenaren arabera: Yasir Syed Addel, teknikari pakistandarra; Salah Eddine Hommadi, teknikari magrebtarra; Koudjo Mawuli Klevo, teknikari afrikarra; Hajar Samadi, magrebtar jatorriko gizarte-langile eta teknikaria; Wahiba Nafiai, teknikari magrebtarra; Kawtar Yakoubi Rhouneyech, teknikari magrebtarra; Alexandra Palie, teknikari errumaniarra.

Dinamikek, gutxi gorabehera, bi orduko iraupena izan zuten eta euskarri digitalen grabatu ziren (bilerak hainbat hizkuntzatan egin ziren: gaztelania, errumaniarra, arabiarra, frantsesa) eta teknikariek hitzez hitz jaso zituzten, Mikel Mintegi kazetari eta informazioaren tratamenduaren arloko teknikariaren laguntzarekin.

1

ERROLDAKO DATUAK





Sarrera

1

Biztanleriaren eboluzioa Espainiako estatuan

1. TAULA: BIZTANLERIAREN EBOLUZIOA ESPAINIAKO ESTATUAN (1998 – 2017)

Urtea	Guztira	Jatorria Espainian	Jatorria atzerrian	Aldea
1998	39.852.651	38.678.884	1.173.767	
1999	40.202.160	38.943.106	1.259.054	85.287
2000	40.499.791	39.027.333	1.472.458	213.404
2001	41.116.842	39.147.573	1.969.269	496.811
2002	41.837.894	39.243.842	2.594.052	624.783
2003	42.717.064	39.414.624	3.302.440	708.388
2004	43.197.684	39.503.878	3.693.806	391.366
2005	44.108.530	39.717.046	4.391.484	697.678
2006	44.708.964	39.871.342	4.837.622	446.138
2007	45.200.737	39.950.744	5.249.993	412.371
2008	46.157.822	40.113.294	6.044.528	794.535
2009	46.745.807	40.279.529	6.466.278	421.750
2010	47.021.031	40.416.850	6.604.181	137.903
2011	47.190.493	40.512.654	6.677.839	73.658
2012	47.265.321	40.505.541	6.759.780	81.941
2013	47.129.783	40.489.247	6.640.536	-119.244
2014	46.771.341	40.487.629	6.283.712	-356.824
2015	46.624.382	40.461.450	6.162.932	-120.780
2016	46.557.008	40.433.239	6.123.769	-39.163
2017	46.572.132	40.391.790	6.180.342	56.573

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN)


Aurreko taulak honako hauek jasotzen ditu: Espainiako lurraldean jaiotako biztanleen kopuruak (hirugarren zutabea), atzerriko herrialde batean jaiotakoena (laugarren zutabea) eta atzerrian jaiotako pertsona-kopuruaren urte arteko aldea (bosgarren zutabea).

Taulan jasotako datuen arabera, ondo bereizitako hiru joera ikus ditzakegu: lehenena krisiaren aurreko urteei dagokie, hau da, 1998tik 2008ra bitartean, eta goranzko joera izan zuen atzerriar jatorria eta/edo nazionalitatea zuten biztanle-kopuruan. Aldi horrek “zerra-hortzak” erakusten ditu askotariko gorabeheren ondorioz, esaterako: 2005eko erregularizazioa eta kolektibo garrantzitsuen nazionalizazioak, batik bat Latinoamerikako kolektiboenak; eta atzerriko populazioa pixkanaka-pixkanaka ugaritzeko joera agertzen du, non urtez urte gero eta sarrera handiago baitago; 2008an, puntu gorenera iritsi zen, zifra absolutuetan izandako urte arteko hazkunde handiena geratu baitzen. Urte hartan, atzerriar jatorriko biztanle-kopuruak gora egin zuen nabarmen, Europar Batasuna handitu egin zelako. Izan ere, Bulgaria, Kroazia eta ErErrumania sartu eta gero, 28 herrialdeko EB bihurtu zen.

Hortik aurrera, bigarren etapa bat hasi zen (2009-2012). Etapa horretan, atzerri-tar jatorriko pertsona-kopurua motelago hazi zen, eta, 2013tik aurrera, murriztu egin zen kopurua urte arteko zifra absolututan. Honako hauek izan ziren atzerrian jaiotako biztanleen beherakada horren arrazoiak: beste herrialde batzuetatik etorritako pertsona-kopurua murriztea (aldi horretan etortzen jarraitu zuten arren), pertsona asko jatorriko herrialdera itzultzea edo egoera ekonomiko hobean dauden beste herrialde batzuetara joatea. Prozesu horrekin batera, atzerriko nazionalitatea duten eta Espainiako estatuan bizi diren pertsonen kopurua murriztu egin da, gero eta pertsona gehiagok lortzen dutelako espainiar nazionalitatea.

2016az geroztik, adierazle makroekonomikoei dagokienez behintzat susperraldi ekonomikoa etorri zenean, atzerriar jatorriko pertsona-kopurua handitu egin zen berriro, eta buelta eman zion azken urteetako joera negatiboari. Horrek guztiak aldatu egin du Espainia askotarikoaren eta jatorri eta kultura desberdineko pertsonen osatutako Espainiaren argazkia.

1. GRAFIKOA: ESPAINIAKO ETA ATZERRIKO POPULAZIOAREN BANAKETA ESPAINIAKO ESTATUAN



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN)


Grafikoak modu ikusgarriagoan erakusten digu Estatuko biztanleriaren eraketaren eboluzioa, Espainiako eta atzerriar jatorriko biztanle-terminotan. Horrela, ikusten dugu 1998an atzerriar jatorriko biztanleak oso gutxi zirela, % 2,9 besterik ez, baina, urteek aurrera egin ahala, pisu erlatiboa handituz joan da gaur egungo % 13,3ra iritsi arte.

Prozesuan zehar, 2009tik 2012ra bitartean aurkitu zuten ordezkartzarik handiena, eta % 13tik gorako ehunekoetara ailegatu.

Atzerritar jatorriko biztanleria: eboluzioa sexuaren arabera

Atzerritar jatorriko biztanleriaren presentzia desberdina izan da analisiaren mailari erreparatuta. Espainiar estatuari dagokionez, ikus dezakegu hamabost urtetan atzerritar jatorriko biztanleria bikoiztu eta ia hirukoiztu egin dela, 2001eko % 5,69tik 13,2ra pasatu baita 2017an.

2. GRAFIKOA: ESPAINIAR ESTATUAN DUDEN ATZERRITAR JATORRIKO GIZON ETA EMAKUMEEN EHUNEKOA



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN)

Biztanleriaren sexuaren arabeko banaketaren analisiari erreparatuta, ikusiko dugu hasiera batean alde handirik ez dagoela 2002tik aurrerako kasuetara iritsi arte. Hortik aurrera, sexuaren arabeko banaketek alde handirik erakusten ez duten arren, aurreko urteetan baino oreka txikiagoa dute.

Desberdintasun handienak 2005etik 2008ra bitarteko urteetan daude. Urte horietan izan zen atzerritar jatorriko biztanleen maskulinizazio handiena, 2006ko % 52,36 izan baita historiako ehuneko handiena.

2015etik gaur egunera bitartean, dezente leundu dira sexuaren arabeko desberdintasunak eta ia oreka perfektuko egoera iritsi da (gaur egun, atzerritar jatorriko gizonezkoak % 51,40 dira, eta emakumeak, % 48,60).

Eboluzio demografikoa Autonomia Erkidegoen ara

2. TAULA: ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN JATORRIKO EREMU NAGUSIAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA

ATZERRITARRAK GUZTIRA	Guztira	Europako herrialdeak	EB	Ez EB	Afrika	Amerika	Erdialdeko Amerika eta Karibe	Ipar Amerika	Hego Amerika	Asia	Ozeania
ANDALUZIA	12,3	42,6	85,5	14,5	25,4	26,6	13,5	6,2	80,3	5,3	0,1
ARAGOI	2,6	37,9	91,8	8,2	22,4	34,4	29,3	3,0	67,6	5,2	0,1
ASTURIAS	1,2	33,8	84,2	15,8	9,2	53,1	24,0	6,7	69,3	3,6	0,3
BALEARRAK	3,9	37,4	90,3	9,7	15,0	41,4	11,9	3,0	85,1	5,9	0,2
KANARIAK	6,2	37,9	91,6	8,4	9,5	46,9	24,7	1,7	73,6	5,7	0,1
KANTABRIA	0,8	32,5	69,7	30,3	8,7	54,1	18,4	7,2	74,4	4,3	0,3
G. LEON	2,8	42,1	90,6	9,4	14,5	39,1	25,5	4,4	70,1	4,2	0,1
G.MANTXA	3,1	40,9	91,3	8,7	19,7	35,1	16,3	2,8	80,9	4,2	0,1
KATALUNIA	21,6	25,0	75,4	24,6	21,8	41,3	19,2	4,3	76,5	11,8	0,1
VALENTZIA	12,8	48,0	83,0	17,0	15,7	30,0	11,5	3,4	85,0	6,3	0,1
EXTREMADURA	0,7	41,4	92,6	7,4	21,7	31,2	22,5	5,6	72,0	5,7	0,1
GALIZIA	3,5	35,7	75,1	24,9	7,4	54,0	16,1	6,0	77,8	2,7	0,2
MADRIL	19,1	25,7	85,3	14,7	10,6	55,1	19,0	4,6	76,4	8,4	0,1
MURTZIA	3,5	27,2	82,2	17,8	35,4	34,3	8,8	1,7	89,5	3,1	0,0
NAFARROA	1,4	26,9	83,1	16,9	20,9	48,8	15,1	3,5	81,3	3,2	0,1
EUSKADI	3,2	22,6	82,7	17,3	21,7	48,6	23,5	4,0	72,6	7,0	0,2
Araba	18,1	18,3	75,0	25,0	32,0	42,4	15,5	2,7	81,8	7,3	0,1
Bizkaia	48,7	21,4	86,4	13,6	19,5	52,1	16,6	4,0	79,4	6,7	0,2
Gipuzkoa	33,2	26,6	81,2	18,8	19,2	46,9	38,6	4,6	56,8	7,2	0,2
ERRIOXA	0,7	37,1	84,7	15,3	20,9	34,1	10,4	2,8	86,8	7,8	0,1
CEUTA	0,2	5,2	92,7	7,3	87,9	4,3	9,3	6,8	83,9	2,6	0,0
MELILLA	0,3	4,5	86,6	13,4	92,0	2,9	15,9	7,7	76,4	0,7	0,0
Guztira	100,0	33,5	84,0	16,0	18,1	41,1	18,1	4,2	77,7	7,2	0,1

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN)


Oro har, ikusten dugu atzerriko nazionalitatea duten eta Espainian bizi diren biztanle gehienak Latinoamerikako herrialde batetik (% 41,1) edo Europako herrialde batetik (% 33,5) etorritakoak direla.

Azpimarratzekoa da Afrikatik etorritako pertsonen presentzia batik bat landa-esparruarekin edo nekazaritza-sektorearekin zerikusi duen ekonomia-jarduera garantzitsua den eskualdeetan (Murtzia, Andaluzia, Aragoi edo Gaztela-Mantxa, besteak beste) dagoela, baita Afrikako herrialdeetatik hurbilen dauden eskualdeetan (Ceuta eta Melilla hiri autonomoak) ere.

Hurrengo grafikoan ikusiko dugu autonomia-erkidegoei erreparatuta Euskadi ere goranzko joera nabarmena izan duela atzerriar jatorriko biztanle-kopurua handitzeaz dagokionez. Hala, 2001ean, EAEn bizi ziren biztanleen % 2,1 ziren, eta, 2018an, berriz, euskal biztanle guztien % 10 inguru, hain zuzen ere % 9,39.

Lurraldeei erreparatuta, Arabak gehikuntza garrantzitsua izan du atzerritar jatorriko biztanleen artean, aztertutako aldi horretan. 2001ean, EAE osoko biztanleen % 2,7 ziren; 2008an, % 8,5era iritsi ziren, eta 2018an, % 11,3ra, EAEko kopuru erlatibo handienara.

3. GRAFIKOA: ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN EBOLUZIOA




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN)

Hiru kasuetan aztertutako errealitate guztiek goranzko joera nabarmena adierazten badute ere, nolabaiteko 'motelaldia' ere nabaritzen da 2012. eta 2014. urteen artean, batez ere autonomia- eta toki-esparruan. Oro har, 2008 eta 2012 artean, krisi ekonomikoaren urteak izan arren, atzerritar jatorriko biztanleria-tasa pixka bat handitu zen, baina krisiaren aurretik baino askoz erritmo apalagoan. 2012., 2013. eta 2014. urteetan, motelaldi nabarmena gertatu zen atzerritar jatorriko biztanleen goranzko joeran. 2015etik aurrera, adierazle makroekonomikoen hobekuntza nabaritu zenean (BPGd-ren igoera, langabeziaren murrizketa, Espainiako estatuaren defizitaren murrizketa, euskal foru-aldundien zerga-bilketaren hobekuntza, etab.), berriro, hazkundea gertatu zen atzerritar jatorriko pertsona-kopuruan, bai Espainian, bai EAEn eta bai Araban.

Atzerritik EAera etorritako pertsonen azken etorrerek adierazten digute krisi ondoko beste aldi batean gaudela; izan ere, atzerritar jatorriko biztanleen urte arteko gehikuntza garrantzitsuak ari dira izaten. Hala, 2018an, kopuru hori 14.888 pertsonatan handitu zen (4. grafikoa), 2017an (9.941 pertsona), 2016an (7.993 pertsona), 2015ean (4.399 pertsona) edo 2014an (2.480 pertsona) izandako kopurua baino askoz handiagoa. Halaber, grafiko berean ikus dezakegu nola ari den murrizten bertako pertsonen kopurua (ardatz azpiko kopuruak).

4. GRAFIKOA: ATZERRIKO ETA BERTAKO JATORRIKO BIZTANLEEN URTE ARTEKO HAZKUNDEA



Iturria: Lanketa propioa, Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) datuetan oinarrituta.

Euskal gizartearen egungo egoera osatzen duten adierazle guztiek adierazten digute hurrengo urteetan gure lurraldean bizi diren atzerritar jatorriko biztanle-kopuruak oraingoan baino erritmo handixeagoan hazten jarraituko duela, baldin eta epe laburrean itxaropen ekonomiko onek jarraitzen badute.

Horrek guztiak hausnarrarazi behar gaitu eta pentsatzerazi behar digu bizitzen ari garen immigrazio-prozesuak egiturazko prozesuak direla eta ez koiunturalak. Euskal gizartea mende hasieran baino askoz askorarikoa da orain, baina are eta askotarikoagoa izango da hurrengo hamarkadetan, eta horrek erronka bikoitza planteatzen du: pertsona horiei harrera egitea eta gizarte-aniztasun gero eta handiagoa kultura arteko integrazio eta inklusio gisa kudeatzea.

Eboluzio demografikoa Araban

Geografiari dagokionez, Araba Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru lurralde historikoetako bat da, Bizkaiarekin eta Gipuzkoarekin batera. Demografiaren ikuspegitik, Arabako lurraldeak Euskadin bizi diren biztanleen % 15,0 dira 2019an. Bizkaiak eta Gipuzkoak, bestalde, % 52,2 eta % 32,8 hartzen dute, hurrenez hurren.

Atzerritar jatorriko biztanleriari erreparatuz, eredu orokor hori bere horretan mantentzen da. 2019an, Arabak du horren ehuneko txikiena, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanle guztien % 18,0 baitu. Ondoren, Gipuzkoa dator % 33,1ekin eta Bizkaia % 48,9ekin. Hala ere, ikusi dugu Arabako lurraldearen pisu erlatiboak atzerritar jatorriko biztanleen ordezkartza handixeagoa baduela. Zorizko banaketa batean dagokion kopurua baino atzerritar jatorriko biztanleen hiru puntu gehiago ditu.

Arabako barne-banaketa

Arabako lurraldearen berezitasuna bere banaketa administratiboan datza. Ildo horretan, lurralde-banaketa horri erreparatuta, ikus dezakegu biztanleria 'Eskualde' izeneko zazpi zatitan antolatuta dagoela. Zati horiek espazioko kokapenaren edo partekatzen dituzten mankomunitate-premien arabera mankomunitatetan antolatutako udal-konglomeratuei dagozkie¹. Horrela, Arabako probintziaren azalera honako eskualde hauetan (dagozkien udalerriekin) zatituta dago.

- **Añanako Eskualdea:** Erriberabeitia, Erriberagoitia, Zanbrana, Añana, Kuartango, Berantevilla, Iruña Oka, Lantarón, Gaubea, Gesaltza Añana eta Armiñón.
- **Aiarako Eskualdea:** Laudio, Amurrio, Aiaraldea, Artziniega eta Okondo.
- **Kanpezu-Arabako Mendialdea Eskualdea:** Harana, Bernedo eta Arraia-Maeztu.
- **Guardia-Arabako Errioxako Eskualdea:** Moreda, Navaridas, Leza, Villabuena, Kripan, Elvillar, Mañueta, Bastida, Samaniego, Lapuebla de Labarca, Oion, Eltziego, Lantziego, Ekora eta Guardia-Arabako Errioxa
- **Arabako Lautadako Eskualdea:** Agurain, Barrundia, Asparrena, Iruraiz-Gauna, Burgu, Zalduondo eta Dulantzi
- **Gasteizko Eskualdea**
- **Gorbeialdea Eskualdea:** Aramaio, Legutio, Zigoitia, Gorbeialdea eta Arratzua – Ubarrundia


Autonomia-erkidegoko eremuen arabera gehixeago zehaztuz, 2017an (Eskualde-ka gehituta ditugun azken datuak) Arabak espainiar jatorriko pertsonen gehiengo handia du, lurraldean bizi diren pertsonen % 89,1. Gainera, atzeritar jatorriko biztanleen lurralde hauek dute presentzia handiena: Latinoamerika, biztanle guztien % 4,5 da hangoa da, eta Magreb, Araban bizi diren pertsona guztien % 2,5 etorri da handik.

Espainiar jatorriko pertsonen kategoria neutralizatuz eta beste jatorri bat dutenei soilik erreparatuz, ikusiko dugu Latinoamerikan jatorria duten pertsonen presentzia dela ugariena, hamar pertsonatik lau, gutxi gorabehera, (% 40,9); ondoren, Magreben jatorria dutenak ditugu, Arabako lurraldean bizi diren atzeritar jatorriko bostetik bat gutxi gorabehera (% 22,7), eta alde handi samarrarekin, Saharaz hegialdeko ('Afrikako gainerakoa' kategoria) biztanleak, hain zuzen ere, % 9,6.

Ehuneko txikiagoak dituzte beste eremu batzuek, esaterako, 15eko edo 28ko Europak (% 8,8 eta % 5,2, hurrenez hurren), Txinaz gainerako Asiako herrialdeek (% 5,2) eta Erkidegoz kanpoko Europak (% 4,4). Biztanle txinatarrak % 2,3 dira, eta, modu ia anekdotikoan eta gehienez ere %1eko balioekin, 25eko Europako (% 0,7), Ipar Amerikako (% 0,4) eta Ozeaniako (% 0,1) pertsonak ditugu.

¹ https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=eu&uid=u_3e-8823fa_128950e27ea__7fc3

5. GRAFIKOA: ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEAK EREMU HANDIEN ARABERA



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN)

Latinoamerikako jatorriko biztanleak kontuan hartzearen garrantzia adierazten digute datuek; izan ere, etxe-zerbitzuekin, mendeko pertsonen zaintzarekin eta ostalaritza moduko zerbitzuekin zerikusia duten lan-nitxo garrantzitsuenetan kokatzen dira (batik bat emakumeen kasuan). Horrek bere garrantzia du kontuan hartzen badugu gero eta baliabide-kopuru handiagoa bideratzen dela landa-turismora eta landa-munduekin zerikusia duten jardueretara.

Arabako lurraldean nekazaritza-sektoreak oraindik duen pisu erlatibo handiak azalduko luke Magrebeko eta Saharaz hegoaldeko Afrikako jatorriko pertsonen zergatik duten hain presentzia handia, tradizioz gizonezkoen kolektiboak izan baitira eta nekazaritza-lanetan, mahastizaintzan, aldi baterako lanetan eta landako bilketa-lanetan aritzen baitira.

Eskualde bakoitzean bildutako errealitateari erreparatuz, ikusiko dugu zenbait ildo komun izan arren eskualde bakoitzak kasuistika eta egoera desberdinak dituela, beren ezaugarri berezien ondorioz.




Eremu handiak eskualdeka

2

Añana

6. GRAFIKOA: AÑANAKO BIZTANLEAK EREMU HANDIEN ARABERA (2017)



3. TAULA: EREMU NAGUSIAK AÑANAN (2017)

	15eko Europa	25eko Europa	28ko Europa	Batasunaz kanpoko Europakoa	Magreb	Afrikako gainerakoa	Ipar Amerika	Latinoamerika	Txina	Asiako gainerakoa	Ozeania	Guztira
KONTAKETA	178	9	42	26	189	29	2	240	7	17	0	739
EHUNEKOA	24,1	1,2	5,7	3,5	25,6	3,9	0,3	32,5	0,9	2,3	0	100

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta


Aurreko grafikoan eta taulan ikusten den bezala, Latinoamerika da Eskualde horretan ordezkartza handiena duen jatorria (talde horretako atzerritar jatorriko pertsonen % 32,5); eta, gero, Magreb (% 25,6) eta 15eko Europako herrialdeak² (% 24,1).

Gainerako jatorri-eremuek askoz balio baxuagoak dituzte. ErErrumaniako, Bulgariako edo Kroaziako biztanleak dira gutxiengodunen artean ohikoenak (% 5,7); ondoren, Saharaz hegoaldeko biztanleak (% 3,9) eta Europar Batasunaz kanpoko biztanleak (%3,5). Modu are eta anekdotikoagoan aurkituko ditugu Txina ez den Asiako eremuko biztanleak (% 2,3), 25eko Europako herrialdeetakoak³ (% 1,2), Txinakoak (% 0,9) edo Ipar Amerikakoak (% 0,3).

² 15eko Europa: Portugal, Espainia, Frantzia, Italia, Alemania, Irlanda, Erresuma Batua, Luxenburgo, Austria, Suedia, Finlandia, Norvegia, Grezia, Danimarka eta Herbehereak.

³ 25eko Europa: Txekia, Zipre, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Hungaria, Letonia, Lituania, Malta eta Polonia.

7. GRAFIKOA: JATORRIAREN ARABERAKO EREMU HANDIEN KONPARAZIOA AÑANAN (2008-2017)




Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Denborari erreparatuta, ondoriozta dezakegu 2008 eta 2012 artean pisu erlatibo gehien galdu duen eremua Latinoamerika izan dela (-6,5 punturen aldearekin), baina, 2017ra begira, ia 5 puntu berreskuratu ditu. Hauek izan daitezke hasierako jaitsieraren eta ondorengo hazkunde txikiaren arrazoiak: motelaldi ekonomikoa, kolektibo horren nazionalizazio-prozesuak eta azken urteetako etorreren hazkunde-ziklo berria. 15eko Europako biztanleen presentzia-galeraren kasua ere nabarmentzen da (-12 punturekin) eta, beste aldean, Magrebeko jatorriko biztanleen goranzko joera ikusten da (ia 16 ehuneko punturen hazkundera) eta, neurri apalagoan, Asiako gainerako herrialdeetako pertsonena, 1,6 puntu igo baita.

Aiara

8. GRAFIKOA: AIARAKO BIZTANLEAK EREMU HANDIEN ARABERA (2017)



4. TAULA: EREMU NAGUSIAK AIARAN (2017)

	15eko Europa	25eko Europa	28ko Europa	Batasunaz kanpoko Europakoa	Magreb	Afrikako gainerakoa	Ipar Amerika	Latinoamerika	Txina	Asiako gainerakoa	Ozeania	Guztira
KONTAKETA	174	11	165	52	674	36	8	861	29	53	1	2.064
EHUNEKOA	8,40	0,50	8,00	2,50	32,70	1,70	0,40	41,70	1,40	2,60	0	100

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta


Aiarako eskualdearen kasuan, Latinoamerikakoa da berriro ordezkaritza handieneko eremua, Eskualde horretan bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen % 40 baino gehiago baita (% 41,7, zehazki).

Ondoren, Magrebeko biztanleak daude, Espainia ez den jatorria duten pertsonen heren bat baino gehiago baitira (% 32,7).

Añana eskualdean bezala, bi horiek dira Eskualde horretan ordezkaritza handiena duten eremuak, hurrengo ohikoenek baino askoz handiagoa, hala nola 15eko Europakoek (% 8,4) eta 28ko Europakoek (% 8,0).

Horien ondoren, gainerako eremuek balio ia anekdotikoak dituzte: Asiako gainerakoak (% 2,6), Batasunaz kanpoko Europak (% 2,5), Saharaz hegoaldeko Afrikak (% 1,7), Txinak (% 1,4) edo 25eko Europak (% 0,5).

9. GRAFIKOA: JATORRIAREN ARABERAKO EREMU HANDIEN KONPARAZIOA AIARAN (2008-2017)




Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Eskualde horretan, 15eko Europa izeneko eremuan daude desberdintasun nagusiak (2008an % 15 inguru eta gaur egun % 8,4). Aurkako joeran nabarmendu beharreko kasuen artean, Magrebetik eta Latinoamerikako herrialdeetatik etorritako pertsonak aurkituko ditugu, urte horietan 5,4 eta 1,8 puntu gehitu baitziren, hurrenez hurren.

Kanpezu-Arabako Mendialdea

10. GRAFIKOA: KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEKO BIZTANLEAK EREMU HANDIEN ARABERA (2017)



5. TAULA: KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEKO EREMU NAGUSIAK (2017)


	15eko Europa	25eko Europa	28ko Europa	Batasunaz kanpoko Europakoa	Magreb	Afrikako gainerakoa	Ipar Amerika	Latinoamerika	Txina	Asiako gainerakoa	Ozeania	Guztira
KONTAKETA	23	0	18	4	74	4	0	55	0	2	0	180
EHUNEKOA	12,78	0	10	2,22	41,11	2,22	0	30,56	0	1,11	0	100

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Kanpezu-Arabako Mendialdea Eskualdearen kasuan, atzerritar jatorriko eremu ohikoena Magreb da, hain zuzen ere atzerrian jaio eta eskualde horretan finkatu-tako pertsona guztien % 41,11.

Ondoren, Latinoamerikako herrialdeetatik etorritako pertsonen duten pisu erlatibo garrantzitsua ikusten dugu, hain zuzen ere, atzerritar jatorriko pertsona guztien % 30,6.

11. GRAFIKOA: JATORRIAREN ARABERAKO EREMU HANDIEN KONPARAZIOA KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEAN (2008-2017)




Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Eboluzioaren datuek agerian uzten dute Magrebeko jatorriko biztanleen hazkundea: 2008an, % 22,2 ziren, eta, 2017an, berriz, eskualde horretan bizi diren atzerri-tar jatorriko pertsonen % 41,1 dira. Garrantzitsua da, halaber, Latinoamerikako ja-torriko biztanleen pisu erlatiboaren beherakada nabarmentzea: 2008ko % 42,9tik, 2017ko % 30,5era pasatu da.

Guardia-Arabako Errioxa

12. GRAFIKOA: GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO BIZTANLEAK EREMU HANDIEN ARABERA (2017)



6. TAULA: GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO EREMU NAGUSIAK (2017)

	15eko Europa	25eko Europa	28ko Europa	Batasunaz kanpoko Europakoak	Magreb	Afrikako gainerakoa	Ipar Amerika	Latinoamerika	Txina	Asiako gainerakoa	Ozeania	Guztira
KONTAKETA	271	2	108	37	489	39	10	180	2	95	1	1.234
EHUNEKOA	21,96	0,16	8,75	3,00	39,63	3,16	0,81	14,59	0,16	7,70	0,08	100


Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Guardia-Arabako Errioxako eskualdearen kasuan ikusten dugu han bizi diren atzeritar jatorriko pertsona gehienak (% 39,6) Magrebeko herrialdeetatik etorritakoak direla. Hain zuzen ere, pertsona horien % 39,6 eremu horretatik etorritakoak dira.

Eskualde horretan, pisu handi samarra du 15eko Europako herrialdeetatik etorritako pertsonen kolektiboak ere, hain zuzen ere, atzeritar jatorriko pertsonen % 22,0 da. Berriz ere, handia da Latinoamerikako pertsonen kopurua: % 14,6.

Kasu honetan, gainerako eremuek kopuru erlatibo txikiak dituzte; izan ere, ErE-rrumaniatik, Bulgariatik eta Kroaziatik etorritako pertsonak % 8 inguru dira (% 8,7 28ko Europakoak); Asiako gainerako herrialdeetatik etorritakoak % 7,7 dira eta Batasunekoa ez den Europakoak % 3,0.

13. GRAFIKOA: JATORRIAREN ARABERAKO EREMU HANDIEN KONPARAZIOA GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAN (2008-2017)




Iturria: Lanketa propioa eroldako datuetan oinarrituta

Guardia-Arabako Errioxaren kasuan, 2008 eta 2017 arteko aldiak erakusten du aldaketa handienak 15eko European gertatu direla, ia 10 ehuneko-puntu gutxitu baitu bere pisu erlatiboak; hala ere, 2012az geroztik, indarra hartu du berriz; Latinoamerikak 14,1 punturen murrizketa jasan du, eta 28ko Europak, 5,6 punturen murrizketa. Alderantzizko noranzkoan, Magrebetik etorritako pertsonak nabarmendu behar ditugu. Horien pisu erlatiboak 23 puntu egin du gora aztertutako aldian.

Garrantzitsua da Asiako gainerako lekuetatik etorritako pertsonen kolektiboaren hazkundera ere, hain zuzen ere, 2008ko % 1,3tik 2017ko % 7,7ra.

Arabako Lautada

14. GRAFIKOA: ARABAKO LAUTADAKO BIZTANLEAK EREMU HANDIEN ARABERA (2017)



7. TAULA: ARABAKO LAUTADAKO EREMU NAGUSIAK (2017)


	15eko Europa	25eko Europa	28ko Europa	Batasunaz kanpoko Europakoa	Magreb	Afrikako gainerakoa	Ipar Amerika	Latinoamerika	Txina	Asiako gainerakoa	Ozeania	Guztira
KONTAKETA	134	5	99	32	464	41	6	258	9	98	2	1.148
EHUNEKOA	11,70	0,40	8,60	2,80	40,40	3,60	0,50	22,50	0,80	8,50	0,20	100

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Arabako Lautadako eskualdearen kasuan ikusten dugu atzerritar jatorriko biztanle gehienak Ipar Afrikatik etorritakoak direla. Hala, atzerritar jatorriko biztanleen % 40,4 Magrebetik etorritakoa da.

Beste eskualde batzuetan bezala, ordezkaritza handiena duen hurrengo eremua Latinoamerika da, Magrebeko biztanleen ia erdia baitu (tasa % 22,5era iristen da). Asiako gainerako herrialdeetako biztanleen pisua ere nabarmentzekoa da eskualde horretan. Antzeko kopurua osatzen dute 28ko Europako (ErErrumaniakoak, Bulgariakoak edo Kroaziakoak) jatorriko pertsonen ere: % 8,6. Presentzia txikiagoa dute beste eremu batzuek, esaterako, Saharaz hegoaldeko Afrikak (% 3,6), Batasunaz kanpoko Europak (% 2,8), Txinak (% 0,8), 25eko Europak (% 0,4) eta Ozeaniak (% 0,2).

15. GRAFIKOA: JATORRIAREN ARABERAKO EREMU HANDIEN KONPARAZIOA ARABAKO LAUTADAN (2008-2017)




Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Arabako Lautadaren kasuan, 2008 eta 2017 artean, Magrebeke biztanleek 6,1 ehuneko-punturen gorakada izan zuten, eta, 2017an, % 40,4ra iritsi ziren. Garrantzitsua da, halaber, Asiako gainerako herrialdeetatik etorritako komunitateak jasan duen hazkunde erlatiboa ere, 2008ko % 1,1etik 2017ko % 8,5era pasatu baita.

Bestalde, beren presentzia erlatiboa murriztu duten beste jatorri batzuk ere badaude, esaterako, 15eko Europa (5 ehuneko-puntu galdu ditu) edo Latinoamerika (7,7 ehuneko-puntu galdu ditu).

Gorbeialdea

16. GRAFIKOA: GORBEIALDEKO BIZTANLEAK EREMU HANDIEN ARABERA (2017)



8. TAULA: EREMU NAGUSIAK GORBEIALDEAN (2017)

	15eko Europa	25eko Europa	28ko Europa	Batasunaz kanpoko Europakoak	Magreb	Afrikako gainerakoa	Ipar Amerika	Latinoamerika	Txina	Asiako gainerakoa	Ozeania	Guztira
KONTAKETA	121	10	49	26	137	17	5	201	14	9	3	592
EHUNEKOA	20,40	1,70	8,30	4,40	23,10	2,90	0,80	34,00	2,40	1,50	0,50	100

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta


Gorbeialdeko eskualdearen kasuan ikusten dugu Latinoamerikako jatorriko biztanleak direla nagusi, hain zuzen ere, atzerritar jatorriko biztanle guztien % 34,0.

Ondoren, Magrebeko biztanleak daude, eskualde horretan bizi diren atzerritar jatorriko pertsona guztien % 23,1 baitira, eta haiengandik oso hurbil, 15eko Europako herrialdeetatik etorritakoak, % 20,4 baitira.

Jatorri horien ondoren, Europar Batasuna 25 herrialdetik 28ra zabaltzeagatik sartutako herrialdeetatik etorritako pertsonak daude (ErErrumania, Bulgaria eta Kroazia); horiek % 8,3 dira eta hurrengo ehuneko handiena duen jatorri-eremuaren bikoitza (% 4,4) dira: Batasunaz kanpoko Europakoak.

Gainerako eremuek ozta-ozta gainditzen dute pisu erlatiboaren % 3. Kopuru horren azpitik daude Saharaz hegoaldeko Afrika (% 2,9), Txina (% 2,4), 25eko Europa (% 1,7), Asiako gainerako herrialdeak (% 1,5) edo Ipar Amerika (% 0,8).

17. GRAFIKOA: JATORRIAREN ARABERAKO EREMU HANDIEN KONPARAZIOA GORBEIALDEAN (2008-2017)




Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Gorbeialdean 2008-2017 etapan biztanle gehien galdu dituen eremua 15eko Europa da, 9 ehuneko-puntu galdu baititu 2008aren aldean. 28ko Europak ere pisu erlatiboa galdu du: 5,8 puntu. Bestaldeko muturrean daude Magrebeko biztanleak, pisu erlatiboan 5,7 puntuan egin baitute gora, eta Latinoamerikak, 4,1 puntu.

Vitoria-Gasteiz

18. GRAFIKOA: GASTEIZKO BIZTANLEAK EREMU HANDIEN ARABERA (2017)



9. TAULA: EREMU NAGUSIAK GASTEIZEN (2017)

	15eko Europa	25eko Europa	28ko Europa	Batasunaz kanpoko Europakoa	Magreb	Afrikako gainerakoa	Ipar Amerika	Latinoamerika	Txina	Asiako gainerakoa	Ozeania	Guztira
KONTAKETA	2.230	218	1.293	1.390	6.041	3.238	124	12.743	759	1.559	28	29.623
EHUNEKOA	20,40	1,70	8,30	4,40	23,10	2,90	0,80	34,00	2,40	1,50	0,50	100

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta


Azkenik, Gasteizko eskualdean, Latinoamerikako biztanleak dira nagusi, hain zuzen ere atzeritar jatorriko pertsona guztien % 43,0.

Ondoren, tarte handi samarrarekin bada ere, Magrebeko biztanleak daude, % 20,4 baitira. Probintziako hiriburuak nekazaritza-sektorean oinarritutako ekonomia ez izatea izan liteke horren arrazoia, beste eskualde batzuk osatzen dituzten udalerri batzuen kasuan ez bezala. Pertsonen eta etxeen zaintzarekin, eta zerbitzuekin zerikusia duten lan-nitxoek askoz pisu handiagoa dute Gasteizen gainerako eskualdeetan baino, eta horrek Latinoamerikako pertsona gehiago egoteko aukera ematen du.

Saharaz hegoaldeko biztanleak dira bigarren ugariak, hain zuzen ere atzeritar jatorriko pertsonen % 10,9, 15eko Europako herrialdeetatik etorritako pertsonen kategoriako % 7,5eko baliotik hurbil.

Distantzia handi samarrean aurkituko ditugu Asiako gainerako herrialdeetatik etorritako biztanleak (% 5,3), Batasunaz kanpoko Europatik etorritakoak (% 4,7), 28ko Europatik etorritakoak (ErErrumaniakoak, Bulgariakoak edo Kroaziakoak, % 4,4) eta txinatarrak (% 2,6); oso ehuneko txikia dira 25eko Europatik etorritakoak (% 0,7) eta Ipar Amerikatik etorritakoak (% 0,4) eta are gutxiago dira Ozeanatik etorritako pertsonen osatutako taldekoak (% 0,1).

19. GRAFIKOA: JATORRIAREN ARABERAKO EREMU HANDIEN KONPARAZIOA GASTEIZEN (2008-2017)



Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Gasteizko eskualdearen 2008-2017 aldiko joerari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu 15eko Europak galdu duela dugu puntu gehien (6,1 ehuneko-puntu), eta ondoren, Latinoamerikak (2 puntu).

Bestaldeko muturrean aurkituko ditugu Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako pertsonen kasuak, pisu erlatiboaren 5,5 ehuneko-punturen igoera baitute, Magrebetik etorritako pertsonenak, urte horietan 2,6 puntuan egin baitzuten gora, eta Asiako gainerako herrialdeetatik etorritako pertsonenak, 2,1 puntuan egin baitute gora.



Atzeritar jatorriko biztanleen banaketa

3

Autonomia-erkidegoaren egoera

Arabian, 2017an, 326.574 pertsona zeuden erroldatuta, sexuaren arabera ia banaketa berdinarekin (% 49,4 gizonezkoak eta % 50,6 emakumeak). Eskualde bakoitzeko pertsonen banaketari erreparatuta, nola bereizten diren ikusiko dugu:

10. TAULA: BIZTANLE GUZTIEN EHUNEKOA (ESPAINIAR ETA ATZERRITAR JATORRIKOAK) ESKUALDEAREN ARABERA

ESKUALDEA	PISU ERLATIBOA	K
Añana	2,7	8.863
Aiara	10,5	34.377
Kanpezu-Arabako Mendialdea	0,9	2.939
Guardia-Arabako Errioxa	3,4	11.223
Arabako Lautada	3,8	12.512
Gorbeialdea	2,9	9.684
Gasteiz	75,6	246.976
Guztira	100	326.574

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Aurreko taulan ikusten den bezala, biztanle gehienak Gasteizko eskualdean bizi dira, hau da, lurraldearen hiriburuaren eskualdean; izan ere, Arabako biztanle guztien hiru laurden hartzen ditu. Gainerako eskualdeek oso biztanle-ehuneko txikia dute haren aldean. Aiaraldeak du bigarren biztanle-kopuru handiena, biztanle guztien % 11 baino gutxiagorekin. Gainera, gainerako eskualdeek (Añana, Kanpezu-Arabako Mendialdea, Guardia-Arabako Errioxa, Arabako Lautada eta Gorbeialdea) Lurralde Historikoko biztanle guztien % 13,8 inguru hartzen dute. Horrek adierazten digu biztanle gehienak Arabako hiriburuan daudela.

11. TAULA: ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN EHUNEKOA ESKUALDEAREN ARABERA ARABAKO BIZTANLE GUZTIEKIKO

ESKUALDEA	PISU ERLATIBOA	K
Añana	2,1	739
Aiara	5,8	2.064
Kanpezu-Arabako Mendialdea	0,5	180
Guardia-Arabako Errioxa	3,5	1.234
Arabako Lautada	3,2	1.148
Gorbeialdea	1,7	592
Gasteiz	83,3	29.623
Guztira	100	35.580

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Egoera hori atzerritar jatorriko biztanleen egoerarekin alderatzen badugu, ikusiko dugu eredua errepikatu egiten dela, Gasteiz baita atzerritar jatorriko biztanle gehien biltzen duen eskualdea: Espainiako lurraldetik kanpo jaio eta Lurralde Historiko honetan bizi diren hamar pertsonatik zortzi, gutxi gorabehera, hiriburuan bizi dira. Gainerako ehunekoei erreparatuta, ikusiko dugu eredu bera dugula. Izan ere, Aiaraldeak du bigarren pisu erlatiborik handiena, atzerritar jatorriko biztanleen % 5,8 baitu. Gainerako eskualdeen pisu erlatiboa % 9,3 da.

Errealitatearen analisisa eskualdeka


12. TAULA: ARABAKO BIZTANLE GUZTIEN EBOLUZIOA ESKUALDEAREN ARABERA 2008-2017 ALDIAN (KOP. ETA %)

	2008		2012		2017	
	K	%	K	%	K	%
Añana	8.283	2,7	9.574	3	8.863	2,71
Aiara	33.853	10,9	34.548	10,7	34.377	10,53
Kanpezu-Arabako Mendialdea	3.175	1	3.181	1	2.939	0,9
Guardia-Arabako Errioxa	11.283	3,6	11.429	3,5	11.223	3,4
Arabako Lautada	11.442	3,7	11.808	3,7	12.512	3,83
Gorbeialdea	9.122	2,9	9.794	3	9.684	2,97
Gasteiz	232.477	75,1	242.223	75,1	246.976	75,63
Guztira	309.635	100	322.557	100	326.574	100

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

2008ko eta 2012ko analisiak berretsi egiten du denborak aurrera egin ahala joerak, oro har, beren horretan mantentzen direla, biztanleen gehikuntza txiki batekin (17.000 pertsona gehiago 9 urtean) eta pilaketa handiagoarekin hiriburuan.


20. GRAFIKOA: ARABAKO BIZTANLE GUZTIEN EBOLUZIOA ESKUALDEAREN ARABERA 2008-2017 ALDIAN (%)



Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Beraz, biztanleen banaketak (jatorri nazionalekoak nahiz atzerrikotik etorritakoak) eredu komuna erakusten du, eta, eredu horren arabera, Gasteizek hartzen du biztanle-kopuru handiena bi kasuetan.

21. GRAFIKOA: JATORRI NAZIONALEKO ETA ATZERRIKO BIZTANLEEN PISU ERLATIBOAREN



Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

13. TAULA: ATZERITAR JATORRIKO BIZTANLEEN EBOLUZIOA ESKUALDEKA 2008-2017 ALDIAN

	2008		2012		2017	
	K	%	K	%	K	%
Añana	516	2	762	2,2	739	2,1
Aiara	1.377	5,2	2.044	5,8	2.064	5,8
Kanpezu-Arabako Mendialdea	189	0,7	234	0,7	180	0,5
Guardia-Arabako Errioxa	928	3,5	1.163	3,3	1.234	3,5
Arabako Lautada	736	2,8	1.094	3,1	1.148	3,2
Gorbeialdea	511	1,9	686	2	592	1,7
Gasteiz	22.054	83,8	29.178	83	29.623	83,3
Guztira	26.311	100	35.161	100	35.580	100

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Egia da eredu komun hori dagoela, bai; halaber, egia da atzeritar jatorriko biztanleriak hiriburuan duen pisu erlatibo handiagoa nabarmenagoa dela hiri horretan pilatzen direlako baliabideak (lan-arlokoak, sozialak edo ekonomikoak), baita elkar ezagutzen duten pertsonen artean 'sareak' ezartzeko aukera handiagoa ere.

Gainera, biztanleen eboluzioaren analisiak adierazten digu ezen, krisiaren aurreko urtetik (2008), atzeritar jatorriko biztanleen Arabako lurraldeko leku-banaketan, aldaketa handirik ez dela egon, motelaldi ekonomikoaren aldiarekin zerikusia duen urtea (2012) ere aintzat hartuta. Aldaketa txiki batzuk soilik nabaritu ditugu, esaterako, Aiaraldeak 0,6 puntu eta Arabako Lautadak 0,4 puntu igo dituztela, eta Gasteizek, 0,5 puntu galdu.


Atzerritar jatorriko biztanleriak eskualde bakoitzeko biztanle guztien gainean duen pisu espezifikoaren analisi xehatuan sartuta, ikusiko dugu argi eta garbi bereizitako bi profil daudela: batetik, atzerritar jatorriko biztanleen presentzia erlatibo handiagoko eskualdeak, eskualde bakoitzaren biztanle guztien % 10 ingurukoak, esaterako, Gasteiz (% 12,0), Guardia-Arabako Errioxa (% 11,0), Arabako Lautada (% 9,2) edo Añana (% 8,3); eta bestetik, atzerritar jatorriko biztanleen presentzia erlatibo txikiagoa duten eskualdeak, % 6 inguru dutenak: Kanpezu-Arabako Mendialdea (% 6,1), Gorbeialdea (% 6,1) edo Aiara (% 6,0).

14. TAULA: ATZERRITAR JATORRIKO ETA ESPAINIAKO JATORRIKO BIZTANLEEN KONPARAZIOA ESKUALDE BAKOITZEKO BIZTANLE GUZTIEKIKO

CUADRILLA	ESPAINIA	ATZERRIA
Gasteiz	88	12
Guardia-Arabako Errioxa	89	11
Arabako Lautada	90,8	9,2
Añana	91,7	8,3
Kanpezu-Arabako Mendialdea	93,9	6,1
Gorbeialdea	93,9	6,1
Aiara	94	6

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

22. GRAFIKOA: ESPAINIAKO ETA ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN KONPARAZIOA ESKUALDE GUZTIAREKIKO



Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

15. TAULA: ESPAINIAKO ETA ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN EBOLUZIOA ESKUALDE GUZTIAREKIKO 2008-2017 ALDIAN

	2008		2012		2017	
	% Estatuko jat.	% Atzerritar jat.	% Estatuko jat.	% Atzerritar jat.	% Estatuko jat.	% Atzerritar jat.
Añana	90,5	9,5	92	8	91,7	8,3
Aiara	91,8	8,2	94,1	5,9	94	6
Kanpezu-Arabako Mendialdea	93,6	6,4	92,6	7,4	93,9	6,1
Guardia-Arabako Errioxa	93,8	6,2	89,8	10,2	89	11
Arabako Lautada	94,1	6	90,7	9,3	90,8	9,2
Gorbeialdea	94,4	5,6	93	7	93,9	6,1
Gasteiz	95,9	4,1	88	12	88	12
Guztira	91,5	8,5	89,1	10,9	89,1	10,9

Iturria: Lanketa propioa eroldako datuetan oinarrituta

2008tik aurrera, nabaritu dugu atzerritar jatorriko biztanleek Araban duten pisu erlatiboak 2,4 ehuneko-puntu egin duela gora, baina 2012az geroztik ez da ia alderik nabaritu. Egia esan, serieak erakusten ez badigu ere, 2012 eta 2016 artean murriztu egin zen atzerritar jatorriko biztanleek Arabako lurraldean duten pisu erlatiboa eta 2017tik aurrera gorakada txiki bat gertatu zen.

Eskualdeka, batetik, Aiara, Añana eta Kanpezu-Arabako Mendialdea nabarmentzen dira, aztertutako aldiari atzerritar jatorriko biztanleek pisu erlatiboa galdu dutelako. Hain zuzen ere, 2,2 puntu, 1,2 puntu eta 0,3 puntu galdu dituzte, hurrenez hurren. Alderantzizko joera dute gainerako eskualdeek, atzerritar jatorriko biztanleen presentzia erlatiboa handitu egin baitute: Gasteizek ia 8 ehuneko-puntu, Guardia-Arabako Errioxak 4,8 puntu, Arabako Lautadak 3,2 puntu eta Gorbeialdeak 0,5 ehuneko-puntu.

Atzerritar jatorriko biztanleen analisia

Lehen, eremu geografiko handien arabera aztertu dugu atzerritar jatorriko biztanleriaren errealitatea. Latinoamerikako jatorria nabarmendu dugu, gure lurraldean bizi diren etorkinen artean ohikoen delako. Azterketa sakonagoa egiten badugu, ikus dezakegu Araban bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen artean zer nazionalitate diren ohikoenak.

16. TAULA: ATZERRITAR JATORRIKO ARABAKO BIZTANLEEN JATORRI NAGUSIAK (2017)

Araba		
JATORRIA	K	%
Maroko	5.546	15,6
Kolonbia	4.337	12,2
Aljeria	2.136	6
Rumanía	1.496	4,2
Pakistan	1.461	4,1

Araba		
JATORRIA	K	%
Ekuador	1.435	4
Portugal	1.386	3,9
Nigeria	1.321	3,7
Brasil	1.293	3,6
Paraguai	1.189	3,3

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Hala, Maroko nabarmentzen da atzeritar jatorriko Arabako biztanle gehienen jatorriko herrialde gisa: % 15,6 herrialde horretatik etorritakoak dira. Kolonbiarra da bigarren nazionalitate ohikoena, aurrekoa baino kopuru txikixeagoarekin: atzeritar jatorriko Arabako biztanleen % 12,2 Kolonbian jaio zen. Bi herrialde horiek dira garrantzitsuenak, eta aldearekin, gainera. Gainerakoak urrun geratzen dira, taulak adierazten duen bezala: Aljeria, Errumania, Pakistan, Ekuador, Portugal, Nigeria, Brasil eta Paraguai daude ondoren, baina kopuru erlatiboek ez dute % 6 gainditzen.

Eboluzioari dagokionez, ikusi dugu Marokoko nazionalitatea aztertutako aldian pisu erlatiboa irabaziz joan dela, atzeritar jatorriko pertsona guztien % 11,6tik % 15,6ra pasatu baita 2017an. Hala, 2012tik, jatorriko nazionalitate nagusia da.

Deigarria da Pakistango jatorriko herritarrek gure lurraldean duten gero eta pisu handiagoa, batik bat 2008 eta 2012 urteak alderatzen baditugu, baina harrezkero ez du aldaketa handirik izan.

17. TAULA: ATZERRITAR JATORRIKO ARABAKO BIZTANLEEN JATORRI NAGUSIAK (2008-2017)

2008			2012			2017		
Jatorria	K	%	Jatorria	K	%	Jatorria	K	%
Kolonia	3.412	13	Maroko	4.888	13,9	Maroko	5.546	15,6
Maroko	3.042	11,6	Kolonia	4.365	12,4	Kolonia	4.337	12,2
Portugal	2.087	7,9	Aljeria	2.675	7,6	Aljeria	2.136	6
Aljeria	1.556	5,9	Portugal	1.876	5,3	Errumania	1.496	4,2
Rumania	1.546	5,9	Rumania	1.840	5,2	Pakistan	1.461	4,1
Ekuador	1.390	5,3	Ekuador	1.629	4,6	Ekuador	1.435	4
Brasil	1.296	4,9	Pakistan	1.534	4,4	Portugal	1.386	3,9
Argentina	846	3,2	Brasil	1.389	3,9	Nigeria	1.321	3,7
Frantzia	770	2,9	Paraguai	1.111	3,2	Brasil	1.293	3,6
Paraguai	697	2,6	Peru	1.026	2,9	Paraguai	1.189	3,3

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Atzeritar jatorriko Arabako biztanleen nazionalitate nagusien banaketa hori aldatu egiten da eskualdeen arabera aztertzen badugu, baina horietako seik ezaugarri komun bat dute: Marokotik etorritako biztanleak dira ugarietak guztie-

tan, Gasteizkoan izan ezik. Gasteizen kolonbiarrak dira nagusi. 18. taulan eskualdeen araberako espazio-bereizketa hori ikus dezakegu⁴.

18. TAULA: ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN JATORRI NAGUSIAK ESKUALDEKA (2017)

Añana		Aiara		Kanpezu-Arabako Mendialdea		Guardia-Arabako Errioxa		Arabako Laudata		Gorbeialdea		Gasteiz	
Jatorria	%	Jatorria	%	Jatorria	%	Jatorria	%	Jatorria	%	Jatorria	%	Jatorria	%
Maroko	20,6	Maroko	19,9	Maroko	34,4	Maroko	37,7	Maroko	28,7	Maroko	16,2	Kolonia	13,7
Portugal	16	Peru	11,8	Ekuador	10	Portugal	19,4	Aljeria	10,1	Portugal	9,1	Maroko	13,6
Kolonia	10,8	Aljeria	10,4	ErErrumania	8,3	ErErrumania	8,3	Pakistan	8,1	ErErrumania	7,6	Aljeria	5,8
Aljeria	4,6	ErErrumania	7,9	Portugal	7,2	Pakistan	7,1	ErErrumania	7,8	Argentina	5,6	Nigeria	4,3
ErErrumania	4,3	Ekuador	4,8	Argentina	6,7	Kolonia	3,6	Dominikar Errepublika	6,9	Ekuador	5,6	Pakistan	4,2
Brasil	4,1	Kolonia	4,7	Dominikar Errepublika	6,1	Aljeria	1,9	Portugal	5,1	Frantzia	4,1	Ekuador	4,2
Dominikar Errepublika	3,2	Portugal	3,6	Aljeria	4,4	Bolivia	1,6	Kolonia	3,2	Mauritania	3,9	Brasil	3,8
Frantzia	3	Brasil	3,4	Frantzia	2,2	Kuba	1,5	Brasil	2,4	Alemania	3,7	Paraguai	3,7
Venezuela	2,4	Paraguai	3,4	ErErrusia	2,2	Brasil	1,5	Frantzia	2,1	Kolonia	3,5	ErErrumania	3,5
Alemania	2,2	Frantzia	2,3	Mauritania	2,2	Argentina	1,4	Ekuador	2,1	Aljeria	3	Dominikar Errepublika	3,5

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Aurreko taulan jasotako datuak aztertuz ikusiko dugu Añanako eskualdean bizi diren atzerritar jatorriko pertsona guztietatik bosten bat baino gehiago Marokotik etorritakoak direla (% 20,6). Handi samarra da Portugaldik (% 16,0) eta Kolonbiatik (% 10,8) etorritako pertsona-kopurua. Jatorri horiek dira nagusiak, ondorengoe-kiko alde handi samarrarekin, gainera: Aljeria % 4,6; Errumania % 4,3; Brasil % 4,10; Dominikar Errepublika % 3,2 edo Frantzia % 3,0%, besteak beste.

Aiara eskualdearen kasuan, aurreko eskualdean bezala, jatorri ohikoena Maroko da, eskualde horretan bizi diren atzerritar jatorriko pertsona guztien % 19,9 baita. Hurrengo jatorri ugariena Peru da (% 11,8), eta ondoren, Aljeria (% 10,4).

Hiru jatorri horiek —Maroko, Peru eta Aljeria— dira ohikoenak, eta alde handia dute ondorengo jatorri ohikoenekiko, % 8ko balioak ez baitituzte gainditzen, hala nola: ErErrumania, Ekuador, Kolonia, Portugal, Brasil edo Paraguai (% 7,9; % 4,8; % 4,7; % 3,6; % 3,4 eta % 3,4, hurrenez hurren).

⁴ Analisisian ez dira sartu % 1 baino gutxiagoko pisu erlatiboak aintzat ez hartzeko modukotzat jotzen direlako.

Horiez gain, Aiara eskualdean, beste jatorri batzuetako pertsonak ere badaude, batez ere Latinoamerikakoak, hala nola Nikaraguakoak, Boliviakoak, Kubakoak, Venezuelakoak edo Argentinakoak, baina askoz ehuneko txikiagoekin (% 2 ingurukoa). % 2 inguru dira Frantziatik etorritakoak ere.

Bestalde, Kanpezu-Arabako Mendialdeko errealitateak Maroko azaltzen du han bizi diren pertsonen jatorri nagusi gisa, han bizi diren atzerritar jatorriko pertsona guztien % 34,4 baita.

Kasu horretan, atzerritar jatorri ugariak ondorengoekiko duen aldea handiagoa da beste eskualde batzuetan baino: Ekuadorretik etorritako pertsonak atzerritar jatorriko guztien % 10,0 bakarrik dira; ErErrumaniakoak, % 8,3, eta Portugaletik etorritakoak, % 7,2 baino ez. Ondoren daude honako jatorri hauek: Argentina (% 6,7), Dominikar Errepublika (% 6,1), Aljeria (% 4,4), Frantzia (% 2,2), ErErrusia (% 2,2) eta Mauritania (% 2,2).

Guardia-Arabako Errioxa eskualdearen kasuan, orain arte ikusi dugun panorama bera ikusten dugu, eta Marokoko jatorriko biztanleen nagusitasuna argia da. Eskualde horretan, atzerritar jatorriko biztanleen kopuru erlatibo handiena dago: % 37,7. Aipatu berri dugun Kanpezu-Arabako Mendialdearekin batera, eskualde horretan dago Marokoko biztanleen presentzia erlatibo handiena.

Oso garrantzitsua da Portugalgo jatorriko biztanleen presentzia ere, hain zuzen ere, eskualdeko atzerritar jatorriko biztanle guztien % 19,4. ErErrumaniatik (% 8,3) eta Pakistandik (% 7,1) etorritako pertsonak ere badaude. Askoz pisu erlatibo txikiagoa duten arren, Kolonbia (% 3,6), Aljeria (% 1,9), Bolivia (% 1,6), Kuba (% 1,5), Brasil (% 1,5) eta Argentinako (% 1,4) pertsonak ere badaude.

Arabako Lautadako eskualdean, atzerritar jatorriko biztanleen panoramikak Magrebetik etorritako pertsonen presentzia handia erakusten du, % 28,7 Marokoarrak baitira eta pertsonen % 10,1, Aljeriarrak.

Presentzia hori uler daiteke aintzat hartzen badugu eskualde horren ekonomia-eta produkzio-jardueraren parte handi bat bigarren sektoreari dagokiola eta, landa-turismoari esker, landa-esparruak zerbitzuen sektorean ere presentzia aipagarria duela.

Jatorri horien ondoren, Pakistan, ErErrumania eta Dominikar Errepublika daude (% 8,1; % 7,8 eta % 6,9ko balioekin, hurrenez hurren), ondorengoekiko alde handi samarrarekin: Portugal (% 5,1), Kolonbia (% 3,2), Brasil (% 2,4), Frantzia edo Ekuador (azken bi horiek % 2,1).

Gorbeialdea eskualdearen kasuari erreparatuta, ikusiko dugu Marokoko jatorriko biztanleak berriz ere ugariak direla, % 16,2 baitira, eta ondoren, Portugalgoak (% 9,1) eta ErErrumaniakoak (% 7,6).

Gainerako jatorriek alde nabarmena dute aurrekoekiko. Argentina eta Ekuador dira hurrengoak (biak % 5,6rekin), Frantziak (% 4,1) edo Mauritaniak (% 3,9) baino bi ehuneko-puntu gehiagoren aldea dute eta.

Horiez gain, Alemaniako (% 3,7), Kolonbiako (% 3,5) edo Aljeriako (% 3,0) jatorriko pertsonak ere badaude.

Gasteizek, lurraldeko hiriburuak, Arabako biztanle gehienak hartzen ditu, bai biztanle guztiak kontuan hartuta (% 75,6) bai atzerritar jatorriko biztanleak kontuan hartuta (% 83,3). Atzerritar jatorri nagusiak Kolonbia eta Maroko dira (% 13,7 eta % 13,6 hurrenez hurren).

Bi jatorri horien ondoren, kontuan izan beharreko gainerako herrialdeek pisu erlatibo ia anekdotikoa dute. Aljeria da hurrengo ugariena, % 5,8 baitu, eta, ondoren, Nigeria (% 4,3), Pakistan (% 4,2) Brasil (% 3,8), Paraguai (% 3,7), eta ErErrumania eta Dominikar Errepublika (% 3,5) ditugu.

19. TAULA: AÑANAKO NAZIONALITATE NAGUSIEN EBOLUZIOA (2008-2017)

Añana								
2008			2012			2017		
Jatorria	K	%	Jatorria	K	%	Jatorria	K	%
Portugal	124	24	Portugal	161	21,1	Maroko	152	20,6
Kolonbia	62	12	Maroko	120	15,7	Portugal	118	16,0
Errumania	36	7	Kolonbia	59	7,7	Kolonbia	80	10,8
Frantzia	27	5,2	Errumania	56	7,3	Aljeria	34	4,6
Dominikar Errepublika	26	5	Aljeria	45	5,9	Errumania	32	4,3
Aljeria	25	4,8	Dominikar Errepublika	26	3,4	Brasil	30	4,1
Maroko	22	4,3	Frantzia	25	3,3	Dominikar Errepublika	24	3,2
Alemania	19	3,7	Bulgaria	24	3,1	Frantzia	22	3,0
Bulgaria	18	3,5	Argentina	24	3,1	Venezuela	18	2,4
Ekvador	17	3,3	Kuba	19	2,5	Alemania	16	2,2

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

2008-2017 aldian ikusi du Marokoko jatorriko biztanleen pisu espezifiko 15 ehuneko-puntu baino gehiago handitzen zela Añanan, gainerako nazionalitateek al-daketa hain garrantzitsurik izan ez duten arren.

20. TAULA: AIARAKO NAZIONALITATE NAGUSIEN EBOLUZIOA (2008-2017)

Aiara								
2008			2012			2017		
Jatorria	K	%	Jatorria	K	%	Jatorria	K	%
Austria	1	0,1	Aljeria	285	13,9	Maroko	411	19,9
Bélgica	6	0,4	Peru	267	13,1	Peru	243	11,8
Bulgaria	1	0,1	Maroko	247	12,1	Aljeria	215	10,4
Dinamarca	1	0,1	Errumania	199	9,7	Errumania	164	7,9
Frantzia	45	3,3	Portugal	147	7,2	Ekvador	99	4,8
Irlanda	1	0,1	Kolonbia	107	5,2	Kolonbia	96	4,7
Italia	10	0,7	Ekvador	89	4,4	Portugal	75	3,6
Herbehereak	2	0,1	Brasil	76	3,7	Brasil	71	3,4

Aiara								
2008			2012			2017		
Jatorria	K	%	Jatorria	K	%	Jatorria	K	%
Polonia	7	0,5	Paraguai	63	3,1	Paraguai	71	3,4
Portugal	111	8,1	Mauritania	57	2,8	Frantzia	48	2,3

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Aiara eskualdean, bestalde, Europako jatorriko biztanleen ordeaz Afrikako jatorriko (batik bat magrebtarrak) eta Latinoamerikako biztanleak hartzekoa izan da joera, seguruenik, lan-merkatuaren eskaerekin lotuta.

21. TAULA: KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEKO NAZIONALITATE NAGUSIEN EBOLUZIOA (2008-2017)

Kanpezu-Arabako Mendialdea								
2008			2012			2017		
Jatorria	K	%	Jatorria	k	%	Jatorria	K	%
Maroko	36	19	Errumania	38	16,2	Maroko	62	34,4
Errumania	30	15,9	Maroko	29	12,4	Ekuador	18	10,0
Ekuador	26	13,8	Ekuador	29	12,4	Errumania	15	8,3
Portugal	23	12,2	Portugal	24	10,3	Portugal	13	7,2
Argentina	16	8,5	Argentina	19	8,1	Argentina	12	6,7
Dominikar Errepublika	12	6,3	Mauritania	17	7,3	Dominikar Errepublika	11	6,1
Brasil	7	3,7	Kolonia	14	6	Aljeria	8	4,4
Aljeria	6	3,2	Dominikar Errepublika	12	5,1	Frantzia	4	2,2
Erresuma Batua	5	2,6	Aljeria	8	3,4	Errusia	4	2,2
Kolonia	5	2,6	Brasil	8	3,4	Mauritania	4	2,2

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Kanpezu-Arabako Mendialdea eskualdearen kasuan, ikusiko dugu ereduak ia berdin-berdin errepikatzen direla: Marokoko jatorriko biztanleen hazkunde erlatibo handia izan zen, eta, hala ere, Mauritaniako jatorriko biztanleak agertu ziren lehen aldiz, eta britainiar jatorrikoak desagertu.

22. TAULA: GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO NAZIONALITATE NAGUSIEN EBOLUZIOA (2008-2017)

Guardia-Arabako Errioxa								
2008			2012			2017		
Jatorria	K	%	Jatorria	K	%	Jatorria	K	%
Portugal	259	27,9	Maroko	308	26,5	Maroko	465	37,7
Maroko	145	15,6	Portugal	235	20,2	Portugal	239	19,4
Errumania	132	14,2	Errumania	157	13,5	Errumania	103	8,3
Kolonbia	93	10	Kolonbia	63	5,4	Pakistan	88	7,1
Brasil	31	3,3	Aljeria	48	4,1	Kolonbia	45	3,6
Argentina	27	2,9	Pakistan	38	3,3	Aljeria	23	1,9
Kuba	22	2,4	Kuba	29	2,5	Bolivia	20	1,6
Peru	22	2,4	Argentina	26	2,2	Kuba	19	1,5
Bolivia	17	1,8	Brasil	25	2,1	Brasil	19	1,5
Frantzia	16	1,7	Peru	19	1,6	Argentina	17	1,4

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Guardia-Arabako Errioxa eskualdeko errealitatea aztertuz, aztertutako aldiak antzeko joera erakusten digu: Marokoko biztanleen hazkunde erlatibo handia, batez ere gizonezkoena eta nekazaritzarekin eta ardogintzarekin zerikusia duten lan eta jardueretan aritzen direnena.

23. TAULA: ARABAKO LAUTADAKO NAZIONALITATE NAGUSIEN EBOLUZIOA (2008-2017)

Arabako Lautada								
2008			2012			2017		
Jatorria	K	%	Jatorria	K	%	Jatorria	K	%
Maroko	164	22,3	Maroko	282	25,8	Maroko	330	28,7
Aljeria	72	9,8	Aljeria	156	14,3	Aljeria	116	10,1
Errumania	64	8,7	Errumania	86	7,9	Pakistan	93	8,1
Portugal	52	7,1	Dominikar Errepublika	74	6,8	Errumania	90	7,8
Dominikar Errepublika	43	5,8	Portugal	55	5	Dominikar Errepublika	79	6,9
Kolonbia	39	5,3	Kolonbia	49	4,5	Portugal	58	5,1
Ekuador	28	3,8	Frantzia	32	2,9	Kolonbia	37	3,2
Frantzia	27	3,7	Ekuador	31	2,8	Brasil	28	2,4
Brasil	27	3,7	Brasil	30	2,7	Frantzia	24	2,1
Alemania	21	2,9	Peru	25	2,3	Ekuador	24	2,1

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Arabako Lautadan, jatorriaren arabera banaketa ia berdina da aztertutako urteetan zehar, eta Marokoko jatorriko biztanleen ehunekoak gora egin du. Garraztsua da azken urte hauetan Pakistango biztanleek izan duten gehikuntza ere.

24. TAULA: GORBEIALDEKO NAZIONALITATE NAGUSIEN EBOLUZIOA (2008-2017)

Gorbeialdea								
2008			2012			2017		
Jatorria	K	%	Jatorria	K	%	Jatorria	K	%
Portugal	88	17,2	Maroko	102	14,9	Maroko	96	16,2
Errumania	72	14,1	Portugal	91	13,3	Portugal	54	9,1
Maroko	53	10,4	Errumania	83	12,1	Errumania	45	7,6
Ekuador	36	7	Aljeria	47	6,9	Argentina	33	5,6
Aljeria	29	5,7	Ekuador	43	6,3	Ekuador	33	5,6
Alemania	24	4,7	Argentina	28	4,1	Frantzia	24	4,1
Argentina	24	4,7	Kolonbia	23	3,4	Mauritania	23	3,9
Kolonbia	20	3,9	Frantzia	22	3,2	Alemania	22	3,7
Frantzia	15	2,9	Mauritania	19	2,8	Kolonbia	21	3,5
Brasil	13	2,5	Brasil	17	2,5	Aljeria	18	3,0

Iturria: Lanketa propioa eroldako datuetan oinarrituta





Gorbeialdearen kasuan, aldiz, desberdintasunak ikusten dira; izan ere, Marokoko jatorriko biztanleen ehunekoan pixkanakako hazkundera egon den arren (ia 6 puntu egin du gora aztertutako aldian), Errumaniako eta Portugalgo jatorriko biztanleek ia erdira murritzuta dute beren pisu erlatiboa.

25. TAULA: GASTEIZKO NAZIONALITATE NAGUSIEN EBOLUZIOA (2008-2017)

Gasteiz								
2008			2012			2017		
Jatorria	K	%	Jatorria	K	%	Jatorria	K	%
Kolonbia	3.135	14,2	Kolonbia	4.050	13,9	Kolonbia	4.055	13,7
Maroko	2.481	11,2	Maroko	3.800	13	Maroko	4.030	13,6
Portugal	1.430	6,5	Aljeria	2.086	7,1	Aljeria	1.722	5,8
Aljeria	1.228	5,6	Pakistan	1.426	4,9	Nigeria	1.285	4,3
Ekuador	1.218	5,5	Ekuador	1.407	4,8	Pakistan	1.237	4,2
Brasil	1.149	5,2	Errumania	1.221	4,2	Ekuador	1.236	4,2
Errumania	1.083	4,9	Brasil	1.215	4,2	Brasil	1.129	3,8
Argentina	716	3,2	Portugal	1.163	4	Paraguai	1.089	3,7
Frantzia	637	2,9	Paraguai	1.006	3,4	Errumania	1.047	3,5
Paraguai	635	2,9	Dominikar Errepublika	796	2,7	Dominikar Errepublika	1.042	3,5

Iturria: Lanketa propioa eroldako datuetan oinarrituta

Gasteizen kasuan, Portugalek izan du presentzia-galera handiena (2,5 ehuneko-puntu galdu ditu). Beste aldean daude Paraguai (+% 0.5) edo Aljeria (+% 1.5), gaur egun eskualde horretako panorama soziala osatzen duten jatorri garrantzitsuenen artean baitaude.



Adin-Egitura

4

Arabako biztanleen analisia


Arabako biztanleriaren osaera adin-egiturari erreparatuz aztertzen badugu, ikusiko dugu Arabako Lurralde Historikoan bizi diren pertsona gehienak 16 eta 64 urte bitarteko adin-tartean daudela.

Gehiengo hori nabarmenagoa da atzerritar jatorriko biztanleen kasuan; izan ere, migrazio-proiektua 'lan-adinak' deiturikoetan garatzen dute (16 eta 50 urte bitartean, batez ere), ekonomia eta lana baitira joan-etorriak eragiten dituzten arrazoi nagusietako bat.

Hala ere, desberdintasun nabarmenak daude bi biztanlerien artean; izan ere, atzerritarren artean, % 88,1 biztanleria aktiboa da (16 eta 64 urte bitartean), eta bertakoen artean, berriz, kategoria horrek % 60,4 baino ez du hartzen. Bestela esanda, etorkin guztien artean, % 12,0 baino ez dira mendekoak (16 urtetik beherakoak eta 64 urtetik gorakoak), eta bertako biztanleen artean, berriz, % 39,6.

Biztanleria aktiboaren tarterik gazteenari erreparatzen badiogu, ikusten da atzerritar jatorriko pertsonen % 63,1ek 16 eta 44 urte bitartean dituela; Espainiako estatuan jatorria duten biztanleen kasuan, berriz, ehuneko hori nabarmen jaisten da, % 30,7ra.


23. GRAFIKOA: ARABAKO BIZTANLEEN ADIN-EGITURA JATORRIAREN ARABERA: ESPAINIAKO ESTATUA ETA ATZERRIA (2017)



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN)

Azkenik, nabarmendu nahi dugu atzerritar jatorriko biztanleek ia ez dutela ordezkartzarik 65 urtetik gorako adin-tartean, biztanleria osoaren % 3,6 baino ez baitira. Espainiako Estatuan jatorria duten pertsonen presentzia handiagoa dute kasu horretan, eta horrek, dudarik gabe, eztaba daezineko gertaera bat erakusten du: Euskadiko bertako biztanleria asko zahartu dela, baina atzerritar jatorriko biztanleen gaztetasunak konpentsatzen duela.

24. GRAFIKOA: ADIN-EGITURA JATORRIAREN ARABERA 2008AN ETA 2012AN




Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

2008-2017 urteen artean igarotako urteen azterketan ikus daitekeenez, lanean aritzeko adin-tarteetan kokatutako atzerritar jatorriko biztanleria biztanleria osoaren % 85 eta % 88 inguruan mantendu da. Bertako biztanleen artean, aldiz, gero eta pisu handiagoa du adin nagusiagoetan (65 urte eta gehiago) eta gazteenetan.

Espainiako estatuko jatorriko eta atzerritar jatorriko Arabako biztanleen arteko alderaketan (25 grafikoko biztanleria-piramidean jaso), ikus dezakegu atzerritar jatorriko biztanleak gazteagoak direla eta adin handieneko tarteetan oso biztanle gutxi daudela.


25. GRAFIKOA: ARABAKO BIZTANLEEN ADIN-EGITURA SEXUAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (ESPAINIAKO ETA ATZERRIKO JATORRIA, 2017)



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN)

Hala, atzerritar jatorriko etorkinek gaztetu egiten dute Espainiako gizarte zaharkitua, haren jaiotza-tasa txikia konpentsatuz. Etorkin gazte horiek lanerako indarra eta lan-merkatuaren eskaerei erantzuteko aukera ematen dute. Halaber, biztanleria aktiboa indartzen laguntzen dute, beharrezkoa baita goiko tarteetan (65 urtetik gorakoak) mendekotasuna duten pertsonen kopuru gero eta handiagoa konpentsatzeko. Halaber, jaiotza-tasaren gorakadan ere, beren hondar-alea jartzen dute, ugaltzeko adinean dauden pertsona-proportzio handia baitute. Gure ongizate-estatuari eusten ere laguntzen dute, gizarte-segurantza elikatuz egiten dizkioten ekarpenekin, eta pentsio-sistema publiko bati eusteko aukera ematen dute.

26. GRAFIKOA: POPULAZIO-PIRAMIDEAK, SEXUAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (ESTATUKO ETA ATZERRIKO JATORRIA) 2008/2012



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN)

Populazio-piramideen eboluzioak agerian uzten du atzerritar jatorriko etorkinek Espainiako populazioa gaztetzeko egiten duten ekarpena. Ikus daitekeenez, Espainiako estatuko jatorriko populazio-piramideak pertsona kopuru handiagoa erakusten du goiko aldean; aldiz, atzerritar jatorriko biztanleriak forma homogeneoagoa du, espainiar estatuko jatorrikoa baino askoz gazteagoa.

Errealitatearen analisisa eskualdeka

Baina, aurreko ataletan bezala, Arabako Lurralde Historikoa osatzen duten zazpi eskualdeetako bakoitzak ezaugarri bereziak ditu banaketari dagokionez; horregatik, jarraian, eskualde bakoitzaren azterketa xehatua egingo dugu.

Zazpi eskualdeen egoera, oro har, ondorengo taulan jasota dago.

26. TAULA: ARABAKO BIZTANLE GUZTIEN BANAKETA, ADINAREN ETA ESKUALDEEN ARABERA (2017)

	0-5	6-15	16-17	18-24	25-44	45-64	65-74	75 eta gehiago	Guztira
Añana	5,6	11,3	1,8	4,8	26,3	32,8	8,1	9,3	100
Aiara	5,8	9,2	1,5	5,3	26,2	30	11,1	11	100
Kanpezu-Arabako Mendialdea	4,7	7,9	0,8	4,6	22,2	32,9	12,5	14,5	100
Guardia-Arabako Errioxa	6	10,9	1,9	6,1	25,1	29,5	9,6	11	100
Arabako Lautada	7	12	1,9	5,4	27,1	31,3	7,8	7,5	100
Gorbeialdea	5,5	11,6	2,1	5,9	23,3	34,2	9,6	7,8	100
Gasteiz	6,1	9,6	1,8	5,9	28,1	28,3	10,6	9,6	100
Guztira	6,1	9,8	1,8	5,7	27,5	29	10,5	9,7	100

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Arabako biztanleen % 20,2 inguru 65 urtetik gorakoa da; eta % 16 inguru 16 urtetik beherakoa da. Beraz, Arabako biztanleen % 36 inguru mendekoa da, eta % 64 inguru biztanleria aktiboa da. Eskualdeen arabera, Kanpezu-Arabako Mendialdea nabarmentzen da batik bat, biztanleen % 27,0 64 urtetik gorakoa delako eta 16 urtetik beherakoen artean tasa txikiena duelako (% 12,6). Arabako Lautadan azpi-marragarria da, bestalde, 64 urtetik gorako pertsonen proportzio txikiena (% 15,3) dagoela eta 16 urtetik beherakoen tasa handiena (% 19,0).

Atzeritar jatorriko biztanleen adin-banaketa azterketa oso bestelakoa da, eta Arabako biztanleria osoaren iruditik urrun dago.

27. TAULA: ATZERITAR JATORRIKO BIZTANLEEN BANAKETA ARABAN, ADINAREN ETA ESKUALDEEN ARABERA (2017)

	0-5	6-15	16-17	18-24	25-44	45-64	65-74	75 eta gehiago	Guztira
Añana	1,8	8	2,8	9,5	45,2	28,8	2,6	1,4	100
Aiara	1,6	7,4	2,5	11,5	49	23,9	2,7	1,4	100
Kanpezu-Arabako Mendialdea	3,3	12,2	1,1	9,4	45	26,1	1,7	1,1	100
Guardia-Arabako Errioxa	1,9	12,1	2,4	10	49,7	21,5	1,5	1	100
Arabako Lautada	2	9,5	2,5	10,8	48,8	24,5	1,4	0,5	100
Gorbeialdea	0,8	8,6	3,4	9,3	44,6	28,7	3,5	1	100
Gasteiz	1,2	6,9	2,8	10,9	50,9	23,8	2,4	1	100
Guztira	1,8	8	2,8	9,5	45,2	28,8	2,6	1,4	100

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Kasu honetan, Araban bizi diren atzeritar jatorriko biztanle guztiei erreparatzen badiegu, asko nabarmentzen da biztanle horien % 4,0k soilik dituela 65 urte edo gehiago. Ikus daitekeenez, Arabako atzeritar jatorriko biztanle gehienak lan egiteko adin-tarteetan daude (16 eta 64 urte bitartean, % 86,2), eta ugalketarako potentzial handiena dutenetan (% 54,7 daude 18 eta 44 urte bitartean).

Eskualdeka, kasu honetan ez dago alde nabarmenik; izan ere, horietan guztietan, 64 urtetik gorako pertsonen pisua oso txikia da (% 1,5 eta % 4,5 artean), eta 16 urtetik beherakoena ere oso antzekoa da (Gasteizko % 8,1 eta Kanpezu-Arabako Mendialdeko % 15,5 artean).

28. TAULA: ARABAKO BIZTANLE GUZTIEN BANAKETA, ADINAREN ETA ESKUALDEEN ARABERA (2008 ETA 2012)

	2008						2012					
	0-14	15-24	25-44	45-64	65 eta gehiago	Guztira	0-14	15-24	25-44	45-64	65 eta gehiago	Guztira
Añana	13,10	7,10	36	25,70	18	100	15,10	7,10	31,50	28,60	17,60	100
Aiara	12	9,90	32,20	27,50	18,40	100	13,20	8,40	30,10	28,60	19,80	100
Kanpezu-Arabako Mendialdea	8,40	6,50	28,50	29,40	27,10	100	10,70	6	26,20	30,50	26,60	100
Guardia-Arabako Errioxa	13,60	9,60	31,50	25,30	20	100	15,40	8,40	28,80	27,50	19,90	100
Arabako Lautada	14,90	8,70	36,70	25,40	14,30	100	17,70	7,90	33,80	27,30	13,30	100
Gorbeialdea	15,80	8,10	31,70	29,20	15,20	100	16,90	7,90	28,90	31,40	14,90	100
Gasteiz	12,80	10	33,70	27,10	16,30	100	13,90	8,80	32,10	27,30	17,90	100
Guztira	12,90	9,80	33,50	27,10	16,70	100	14,10	8,60	31,70	27,60	18	100

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Arabako biztanleriak azken urteotan izan duen eboluzioaren azterketak agerian uzten du pixkanaka-pixkanaka zahartzen ari dela: 64 urtetik gorakoen proportzioa, 2008an, % 16,7 zen; 2012an, % 18,0, eta, 2017an, % 20,2ra igaro da, lehen ikusi dugun bezala.

29. TAULA: ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN BANAKETA ARABAN, ADINAREN ETA ESKUALDEEN ARABERA (2008-2012)

	2008						2012					
	0-14	15-24	25-44	45-64	65 eta gehiago	Guztira	0-14	15-24	25-44	45-64	65 eta gehiago	Guztira
Añana	13,10	16,70	46,90	20,90	2,30	100	13,30	12,60	49,10	22	3	100
Aiara	18,70	18,20	48,60	12,70	1,90	100	11,10	17	50,40	18,80	2,80	100
Kanpezu-Arabako Mendialdea	19,70	18	46,40	13,10	2,70	100	17,10	15,80	46,60	17,50	3	100
Guardia-Arabako Errioxa	18,20	19,20	51	10,40	1,20	100	13,90	13,90	54,30	15,60	2,20	100
Arabako Lautada	19,10	14,50	50,60	14,30	1,60	100	13,30	15	52,70	17,90	1,10	100


	2008						2012					
	0-14	15-24	25-44	45-64	65 eta gehiago	Guztira	0-14	15-24	25-44	45-64	65 eta gehiago	Guztira
Gorbeialdea	16,30	15	47,30	17,70	3,60	100	15,90	10,10	49,40	22,20	2,50	100
Gasteiz	15,60	17,30	53,20	12,60	1,30	100	9,60	15,40	55,50	17,10	2,30	100
Guztira	16	17,30	52,50	12,80	1,40	100	10,20	15,30	54,80	17,40	2,30	100

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Atzerritar jatorriko biztanleen kasuan, 64 urtetik gorako pertsonen kopuruak gora egin duen arren (kasu askotan, familia berriz elkartzeko prozesuen ondorioz), zifra oso txikiak dira. Halaber, urte hauetan ere ikusi dugu adingabeen kopurua apur bat murriztuz joan dela, etorkinen jatorriko jaiotza-tasak EAEko txikiagoetara egokitzen ari direlako. Nolanahi ere, atzerritar jatorriko biztanle gehienak, erdiak inguru, 25 eta 44 urte bitarteko adin-tarteetan daude, eta horrek agerian uzten du askoz ere gazteagoak direla Espainiako estatuko jatorriko biztanleak baino.

Añana

27. GRAFIKOA: ESTATUKO JATORRIKO EDO ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN EHUNEKOA AÑANAN



30. TAULA: ESTATUKO JATORRIKO EDO ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN EHUNEKOA AÑANAN

	0-5	6-15	16-17	18-24	25-44	45-64	65-74	75 eta gehiago	Guztira
Atzerritar jat.	1,8	8	2,8	9,5	45,2	28,8	2,6	1,4	100
Espainiar jat.	5,9	11,6	1,7	4,4	24,6	33,2	8,7	10	100


Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Añanaren kasuan, Espainiako jatorriko biztanleak 25 eta 44 urte bitarteko kategorietan daude batez ere (% 57,8), eta pisu handia dute 6 eta 15 urte bitarteko adinetan ere (% 11,6). % 63,9 biztanleria aktiboa da. Gainera, muturrekoen balioak nahiko txikiak dira (% 5,9 gazteenen kasuan eta % 10,0 adinekoen kasuan).

Atzerritar jatorriko biztanleen kasuan, ikusten da gehien-gehienak lanean aritzeko adin-tarteetan daudela (% 86,3 biztanleria aktiboa da, hau da, 16 eta 64 urte bitartean dago), eta, gainerako adin-tarteetan, oso balio txikiak dituzte.

Aiara

28. GRAFIKOA: ESTATUKO JATORRIKO EDO ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN EHUNEKOA AIARAN



31. TAULA: ESTATUKO JATORRIKO EDO ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN EHUNEKOA AIARAN

	0-5	6-15	16-17	18-24	25-44	45-64	65-74	75 eta gehiago	Guztira
Atzerritar jat.	1,6	7,4	2,5	11,5	49	23,9	2,7	1,4	100
Espainiar jat.	6,1	9,3	1,5	4,9	24,7	30,4	11,7	11,6	100

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta


Aurreko kasuan bezala, atzerritar jatorriko biztanle gehienak (% 82,9) banaketaren erdiko tarteetan daude (hau da, 16 eta 64 urte bitarteko taldeetan, biztanleria aktiboan). Aldi berean, Espainiako estatuko jatorriko biztanleen kasuan, biztanleria aktiboa % 61,5 baino ez da.

Adin-tarte gazteenetako biztanleei dagokienez, bertako jatorriko biztanleak etorkinak baino gehiago dira oraindik ere (% 15,4 eta % 9,0, hurrenez hurren, 0 eta 15 urte bitarteko adin-tarteetan).

Gainera, bertako biztanleen kasuan, ohikoagoa da adin handiagoko taldeetan egotea etorkinen kasuan baino: % 23,3 eta % 4,1, hurrenez hurren, 64 urtetik gorakoen artean.

Kanpezu-Arabako Mendialdea

29. GRAFIKOA: ESTATUKO JATORRIKO EDO ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN EHUNEKOA KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEAN



32. TAULA: ESTATUKO JATORRIKO EDO ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN EHUNEKOA KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEAN

	0-5	6-15	16-17	18-24	25-44	45-64	65-74	75 eta gehiago	Guztira
Atzerritar jat.	3,3	12,2	1,1	9,4	45	26,1	1,7	1,1	100
Espainiar jat.	4,8	7,6	0,8	4,3	20,7	33,3	13,2	15,4	100


Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Kanpezu-Arabako Mendialdeko eskualdean, beste behin ere, atzerritar jatorriko biztanleek presentzia handiagoa dute lanerako, ekoizpenerako eta ugalketarako ahalmena duten adin-tarteetan.

Atzerritar jatorriko biztanle guztien % 81,6 inguruk 16 eta 64 urte bitartean ditu, hau da, biztanleria aktiboa da, eta hori oso alde handia da Espainiako estatuko jatorriko biztanleen adina aintzat hartuz gero (% 59,1).

Guardia-Arabako Errioxa

30. GRAFIKOA: ESTATUKO JATORRIKO EDO ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN EHUNEKOA GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAN



33. TAULA: ESTATUKO JATORRIKO EDO ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN EHUNEKOA GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAN

	0-5	6-15	16-17	18-24	25-44	45-64	65-74	75 eta gehiago	Guztira
Atzerritar jat.	1,9	12,1	2,4	10	49,7	21,5	1,5	1	100
Espainiar jat.	6,5	10,7	1,8	5,6	22,1	30,5	10,6	12,2	100


Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Guardia-Arabako Errioxa ere, lan-adineko tartean dauden atzerritar jatorriko biztanleen ehunekoa bertakoena baino handiagoa da eta nabarmentzekoa da etorkinen % 2,5 baino ez dela 64 urtetik gorakoa.

Hala, Espainiako estatuko jatorriko biztanleria aktiboa % 60,0 inguru da; atzerritar jatorriko biztanleen kasuan, berriz, tasa hori % 83,6ra iristen da.

Arabako Lautada

31. GRAFIKOA: ESTATUKO JATORRIKO EDO ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN EHUNEKOA ARABAKO LAUTADAN



34. TAULA: ESTATUKO JATORRIKO EDO ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN EHUNEKOA ARABAKO LAUTADAN

	0-5	6-15	16-17	18-24	25-44	45-64	65-74	75 eta gehiago	Guztira
Atzerritar jat.	2	9,5	2,5	10,8	48,8	24,5	1,4	0,5	100
Espainiar jat.	7,5	12,3	1,8	4,9	24,9	32	8,4	8,2	100

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Arabako Lautadaren kasuan, atzerritar jatorriko biztanle gehienak 25-44 urteko tartean daude, talde horretako ia erdiak, hain zuzen ere. Gainera, 45 eta 64 urte bitarteko biztanleria da kasu horretan ordezkari handiena duen hurrengoa; hala, atzerritar jatorriko biztanleen artean, biztanleria aktiboaren ehunekoa % 86,6ra iristen da.


Bertako biztanleen kasuan, biztanleria aktiboaren ehunekoa askoz txikiagoa da, % 63,6 ingurukoa.

Eskualde horren kasuan, oso deigarria da gazteenen ehunekoa nahiko altua izatea, bai bertako biztanleen artean eta bai etorkinen artean: % 19,8 eta % 11,5 hurrenez hurren.

Azkenik, interesgarria da nabarmentzea atzerritar jatorriko biztanleen % 1,9k soilik dituela 65 urte edo gehiago.

Gorbeialdea

32. GRAFIKOA: ESTATUKO JATORRIKO EDO ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN EHUNEKOA GORBEIALDEAN



35. TAULA: ESTATUKO JATORRIKO EDO ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN EHUNEKOA GORBEIALDEAN

	0-5	6-15	16-17	18-24	25-44	45-64	65-74	75 eta gehiago	Guztira
Atzerritar jat.	0,8	8,6	3,4	9,3	44,6	28,7	3,5	1	100
Espainiar jat.	5,8	11,8	2,1	5,7	21,9	34,5	10	8,2	100

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta


Gorbeialdearen kasua gainerako eskualdeek markatzen dituzten joeren jarraipenaren isla da: Espainiako estatuko jatorriko biztanle gehienak 45 eta 64 urte bitartekoak dira, eta atzerritar jatorriko biztanle gehienak (% 44,6), berriz, kategoria baxuagoan daude (25-44 urte). Horrek esan nahi du atzerritar jatorriko biztanleria gazteagoa dela.

Bertakoen artean, biztanleria aktiboaren ehunekoa % 64,2 da, eta atzerritar jatorriko biztanleen artean, berriz, % 86,0.

Adinaren arabera banaketaren goiko aldean, bertako biztanleen % 18,2 inguru daude (64 urtetik gorakoak) eta atzerritar jatorriko biztanleen artean, berriz, % 4,5 baino ez dira.

Gasteiz

33. GRAFIKOA: ESTATUKO JATORRIKO EDO ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN EHUNEKOA GASTEIZEN



36. TAULA: ESTATUKO JATORRIKO EDO ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN EHUNEKOA GASTEIZEN

	0-5	6-15	16-17	18-24	25-44	45-64	65-74	75 eta gehiago	Guztira
Atzerriar jat.	1,2	6,9	2,8	10,9	50,9	23,8	2,4	1	100
Espainiar jat.	6,8	9,9	1,7	5,2	24,9	28,9	11,8	10,8	100

Iturria: Lanketa propioa erroldako datuetan oinarrituta

Gasteizko eskualdearen kasua desberdin samarra da gainerakoen aldean, batez ere Espainiako Estatuko jatorriko biztanleen adin-taldean banaketari erreparatzen badiogu. Hala, gehienak 45 eta 64 urte bitarteko adin-tartean daude, baina alde txikia dago aurreko adin-taldearekiko, hau da, 25 eta 44 urte bitarteko pertsonetara, % 28,9 eta % 24,9ko balioak baitituzte, hurrenez hurren.

Deigarria da, halaber, atzerriar jatorriko biztanleen kasua, pertsonen erdia baino gehiago biltzen baitu (% 50,9) 25 eta 44 urte bitarteko pertsonen kategorian. Horrela, etorkin guztien % 88,4 adin aktiboan dago. Kopuru hori nabarmen txikiagoa da bertako biztanleen artean: % 60,7.

Nabarmenezkoa da bertako biztanleen artean % 22,6 64 urtetik gorakoa dela eta etorkinen artean, berriz, % 3,4 baino ez.



Gakoak eta gomendioak

5

Arabako biztanleriaren osaerari eta joerei buruzko errolda-datuen azterketatik, lehen kontu gisa nabarmendu nahi dugu atzerritar jatorriko pertsonen immigrazioak egiturazko izaera duela.

Mende honen hasieran, estatu espainiarrean, EAEn eta Araban fenomeno sozial berri bat gertatu zen: atzerritar jatorriko biztanleen immigrazioa. Orduan ez genekien zer dinamika sozialen ondorioz gertatu zen eta zer ondorio izango zituen, baina, gaur egun, esan dezakegu prozesu estrukturala izan zela, eta ez egoeraren araberakoa.

Gizarte gisa noizbait pentsatu badugu atzerriko immigrazioa fenomeno iragankorra zela eta, etorri zen bezala desagertu egingo zela, aitortu behar dugu oker geundela. Beste jatorri batzuetako pertsonak gure ingurunera iristea prozesu geldiezina eta atzeraezina da epe ertainean, hauetako edozein direla hona etortzeko arrazoiak: ekonomikoak, sozialak, bizi-proiektuak, ihesaldiak, babeslekua eta abar. Pertsona gehienak, gainera, gurekin geratzeko etortzen dira, gure lan-merkatuan lan egiteko eta parte hartzeko, bizi-proiektu bat garatzeko, ondorengoak gure lurraldean hazten ikusteko, gure ongizate-estatuari eusten laguntzeko... Azken batean, Euskadiko eta Arabako gizartearen etorkizunaren eraikuntzan parte aktiboa izateko.

Erroldako datuek agerian uzten dute, ezen euskal gizarteak munduari bere dimentsio guztietan (sozialak, ekonomikoak, kulturalak, politikoak, etab.) irudi positiboa proiektatzen dion bitartean, mundu osoko pertsonak gustukoa izango dutela; izan ere, gizarte gisa, kanpoko pertsonak etortzea behar dugu, erakusten dituen desoreka demografikoak eta lan-arlokoak konpentsatzeko. Gizarte zahartua gara, bertako biztanleak galtzen ari gara eta gure ongizate-estatuari eusteko pertsona gehiago eta gazte gehiago behar ditugu.

Garrantzitsua da euskal gizarteak beste herrialde batzuetako pertsonen etorrera egiturazko fenomenotzat hartzea, eta ez egoeraren araberako fenomenotzat; aukeratzat, eta ez mehatxutzat. Erakundeek errealitate horren jakitun izan behar dute, eta ideia horiek herritar guztiei helarazteko neurriak hartu behar dituzte.

Atzerriko etorkinak gure ingurura iritsi izanak nabarmen areagotu du lehendik berezkoa genuen aniztasuna. Orain, hizkuntzaren, erlijioen, ohituren, tradizioen, kosmobisioen eta abarren arloetan. Mende honen hasieratik, gure gizartean, aldaketa sakona gertatzen ari da, gero eta kultur aniztasunagoa delako. Gizarte-aniztasunaren gorakada nabariak gure arreta politiko eta sozialaren jomugan jartzen du hura kulturartekotasunaren ikuspegitik kudeatzea. Kulturartekotasun horrek elkarrekin harremanak, pertsonen arteko elkarrekinak eta pertsona guztien eskubideen errespetua hartu behar ditu aintzat, euskal gizartean eta Arabako gizartean bizi garenon herritartasunean oinarrituta.

Berdintasunezko gizarte nahi badugu, pertsona guztien eskubideak errespetatuko dituen, kohesionatuagoa, toleranteagoa eta inklusiboagoa, erakunde publikoek jakin behar dute kulturen arteko politikek bakarrik ahalbidetzen dutela helburu horiekin dinamika positiboak sortzea. Politika horiek pertsonen elkar eza gutzea sustatu behar dute, harremanetarako eta parte-hartze sozialerako espazio irekiak ahalbidetu behar dituzte eta enpatia sozialeko prozesuak sortu behar dituzte, betiere pertsona guztien eskubide eta betebeharren esparruaren barruan eta antolatzen gaituen zuzenbide-estatua zorrotz betez.

Orain arte bildutako datuek agerian uzten dute euskal gizarteak ongizate sozial eta ekonomikoko maila handiak izaten jarraitzen duen bitartean, lan-nitxo jakin batzuk okupatzeko beharra izaten jarraitzen duen bitartean eta biztanleriaren adin-piramidea gaztetzeko premia duen bitartean, atzerritar jatorriko pertsonak jasotzen jarraituko dugula gure inguruan. Gizarte-, lan- eta demografia-aurreikuspenek pentsarazten digute etorkizun hurbilean atzerritar jatorriko etorkinak jasotzen jarraituko dugula.

Pentsatzekoa da jatorri horiek, antza denez edo epe laburrean behintzat, batik bat Latinoamerikako herrialdeetakoak eta Afrikako herrialdeetakoak izango direla, Arabako gizartean azkenaldian entitate propioa eskuratzen ari diren jatorri batzuk ahaztu gabe, hala nola jatorri pakistandarreko biztanleak.

Gure iritziz, datozen urteetan ere Latinoamerika izango da Arabako etorkinen jatorri-eremu nagusia, indarrean dagoen legeriaren baldintzek jatorri latinoamerrikarreko immigrazioa sustatzen dutelako, batez ere mendekotasuna duten pertsonak (adingabeak edo adinekoak) zaintzearekin, etxeak zaintzarekin eta zerbitzuekin zerikusia duten lan-nitxoak okupatzeko. Jatorri horiek, EAEn, Araban eta haren eskualdeetan, feminizatuta daude. Emakumeen profila hobeto egokitzen zaie enpresa eta familia enplegatzaileen eskaerei eta itxaropenei.


Halaber, handia izaten jarraituko du gure ingurura etortzen den magrebtar jatorriko pertsona-kopuruak, are gehiago Arabari buruz ari bagara, hainbat arrazoirengatik. Besteak beste, jatorri horretako pertsonen kolonia garrantzitsua dagoelako, harrera-sare sozial gisa balio dezakeena, baita gure landa-ingurunean nekazaritza-sektoreak duen garrantziak gizonezkoen eskulana eskatzen duelako ere. Jatorri horiek, beste zenbaitz gain (hala nola Saharaz hegoaldekoak, erErrumaniarrak edo pakistandarrak), arrantzaren, industriaren, eraikuntzaren edo zerbitzuen sektoreek, besteak beste, lan-merkatuan egiten dituzten eskaerei erantzuteko ere balio dezakete.

Azkenik, lehen azal-azaletik aipatu dugun alderdi bat nabarmendu nahi dugu, hain zuzen ere, atzerritar jatorriko eta bertako biztanleek duten adin-egitura desberdina. Atzerritar jatorrikoak oso gazteak dira eta laneko adinean daude gehienak, 16 eta 64 urte bitartean, hau da, biztanleria aktiboa dira. Bertako biztanleria, berriz, zahartuta dago; jaiotza-tasa txikiak ditu eta 64 urtetik gorako mendeko pertsonen proportzioa gero eta handiagoa da.

Lan egiteko eta ugaltzeko adinean dauden atzerritar jatorriko pertsonak etortzeak aukeratzen jo behar dugu, baita EAEko biztanleriaren piramide hondaturako lagungarritzat ere. Euskal gizarteak eta Arabako gizarteak gaztetzea behar dute eta atzerriko immigrazioak aukera ona ematen du horretarako.

2

BIGARREN MAILAKO ITURRIETAKO EGITURAZKO DATUAK





Etxebizitza

1

Atal honetan, atzeritar nazionalitatea duten biztanleen egoera aztertuko dugu, etxebizitza eta babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) lortzeko dagokionez. Pertsonen bizi-baldintzetan eragina duten faktoreen artean garrantzitsuenetako bat da etxebizitzarena eta, etorkinen kasuan, gainera, faktore horrek lotura zuzena du migrazio prozesuarekin eta integrazio eta inklusio sozialarekin. Bestalde, kontuan izan behar dugu, XXI. mendearen hasierako higiezinaren burbuilaren edo booma-
ren garaian eta haren ondorengo krisi ekonomikoan, etxebizitza eskuratzea gure gizarteko arazo nagusienetako bat izan dela. Horretarako arrazoiak hainbat dira, esate baterako, zenbait gizarte-sektorek etxebizitza lortzeko dituzten zailtasunak edo 2008ko eta ondorengo urteetako krisi ekonomikoaren ondorioz gertatutako desjabetzen kopuru handiak.

Bestalde, etxebizitzari dagokionez kontuan izan beharreko beste faktore garrantzitsu bat Babes Ofizialeko Etxebizitzaren inguruko politika da, baita politika horrek Araban dituen bereiztasunak ere, lurralde horretan, EAEko gainerako lurraldetan baino txertatuago baitago. BOEen inguruko politikaren helburua da merkatu pribatuan etxebizitzarik eskuratu ezin duten pertsonen etxebizitza bat eskuratzeko aukera ematea. Eskari gehien duen BOE mota alokairukoa izan arren, mota horretako etxebizitzak dira gutxien eraikitzen direnak. Higiezinaren merkatu pribatuan gertatzen den bezala, etxebizitza publikoen alorrean ere, erregimen nagusia jabetzakoa da. Eskari gehien duen BOE motaren (alokairua) eta eskaintzaren (jabetza) arteko desberdintasun horren ondorioz, alokairuko BOE bat eskatzen duten pertsona askok ezin izaten dute etxebizitza bat eskuratu, esate baterako, atzeritar nazionalitatea duten pertsonen.

Etxebizitzaren gaiaren testuingurua apur bat argitu ondoren, atal honetan atzeritar nazionalitatea duten pertsonen etxebizitzari dagokionez bizi duten egoera aztertuko dugu. Horretarako, bi gai nagusi landuko ditugu. Hasteko, immigrazioaren errealitatea aztertuko dugu, etxebizitzaren jabetza-erregimenari, etxebizitzaren eta haren inguruko eremuaren bizigarritasun-baldintzei, eta etxebizitzarekin zerikusia duten arazo sozialei dagokienez. Atal honetako datuak Eusko Jaurlaritzak egindako Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan (PGDI) oinarritzen dira, eta azterketaren lurralde-eremuari dagokionez, Arabako datuak eta EAEkoak alderatuko ditugu. Inkestaren eredu estatistikoa tarteko, ez da posible Arabako Koadrilen arabera azterketa egitea.

Bestalde, atzerritar jatorriko biztanleek zer-nolako babes ofizialeko etxebizitzak eskatzen dituzten aztertuko dugu, baita haietarako sarbidearen inguruko datuak ere. Eskariari dagokion atalean, Etxebideko babes ofizialeko etxebizitzak eskatzen dituzten pertsonen datu-basea erabiliko dugu. Etxebizitzak eskuratzearen inguruko atalean, berriz, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak 2017an ikus-onetsitako kontratuen ustiaketaren inguruko datuak erabiliko ditugu. Atal horretan aztertuko den lurralde-eremua hiru mailatan sailka dezakegu: EAE, Araba eta Kuadrillak.


Etxebizitza eta bizigarritasun-baldintzak Arabako atzerritar jatorriko biztanleen artean

Etxebizitza edukitzeko erregimena

Etxebizitza edukitzeko erregimena funtsezko aldagaia da etxebizitza eskuratzeko orduan. Europako hainbat herrialdetan alokairuak garrantzi handia duen arren, gurean 'etxebizitza jabetzan izatearen kultura' da nagusi. Ondorioz, gizartearen zati handi baten helburu nagusietako bat etxebizitza jabetzan izatea da. Faktore horrek higiezinaren merkatua baldintzatzen du, eta alderantziz, merkatuan salgai dauden etxebizitzak nagusi baitira, alokairuan dauden etxeen kopuruarekin alderatuz gero. Testuinguru horrek berebiziko garrantzia du atzerritar jatorriko biztanleen artean, migrazio-prozesuaren lehen etapetan pertsona horiek alokairuko etxebizitza bat edo azpierrentatutako gela bat soilik eskura baitezakete.

PGDIren 2016ko datuek tesi hori baieztatzen dute, nahiz eta Arabako kasuaren zenbait alderdi bereizgarri ere erakusten dituzten. 1. grafikoan, nazionalitatearen arabera Araban eta EAEn etxebizitza-erregimen desberdinek duten garrantzia ikusten da. Bi kasuetan, nabarmena da atzerritar nazionalitatea eta Estatuko nazionalitatea duten pertsonen arteko desberdintasuna: atzerritar nazionalitatea duten pertsonak alokatutako etxebizitzetan bizi diren arren, Estatuko nazionalitatea dutenak jabetzako etxebizitzetan bizi dira. Horrela, Araban, atzerritarren %64 eta Estatuko nazionalitatea dutenen %10,3 bizi da alokairuan. Jabetzako etxebizitzetara dagokienean, datuak alderantzizkoak dira. Estatuko nazionalitatea duten biztanleen %52 guztiz ordainduta dauden etxebizitzetan bizi da, eta %35,4 oraindik etxebizitza ordaintzen ari da.

1. GRAFIKOA. JABETZA-ERREGIMENA NAZIONALITATEAREN ETA LURRALDEAREN ARABERA. FAMILIA-ETXEBIZITZETAN BIZI DIREN BIZTANLEAK (%). 2016



Iturria: Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta. 2016. Egileek egina

Atzerritar nazionalitatea duten biztanleen %3,8 soilik bizi da guztiz ordainduta dauden etxebizitzetan, eta %24,3 oraindik etxebizitza ordaintzen ari da. Azken datu horrek agerian uzten du Araban bizi diren atzerritarren laurenak soilik lortu duela etxebizitza jabetzan izatea. Bestalde, datu horrek adierazten du pertsona horien migrazio-proiektua Arabako Lurralde Historikoan egonkortu dela. Amaitzeko, aipagarria da atzerritar nazionalitatea duten pertsonen %6,9 etxebizitza konpartituetan bizi dela. Erregimen mota hori ohikoa da migrazio prozesuetan, bereziki prozesuen lehen faseetan. Hala ere, posible da talde horretan krisiaren ondorioz etxebizitza konpartitzera behartuta dauden pertsonak ere egotea.


Arabako datuak eta EAEkoak alderatuz gero, joeran nagusiak antzekoak direla ikusiko dugu, baina badira zenbait desberdintasun ere. EAEren kasuan, alokairuan bizi diren atzerritarren ehunekoa Araban baino handiagoa da (%73,3 eta %64, hurrenez hurren) eta gauza bera gertatzen da etxebizitza guztiz ordainduta duten atzerritarren kasuan ere (%6,1 eta %3,8, hurrenez hurren). Beren etxebizitza ordaintzen ari diren atzerritarrei dagokienez, Arabako datuek EAEko datuak gainditzen dituzte (%24,3 eta %17,1, hurrenez hurren). Datu horrek agerian uzten du Arabako lurralde historikoan bizi diren atzerritar nazionalitateko pertsonak etxebizitzak erosteko aukera gehiago izan dituztela, ziurrenik babestutako etxebizitza gehiago egin direlako.

Etxebizitzaren eta inguruaren bizigarritasun-baldintzak

2. grafikoan etxebizitzetan eta bizitoki-inguruetan dauden arazoak ikus daitezke, biztanleen nazionalitatearen arabera. Orokorrean, atzerritar nazionalitatea duten pertsonak bizigarritasun-baldintza okerragoak dituzten etxebizitzetan bizi dira, baina gai horri dagokionez, zenbait ñabardura egitea komeni da. Araban, atzerritar nazionalitatea duten pertsonen %11,4 hezetasun-arazoak dituzten etxebizitzetan bizi da. Horrez gain, %39,1ek dio bere etxebizitzaren azalera ez dela egokia bere beharrentzat. Estatuko nazionalitatea duten pertsonen artean, errealitatea bestelakoa da: %8,1ek soilik ditu hezetasun-arazoak, eta %7,8k soilik dio bere etxebizitzaren azalera ez dela egokia bere beharrentzat. Behar adina argi ez duten etxebizitzetara dagokienez, atzerritarren %2,6k soilik dio ez duela behar adina argi etxean. Estatuko nazionalitatea dutenen artean, kopuru hori %4,7 da.

Etxebizitzaren inguruko eremuari dagokionez, datuen arabera, Estatuko nazionalitatea dutenen ehuneko handiagoa bizi da ingurune prekarioetan. Hain zuzen, Estatuko nazionalitatea dutenen %6,5 zarataz eta kutsaduraz inguratuta bizi da, %3,3 ingurune zikinetan bizi da eta %6 delinkuentzia eta bandalismo arazoak dituzten inguruetan bizi da. Atzerritar nazionalitatea dutenen artean kopuru horiek %2,8, %0,8 eta %8,2 dira, hurrenez hurren. Etxebizitzaren inguruko baldintzei dagokienez, eremuko delinkuentziari eta bandalismoari dagokion ehunekoa soilik da handiagoa atzerritar nazionalitatea dutenen artean.

2. GRAFIKOA. ETXEBIZITZEN ETA ETXEBIZITZEN INGURUKO EREMUETAKO ARAZOAK, NAZIONALITATEAREN ETA LURRALDEAREN ARABERA. FAMILIA-ETXEBIZITZETAN BIZI DIREN BIZTANLEAK (%). 2016



Iturria: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta. 2016. Egileek egina


Arabako errealitatea eta EAEko errealitatea alderatuz gero, desberdintasun esanguratsuak aurkitzen ditugu. Bizigarritasun-baldintza nagusiei dagokienez (hezetasuna eta azalera-eskasia), lehenengo arazoaren kasuan Araban bizi ziren atzeritarren egoera hobe da (%11,4 Araban eta %19,6 EAEn, baina ezin dugu ahaztu arabar klima lehorragoa dela). Azalera-eskasiari dagokionez, arazo hori pairatzen duten Arabako atzeritarrak EAEkoak baino gehiago dira (%39,1 eta %28,7, hurrenez hurren). Behar adina argitasun ez duten etxebizitzaren kasuan, Arabako etorkinen egoera EAEkoena baino apur bat hobe da (%2,6 eta %4,8, hurrenez hurren).

Etxebizitzaren inguruko eremuaren baldintzei dagokienez, hiru faktore aztertu ditugu: soinuak, kutsadura eta delinkuentzia. Arabako eta EAEko atzeritarren egoera alderatu gero, delinkuentziari dagokionean soilik bizi dute egoera okerragoa Arabako atzeritarrek.

Etxebizitzarekin lotura duten arazo sozialak

3. grafikoan etxebizitzarekin lotura duten zenbait arazo sozialen intzidentzia-maila ikus dezakegu, hala nola hipoteka eta fakturak ez ordaintzea edo ordainketan atzerapenak izatea, bestelako maileguak, horniketak etetea edo ondasunak bahitzea. Kasu horretan, datuek bi errealitate erakusten dituzte. Lehenengoa, etxebizitzarekin lotura duten arazo sozialen intzidentzia handiagoa dela atzeritar nazionalitatea duten biztanleen artean, eta bigarrena, intzidentzia hori handiagoa dela Araban bizi diren atzeritarren artean, EAEn bizi diren atzeritarren artean baino.

3. GRAFIKOA. ETXEBIZITZAREKIN LOTURA DUTEN ARAZO SOZIALAK, NAZIONALITATEAREN ETA LURRALDEAREN ARABERA. FAMILIA-ETXEBIZITZETAN BIZI DIREN BIZTANLEAK (%). 2016



Iturria: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta. 2016. Egileek egina

Arabako datuek erakusten digute atzerritarren heren batek baino gehiagok ezin izan dituztela hipoteka edo, argiaren, uraren, gasaren edo bestelako erregaien fakturak ordaindu edo ordainketan atzeratu egin izan direla (%34,5 hipotekaren kasuan, eta %31,5 fakturen kasuan). EAE mailan atzerritarren kolektiboak gai horren inguruan dituen arazoak aztertuz gero, ikus dezakegu intzidentzia garrantzitsua dela, baina ez dela hain handia: hipoteka ordaindu ezin dutenak edo ordainketetan atzeratzen direnak %19,9 dira, eta fakturak ordaindu ezin dituztenak edo ordainketan atzeratzen direnak %23,8.

Arazo horiez gain, badira intzidentzia maila txikiagoa duten arazoak, esate baterako, bestelako maileguak ez ordaintzea edo ordainketan atzeratzea, horniketak etetea edo ondasunak bahitzea. Arabako lurraldeko atzerritarrei dagokienez, %12k horniketetan etenak jasan ditu, %11,1ek ezin izan ditu maileguak ordaindu edo ordainketak garaiz egin, eta %4ri ondasunak bahitu dizkiete. Datu horiei dagokienez, EAEko atzerritarren egoerarekin alderatuz gero, Arabako atzerritarren egoera okerragoa da.

Amaitzeko, atzerritar nazionalitatea duten biztanleen egoera eta Estatuko nazionalitatea duten biztanleen egoera alderatuz gero, ikusiko dugu etxebizitzarekin lotura duten arazo sozialen intzidentzia oso desberdina dela kolektibo bakoitzaren kasuan. Araban, hipotekak ordaindu ezin dituztenen kopurua 30,3 puntu handiagoa da atzerritarren artean, Estatuko nazionalitatea dutenen artean baino. Fakturak ordaindu ezin dituztenen edo garaiz ordaintzen ez dituztenen kopurua 26,6 puntu handiagoa da, bestelako maileguen kasuan bi kolektiboen arteko desberdintasuna 9,8 puntukoa da, eta hornikuntzen etenak jasaten dituztenen kasuan, 9,2 puntukoa.

BOEen eskaria eta haiek lortzeko aukerak atzerritar nazionalitatea duten Arabako biztanleen artean

BOEen eskaria

Atal honetan, atzerritar nazionalitatea duten Arabako biztanleen BOEen eskaria aztertuko dugu. Horretarako, 2018an Etxebiden etxebizitza-eskaera egin zuten pertsonen datuak erabili ditugu. Zehaztu beharra dugu, jarraian aztertuko ditugun datuak irekitako espedientei dagozkiela, eta ez eskatzaile guztiei, espediente beraren baitan pertsona bat baina gehiago egon baitaitezke. Bestalde, espedientearen profil soziodemografikoak zehazteko, espedientearen ageri den lehenengo pertsona izan dugu kontuan.

2018an (1. taula), EAEn, BOE bat eskatzeko 62.503 espediente ireki ziren, eta horietatik 16.732 atzerritar nazionalitateko biztanleei zegozkien. Ehunekoei erreparaturaz gero, BOE bat eskatzen duten pertsonen lauren bat, hain zuzen ere %26,8, atzerritar nazionalitatea duten biztanleak dira.

1. TAULA. BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ESKATZAILEAK. ESPEDIENTEAK. 2018

	Espedienteak guztira	Eskatzaile atzerritarrek	Atzerritarrek
Araba	8.503	3.466	40,8
EAE	62.503	16.732	26,8

Iturria: Ingurumen, Lurralde Antolakuntza eta Etxebizitza saila. Eusko Jaurlaritza. Egileek egina

Arabako datuei erreparaturaz gero, desberdintasun nabarmenak aurkituko ditugu. Araban BOE bat eskatzeko 8.503 espediente aurki ditzakegu. Horietatik 3.466 atzerritar nazionalitatea duten pertsonei dagozkie; hain zuzen, Arabako babes ofizialeko etxebizitzaren eskariaren %40,8. Orain ikusiko dugu, babes ofizialeko etxebizitzak eskatzen dituztenen artean, atzerritarren kopurua askoz ere handiagoa dela Araban EAEn baino.

BOEen eskaria koadrilen arabera aztertuz gero (2. taula eta 4. grafikoa), argi ikusiko dugu eskakizun gehienak Gasteizen kontzentratzen direla. Hiriburuari 7.258 espediente dagozkie, guztizko eskariaren %85,4. Gasteizek duen pisu demografikoa kontuan hartuta, datua guztiz zentzuzkoa da (Gasteizen Arabako populazioaren %80 kontzentratzen da). Espediente kopuru gehien dituen bigarren kuadrilla Aiaraldea da, 682 espedienterekin. Haren atzetik Arabako Lautada dago 204 espedienterekin, eta laugarren postuan, Guardia-Arabako Errioxa, 150 espedienterekin.

2. TAULA. BOEEN ESKARIA KOADRILEN ARABERA. ESPEDIENTEAK. 2018

	Espedienteak guztira	Eskatzaile atzerritarrak	Atzerritarrak
Añana	88	36	40,9
Arabako Lautada	204	89	43,6
Aiara	682	146	21,4
Kanpezu-Arabako Mendialdea	29	13	44,8
Gorbeialdea	102	26	25,5
Guardia-Arabako Errioxa	150	77	51,3
Gasteiz	7.258	3.082	42,5
Araba	8.503	3.466	40,8

Iturria: Ingurumen, Lurralde Antolakuntza eta Etxebizitza saila. Eusko Jaurlaritza.
Egileek egina


4. GRAFIKOA. BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ESKATZAILEAK, KOADRILEN ARABERA (%). ESPEDIENTEAK. 2018



Iturria: Ingurumen, Lurralde Antolakuntza eta Etxebizitza saila. Eusko Jaurlaritza.
Egileek egina

Kontuan izan behar dugu eskarien banaketa kuadrilla bakoitzaren pisu demografikoarekin bat datorrela. Hala ere, daturik esanguratsuena da eskaria egiten dutenen artean atzerritar nazionalitatea duten pertsonen duten pisua. Erreferentzia gisa Arabako lurraldeari dagokion %40,8 hartuz gero, argi ikusten da kuadrilla batzuek kopuru hori nabarmen gainditzen dutela eta beste batzuk kopuruaren azpitik daudela.

5. GRAFIKOA. BOEEN ESKATZAILEEN ARTEAN ATZERRITARREI DAGOKIEN EHUNEKOAK. KOADRILETAKO DATUAK ARABAKO KOPURUEN ARABERA. ESPEDIENTEAK. 2018



Iturria: Ingurumen, Lurralde Antolakuntza eta Etxebizitza saila. Eusko Jaurlaritzaren Egileek egina

Ehuneko handiena duten koadrilen artean, Guardia-Arabako Errioxa dago. Bertan, eskarien %51,3 atzerritar nazionalitatea duten pertsonen dagokie, hau da Arabako guztizko kopurua baino 10,5 puntu gehiago. Haren atzetik daude Arabako Mendialdea eskarien %44,8rekin (+ 4 puntu) eta Arabako Lautada, %43,6rekin (+ 2,8 puntu).

Kontrako aldean, Aiaraldea daukagu. Bertan, Babes Ofizialeko Etxebizitzak eskatzen dituztenen %21,4 atzerritar nazionalitatea duten pertsonak dira, Arabako guztizko kopurua baino 19,4 puntu gutxiago. Haren atzetik Gorbeialdea dago. Bertan, eskatzaileen %25,5 dira atzerritar nazionalitatea dutenak, Arabako guztizko kopurua baino 15,3 puntu gutxiago. Amaitzeko, Añanako eta Gasteizko koadrilei dagokienez, ehunekoak Arabako guztizko kopuruen antzekoak dira.

Eskatzen diren BOE motak

BOEen eskarietan nagusi den jabetza-erregimenari dagokionez, 3. taulako datuek garbi erakusten dute eskari gehien duten etxebizitzak alokairuan ematen direnak direla. EAEn eskatzaileen %81,9k alokairuko etxebizitza eskatzen du, eta %18,1ek, jabetzako etxebizitza. Araban, alokairuko etxebizitzaren eskaria are handiagoa da, %94,6 hain zuzen (EAEko kopurua baino 12,7 puntu gehiago). Arabako datuekin jarraituz, soilik %5,4k egiten du jabetzako etxebizitza baten aldeko hautua.

3. TAULA. BOEEN ESKARIA ETXEBIZITZA-MOTAREN (ALOKAIRUA/EROSKETA), NAZIONALITATEAREN ETA LURRALDEAREN ARABERA. ESPEDIENTEAK. 2018

	Eskariak guztira				Atzerritarrek			
	Alokairua	Erosketa	Alokairuaren %	Erosketaren %	Alokairua	Erosketa	Alokairuaren %	Erosketaren %
Araba	8.042	461	94,6	5,4	3.449	17	99,5	0,5
EAE	51.160	11.343	81,9	18,1	16.409	323	98,1	1,9

Iturria: Ingurumen, Lurralde Antolakuntza eta Etxebizitza saila. Eusko Jaurlaritzaren Egileek egina

Ikus dezakegun bezala, alokairuko etxebizitzaren eskaria handiagoa da atzeritar nazionalitatea duten eskatzaileen artean. Gainera, ez dago desberdintasunik EAEko eta Arabako datuen artean. Bi kasuetan, atzeritar nazionalitatea duten ia eskatzaile guztiek egiten dute alokairuko etxebizitza baten aldeko hautua eta ia inork ez du etxebizitza erostearen aldeko hautua egiten.

4. TAULA. BOEEN ESKARIA ETXEBIZITZA-MOTAREN (ALOKAIRUA/EROSKETA) ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA. KUADRILLAK. ESPEDIENTEAK. 2018

	Eskariak guztira				Atzeritarrek			
	Alokairua	Erosketa	Alokairuaren %	Erosketaren %	Alokairua	Erosketa	Alokairuaren %	Erosketaren %
Añana	87	1	98,9	1,1	36	0	100	0
Arabako Laudata	197	7	96,6	3,4	89	0	100	0
Aiara	514	168	75,4	24,6	145	1	99,3	0,7
Kanpezu-Arabako Mendialdea	28	1	96,6	3,4	13	0	100	0
Gorbeialdea	94	8	92,2	7,8	24	2	92,3	7,7
Guardia-Arabako Errioxa	149	1	99,3	0,7	77	0	100	0
Gasteiz	6982	276	96,2	3,8	3.068	14	99,5	0,5
Araba	8.042	461	94,6	5,4	3.449	17	99,5	0,5

Iturria: Ingurumen, Lurralde Antolakuntza eta Etxebizitza saila. Eusko Jaurlaritza. Egileek egina

Koadrilen araberako azterketan (4. taula) ikus dezakegu, orokorrean, alokairuaren aldeko joera nagusi dela. Hala ere, zenbait ñabardura ikus daitezke. Guztizko eskariari dagokionez, alokairuaren aldeko joera Arabako %94,6ko kopurua baino handiagoa da Añanan (%98,9), Arabako Lautadan (%96,6), Arabako Mendialdean (96,6), Guardia-Arabako Errioxan (%99,3) eta Gasteizen (%96,2). Bestalde, Gorbeialdean, alokairuko babes ofizialeko etxebizitzaren eskaria %92,2koa da, eta erosketa-erregimeneko babes ofizialeko etxebizitzaren eskaria %7,8koa. Baina joera nagusitik gehien aldentzen den kasua Aiaraldekoa da. Bertan, eskatzaile gehienek alokairuaren aldeko hautua egiten badute ere (%75,4), erosketa-erregimena aukeratzen dutenak %24,6 dira. Azken kopuru hori Arabakoa baino askoz ere handiagoa eta EAEkoa baino handiagoa da. Atzeritar nazionalitatea duten biztanleei dagokionez, alokairuaren aldeko hautua %100 ingurukoa da kuadrilla guztietan, Gorbeialdean salbu. Bertan, atzeritar eskatzaileen %7,7k erosketa-erregimenaren alde egiten du.

Babes ofizialeko etxebizitzak eskatzen dituzten pertsonen profil soziodemografikoa

5. eta 6. taulek eskatzaileen profil soziodemografikoa aztertzen dute, sexua, adina, bizikidetz-unitateko seme-alaben kopurua, diru-sarrerak eta eskari-mota kontuan hartuta.

5. taulan, Arabako eta EAEko eskatzaileen arteko desberdintasunak ikus ditzakegu, nazionalitatearen arabera. Arabako guztizko eskarien ezaugarriari erreparatuz gero, hau da eskatzaileen ereduizko profila: 36 eta 50 urte arteko gizonezko bat, seme-alabarik ez duena, 9.001 eta 25.000 euro arteko diru-sarrerak dituen, eta banakako eskaria egiten duena. Atzerritar nazionalitatea duten eskatzaileen artean ere ereduizko profila oso antzekoa da. Bi profilen arteko desberdintasun nagusia da atzerritar nazionalitatea duten pertsonen familia-eskaria egiten dutela. Horrez gain, Arabako profilak eta EAEkoak alderatuz gero, ikusiko dugu profil-motak errepikatu egiten direla.

5. TAULA. BOEAK ESKATZEN DITUZTEN PERTSONEN ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK, NAZIONALITATEAREN ETA LURRALDEAREN ARABERA. (%). ESPEDIENTEAK. 2018

		Araba		EAE	
		Atzerritarrak	Guztira	Atzerritarrak	Guztira
Sexua	Gizonak	61	54,7	56,9	49,4
	Emakumeak	39	45,3	43,1	50,6
Adina	16-25	2,3	3	1,9	2,4
	26-35	27	28	27,7	30,5
	36-50	57,3	49	55,8	45,6
	51-65	12,1	17,1	12,9	17,6
	>65	1,4	2,9	1,6	4
Seme-alabak	Seme-alabarik ez	52,2	59,9	54,9	65,4
	1-2 seme-alaba	32,9	29,7	32,0	26,3
	4-5 seme-alaba	12,1	8,7	10,0	6,5
	5 baino gehiago	2,8	1,8	3,1	1,8
Eskari-mota	Beste familia batzuk	0,5	0,5	0,7	0,7
	Beste eskari batzuk	0,5	0,4	0,4	0,4
	Bakarkakoa	47,6	56	50,3	60
	Familia-unitatekoa	51,4	43,1	48,7	39
Etxeko diru-sarreraren tarteak	Diru-sarrerarik ez	24,2	19,2	31,8	18,9
	1-3000	5,1	4,1	4,2	3,2
	3001-9000	16,6	16	13,4	12,1
	9001-25000	49,5	52,3	45	51,1
	25001-39000	4,4	7,4	5	11,9
	39001-50000	0,1	0,8	0,5	2,1
	>500001	0	0,3	0,1	0,7

Iturria: Ingurumen, Lurralde Antolakuntza eta Etxebizitza saila. Eusko Jaurlaritza. Egileek egina

Arabako atzerritar eskatzaileen profila sakonago aztertuz gero, ikusiko dugu eskatzaileen %61 gizonezkoak direla, eta %57,3k 36 eta 50 urte bitartean dituztela. Bestalde, adinari erreparatuz gero, ikusiko dugu eskatzaileen %29,3 16 eta 35 urte bitarteko gazteak direla. Seme-alaben kopuruari dagokionez, eskaria egiten dutenen gehiengoak (%52,2) seme-alabarik ez duela dio, %32,9k seme-alaba bat edo

bi dituela dio, eta %12,1ek lau edo bost seme-alaba dituela dio. Diru-sarrerei dagokienez, %24,2k dio ez duela diru-sarrerarik eta %5,1ek dio 3.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituela. Datu horiek ezinezko egiten dute pertsona horiek edozein motako BOE bat eskuratu ahal izatea, ezinbestekoa baita gutxienez 3.000 euroko diru-sarrerak izatea. Bestalde, eskatzaileen %66,1ek dio 3.001 eta 25.000 euro bitarteko diru-sarrerak dituela, beraz, diru-sarrerei dagokienez, pertsona horiek alokairuko babes ofizialeko etxe bat eskatzeko baldintzak betetzen dituzte. Amaitzeko, aipagarria da atzeritar nazionalitatea duten eskatzaileen %51,4k familia-eskaria egiten duela eta %47,6k banakako eskaria egiten duela.

6. TAULA. ATZERITAR NAZIONALITATEA DUTEN BOEEN ESKATZAILEEN ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK (%).KUADRILLAK. ESPEDIENTEAK. 2018

		Araba	Añana	Arabako Lautada	Aiara	Kanpezu-Arabako Mendialdea	Gorbeialdea	Guardia-Arabako Errioxa	Gasteiz
Sexua	Gizonak	61	77,8	62,9	63	69,2	69,2	76,6	60,2
	Emakumeak	39	22,2	37,1	37	30,8	30,8	23,4	39,8
Adina	16-25	2,3	0	2,3	0	0	0	1,3	2,4
	26-35	27	22,2	20,5	21,9	30,8	38,5	28,6	27,4
	36-50	57,3	58,3	64,8	67,1	69,2	46,2	59,7	56,5
	51-65	12,1	19,4	11,4	9,6	0	11,5	10,4	12,2
	>65	1,4	0	1,1	1,4	0	3,8	0	1,4
Seme-alabak	Seme-alabarik ez	52,2	27,8	33,7	38,4	30,8	65,4	32,5	54,2
	1-2 seme-alaba	32,9	33,3	34,8	36,3	30,8	19,2	32,5	32,8
	4-5 seme-alaba	12,1	30,6	19,1	20,5	38,5	15,4	24,7	10,8
	5 baino gehiago	2,8	8,3	12,4	4,8	0	0	10,4	2,2
Eskari-mota	Beste familia batzuk	0,5	2,8	0	0	0	0	0	0,6
	Beste eskari batzuk	0,5	0	1,1	0	0	0	0	0,5
	Bakarkakoa	47,6	19,4	33,7	38,4	23,1	50	23,4	49,5
	Familia-unitatekoa	51,4	77,8	65,2	61,6	76,9	50	76,6	49,4
Etxeko diru-sarreraren tartea	Diru-sarrerarik ez	24,2	11,1	21,3	28,8	7,7	26,9	11,7	24,6
	1-3000	5,1	2,8	2,2	12,3	0	3,8	1,3	5
	3001-9000	16,6	13,9	15,7	15,1	46,2	15,4	24,7	16,4
	9001-25000	49,5	69,4	50,6	39,7	46,2	46,2	54,5	49,6
	25001-39000	4,4	2,8	10,1	4,1	0	7,7	7,8	4,2
	39001-50000	0,1	0	0	0	0	0	0	0,1
	>500001	0	0	0	0	0	0	0	0

Iturria: Ingurumen, Lurralde Antolakuntza eta Etxebizitza saila. Eusko Jaurlaritza.
Egileek egina

Eskatzaileen profil soziodemografikoak koadrilen arabera aztertuz gero, ondorio hauek atera ditzakegu 6. taulako emaitzetatik:

- **Añana:** Eskatzaile gehienak gizonezkoak dira (%77,8). Adinari dagokionez, gehienak 36-50 urte bitartekoak dira. 16-35 urteen arteko gazteen eskariak %22,2 dira, Arabako guztizko kopurua baino baxuagoa, eta 51-56 urte bitartekoaren eskariak %19,4 dira, Arabako guztizko kopurua baino altuagoa. Seme-alaben kopuruari dagokionez, Araban ez bezala, eskatzaile gehienek seme-alabak dituzte: %33,3k seme-alaba bat eta hiru bitartean, eta %30,6k lau eta bost seme-alaba bitartean. Diru-sarreraren kasuan, ikus dezakegu eskatzaileek gaitasun ekonomiko handiagoa dutela, soilik %11,1ek aitortu baitu ez duela diru-sarrerarik. Eskatzaileen %83,3k 3.001 eta 25.000 euroko diru-sarrerak ditu. Amaitzeko, aipatu behar dugu eskari-mota nagusia, %77,8, familia-eskaria dela.
- **Arabako Lautada:** Atzerriar nazionalitatea duten eskatzaileen %62,9 gizonezkoak dira. Kopuru hori Arabako Lurralde Historikoko datuen antzekoa da. Eskatzaileen adinari dagokionez, eskatzaile gehienak, %64,8, 36 eta 50 urte bitartekoak dira. 16 eta 35 urte bitarteko gazteen eskariak, berriz, guztizko eskariaren %22,8 dira. Atzerriar gehienek seme-alabak dituzte: %34,8k bat eta bi artean, %19,1ek lau eta bost artean, eta %12,4k bost seme-alaba baino gehiago dituela dio. Kasu honetan, eskatzaileen heren baten baino apur bat gehiagok (%33,7) ez du seme-alabarik. Datu horiekin bat eginez, eskaeren %65,2 familia-eskariak dira. Diru-sarrerari dagokionez, eskatzaileen bostenak (%12,3) dio ez duela diru-sarrerarik eta %2,2k dio 3.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituela.
- **Aiara:** Eskatzaileen %63 gizonezkoak dira. Beraz, kasu honetan ere, kopuru hori Arabako Lurralde Historikoko datuen antzekoa da. Adinari dagokionez, hemen ere eskatzaileen adin-tarte nagusia 36-50 urteen artekoa da (%67,1). Eskatzaile gazteak (35 urtetik beherakoak), ordea, %21,9 dira. Seme-alaben kasuan, %38,4k dio ez duela seme-alabarik, %36,3k dio bat edo bi dituela, eta %20,5ek dio lau edo bost dituela. Datu horiekin bat eginez, eskatzaile gehienek (%61,6) familia-eskaria egin dute. Diru-sarreraren atalean, kuadrilla honetan Arabako diru-sarrera baxuenak ikus ditzakegu. Hain zuzen, %28,8k dio ez duela diru-sarrerarik eta %12,3k dio 3.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituela. Datu horien arabera, Aiaraldeko kuadrillan babes ofizialeko etxebizitza bat eskatu duten atzerriar nazionalitateko pertsonen %40k ezingo luke BOErik eskuratu. Hala ere, eskatzaileen %39,7k 9.001 eta 25.000 arteko diru-sarrerak dituela dio, eta %15,1ak, 3.001 eta 9.000 artekoak.
- **Kanpezu-Arabako Mendialdea:** Eskatzaileen %69,2 gizonezkoak dira. Adinari dagokionez, gehienak (%69,2) 36 eta 50 urte bitartekoak dira. Eskatzaile gazteak, 26 eta 35 urte bitartekoak, eskatzaileen guztizko kopuruaren %30,8 dira. Seme-alaba kopuruaren kasuan, %38,5ek dio lau edo bost seme-alaba dituela, herenak dio ez duela seme-alabarik, eta beste herenak dio seme-alaba bat edo bi dituela. Gainerako kasuetan bezala, kuadrilla honetan ere, seme-alabak dituzten eskatzaileen kopuruak duen garrantziarekin bat, eskari gehienak familia-eskariak dira. Amaitzeko, diru-sarrerari dagokionez, eskatzaileen %92,3k dio 3.001 eta 25.000 euro arteko diru-sarrerak dituela.
- **Gorbeialdea:** Aurreko kasuan bezala, kuadrilla honetan ere eskatzaileen %69,2


gizonezkoak dira. Hala ere, kuadrilla honetako bereizgarri nagusia da atzerritar nazionalitatea duten pertsona gazteen eskarien ugaritasuna; eskarien %38,5 26 eta 35 urte bitarteko gazteei dagokie, eta %46,2 36 eta 50 urte bitarteko pertsonari. Eskatzaileen adinak eragina du seme-alaba kopuruan ere: eskatzaileen %65,4k ez du seme-alabarik, eta %50ak banakako eskaera egin du. Amaitzeko, diru-sarreraren atalean, esan dezakegu eskatzaileen gaitasun ekonomikoa ez dela oso handia. Eskatzaileen %30ek dio ez duela diru-sarrerarik edo 3.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituela, beraz, pertsona horiek ezin dute BOE bat eskuratu. Bestalde, esan beharra dago, eskatzaileen %46,2k 9.001 eta 25.000 euro arteko diru-sarrerak dituela, eta %15,4k 3.001 eta 9.000 euro artekoak.

- **Guardia-Arabako Errioxa:** Añanaren kasuan bezala, Guardia-Arabako Errioxako kuadrillan gizonezkoen eskariak pisu handia dute. Hain zuzen ere, eskatzaileen %76,6 gizonezkoa da. Eskatzaileen adinari dagokionez, %59,7k 36 eta 50 urte bitartean ditu eta %29,9k 16 eta 35 urte bitartean. Hala ere, kuadrilla hau besteetatik bereizten duena eskatzaileen seme-alaba kopurua da. Hain zuzen ere, eskatzaileen %24,7k lau edo bost seme-alaba ditu eta %10,4k dio bost seme-alaba baino gehiago dituela; hots, kuadrilla honetako eskarien %35,1 seme-alaba askoko familiei dagokie. Egoera hori kontuan hartuta, ez da harritzeko eskarien %76,6 familia-eskariak izatea. Diru-sarrerari dagokienez, eskatzaileen %54,5k 9.001 eta 25.000 euro bitarteko diru-sarrerak aitortu ditu, eta %24,7k 3.001 eta 9.000 euro bitartekoak.
- **Gasteiz:** Bere pisu demografikoa tarteko, Arabako kuadrillarik garrantzitsuenak dira. Lehenago ikusi dugun bezala, eskariaren %85 kuadrilla honetan kontzentratzen da. Hori dela eta, Gasteizko profil soziodemografikoa Arabako guztizkoaren oso antzekoa da. Zentzu horretan, eskatzaileen profila 36 eta 50 urte bitarteko (%56,5) gizonezko batena da (%60,2). Hala ere, aipatu beharra dugu gazteen presentzia ere garrantzitsua dela, eskarien %29,8 16 eta 35 urte bitarteko pertsonari baitagokie. Seme-alaben kopuruari dagokionez, eskatzaile gehienek (%54,2) ez dute seme-alabarik, eta horrek eragina du eskaera motan ere: %49,5 banakako eskaerak dira, eta %49,5 familia-eskaerak. Amaitzeko, diru-sarrerari dagokienez, %24,6k dio ez duela diru-sarrerarik, eta %5ak 3.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituela aitortu du. Hau da, kuadrilla honetako eskatzaileen %30ak ezin du BOE bat eskuratu. Hala ere, aipatzekoa da, eskatzaileen %49,6k 9.001 eta 25.000 euro arteko diru-sarrerak aitortu dituela.

BOEen esleipenak

Atzerritar nazionalitatea duten Arabako biztanleen eskari motak eta profilak aztertutako ondoren, atal honetan, babes ofizialeko etxebizitzetarako sarbidea aztertuko dugu. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolakuntza eta Etxebizitza Sailak 2017an ikus-onetsitako kontratuak aztertuko ditugu. Urte hartan, EAEn babes ofizialeko etxebizitzeari zegozkien 5.381 kontratu ikus-onetsi ziren, eta haietatik 1.192 Araban sinatu ziren. Beste hitz batzuetan esateko, 2017an, EAEko BOEen kontratuen %35,5 sinatu zen Araban, nahiz eta Arabako eskariak EAEko guztizko eskarien %13,6 izan. Eskarien ehunekoen eta sinatutako kontratuen arteko desberdintasunaren arrazoi nagusia Gasteizko higiezinaren merkatuan BOEek duten garrantzia bilatu behar dugu. Gasteiz da azken urteetan garapen urbanistiko handiena bizi izan duen EAEko hiria, eta bertan, BOE eskaintza EAEko beste edozein hiritan baino handiagoa da.

6. GRAFIKOA. ARABAKO EHUNEKOAK BOEEN ESKARIARI ETA IKUS-ONETSITAKO KONTRATUEI DAGOKIENEZ. ESKARIA ETA IKUS-ONETSITAKO KONTRATUAK. GUZTIZKO DATUAK ETA ATZERRITAR NAZIONALITATEA DUTENEI DAGOKIEN DATUAK. 2017



Iturria: Ingurumen, Lurralde Antolakuntza eta Etxebizitza saila. Eusko Jaurlaritza. Egileek egina

Atzerritar nazionalitatea duten pertsonen dagokienaz, desberdintasuna are handiagoa da. BOE bat eskatzen duten atzerritarren guztizko kopuruari dagokionez, Araban bizi direnak %20,7 dira. Baina kontratuen kasuan, haien pisua hirukoiztu egiten da, %64ra iritsiz. Beste modu batera esanda, BOE bat eskatzen duten pertsonen kasuan, hamarretik bi Araban bizi badira ere, esleipen-kontratua sinatzen dutenen artean, hamarretik sei bizi dira Araban. EAEko 2017ko guztizko datuei erreparatuz gero, atzerritar nazionalitatea duten biztanleek 658 kontratu sinatu zituzten, eta haietatik 421 Araban sinatu ziren.

7. taulan ikus-onetsitako kontratuen datuak ikus daitezke, lurraldearen arabera. Datuetan ikusten den bezala, kasu honetan ez da posible koadrilen arabera azterketa bat egitea, 2017an 12 udalerritan soilik sinatu baitziren babes ofizialeko etxebizitzaren kontratuak. Gainera, ia kontratu guztiak (%97,2) Gasteizen sinatu ziren. Kontzentrazio horren zergatia aztertzeke, lehen aipatu dugun bezala, kontuan izan behar dugu azken urteetan Arabako babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntza

Gasteizen kontzentratu dela. Horrez gain, ikus dezakegu ez dagoela desberdintasunik kontratuen guztizko banaketaren eta atzerritarrek sinatutako kontratuen artean.

7. TAULA. ARABAN IKUS-ONETSITAKO BOEEN KONTRATUAK, UDALERRIAREN ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA. 2017

	Guztira		Atzerritarrak	
	Kontratuak	%	Kontratuak	%
Agurain	7	0,4	1	0,2
Amurrio	5	0,3	1	0,2
Aramaio	1	0,1	0	0
Arraia-Maeztu	1	0,1	0	0
Asparrena	1	0,1	0	0
Eltziego	1	0,1	1	0,2
Iruña Oka	33	1,7	9	2,1
Okondo	2	0,1	0	0
Oion	1	0,1	0	0
Urkabustaiz	1	0,1	0	0
Gaubea	1	0,1	0	0
Gasteiz	1.858	97,2	409	97,1
Araba	1.912	100	421	100

Iturria: Ingurumen, Lurralde Antolakuntza eta Etxebizitza saila. Eusko Jaurlaritza. Egileek egina

7. grafikoan, Arabako datuetan atzerritar nazionalitatea duten pertsonen pisua ikus dezakegu, BOEen eskariari eta sinatzen diren kontratuei dagokienez. Emaizteak agerian uzten dute atzerritar nazionalitateko pertsonen eskarien %40 egiten duten arren, BOEen esleipenari dagozkion datuetan ehuneko horrek behera egiten duela (%22,1). Datu horiek argi erakusten dute gizartean ahoz-ahoz dabilen zurrumurru ezagun bat faltsua dela; BOEak lortzen dituzten atzerritarren kopurua ez da Estatuko nazionalitatea dutenena baino handiagoa.

7. GRAFIKOA. ATZERITAR NAZIONALITATEA DUTEN PERTSONEN ARABAKO EHUNEKOAK, BOEEN ESKARIARI ETA IKUS-ONETSITAKO KONTRATUEI DAGOKIENEZ. 2017




Iturria: Ingurumen, Lurralde Antolakuntza eta Etxebizitza saila. Eusko Jaurlaritza. Egileek egina

Eskarien eta sinatutako kontratuen arteko aldea azaltzeko arrazoi nagusiak eska-tzaileen eros-ahalmenean eta eskarien tipologian aurki ditzakegu. Esleitzen diren BOE gehienak salmenta-erregimenekoak dira, eta alokairu sozialeko etxebizitzak askoz gutxiago dira. Atzerritar nazionalitatea duten pertsona askorentzat, beren egoera ekonomikoa eta, zenbait kasutan, legezkoa tarteko, oso zail gertatzen da hipoteka-kreditu bat lortzea eta BOE bat erosi ahal izatea, beraz, alokairu-erre-gimena hautatzen dute. Alokairuko BOEen eskaintza txikiagoa denez, kolektibo horretako kideek aukera gutxiago dituzte BOE bat lortzeko. Horregatik dago ho-rrelako aldea atzerritar nazionalitatea duten pertsonen eskari-kopuruaren eta es-leipenen artean.

Gai berarekin jarraituz, 8. eta 9. grafikoetan ikus daiteke atzerritar nazionalitatea duten pertsonen presentzia oso handia dela alokairu sozialaren kasuan, eta jabe-tzako BOEen kasuan, oso pisu gutxi dutela.

8. GRAFIKOA. ARABAN IKUS-ONETSITAKO KONTRATUAK MOTAREN ARABERA, ATZERRITAR NAZIONALITATEKO BIZTANLEAK ETA GUZTIZKO BIZTANLE-KOPURUA KONTUAN HARTUTA (%)2017



Iturria: Ingurumen, Lurralde Antolakuntza eta Etxebizitza saila. Eusko Jaurlaritza. Egileek egina

8. grafikoan kontratuen banaketa ikus dezakegu, jabetza-erregimenaren eta na-zionalitatearen arabera. Datuek erakusten duten bezala, atzerritar nazionalitatea duten pertsonen artean 2017an Araban sinatu ziren 421 kontratuetatik %94,3 alo-kairu-kontratua izan zen, eta %5,7 erosketa-kontratua. Guztizko kontratu kopuruari dagokionez, alokairu-kontratuak dira gehienak: sinatutako kontratuen %73,3 alo-kairu-kontratuei dagokie, eta %26,3, erosketa-kontratuei.

9. GRAFIKOA. ATZERRITAR NAZIONALITATEA DUTEN PERTSONEN EHUNEKOAK, IKUS-ONETSITAKO KONTRATU MOTEI DAGOKIENEZ. ARABA 2017



Iturria: Ingurumen, Lurralde Antolakuntza eta Etxebizitza saila. Eusko Jaurlaritza. Egileek egina

9. grafikoan ikus ditzakegu atzerritar nazionalitatea duten Arabako biztanleen ehunekoak, BOEen alokairu- eta erosketa-kontratuen arabera banatuta. Grafikoan ageri diren datuen arabera, guztira esleitutako alokairu-kontratuen %28,2 atzerritarrei dagokie. Erosketa-kontratuen kasuan, atzerritarrei esleitutako erosketa-kontratuak %4,8 dira.



Gizarte Zerbitzuak, prestazio ekonomikoak eta DBE

2

Atal honetan, atzerritar jatorriko biztanleriak gizarte-zerbitzuez egiten duen erabilera eta Gizarte Zerbitzuen Sistemako prestazio ekonomikoetarako, hau da, Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako (GLL) duen irisgarritasuna aztertuko ditugu, bai eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko datuak ere.

Gizarte-zerbitzuen eskatzaileak eta GLL

Gizarte-zerbitzuen erabilerari eta prestazio ekonomikoetarako irisgarritasunari buruzko datuei dagokienean, kuadrillei buruzko informazioa biltzeko metodologia desberdina denez eta lortutako datuak heterogeneoak direnez, atal honetako datuak orientatzeko edo lehen hurbilketa bat egiteko balio behar dutela esan behar da. Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eman ditu kuadrilletako datuak; eta Gasteizko Udalak, berriz, Gasteizkoak. Datu batzuen eta besteen artean alde hori dagoela ikusita, kuadrillen datuak eta Gasteizkoak bereiz aztertuko ditugu.

Gizarte-zerbitzuen eskatzaileak eta GLL, kuadrillen arabera

Kuadrillekin hasiko gara. 2012tik 2017ra arte, gizarte-zerbitzuak eskatu dituzten pertsonen kopurua hazi egin da kuadrilla guztietan, Kanpezu-Arabako Mendialdean izan ezik. Horrez gain, eskatzaile guztien kopuruak zein eskatzaile atzerritarren kopuruak gora egin dute.

8. TAULA. GIZARTE-ZERBITZUEN ESKATZAILEN KOPURUAK, KUADRILLAREN ETA JATORRIAREN ARABERA. 2012-2017

	2012		2015		2017		2012-2017		2012-2017 (2012koen %)	
	Guztira	Atzerritarrek	Guztira	Atzerritarrek	Guztira	Atzerritarrek	Guztira	Atzerritarrek	Guztira	Atzerritarrek
Añana	247	36	360	43	369	46	122	10	49,4	27,8
Aiara	792	121	1006	172	1382	207	590	86	74,5	71,1
Kanpezu-Arabako Mendialdea	87	12	132	12	85	10	-2	-2	-2,3	-16,7
Guardia-Arabako Errioxa	412	81	177	21	703	135	291	54	70,6	66,7
Arabako Lautada	465	138	661	177	653	191	188	53	40,4	38,4
Gorbeialdea	230	39	341	44	377	57	147	18	63,9	46,2

Iturria: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak Arabako Foru Aldundia. Egileek egina

Biztanleria handiagoa duela kontuan hartuta, Aiaraldea izan zen atzerritar jatorriko eskatzaile gehien izan zituen kuadrilla 2017an, 207 kasurekin. Haren atzetik, beste bi hauek: Arabako Lautada, 191 kasurekin, eta Guardia-Arabako Errioxa, 135 kasurekin. 2012az geroztik izandako bilakaerari erreparatuta, krisiaren inpaktua nabarmena izan zela ikus daiteke. Denbora-tarte horretan, gizarte-zerbitzuen eskatzaileen ehunekoek nabarmen egin zuten gora, biztanleria osoan nahiz atzerritarrean. Atzerritar jatorriko biztanleriaren kasuan, eskatzaileen kopuruaren gorakada % 71,1ekoa izan da Aiaraldean; % 66,7koa Guardia-Arabako Errioxan; % 46,2koa Gorbeialdean; % 38,4koa Arabako Lautadan; eta % 27,8koa Añanan. Ehuneko horrek Kanpezu-Arabako Mendialdeko kuadrillan soilik egin du behera; zehazki, eskatzaileen kopuruaren beherakada % 16,7koa izan da kuadrilla horretan.

Gizarte-zerbitzuak ehun biztanletik zenbatek eskatzen dituzten adierazten duen ratioari begiratuta, xehetasun handiagoarekin ikus daiteke biztanleriak zer-nolako intentsitatearekin erabiltzen dituen zerbitzu horiek (9. taula).

9. TAULA. GIZARTE-ZERBITZUEN ESKATZAILEEN 100 BIZTANLEKAKO RATIOA, KUADRILLAREN ETA JATORRIAREN ARABERA. 2012-2017

	2012		2015		2017		2012-2017	
	Guztira	Atzerritarrak	Guztira	Atzerritarrak	Guztira	Atzerritarrak	Guztira	Atzerritarrak
Añana	6,4	6,6	9,4	7,9	9,6	8,2	3,3	1,7
Aiara	3,1	5,7	3,9	8,2	5,3	9,4	2,2	3,7
Kanpezu-Arabako Mendialdea	3,4	5	5,4	7,6	3,5	5,3	0,1	0,4
Guardia-Arabako Errioxa	5,9	6,6	2,6	1,6	10,5	10	4,6	3,4
Arabako Lautada	3,8	9	5,3	11,6	5,2	11,5	1,4	2,4
Gorbeialdea	3,2	5,8	4,8	7,1	5,3	10,1	2,1	4,3

Iturria: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Arabako Foru Aldundia. Egileek egina


Atzerritar biztanleriaren kasuan, Arabako Lautadakoa ratio handieneko kuadrilla izan zen 2017an: 11,5 eskatzaile, 100 biztanle atzerritar bakoitzeko. Haren atzetik zeuden Gorbeialdea (% 10,1), Guardia-Arabako Errioxa (% 10,0), Aiaraldea (% 9,4) eta Añana (% 8,2). Kanpezu-Arabako Mendialdea zen ratio txikiaren kuadrilla: 5,3 eskatzaile, 100 biztanle atzerritar bakoitzeko.

Atzerritar biztanleriaren eta biztanleria guztiaren ratioak alderatuz gero, kuadrilla batzuen eta besteen artean aldeak daudela ikus daiteke. 2017ko datuei erreparatzen badiegu, alde handia dago Arabako Lautadaren eta Gorbeialdearen artean; hots, % 11,5 eta % 5,2 biztanleria atzerritarren kasuan, eta % 5,3 eta % 10,1 biztanleria guztiaren kasuan. Aiaraldean ere, atzerritar biztanleriaren ratioa handiagoa da biztanleria osoarena baino (% 9,4 eta % 5,3), bai eta Kanpezu-Arabako Mendialdean ere (% 5,3 eta % 3,5). Aldiz, Añanan biztanleria osoaren ratioa atzerritar biztanleriarena baino handiagoa da: % 9,6 bata, eta % 8,2 besteak. Ratioen alde horiek 2012. urtekoekin alderatuta, gizarte-zerbitzuak eskatzen dituen atzerritar biztanleriaren ratioa, oro har, biztanleria osoarena baino handiagoa dela ikus dezakegu.

Logikoa den bezala, gizarte-zerbitzuen eskatzaileen gorakadak ratioak ere igotzea ekarri du berekin. Kasu batzuetan, gorakada hori handiagoa izan da atzerritar biztanlerian, eta beste kasu batzuetan, berriz, biztanleria osoan. Añanan eta Guardia-Arabako Errioxan, biztanleria osoaren ratioaren gorakada handiagoa izan da; aldiz, atzerritar biztanleriaren ratioaren gorakada handiagoa izan da Aiaraldean, Kanpezu-Arabako Mendialdean, Arabako Lautadan eta Gorbeialdean.

Bestalde, gizarte-zerbitzuak eskatzen dituzten atzerritar biztanleek kuadrilla bakoitzean zer-nolako pisua duten ikus daiteke 10. grafikoan. Batez besteko proportzioa erreferentzia gisa hartuta, eskatzaileen % 17,1ak atzerritar jatorria zuen 2017an, 2012an baino apur bat gutxiago (% 18,3). Hala ere, kuadrilla batzuen eta besteen arteko aldeak nabarmenak dira. Gizarte-zerbitzuak eskatzen dituen atzerritar biztanleriak Arabako Lautadan du pisurik gehien, alde handiarekin gainera. Kolektibo horrek % 29,2ko pisua zuen 2017an, eta ehuneko hori oso antzekoa zen 2012an (% 29,7). Haren atzetik, Guardia-Arabako Errioxa dago: % 19,2 2017an, eta % 19,7 2012an. Aiaraldearen eta Gorbeialdearen kasuan, atzerritar biztanleriaren pisua % 15,0koa zen 2017an, eta Añanan eta Kanpezu-Arabako Mendialdean, berriz, % 12,5 eta % 11,8 artekoa, hurrenez hurren. Bilakaerari dagokionean, atzerritar biztanleriaren pisuak behera egin du kuadrilla guztietan.

10. GRAFIKOA. GIZARTE-ZERBITZUAK ESKATZEN DITUEN BIZTANLERIA ATZERRITARRAREN EHUNEKOAK, KUADRILLEN ARABERA 2012-2017



Iturria: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Arabako Foru Aldundia. Egileek egina

10 taulan, gizarte-zerbitzuen pertsona eskatzaileen kopuruak ageri dira, sexuaren arabera banatuta. Kuadrilla gehienetan, horrelako zerbitzuak eskatzen dituzten emakumezkoen ehunekoak gizonezkoenak baino handiagoak dira, eta horrek adierazten du Arabako gizarte-zerbitzuen erabiltzailearen profilaren ezaugarri bat dela emakumezko izatea.

10. TAULA. GIZARTE-ZERBITZUAK ESKATZEN DITUEN ATZERRITAR BIZTANLERIAREN EHUNEKOAK, SEXUAREN, JATORRIAREN ETA KUADRILLAREN ARABERA. 2017


	Guztira		Atzerritarrak	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Añana	40,7	59,3	43,5	56,5
Aiara	43,2	56,8	46,4	53,6
Kanpezu-Arabako Mendialdea	51,8	48,2	60	40
Guardia-Arabako Errioxa	44,7	55,3	50,4	49,6
Arabako Lautada	41,7	58,3	42,4	57,6
Gorbeialdea	48	52	45,6	54,4
Kuadrillen batezbestekoa Gasteiz gabe	45	55	48	52

Iturria: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Arabako Foru Aldundia. Egileek egina

Atzerritar biztanleriaren kasuan, kuadrilla batzuen eta besteen artean aldeak daukela ikus dezakegu. Kanpezu-Arabako Mendialdean, adibidez, gizonezkoek eskakizun guztien % 60,0 egiten dituzte. Guardia-Arabako Errioxan, berriz, gizonezkoen eta emakumezkoen eskakizunetan oreka bat dagoela ikus daiteke: % 50,4 gizonezkoek eta % 49,6 emakumezkoek. Hala ere, gainerako kuadrilla guztietan, gizarte-zerbitzuak eskatzen dituen pertsonaren profilaren ezaugarri bat da emakumezkoa izatea: % 57,6 Arabako Lautadan; % 56,5 Añanan; % 54,4 Gorbeialdean; eta % 53,6 Aiaraldean.

Azkenik, gizarte-zerbitzuak eskatzen dituen atzerritar biztanleriaren jatorriari dagokionean, kuadrilla guztietan jatorri nagusia magrebtarra dela ikus dezakegu 11. grafikoan. Kanpezu-Arabako Mendialdean, % 100 magrebtar jatorrikoak dira, eta, gainerako kuadrilletan, jatorri horretakoak dira gizarte-zerbitzuak eskatzen dituen atzerritar biztanleriaren % 50etik % 60ra arte. Gainerako jatorriei dagokienean, jatorri bakoitzaren pisua aldatu egiten da kuadrilla batetik bestera. Azpimarratzekoa da Gorbeialdearen kasua. Izan ere, eskatzaileen % 33,3 latino-amerikarra da han. Arabako Lautadan, espainiar subiranotasunekoak¹ izan ziren lurraldeetakoak da eskatzaileen % 19,9, eta, Guardia-Arabako Errioxan, EBeko europarra da eskatzaileen % 27,7. Bestalde, Aiaraaldean, % 26,1 latino-amerikarra da; eta Añanan, azkenik, % 19,6 latino-amerikarra da, eta % 19,6 EBeko europarra.

11. GRAFIKOA. GIZARTE-ZERBITZUAK ESKATZEN DITUEN ATZERRITAR BIZTANLERIA, JATORRIAREN ETA KUADRILLAREN ARABERA. 2017



Iturria: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Arabako Foru Aldundia. Egileek egina

Bestalde, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) udaletako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek kudeatzen dituzten prestazio ekonomiko nagusia dira. Gizarte-zerbitzuen eskaeraren bilakaera gorakorrekin bat etorritik, datuek erakusten dute 2012. eta 2017. urteen artean hazi egin dela GLL eskatzen dituzten pertsonen kopurua, bai biztanleria osoan eta bai atzerritar biztanlerian.

¹ Espainiar subiranotasuneko lurraldeak delako termino historikoa Afrika iparraldeko espainiar lurraldeak izendatzeko erabili izan da XIX. mendeaz geroztik, Marokoko protektoratu espainiarra osatzen zuten eremuekin kontrajarriz. Gaur egun, Maroko iparraldeko kostaldeko uharteak eta haitzak identifikatzeko erabiltzen da nomenklatura hori, baina ez Ceuta eta Melilla aipatzeko. Historikoki, espainiar subiranotasuneko lurraldeak bost ziren (Afrikako lehengo gune nagusien ondorengoak), eta bi multzotan banatu izan ohi dira: gune nagusiak eta gune txikiak. Gaur egungo Ceuta eta Melilla ziren gune nagusiak, eta gune txiki esan ohi zitzairen, berriz, Chafarina uharteei, Alhucema uharteei eta Vélez de la Gomera haitzari.

11. TAULA. GLLen ESKATZAILEEN KOPURUAK, KUADRILLAREN ETA JATORRIAREN ARABERA. 2012-2017

	2012		2015		2017		2012-2017		2012-2017 (2012koen %)	
	Guztira	Atzerritarak	Guztira	Atzerritarak	Guztira	Atzerritarak	Guztira	Atzerritarak	Guztira	Atzerritarak
Añana	51	22	75	23	59	18	8	-4	15,7	-18,2
Aiara	192	96	273	121	293	145	101	49	52,6	51
Kanpezu-Arabako Mendialdea	15	7	19	10	10	6	-5	-1	-33,3	-14,3
Guardia-Arabako Errioxa	74	27	30	16	100	45	26	18	35,1	66,7
Arabako Lautada	148	82	205	113	172	101	24	19	16,2	23,2
Gorbeialdea	48	27	77	36	32	16	-16	-11	-33,3	-40,7
Total	528	261	679	319	666	331	138	70	26,1	26,8

Iturria: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Arabako Foru Aldundia. Egileek egin

11 taulan ikus daitekeen bezala, guztira, 666 GLL eskatu ziren 2017an aztertutako sei kuadrilletan, eta, horietatik, atzerritar biztanleriak 331 eskatu zituen. 2012arekin alderatuta, eskatzaileen guztien hazkundea nahiz atzerriko biztanleriarena % 26koa izan da, gutxi gorabehera. Atzerritar biztanleriari dagokionean, joera ez da bera izan kuadrilla guztietan, eta oso joera desberdinak daudela ikus daiteke.


Lehenik eta behin, kuadrillen artean aldeak daude eskatzaileen kopuruari dagokionean, kuadrilla horietako biztanleriaren tamainarengatik, batik bat. Hala, Aiaraldean, 145 eskaera egin ziren 2017an, eta horrelako prestazio bat eskatu zuten atzerritarren kopurua beste inon baino handiagoa izan zen. Haren atzetik, Arabako Lautada (101), Guardia-Arabako Errioxa (45), Añana (18), Gorbeialdea (16) eta Kanpezu-Arabako Mendialdea (6).

Bigarrenik, atzerritar biztanleriaren eskakizunek gora egin dute kuadrilla batzuetan, eta beste kuadrilla batzuetan, berriz, behera. Biztanleria txikiagoa duten kuadrilletan, joera beherakorra izan da 2012. eta 2017. urteen artean, eta, zehazki, honako kuadrilla hauetan: Gorbeialdean (% 40,7 gutxiago), Añanan (% 18,2 gutxiago) eta Kanpezu-Arabako Mendialdean (% 14,3 gutxiago). Aldiz, biztanleria handienerako kuadrilletan, joera gorakorra izan da: gorakada % 66,7koa izan da Guardia-Arabako Errioxan; % 51ekoa Aiaraldean; eta % 23,2koa Arabako Lautadan.

GLL eskatzean atzerritar biztanleriak zer pisu duen adierazten du 12 grafikoak, ehunekotan. Lehen aztertutako gizarte-zerbitzuen eskaerari buruzko datuekin alderatuta, kolektibo honek prestazio ekonomiko horretan duen pisua nabarmen handiagoa dela ikus dezakegu. Sei kuadrillak kontuan hartuta, GLLen eskatzaileen ia-ia erdiak atzerritar biztanleak direla ikus dezakegu.

2017ko datuak erreferentzia gisa hartuta, ehuneko horiek guztizkoak baino handiagoak dira Kanpezu-Arabako Mendialdean eta Arabako Lautadan: % 60 eta % 58,7, hurrenez hurren. Guztizko ehunekoaren antzeko ehunekoa dute Gorbeialdeak (% 50,0) eta Aiaraldeak (% 49,5), eta batez besteko portaeraren azpitik daude Guardia-Arabako Errioxa (% 45,0) eta Añana (% 30,5).

12. GRAFIKOA. GLL ESKATZEN DITUEN ATZERRITAR BIZTANLERIAREN EHUNEKOAK, KUADRILLEN ARABERA. 2012-2017



Iturria: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Arabako Foru Aldundia. Egileek egina

Eskakizunen sexuaren arabeko banaketari dagokionean, alde garrantzitsuak ikus daitezke biztanleria osoaren eta atzerritarraren artean. Biztanleria osoaren kasuan, sei kuadrilletan GLL eskatu dituzten pertsona guztien %57,4 emakumezkoa da. Atzerritar biztanleriaren kasuan, berriz, oreka handiagoa dago gizonezkoen eta emakumezkoen artean, nahiz eta gehienak gizonezkoak izan (% 51,7).

12. TAULA. GLL ESKATZEN DITUEN BIZTANLERIA ATZERRITARRAREN EHUNEKOAK, SEXUAREN, JATORRIAREN ETA KUADRILLAREN ARABERA. 2017


	Guztira		Atzerritarrak	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Añana	30,5	69,5	33,3	66,7
Aiara	44,4	55,6	52,4	47,6
Kanpezu-Arabako Mendialdea	60	40	66,7	33,3
Guardia-Arabako Errioxa	44	56	64,4	35,6
Arabako Lautada	38,4	61,6	45,5	54,5
Gorbeialdea	62,5	37,5	62,5	37,5
Total	42,6	57,4	51,7	48,3

Iturria: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Arabako Foru Aldundia. Egileek egina

Aurreko kasuetan bezala, atzerritar biztanleriari dagokionean, kuadrillen artean aldeak daudela ikus dezakegu. Zehazki, emakumezkoek egiten dituzte eskaera gehienak Añanan (% 66,7) eta Arabako Lautadan (% 54,5). Aldiz, gizonezkoek egiten dituzte eskaera gehienak Kanpezu-Arabako Mendialdean (% 66,7), Guardia-Arabako Errioxan (% 64,4), Gorbeialdean (% 62,5) eta Aiaraldean (% 52,4).

Azkenik, atzerritar jatorriko eskatzaileen banaketa ikus dezakegu 13 grafikoa, jatorriaren arabera. Gizarte-zerbitzuen eskaeraren kasuan bezala, GLL gehien eskatzen duen kolektiboa magrebtarra da.

13. GRAFIKOA. GLL ESKATZEN DITUEN ATZERRITAR BIZTANLERIA, JATORRIAREN ETA KUADRILLAREN ARABERA. 2017



Iturria: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Arabako Foru Aldundia. Egileek egina

Sei kuadrilletako datuak kontuan hartuta, % 70,4 magrebtar jatorrikoak dira; subiranotasun espainiarreko lurralde izan zirenak % 11,5, eta Hego Amerika %10,9. Gainerako jatorriak % 3tik behera daude. Magrebtar jatorri nagusi da kuadrilla guztietan, nahiz eta diferentzia batzuk ikus daitezkeen gainerako jatorrietan. Hala, Gorbeialdean, hegoamerikar jatorria (% 12,5) magrebtar jatorriaren ondorengoa da; Arabako Lautadan, subiranotasun espainiarreko lurralde izan zirenak (% 18,8); Guardia-Arabako Errioxan, EBeko europarrak (% 13,3) eta Saharaz Hegoaldeko Afrikakoak (% 11,1); Aiaraldean, hegoamerikarrak (% 20,7) eta subiranotasun espainiarreko lurralde izan zirenetakoak (% 11,7); eta Añanan ere, azken jatorri horretakoak (% 11,1).

Gizarte-zerbitzuen eta GLLen eskatzaileak Gasteizen

Atal honetan, Gasteizko Udalaren Gizarte Politiketako Sailak artatutako pertsonen datuak aztertuko ditugu. Aztertu berri ditugun kuadrilletako datuak ez bezala, datu hauek Udalaren beraren espedienteetatik ateratakoak dira. 2018ko urtarrilaren 1era arte artatutako pertsonen buruzko datuak dira. Pertsona bat artatua izan dela ulertzen dugu pertsona hori espediente aktibo batean alta emanda dagoenean. Batez ere, artatutako pertsonetan zentratuko garen arren, espediente aktiboari buruzko datuen bat ere aztertuko dugu (bizikidetzako unitatea edo familia).

13 taulan ikus daitekeen bezala, 14.245 espediente aktibo daude 2018an Gizarte Politiketako Sailean, eta espediente horien guztien bidez 28.687 pertsona artatzen dituzte. Pertsona horien jatorriari erreparatuta, ikus dezakegu 18.156 Espainiako estatuan jaioak direla, eta 10.531, berriz, atzerrian jaioak.


13. TAULA. GASTEIZKO GIZARTE ZERBITZUETAKO ESPEDIENTEEN ETA ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA, JATORRIAREN ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA. 2018

	Espedienteak (erreferentziako pertsona)	Artatutako pertsonak
Atzerritar jatorria	6.092	10.531
Espainiar jatorria	8.153	18.156
Espainiako nazionalitate ez	5.530	12.470
Espainiako nazionalitatea	8.715	16.217
Guztira	14.245	28.687

Iturria: Gasteizko Udalaren Gizarte Politiketako Saila. Egileek egina

Nazionalitatearen kasuan, 16.217 pertsonak espainiar nazionalitatea dute, eta 12.470 pertsonak, berriz, ez. Ehunekotan (14 grafikoa), artatutako pertsonen % 63,3k Espainiako estatuan du jatorria, eta % 36,7 atzerrian jaio dira. Espediente guztien kopuruari eta espedienteen erreferentziako pertsonen jatorriari begiratzeko badiugu, datuak aldatu egiten dira batetik bestera: % 57,2k Espainiako estatuan du jatorria, eta % 42,8k atzerritar jatorria du.

14. GRAFIKOA. GASTEIZKO GIZARTE ZERBITZUETAKO ESPEDIENTEEN ETA HAN ARTATUTAKO PERTSONEN BANAKETA EHUNEKOTAN, JATORRIAREN ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA. 2018




Iturria: Gasteizko Udalaren Gizarte Politiketako Saila. Egileek egina

Nazionalitateari dagokionean, artatutako pertsonen % 56,5ak nazionalitate espainiarra du, eta % 43,5ak, berriz, ez; aldez, espedienteen arabera datuek adierazten dute nazionalitate espainiarra dutenen ehunekoa handiagoa dela (% 61,2), eta nazionalitate espainiarra ez duten familietako erreferentziatzeko pertsonen ehunekoa txikiagoa dela (% 38,8). Laburbilduz, datuek Gasteizko Udalaren Gizarte Politiketako Sailak artatutako pertsona gehienek jatorri autoktonoa dutela adierazten badute ere, atzeritar biztanleriaren pisua handia dela adierazten dute datuek, hiriari duten pisu demografikoa baino askoz ere handiagoa.

Jarraian, artatutako pertsonen ezaugarri demografikoak aztertuko ditugu, jatorriaren arabera.

15. GRAFIKOA. GASTEIZKO GIZARTE ZERBITZUETAKO ESPEDIENTEEN ETA HAN ARTATUTAKO PERTSONEN BANAKETA (%), JATORRIAREN ETA SEXUAREN ARABERA. 2018




Iturria: Gasteizko Udalaren Gizarte Politiketako Saila. Egileek egina

Sexuaren araberako banaketari dagokionean (15 grafikoa), artatutako pertsona atzerritarren kasuan oreka bat dago, hau da, artatutako gizonezkoen eta emakumezkoen ehunekoak antzekoak dira. Aldiz, Estatuan jaiotako pertsonen kasuan, artatutako pertsonen ezaugarri bat emakumezko izatea dela ikus dezakegu: pertsona horien % 53,2 emakumezkoa da, eta % 46,8 gizonezkoa. Artatutako pertsona guztiak kontuan hartuta, emakumezkoen pisua (% 51,9) apur bat handiagoa da gizonezkoena baino (% 48,1).

Bestalde, artatutako pertsona atzerritarren eta Espainiako estatukoaren profil demografikoak desberdinak direla islatzen du adin-taldearen araberako banaketak. Pertsona atzerritarren kasuan, % 41,8 30 urtetik 45 urtera artekoa da, eta % 20,7, berriz, 46 urtetik 64 urtera artekoa. Aldiz, biztanle autoktonoak egitura demografikoaren bi muturretan pilatzen direla ikus dezakegu; alde batetik, % 30,6 biztanle gazteak dira, 14 urtetik beherakoak, eta, bestetik, % 29,6k 65 urtetik gora dute.

16. GRAFIKOA. GASTEIZKO GIZARTE ZERBITZUETAKO ESPEDIENTEEN ETA HAN ARTATUTAKO PERTSONEN BANAKETA (%), JATORRIAREN ETA ADINAREN ARABERA. 2018




Iturria: Gasteizko Udalaren Gizarte Politiketako Saila. Egileek egina

Sintesian, datu horiek adierazten dute Gasteizko Udalaren Gizarte Politiketako Sailean artatutako pertsona atzerritar gehienak lan egiteko adinean dauden pertsona helduak direla, eta, aldiz, biztanle autoktonoen profilaren ezaugarriak direla pertsona ez-aktiboak, gazteak eta pentsiodunak izatea.

Bestalde, artatutako pertsonen zer motatako zerbitzuak erabiltzen dituzten kontuan hartuta (17 grafikoa), Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak dira gehien erabiltzen direnak. Atzerritar biztanleriaren kasuan, % 87k erabiltzen dituzte zerbitzu horiek; ehuneko hori %87koa da biztanleria autoktonoaren kasuan, eta % 84,5koa artatutako pertsona guztiak kontuan hartuta.

17. GRAFIKOA. GASTEIZKO GIZARTE ZERBITZUETAKO ESPEDIENTEEN ETA HAN ARTATUTAKO PERTSONEN BANAKETA (%), JATORRIAREN ETA ERABILITAKO ZERBITZU MOTAREN ARABERA. 2018




Iturria: Gasteizko Udalaren Gizarte Politiketako Saila. Egileek egina

Gainerako zerbitzuei dagokienean, pertsona atzerritarren eta autoktonoen arteko alde nagusia da pertsona atzerritarrek gehiago erabiltzen dituztela Larrialdi Zerbitzuak (% 8,0), eta biztanle autoktonoek, berriz, gehiago erabiltzen dituztela pertsona zaharrentzako zerbitzuak (% 7,5) eta haurrentzako zerbitzuak (% 4,3).

Atzerritar jatorriko pertsonen eta biztanle autoktonoen arteko aldeak aztertu ondoren, atzerritarren kolektiboko jatorri desberdinen arteko aldeak aztertuko ditugu orain. Ildo horretatik, gizarte-zerbitzuek artatutako pertsona atzerritarrek zer jatorritakoak diren ikus dezakegu 18 grafikoan, ehunekotan. Zehazki, hogeï nazionalitate nagusiak azaltzen dira grafikoan, eta hogeï nazionalitate horietakoa da artatutako pertsonen % 85,8..

18. GRAFIKOA. GASTEIZKO GIZARTE ZERBITZUEK ARTATUTAKO PERTSONA ATZERRITARREN HOGEI NAZIONALITATE NAGUSIAK, EHUNEKOTAN. 2018




Iturria: Gasteizko Udalaren Gizarte Politiketako Saila. Egileek egina

Marokoar jatorria nagusi da, % 23,9arekin, eta haren atzetik daude aljeriar jatorria (% 10,4), nigeriarra (% 9,1), eta kolonbiarra (% 7,8). Gainerako jatorriek % 5etik beherako presentzia dute atzerritarren kolektiboan.

Jatorrizko eskualdea kontuan hartuta (19 grafikoa), artatutako pertsonen % 36 magrebtar kolektibokoa da, eta hori da, hain zuzen ere, kolektiborik handiena; haren atzetik daude hegoamerikarrak (% 23,0), gainerako Afrikakoak (% 19,1), Europakoak (% 10,2), Asiakoak (% 5,4) eta Erdialdeko Amerikakoak (% 5,0). Hala, datu horien arabera, artatutako pertsonen % 55,0ak afrikar jatorria du, eta % 28,0ak, berriz, hegoamerikar jatorria.


19. GRAFIKOA. GASTEIZKO GIZARTE ZERBITZUEK ARTATUTAKO PERTSONA ATZERRITARREN JATORRIZKO ESKUALDEAK, EHUNEKOTAN. 2018



Iturria: Gasteizko Udalaren Gizarte Politiketako Saila. Egileek egina

Azkenik, 20 grafikoak ehunekotan adierazten du, espediente bakoitzeko erreferentziazko pertsonaren jatorria zein den kontuan hartuta, espediente horietako zenbatek jaso duten GLL bat eta zenbatek ez. Espediente aktibo guztien % 22,2k jaso ditu GLL, eta ez du laguntzarik jaso gainerako % 77,8ak.

20. GRAFIKOA. ESPEDIENTEEN BANAKETA, EHUNEKOTAN, ERREFERENTZIAZKO PERTSONAREN JATORRIAREN ARABERA ETA GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZARIK JASO DUTEN ALA EZ KONTUAN HARTUTA. 2018



Iturria: Gasteizko Udalaren Gizarte Politiketako Saila. Egileek egina

Datu hori erreferentzia gisa hartuta, espedienteen erreferentziazko pertsonak atzerriko nazionalitatea dutenean, oro har, jasotzen dituzten GLLen ehunekoak handiagoak direla ikus dezakegu. Biztanleria autoktonoaren kasuan, berriz, GLLen ehunekoa txikiagoa da; zehazki, % 18,2ari eman zaio GLL bat, eta % 81,8ari ez.

Jatorrizko eskualdea kontuan hartuta, GLLrik gehien jasotzen duen kolektiboa magrebtarra da (% 39,1), eta haren atzetik daude Asiakoa (% 26,8) eta gainerako Afrikakoa (% 26). Talde hegoamerikarren kasuan, Erdialdeko Amerikakoen % 17,8k jasotzen ditu GLL, eta Hego Amerikakoen % 21,4k. Aldiz, europarren kolektiboa da laguntza horietara gutxien iristen dena (% 14,5).

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta

Atal honetan, Enplegurako Euskal Zerbitzuak (hots, Lanbidek) kudeatutako Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan (aurrerantzean, DBE) zentratuko gara.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta diru-sarrerak osatzeko eta, hala, pobrezia-aren aurka borrokatzeko tresna gisa jaio zen Euskal Autonomia Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Sistema aitzindaria izan zen Espainiako estatuan, eta gizarte-ikuspegi batetik aurreratuen dauden Europako estatu-erakunde sistema batzuk hartu zituen eredu gisa.

Zehazkiago, DBE hileko prestazio bat da, oinarrizko beharrak asetzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten bizikidetzako unitateei zuzendutakoa. Unitate horiek (familiak edo pertsonak izan daitezke) baldintza jakin batzuk bete behar dituzte errenta-sistema honetan sartu ahal izateko, bai eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) jasotzeko ere. Bizikidetzako unitatea hiru pertsonaz osatuta bada, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta 600 eta 984,38 euro artekoa izan daiteke, bai eta 1.063,13 eurorainokoa ere errenta jasotzen duen pertsona pentsioduna bada.

DBEri buruzko datuak Araban

Araban DBE jasotzen duten bizikidetzako unitateei dagokienean, 2018ko abendura arte (txosten hau idazteko orduan, hori zen Enplegurako Euskal Zerbitzuak, hau da, Lanbidek emandako azken datua), DBE jasotzen duten 8.224 bizikidetzako unitate² daude Araban, guztira. Horietatik, 4.445 emakumezkoak dira, eta 3.779, berriz, gizonezkoak.

Horrek esan nahi du bizikidetzako unitateak gizonezko baten aurpegia duela kasuen % 45,9an, eta pertsona hori emakumezkoa dela kasuen % 54,05ean.

14. TAULA. BIZIKIDETZAKO UNITATEAK SEXUAREN ETA EREMU HANDIEN ARABERA (2018KO ABENDUA)

	Guztira	Guztira %	Gizonezkoak	Gizonezkoak %	Emakumezkoak	Emakumezkoak %
Zehaztu gabea	24	0,3	6	0,16	18	0,40
Herrigabeak	1	0	1	0,03	0	0
Europar Batasuna	213	2,6	90	2,38	123	2,77
Gainerako Europa	137	1,7	47	1,24	90	2,02
Magreb	1.784	21,7	1.089	28,82	695	15,64
Saharaz hegoaldeko Afrika	901	11	453	11,99	448	10,08
Asia	172	2,1	147	3,89	25	0,56
Ipar Amerika	1	0	1	0,03	0	0
Hego Amerika	1063	12,9	232	6,14	831	18,70
Ozeania	2	0	0	0	2	0,04

² Argitzeko oharra: Enplegurako Euskal Zerbitzuak (hots, Lanbidek) Bizikidetzako Unitatea kontzeptua erabiltzen du Pertsonak kontzeptuaren ordez, kopuruak kalkulatzeko. Kontzeptu horrek familia-unitatea osatzen duten pertsonen kopurua adierazteko balio du. Hala, etxebizitza berean bizi eta ezkontzaz, odol-kidetasunez (laugarren mailara arte), ezkontza-ahaidetasunez (bigarren mailara arte) eta adopzioz lotutako pertsona guztiak batzen ditu Bizikidetzako Unitateak.

	Guztira	Guztira %	Gizonezkoak	Gizonezkoak %	Emakumezkoak	Emakumezkoak %
Espainiako estatua	3.926	47,7	1.713	45,33	2.213	49,79
Guztira	8.224	100	3.779	100	4.445	100

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Osagarriak eskatzen dituzten pertsonen dagokienean, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak (DBE) bi motatako osagarri ekonomikoak ditu, gizarte-bazterketan erortzeko arriskua duten talde batzuei lagundu eta haien baldintza objektiboak hobetze aldera. Zentzu horretan, 15. taulan jaso dira familia gurasobakarrerri emandako osagarri buruzko datuak, bai eta ohiko etxebizitza ordaintzeko osagarri buruzkoak ere (Etxebizitzarako Prestazio Osagarria edo EPO esan ohi zaio).

Hala, osagarrien gaiari helduta, ikus dezakegu familia gurasobakar izateagatik osagarri gehienak atzerritar jatorriko pertsonen ematen zaizkiela (% 61,66), bai eta etxebizitzarako osagarriak ere (onuradunak atzerritar jatorriko pertsonak dira kasuen % 71,78an).

Etxebizitzarako osagarriaren kasuan, atzerritar jatorriko pertsona gehiagok jaso ohi du. Bizi duten egoerarekin zerikusia du horrek, nolabait. Izan ere, etxebizitza berean pertsona bat baino gehiago elkarrekin bizi ohi dira, edo logela baten edo pisu baten alokairua ordaindu behar izaten dute. Espainiako estatuan jatorria duen biztanleriaren kasuan, jada ordainduta dagoen etxebizitza bat eskura izateko, edo ohi kanpoko gasturik egin gabe beste pertsona batzuekin etxebizitza berean elkarrekin bizitzeko ahalmen handiagoa izan ohi dute.

Eredu hori ulertzeko, biztanleria autoktonoaren eta etorkinen biztanleriaren piramideak hartu behar dira kontuan. Etorkinen artean, alokairua oso ohikoa da zenbait arrazoiengatik. Arrazoi horien artean, garrantzitsuenak dira biztanle gazteak izan ohi direla, lan-egoera ezegonkorrean egon ohi direla maiz, eta baliabide ekonomiko eskasak izan ohi dituztela. Aldiz, biztanleria autoktonoaren artean, etxebizitza baten jabe diren eta, hortaz, etxebizitza-arazorik ez duten pertsona zaharagoak aurkitzea ohikoa da.

Hala, erretiroa hartu duten pertsona autoktono askok DBE jasotzen dute, baina ez dute EPorik behar.

15. TAULA. OSAGARRIEN ONURADUNEN BANAKETA, JATORRIAREN ARABERA (KOPURU ABSOLUTUAK), 2018KO URRIA

Jatorria	Gurasobakarra		Etxebizitza	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Zehaztu gabea	0	0	0	0
Atzerritar jatorria	801	61,66	2.923	71,81
Espainiako estatua	498	38,33	1.147	28,18
Guztira	1.299	100	4.070	100

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Errealitatean, pobrezia-poltsek atzerritar jatorriko pertsona baten aurpegia dutela adierazten du horrek, espainiar jatorrikoak ez diren pertsonen ematen baitzaizkie osagarriak, erretiroa hartu dutenei ematen zaizkien ordainsari-osagarriak kenduta. Izan ere, espainiar jatorriko pertsonen presentzia handiagoa da azken kasu horretan.

Aurretik aipatutako ildo beretik, familia gurasobakarrei zuzendutako osagarrien banaketan ez dago orekarik; batez ere, horrelako familiak ugariagoak direlako atzerritar jatorriko pertsonen artean Espainiako estatuan jatorria duten pertsonetan baino. Eta hori ere, aurretik esan bezala, bi biztanleria horien adin-piramideen diferentzialarekin lotuta dago. Izan ere, atzerritar jatorriko biztanleria askoz ere gazteagoa da.

Pertsona jasotzaileen jatorriari erreparatuta, zenbait desberdintasun ikus daitezke Espainian jaiotako biztanleriaren eta beste herrialde batzuetatik etorritakoaren artean. Alde horiek honako taula honetan jaso ditugu:

16. TAULA: PERTSONA JASOTZAILEAK EAEN, JATORRIAREN ARABERA (2018KO ABENDUA)

	2018ko urtarrila	2018ko otsaila	2018ko martxoa	2018ko apirila	2018ko maiatza	2018ko ekaina	2018ko uztaila	2018ko abuztua	2018ko iraila	2018ko urria	2018ko azaroa	2018ko abendua	Hazkunda
Zehaztu gabea	29	26	24	25	21	19	20	19	18	17	17	136	
Jatorrizkoak Espainiarra	37.276	36.379	36.022	35.743	35.507	35.304	35.035	34.705	34.470	34.067	33.780	33.558	-9,97%
Jatorrizkoak Atzerritarra	22.609	22.801	22.640	22.537	22.558	22.594	22.322	22.076	21.943	21.946	21.825	21.822	-3,48%

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Ikus daitekeen bezala, 2018. urte osoan zehar, bi taldeek joera ona izan dute DBE eskatzeko orduan, eta espedienteen kopuruak behera egin du. Zentzu horretan, Espainiako estatuan jatorria duten pertsonen eskakizunak murriztu dira gehien (% 9,97), atzerritar jatorriko pertsonen eskakizunak alderatuta (talde horrenak % 3,48 murriztu dira).

17. TAULA: PERTSONA JASOTZAILEAK ARABAN, JATORRIAREN ARABERA (2014KO ABENDUTIK 2018KO UZTAILERA ARTE, KOPURU ABSOLUTUTAN)

	2014ko abendua	2015ko urtarrila	2015eko uztaila	2016ko urtarrila	2016ko uztaila	2017ko urtarrila	2017ko uztaila	2018ko urtarrila	2018ko uztaila	Hazkunda
Zehaztu gabea	37	43	18	15	17	18	6	9	8	
Espainiar jatorria	4.906	4.917	5.010	4.933	5.082	4.881	4.694	4.353	4.031	-17,84%
Atzerritar jatorria	4.978	4.971	4.792	4.680	4.912	4.652	4.628	4.476	4.435	-10,91%
Guztira	9.921	9.931	9.820	9.628	10.011	9.551	9.328	8.838	8.474	-14,59%


Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Joera on horrek aldi baterako presentzia dutela adierazten du; hala, aztertutako al-dian (hau da, 2014ko abendutik 2018ko uztailera arte), DBE eskatu zuten pertsonen kopurua jaitsi egin da, oro har, pertsona horien jatorria dena dela ere. Hori horrela, Espainiako estatuan jatorria duten eta laguntza hori eskatu duten pertsonen ehunekoa % 17,8 murriztu da atzerritar jatorriko biztanleriarena % 10,9 murriztu den bitartean. Hau da, azken biztanleria horrek gutxiago nabaritu du krisitik irten izana, eta DBE eskatu duten pertsonen kopurua hein txikiagoan murriztu da.

18. TAULA: PERTSONA JASOTZAILEAK, JATORRIAREN ARABERA (2014KO ABENDUTIK 2018KO UZTAILERA ARTE, EHUNEKOTAN)

	2014ko urtarrila	2015eko urtarrila	2015eko uztaila	2016ko urtarrila	2016ko uztaila	2017ko urtarrila	2017ko uztaila	2018ko urtarrila	2018ko uztaila
Zehaztu gabea	0,37	0,43	0,18	0,16	0,17	0,19	0,06	0,10	0,09
Jatorri espainiarra	49,45	49,51	51,02	51,24	50,76	51,10	50,32	49,25	47,57
Jatorri atzerritarra	50,18	50,06	48,80	48,61	49,07	48,71	49,61	50,64	52,34
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

21. GRAFIKOA: JASOTZAILEEN BANAKETA, JATORRIAREN ARABERA (2014KO ABENDUTIK 2018KO UZTAILERA ARTE, EHUNEKOTAN)³

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

2017ko uztailan, DBE jasotzen duten pertsonen ia erdiak atzeritar jatorrikoak dira (zehazkiago, % 50,3). Grafikoko joera aztertuta, ikus dezakegu atzeritar jatorriko biztanleriak, pixkanaka-pixkanaka, geroz eta presentzia handiagoa duela DBEren jasotzaileen banaketa honetan, eta 2014ko abenduan % 50,2 izatetik 2018ko uztailan % 52,3 izatera pasa dela. Aztertutako garaian ikus daiteke Espainiako estatuan jatorria duen biztanleriak 2014ko abendutik 2016ko urtarrilera arte bere pisua areagotzen joan zela, pisu hori mantendu zuela 2017ko uztailera arte, eta pisu erlatiboa galtzen joan zela harez geroztik; hau da, atzeritar jatorriko biztanleriaren kontrako prozesua egin du.

Euskal Autonomia Erkidegoarekin alderatuta, DBEren eskaera Lurralde Historiko batetik bestera aldatu egiten da, honako taula honek islatzen duen moduan.

³ 'Zehaztu gabeak' maila ezabatu da, ez baitu ematen analisirako datu garrantzitsurik (datuak % 1etik beherakoak)


19. TAULA. JASOTZAILEEN BANAKETA HIRU LURRALDE HISTORIKOETAN ETA EAEN, JATORRIAREN ARABERA (2018KO ABENDUA, EHUNEKOTAN)

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EAE
Atzerritar jatorria	35,85	40,64	52,24	39,41
Espainiar jatorria	64,15	59,36	47,76	60,59
Guztira	100	100	100	100

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Hala, ikus dezakegu laguntza hori eskatzen duten atzerritar jatorriko pertsonen ehunekoa (% 52,2) Araban soilik dela handiagoa (Espainiako estatuan jatorria dutenen ehunekoa % 47,8koa da). Bizkaiaren kasuan, joera guztiz kontrakoa da, eta Espainiako estatuan jatorria duten pertsonen ehunekoa handiagoa da (% 64,1) atzerritar jatorriko pertsonen ehunekoa baino (% 35,9). Gipuzkoan ere hala gertatzen da, nahiz eta kasu honetan bi biztanlerien arteko aldea txikiagoa izan: han, Espainiako estatuan jatorria duten pertsonen ehunekoa % 59,4 da, eta atzerritar jatorriko pertsonen ehunekoa, berriz, % 40,6.

22. GRAFIKOA. PERTSONA JASOTZAILEEN BANAKETA ARABAN ETA EAEN, JATORRIAREN ARABERA (2018KO ABENDUA, EHUNEKOTAN)



Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Aurretik aipatu bezala, Arabako Lurralde Historikoaren kasua bereziki garrantzitsua da, kontuan hartuta jatorriaren arabera DBEren pertsona jasotzaileen banaketan bestelako joera bat duen lurralde historiko bakarra dela EAEn.

Horrek adierazten digu elkarren artean oso desberdinak diren pobrezia-poltsak dituen errealitate bat dagoela, hiru lurralde horietako bakoitza eta haren kasuistika partikularra kontuan hartuta (hau da, lan-merkatua, biztanleriaren banaketa sexuaren arabera, adinaren arabera, jatorriaren arabera eta/edo nazionalitatearen arabera...).

Magrebtar jatorriko biztanleriak lurralde bakoitzaren atzerritar jatorriko biztanleria guztian zer pisu duen jakitea da kontua. Araban, magrebtar jatorriko biztanleriak Bizkaian eta Gipuzkoan baino pisu erlatibo handiagoa du. Magrebtar jatorriko pertsonen beste jatorri batzuetakoek baino arazo handiagoak dituzte lan-munduan txertatzeko, eta babesgabetasun handiagoa dute. Hori horrela, DBE jasotzen duten pertsonen kopurua % 50etik gorakoa da atzerritar jatorriko biztanleriaren artean (magrebtar jatorriko biztanleria handia duten eremu batzuetan, kopuru hori askoz ere handiagoa da). Aldiz, hegoamerikar jatorriak nagusi direnean edo pisu erlatibo handiagoa dutenean, eta enplegu-tasak handiagoak direnean eta gizarte-hauskortasuna txikiagoa denean, DBE errenta jasotzen duten pertsonen ehunekoa % 40koa da, gutxi gorabehera, atzerritar jatorriko pertsonen artean.

20. TAULA. JASOTZAILEEN BANAKETA EAEN ETA ARABAN, SEXUAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (2018KO URRIA, EHUNEKOTAN)

		Atzerritar jatorriko biztanleak	Espainiar jatorriko biztanleak	Guztira
EAE	Gizonezkoak	46,39	39,47	42,20
	Emakumezkoak	53,61	60,53	57,80
Araba	Gizonezkoak	48,06	43,64	45,95
	Emakumezkoak	51,94	56,36	54,05

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

EAEko eta Arabako sexuaren eta jatorriaren arabera datuak alderatuta, desberdintasunak eta antzekotasunak daudela ikus dezakegu. Oro har, emakumezkoek gizonezkoek baino presentzia handiagoa dute kasu guztietan, baina, Arabaren kasuan, emakumezkoen presentzia handiago hori EAE osoan baino nabarmenagoa da, atzerritar jatorriko pertsonen artean, batez ere. Euskal biztanleria guztia kontuan hartuta, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aldea 7,22 puntukoa da emakumezkoen alde. Aldiz, Arabako biztanleria kontuan hartuta, oreka erabatekoa da ia-ia (% 48,06 gizonezkoa da, eta % 51,94 emakumezkoa). Orain ere, magrebtar jatorriko biztanleriaren pisu handiagoaren ondorio da hori, etorkin horiek gizonezkoak baitira hein handi batean.

Espainiar jatorriko biztanleriaren kasuan arreta jarrita, ereduak termino erlatiboetan hain antzekoak ez direla ikus dezakegu (ehunekoak ez dira hain estuak haien izen berekoekin alderatuta), baina espainiar jatorriko biztanleriaren kasuan aurkitzen ditugu alde nagusiak.

Araban DBE jasotzen duten atzerritar jatorriko emakumezkoen ehunekoa EAE osokoa baino txikiagoa izatea ere nabarmenezkoa da (% 51,94ko eta % 53,61eko balioekin, hurrenez hurren). Aldiz, gizonezkoen datuak kontrakoak dira.

21. TAULA. JASOTZAILEEN BANAKETA, SEXUAREN ETA EREMU HANDIEN ARABERA (2018KO ABENDUA, EHUNEKOTAN)

	Guztira	Guztira %	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Emakumezkoak %
Zehaztu gabea	24	0,3	6	18	25
Herrigabeak	1	0,0	1	0	0
Europar Batasuna	213	2,6	90	123	57,74
Gainerako Europa	137	1,7	47	90	65,69
Magreb	1.784	21,7	1.089	695	38,95
Saharaz hegoaldeko Afrika	901	11,0	453	448	49,72
Asia	172	2,1	147	25	14,53
Ipar Amerika	1	<5	1	<5	<5
Hego Amerika	1.063	12,9	232	831	78,17
Ozeania	2		1	1	<5
Espainiako estatua	3.926	47,7	1.713	4.445	54,04

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Oro har, DBE jasotzen duten pertsonen ehuneko handienak magrebtar jatorria duela ondoriozta dezakegu. Izan ere, DBE jasotzen duten atzerritar jatorriko biztanleriaren % 21,7 magrebtarra da.


Kolektibo horretatik hurbil, Hego Amerikatik etorritakoa dugu (% 12,9). Bestalde, Arabako Lurralde Historikoan DBE jasotzen duten hamar pertsona atzerritarretik bat Saharaz hegoaldeko Afrikakoa da ia-ia (% 11,0).

Distantzia handira daude, besteak beste, europar jatorria (Europar Batasunaren barnekoa eta Europar Batasunetik kanpokoak, % 2,6arekin eta % 1,7arekin, hurrenez hurren), edo asiar jatorria (% 2,1).

Araban DBE jasotzen duten atzerritar jatorriko pertsonen sexuaren arabera banaketari begiratuta, 21. taulan ikus dezakegu Hego Amerika dela emakumezko jasotzaileen tasarik altuena duen jatorria, eta hangoa dela DBE jasotzen duten pertsonen % 80 ia-ia (zehazkiago, % 78,17). Horrez gain, EBekoa ez den Europako, Europako eta Saharaz hegoaldeko Afrikako taldeek feminizazio-tasa handienetako batzuk dituzte: % 65,69, % 57,74 eta % 49,72, hurrenez hurren.

Gizonezkoak nagusi diren jatorrien artean, Asiako herrialdeetatik etorritako pertsonen kasua aurki dezakegu (talde horretan, pertsona jasotzaileen % 85,47 gizonezkoak da), bai eta Magrebetik etorritako pertsonen kasua ere (% 61,05 gizonezkoak dira).

23. GRAFIKOA: PERTSONA JASOTZAILEEN BANAKETA, EREMU HANDIEN ARABERA



Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Jatorri-talde bakoitzak Arabako erroldan duen pisu erlatiboaren eta DBEren laguntzak eskatzeari buruzko errealitatearen arteko aldeak aztertzen baditugu, ikus dezakegu talde jakin batzuek ordezkartza handiegia dutela eta beste batzuek, berriz, txikiegia, atzerritar jatorriko biztanleria arabar osoan duten pisuarekin alderatuta. Lehenengoen artean, EBeko herrialdeak eta Magreb nabarmentzen dira; 20,80 eta 21,10 puntuko ordezkartza handiegia dute, hurrenez hurren.

Kontrako kasuan, hau da, DBEren eskakizun guztietan errolda ofizialean baino ordezkartza txikiagoa duten taldeen kasuan, latino-amerikarren taldea (31,8 puntu gutxiagorekin) eta EBekoak ez diren europarren taldea (11,9 puntu gutxiagorekin) bezalako kasuak auki ditzakegu.

Azkenik, Ipar Amerika izeneko konglomeratuko herrialdeetatik datozen pertsonen pisu erlatiboari dagokionean, oso ordezkartza estua dutela esan behar da.

Laburbilduz, DBEren laguntzak jasotzen dituzten pertsonen datuak ikusita, bi kolektibo nabarmendu nahi ditugu: alde batetik, Magrebetik etorritakoena eta, bestetik, Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritakoena. Kasu bietan, gizarte-zaingarritasun handiagoko errealitate bat bizi dutela eta lan-merkatuan sartzeko eta, hala, gizarte-bazterketako egoera horretatik irteteko zailtasun handiagoak dituztela azpimarratu behar dugu. Afrikan kolektiboek DBE behar dute bizitzen jarraitzeko.

DBEri buruzko datuak, kuadrillen arabera

Kuadrillen arabera Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) gaia xehetasun gehiagorekin aztertzen hasita, ikus dezakegu kuadrilla bakoitzean egoera hau zegoela 2018ko azaroan (Lanbidek orain arte argitaratutako daturik berrienak dira):

- **Añana**

Oro har, 8.944 pertsona bizi dira Añanako kuadrillan, eta horietatik 120k jasotzen dute Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta; hau da, pertsona guztien % 1,34k. Pertsona horien jatorriari dagokionean, hau da, atzerritar edo espainiar jatorria duten kontuan hartuta, azpimarratu behar da laguntza hori jasotzen duten pertsona guztien % 63,3 Espainian jaioa dela, eta % 26,7 atzerriko herrialderen batean jaioa dela.

Sexuaren arabera, honako taula honetan ikus dezakegu Añanako kasuan sexuaren arabera banaketa antzekoa dela bi kasuetan (hau da, espainiar jatorria eta atzerritar jatorria dutenen artean), eta gizonezkoan jasotzaile gehiago daudela emakumezkoak baino (% 52,3 eta % 51,3, hurrenez hurren).

22. TAULA: DBE JASOTZEN DUTEN PERTSONAK AÑANAN, SEXUAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (2018KO AZAROA, EHUNEKOTAN)

		Atzerritar jatorriko biztanleak	Espainiar jatorriko biztanleak	Guztira
Añana	Gizonezkoak	52,3	51,3	51,7
	Emakumezkoak	47,7	48,7	48,3
Araba	Gizonezkoak	48,21	43,29	45,86
	Emakumezkoak	51,79	56,71	54,14

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Arreta eremu geografiko handietan jarrita, 11. taulan ikus dezakegu gizonezko eta emakumezko jasotzaile gehienak espainiar lurraldean dutela jatorria, % 62,90eko eta % 63,8ko balioekin, hurrenez hurren. Magrebeko biztanleriaren presentzia ere handia da, eta DBE jasotzen duten pertsona guztien % 20,8 magrebtarra da. Magrebtar jatorriko biztanleria horren barnean, gizonezkoak emakumezkoen bikoitza dira (jasotzaileen 17 gizonezkoak dira, eta emakumezkoak, berriz, 8), eta hori ez da gertatzen aipatutako taulako beste eremu bakar batean ere. Magrebtar jatorriko pertsonen kolektiboan gizonezko gehiago dagoela esan dugu jadanik, eta beste jatorri batzuetan emakumezkoak direla nagusi.

23. TAULA: DBE JASOTZEN DUTEN PERTSONAK AÑANAN, SEXUAREN ETA JATORRIZKO EREMU HANDIEN ARABERA (2018KO AZAROA)


	Gizonezkoak	Gizonezkoak%	Emakumezkoak	Emakumezkoak %	Guztira	Guztira%
Zehaztu gabea	0	0	0	0	0	0
Herrigabeak	0	0	0	0	0	0
Europar Batasuna	1	1,61	2	3,4	3	2,5
Gainerako Europa	1	1,61	2	3,4	3	2,5
Magreb	17	27,42	8	13,8	25	20,8
Saharaz hegoaldeko Afrika	3	4,84	6	10,3	9	7,5
Asia	0	0	0	0	0	0
Ipar Amerika	0	0	0	0	0	0
Hego Amerika	1	1,61	3	5,2	4	3,3
Ozeania	0	0	0	0	0	0
Espainiako estatua	39	62,9	37	63,8	76	63,3
Guztira	62	100	58	100	120	100

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Horrek guztiak magrebtar jatorriko biztanleen komunitatea kuadrilla honetan handia dela adierazten digu, biztanle horiek batez ere gizonezkoak direla, eta behar ekonomiko garrantzitsuak eta zaurgarritasun sozioekonomiko altua dituztela. Kolektibo honetan gizonezkoak gehiago izateak zerikusia du nekazaritza-izaera argia duen lan-merkatu baten eskaerekin eta exigentziekin. Lan-merkatu horrek merkaturako nitxoak eskaintzen ditu nekazaritza-lanen sektorean, eta tenporalitate-tasa handia da.

Osagarriei dagokienean, kuadrilla honetan bizi eta DBE jasotzen duten pertsona guztiak kontuan hartuta, 136 pertsona (hau da, % 56,62) emakumezkoak direla ikus dezakegu 24. taulan. Emakumezkoen presentzia hegemonikoa da familia gurasobakarren kasuan, baina ez etxebizitzarako osagarrian, onuradun gehienak gizonezkoak baitira (% 55,00).

24. GRAFIKOA: OSAGARRIEN JASOTZAILEAK AÑANAN, SEXUAREN ARABERA (2018KO AZAROA)



Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Osagarri horien pertsona onuradunen nazionalitate-eremuei erreparatuta, familia gurasobakar izateagatik osagarria jasotzen dutenen erdiek espainiar jatorria dutela ikus dezakegu (% 50,0). Haren atzetik, Magrebetik etorritako pertsonak daude (% 25,0); eta Saharaz hegoaldeko biztanleriak eta hegoamerikar biztanleriak ordezkaritza bera dute (% 12,5).

24. TAULA: OSAGARRIEN JASOTZAILEAK AÑANAN, JATORRIAREN ARABERA (2018KO AZAROA)

	Gurasobakarra	Gurasobakarra%	Etxebizitza	Etxebizitza%
Zehaztu gabea	0	0	0	0
Herrigabeak	0	0	0	0
Europar Batasuna	0	0	3	5
Gainerako Europa	0	0	2	3,33
Magreb	4	25	21	35
Saharaz hegoaldeko Afrika	2	12,50	3	5
Asia	0	0	0	0
Ipar Amerika	0	0	0	0
Hego Amerika	2	12,50	1	1,67
Ozeania	0	0	0	0
Espainiako estatua	8	50	30	50
Guztira	16	100	60	100

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Aurreko 12. taulan islatutako etxebizitzarako osagarriari dagokionean, pertsona jasotzaileen erdiak espainiarrak direla ikus dezakegu berrir ere (% 50,0), nahiz eta magrebtar biztanleriak pisu erlatibo handiagoa duen oraingo honetan (% 35,0). Magrebtar biztanleria presentzia handieneko hurrengo eremuetakoa baino askoz ere handiagoa da, besteak beste, Saharaz hegoaldeko Afrikakoa eta EBe-ko herrialdeetako (biek ere % 5,0 dute), EBetik kanpoko Europakoa (% 3,33) edo Hego Amerikakoa (% 1,67).

• Aiara

Lehenik eta behin, azpimarratu beharra dago kuadrilla honetako 7.819 pertsonetatik 709k jasotzen dutela DBE (hau da, biztanleria osoaren % 9,06k).

Esku artean dugun kasu honetan, zehazki, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten pertsona gehienak emakumezkoak direla ikus dezakegu (% 58,3). Pertsona jasotzaile guztiak kontuan hartuta, erdiak baino gehiagok espainiar jatorria du (% 58,3), eta, aldiz, % 41,7 atzerriko herrialderen batetik etorri da.

25. TAULA: DBE JASOTZEN DUTEN PERTSONAK AIARALDEAN, SEXUAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (2018KO AZAROA)

		Atzerriar jatorriko biztanleak	Espainiar jatorriko biztanleak	Guztira
Aiara	Gizonezkoak	47,0	38,7	41,7
	Emakumezkoak	53,0	61,3	58,3
Araba	Gizonezkoak	48,21	43,29	45,86
	Emakumezkoak	51,79	56,71	54,14

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Espainiar jatorrikoak ez diren pertsonei dagokionean, Afrikako kontinentean jatorria duten pertsonen etorrera handia azpimarratu behar da, 15. taulan ikus daitekeen bezala. Hala, Magrebeke eremua osatzen duten herrialdeetako batean jaiotako pertsonak kasu guztien % 20,5 dira, eta Saharaz hegoaldeko Afrikan jaio direnak, berriz, % 10,2.

26. TAULA: DBE JASOTZEN DUTEN PERTSONAK AIARALDEAN, SEXUAREN ETA JATORRIZKO EREMU HANDIEN ARABERA (2018KO AZAROA)

	Gizonezkoak	Gizonezkoak%	Emakumezkoak	Emakumezkoak %	Guztira	Guztira%
Zehaztu gabea	0	0	0	0	0	0
Herrigabeak	0	0	0	0	0	0
Europar Batasuna	2	0,7	7	1,7	9	1,3
Gainerako Europa	0	0	2	0,5	2	0,3
Magreb	92	30,8	53	12,9	145	20,5
Saharaz hegoaldeko Afrika	26	8,7	46	11,2	72	10,2
Asia	1	0,3	0	0	1	0,1
Ipar Amerika	1	0,3	0	0	1	0,1
Hego Amerika	17	5,7	49	12,0	66	9,3
Ozeania	0	0	0	0	0	0
Espainiako estatua	160	53,5	253	61,7	413	58,3
Guztira	299	100	410	100	709	100

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da


Jatorri biek argi eta garbi bereizitako profilak dituzte; gizonezkoen tasa % 63,44koa da Magreben kasuan, eta % 36,11koa Saharaz hegoaldeko Afrikaren kasuan. Jatorria kontinente berean duten bi kolektibo horien presentzia oso bestelakoa dela esaten digu horrek, testuinguruko egoera eta errealitate oso desberdinak bizi dituztelako⁴.

Kontrako aldean, Hego Amerika bezalako jatorriak ditugu; emakumezkoen tasa % 74,24koa da, eta hegoamerikar emakumeek lan- eta gizarte-erronka handiei aurre egin behar izaten dietela ohartarazten digu horrek, eta haien txertatze soziolaboralaren oztipoak minimizatuko dituen laguntza bat behar dutela maiz.

Aiaraldearen kasuan, zehazki, emakumezkoek jasotzen dituzte, batez ere, familia gurasobakarrentzako osagarriak (% 95,27). Aldiz, etxebizitzarako osagarriak banatuago daude, eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko oreka erabatekoa da ia-ia (% 47,11 eta % 52,8, hurrenez hurren).

⁴ Datu horiek eremu geografiko bakoitzaren guztizko biztanleriaren ehunekoak adierazten dituzte.

25. GRAFIKOA: OSAGARRIEN JASOTZAILEAK AIARALDEAN, SEXUAREN ARABERA (2018KO AZAROA)



Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

27. GRAFIKOA: OSAGARRIEN JASOTZAILEAK AIARALDEAN, JATORRIAREN ARABERA (2018KO AZAROA)

	Gurasobakarra	Gurasobakarra%	Etxebizitza	Etxebizitza%
Zehaztu gabea	0	0	0	0
Herrigabeak	0	0	0	0
Europar Batasuna	5	3,5	8	1,71
Gainerako Europa	0	0	0	0
Magreb	26	18,2	160	34,19
Saharaz hegoaldeko Afrika	11	7,7	66	14,10
Asia	0	0	2	0,43
Ipar Amerika	0	0	0	0
Hego Amerika	27	18,9	62	13,25
Ozeania	0	0	0	0
Espainiako estatua	74	51,7	170	36,32
Guztira	143	100	468	100

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Eremu geografikoen arabera, 16. taulan ikus dezakegu familia gurasobakarren-tzako laguntzen ia erdiak espainiar jatorriko pertsonen eman zitzazkiela (% 50etik hurbil). Laguntza horiek magrebtar eta hegoamerikar jatorriko pertsonen emanda-koen bikoitza izan ziren (%18,2 eta % 18,9, hurrenez hurren), eta Saharaz hegoalde-ko jatorriko pertsona guztiei emandakoak baino lau aldiz gehiago ia (% 7,7).

Etxebizitzarako osagarriaren kasuan, espainiar biztanleria laguntza erdien onura-dun nagusia da berriro ere (% 36,32); magrebtar biztanleriak laguntzen herena ja-sotzen du gutxi gorabehera (% 34,19) eta Saharaz hegoaldeko biztanleriak, berriz, % 14,10. Beste eremu batzuek ia ez dute presentziarik, hala nola eremu europarrak (% 1,71) eta asiarrak (% 0,43).

- Kanpezu-Arabako Mendialdeko kuadrilla**

Kanpezu-Arabako Mendialdean bizi diren 2.912 pertsonetatik 33k jasotzen dute DBE. Hori horrela, biztanleria osoaren % 1,13k jasotzen du laguntza ekonomiko hori. Pertsona horietako gehientsuenak, hau da, kasu guztien % 87,9 (29 pertsona), espainiar jatorriko biztanleak dira.

28. TAULA: DBE JASOTZEN DUTEN PERTSONAK KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEAN, SEXUAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (2018KO AZAROA, EHUNEKOTAN)

		Atzerritar jatorriko biztanleak	Espainiar jatorriko biztanleak	Guztira
Kanpezu-Arabako Mendialdea	Gizonezkoak	23,5	0	51,5
	Emakumezkoak	76,5	100	48,5
Araba	Gizonezkoak	48,21	43,29	45,86
	Emakumezkoak	51,79	56,71	54,14

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Hala, kuadrilla honetan, DBE kobratzen duten hamar pertsonatik ia bederatzi espainiar lurraldean jaioak dira, eta % 12,1 beste herrialde batzuetatik dator, soilik. Azpimarratu behar da atzerritar jatorriko biztanle horiek guztiak Magreb osatzen duten herrialdeen zerrendatik etorritakoak direla, eta guzti-guztiak gizonezkoak direla.⁵

29. TAULA: DBE JASOTZEN DUTEN PERTSONAK KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEAN, SEXUAREN ETA JATORRIZKO EREMU HANDIEN ARABERA (2018KO AZAROA)

	Gizonezkoak	Gizonezkoak%	Emakumezkoak	Emakumezkoak %	Guztira	Guztira%
Zehaztu gabea	0	0	0	0	0	0
Herrigabeak	0	0	0	0	0	0
Europar Batasuna	0	0	0	0	0	0
Gainerako Europa	0	0	0	0	0	0
Magreb	4	23,53	0	0	4	12,1
Saharaz hegoaldeko Afrika	0	0	0	0	0	0
Asia	0	0	0	0	0	0
Ipar Amerika	0	0	0	0	0	0
Hego Amerika	0	0	0	0	0	0
Ozeania	0	0	0	0	0	0
Espainiako estatua	13	76,47	16	100	29	87,9
Guztira	17	100	16	100	33	100


Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

⁵ Datu hauek eman dira DSBE jasotzen duten pertsonen eremu bakarra dagoelako kuadrilla honetan.

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, beste kategoriaren batean pertsonarik dagoenik ez du jaso Lanbidek, eta, hortaz, kuadrilla honetan, Magrebeko eremua da atzerritar jatorriko eremu guztietan ordezkartza duen bakarra.

Osagarriei dagokienean, kuadrilla honetan, familia gurasobakarrentzako laguntza guztiak emakumezkoei eman zitzaizkien (% 100). Aldiz, etxebizitzarako laguntza osagarriak modu parekatuan banatu ziren gizonen eta emakumezkoen artean (% 50 eta % 50).

26. GRAFIKOA: OSAGARRIEN JASOTZAILEAK KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEAN, SEXUAREN ARABERA (2018KO AZAROA)



Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

30. TAULA: OSAGARRIEN JASOTZAILEAK KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEAN, JATORRIAREN ARABERA (2018KO AZAROA)

	Gurasobakarra	Gurasobakarra%	Etxebizitza	Etxebizitza%
Zehaztu gabea	0	0	0	0
Herrigabeak	0	0	0	0
Europar Batasuna	0	0	0	0
Gainerako Europa	0	0	0	0
Magreb	0	0	5	50
Saharaz hegoaldeko Afrika	0	0	0	0
Asia	0	0	0	0
Ipar Amerika	0	0	0	0
Hego Amerika	0	0	0	0
Ozeania	0	0	0	0
Espainiako estatua	2	100	5	50
Guztira	2	100	10	100

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Eremukako banaketari dagokionean, 20. taulan ikus dezakegu familia gurasoba-karrentzako osagarri guztiak espainiar biztanleentzat izan zirela, eta datu hori % 50era jaisten dela etxebizitzarako osagarria aztertuz gero. Azken osagarri horiek Magrebetik etorritako biztanleekin % 50ean partekatuta daude.

- **Guardia-Arabako Errioxa**

7.835 pertsona daude errolatuta Guardia-Arabako Errioxako 14 udalerrietan. Biztanle horietatik, 174k jasotzen dute DBE, hau da, % 2,22ak. Pertsona horien sexua kontuan hartuta, hamar pertsona onuradunetik sei gizonezkoak dira (% 59,6).

DBE jasotzen duten pertsona horien % 53,8k Espainiako estatuan du jatorria, eta % 46,2 atzerriko herrialderen batetik etorritakoa da (22. taula). Atzerriar jatorriko pertsona horietako gehienak gizonezkoak dira (% 73,1), eta joera hori alderantzizkoa da Espainiako estatuan jatorria duten biztanleen artean. Izan ere, horien artean, ohikoagoa da laguntza hori jasotzen duten pertsonak emakumezkoak izatea (emakumezkoen presentzia % 51,6koa da).

31. TAULA: DBE JASOTZEN DUTEN PERTSONAK GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAN, SEXUAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (2018KO AZAROA)

		Atzerriar jatorriko biztanleak	Espainiar jatorriko biztanleak	Guztira
Guardia-Arabako Errioxa	Gizonezkoak	73,1	48,4	59,6
	Emakumezkoak	26,9	51,6	40,4
Araba	Gizonezkoak	48,21	43,29	45,86
	Emakumezkoak	51,79	56,71	54,14

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Kuadrilla honetan bizi eta DBE jasotzen duten atzerriar jatorriko pertsonen kolektiboan, Magrebetik eta Europar Batasunetik etorritako pertsonen presentzia azpimarratu behar da. Hala, eremu geografiko horietatik etorritakoa da DBE jasotzen duten pertsona guztien % 26,6 eta % 14,5.

Hemen ere, magrebtar biztanleriak gizonezkoen tasa altua du (% 86,04). Aldiz, europar jatorriko biztanleriaren sexuaren arabera banaketak oreka handia du: % 48,0 gizonezkoak dira, eta % 52,0 emakumezkoak.


32. TAULA: DBE JASOTZEN DUTEN PERTSONAK GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAN, SEXUAREN ETA JATORRIZKO EREMU HANDIEN ARABERA (2018KO AZAROA)

	Gizonezkoak	Gizonezkoak%	Emakumezkoak	Emakumezkoak %	Guztira	Guztira%
Zehaztu gabea	0	0	0	0	0	0
Herrigabeak	0	0	0	0	-	0
Europar Batasuna	12	11,5	13	18,6	25	14,5
Gainerako Europa	0	0	0	0	0	0
Magreb	39	37,5	7	10	46	26,6
Saharaz hegoaldeko Afrika	5	4,8	0	0	5	2,9
Asia	2	1,9	0	0	2	1,2
Ipar Amerika	0	0	0	0	0	0
Hego Amerika	1	1	2	2,9	3	1,7
Ozeania	0	0	0	0	0	0
Espainiako estatua	45	43,3	48	68,6	93	53,8
Guztira	104	100	70	100	174	100

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Guardia-Arabako Errioxaren kasuan, 10. grafikoak adierazten du familia guraso-bakarrentzako osagarri gehienak emakumezkoek eman zitzaizkiela (% 93,33), eta joera bestelakoa izan zela etxebizitzarako osagarriaren kasuan, gizonezkoen presentzia emakumezkoena baino handiagoa baitzen (laguntza horien % 66,3 jaso zuten gizonezkoek eta % 33,7 emakumezkoek).

27. GRAFIKOA: OSAGARRIEN PERTSONA JASOTZAILEAK GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAN, SEXUAREN ARABERA (2018KO AZAROA)



Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

33. TAULA: OSAGARRIEN PERTSONA JASOTZAILEAK GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAN, SEXUAREN ARABERA (2018KO AZAROA)

	Gurasobakarra	Gurasobakarra%	Etxebizitza	Etxebizitza%
Zehaztu gabea	0	0	0	0
Herrigabeak	0	0	0	0
Europar Batasuna	3	20	19	20,7
Gainerako Europa	0	0	0	0
Magreb	2	13,33	45	48,9
Saharaz hegoaldeko Afrika	0	0	4	4,3
Asia	0	0	2	2,2
Ipar Amerika	0	0	0	0
Hego Amerika	0	0	1	1,1
Ozeania	0	0	0	0
Espainiako estatua	10	66,67	21	22,8
Guztira	15	100	92	100

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Eremu geografiko handiak kontuan hartuta, azpimarratu behar da familia gurasobakarrentzako laguntzak Espainiako estatuan jatorria duten biztanleei eman zizkizkiela, batez ere (% 66,67), bai eta EBeko herrialdeetakoiei (% 20) eta magrebtar jatorrikoiei (% 13,33) ere.

24. taulan ikus daitekeen bezala, etxebizitzarako osagarriaren kasuan, onuradun nagusiak honako hauek izan ziren: magrebtar jatorriko pertsonak (% 48,91), Espainiako estatuan jatorria dutenak (% 22,83) eta EBeko biztanleak (% 20,65).

• Arabako Lautada

Arabako Lautadako kuadrillak 12.446 pertsona ditu, zortzi udalerritan banatuta. Horietatik, 214k Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dute, hau da, % 1,71k. Pertsonen sexuari erreparatuta, DBEk Arabako Lautadan emakume-aurpegia duela ikus dezakegu, emakumezkoen tasa % 55,1ekoa baita han. Ehuneko hori handiagoa da Espainiako estatuan jatorria duten biztanleen artean (% 60,2 emakumezkoak dira) atzerriar jatorriko biztanleen artean baino (kasu honetan, DBE jasotzen duten atzerriar jatorriko pertsona guztien % 44,9 baino ez da emakumezkoa).

34. TAULA: DBE JASOTZEN DUTEN PERTSONAK ARABAKO LAUTADAN, SEXUAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (2018KO AZAROA)

		Atzerriar jatorriko biztanleak	Espainiar jatorriko biztanleak	Guztira
Arabako Lautada	Gizonezkoak	55,2	39,8	44,9
	Emakumezkoak	44,9	60,2	55,1
Araba	Gizonezkoak	48,21	43,29	45,86
	Emakumezkoak	51,79	56,71	54,14

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Kuadrilla honetan, pertsona onuradunen erdiak Espainian jaioak dira. Hala, %

50,5ak Espainiako estatuan dute jatorria, eta % 49,5 atzerritar jatorrikoak dira.

Atzerriko herrialde batean jaioetako biztanleriari dagokionean, nabarmentzekoa da afrikar biztanleriaren pisua, bai magrebtarra nahiz Saharaz hegoaldekoa; eremu geografiko horietakoak dira DBE jasotzen duten biztanle guztien % 23,4 eta % 20,2, hurrenez hurren. Bi jatorri horiek dute ordezkaritzarik handiena atzerritar jatorriko pertsona onuradunen artean, eta haietatik oso urrun geratzen dira Hego Amerika (% 4,2) edo EB herrialdeak (% 1,4) bezalako beste kasu batzuk.

35. TAULA: DBE JASOTZEN DUTEN PERTSONAK ARABAKO LAUTADAN, SEXUAREN ETA JATORRIZKO EREMU HANDIEN ARABERA (2018KO AZAROA)


	Gizonezkoak	Gizonezkoak%	Emakumezkoak	Emakumezkoak %	Guztira	Guztira%
Europar Batasuna	2	2,1	1	0,8	3	1,4
Gainerako Europa	0	0	0	0	0	0
Magreb	31	32,3	19	16,1	50	23,4
Saharaz hegoaldeko Afrika	19	19,8	24	20,3	43	20,1
Asia	1	1	0	0	1	0,5
Ipar Amerika	0	0	0	0	0	0
Hego Amerika	0	0	9	7,6	9	4,2
Ozeania	0	0	0	0	0	0
Espainiako estatua	43	44,8	65	55,1	108	50,5
Guztira	96	100	118	100	214	100

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Ohikoagoak diren bi atzerritar jatorri horien artean (hau da, Magreb eta Saharaz hegoaldeko Afrika), berriro ere ikus dezakegu sexuaren arabera barne-antolaketa desberdina dela batean eta bestean. Izan ere, DBE jasotzen duten magrebtar biztanle guztien % 62,0 gizonezkoa den bitartean, ehuneko hori % 44,18ra jaisten da Saharaz hegoaldeko Afrikako biztanleen kasuan (emakumezkoek presentzia handiagoa dute).

Familia gurasobakarrentzako DBE osagarria, batez ere, emakumezkoen kolektiboarentzat izan zen (% 97,73), eta, aldi berean, etxebizitzarako osagarria modu orekatuago batean banatu zen sexuaren arabera (% 44,21 emakumezkoak izan ziren, eta % 55,79, berriz, gizonezkoak).

28. GRAFIKOA: OSAGARRIEN PERTSONA JASOTZAILEAK ARABAKO LAUTADAN, SEXUAREN ARABERA (2018KO AZAROA)



Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

36. TAULA: OSAGARRIEN JASOTZAILEAK ARABAKO LAUTADAN, JATORRIAREN ARABERA (2018KO AZAROA)

	Gurasobakarra	Gurasobakarra%	Etxebizitza	Etxebizitza%
Zehaztu gabea	0	0	0	0
Herrigabeak	0	0	0	0
Europar Batasuna	2	4,55	3	3,16
Gainerako Europa	0	0	0	0
Magreb	11	25	31	32,63
Saharaz hegoaldeko Afrika	10	22,73	31	32,63
Asia	0	0	1	1,05
Ipar Amerika	0	0	0	0
Hego Amerika	4	9,09	4	4,21
Ozeania	0	0	0	0
Espainiako estatua	17	38,64	25	26,32
Guztira	44	100	95	100

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Pertsona onuradunen jatorriari dagokionean, familia gurasobakarrentzako laguntza gehienak Espainiako estatuan jatorria duten biztanleek (% 38,64), magrebtarrak (% 25) eta Saharaz hegoaldekoek (% 22,73) jaso zituztela ikus dezakegu.

Etxebizitzarako osagarriaren kasuan, afrikar jatorri biek % 32,63ko ordezkartza izan zutela ikus dezakegu; jatorri horien atzetik, Espainiako estatuan jatorria duen biztanleria dago (% 26,32), eta, oso urrutira, besteak beste, hegoamerikar jatorria (% 4,21) eta EBekoa (% 3,16).

- **Gorbeialdea**

Gorbeialdeko kuadrilla osatzen duten 9.736 pertsonetatik, 117k (hau da, % 1,20k) Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dute. Horietatik, % 43,6 emakumezkoak dira, eta % 56,4, berriz, gizonezkoak, baina aldeak daude pertsona horien jatorriari erreparatuz gero. Hori horrela, eta aurretik aipatutako kasuetan gertatu bezala, Espainiako estatuan jatorria duten biztanleriaren kasuan, emakumezkoen presentzia gizonezkoena baino handiagoa da DBE jasotzen duten pertsonen buruz ari garenean: DBE jasotzen duten pertsona guztien % 51,7 emakumezkoa da. Joe-ra alderantzizkoa da atzeritar jatorriko biztanleriaren kasuan, DBE jasotzen duten pertsonen % 35,6 baino ez baita emakumezkoa.

37. TAULA: DBE JASOTZEN DUTEN PERTSONAK GORBEIALDEAN, SEXUAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (2018KO AZAROA)

		Atzeritar jatorriko biztanleak	Espainiar jatorriko biztanleak	Guztira
Gorbeialdea	Gizonezkoak	64,4	48,3	56,4
	Emakumezkoak	35,6	51,7	43,6
Araba	Gizonezkoak	48,21	43,29	45,86
	Emakumezkoak	51,79	56,71	54,14

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

DBE jasotzen duten pertsona guztiak kontuan hartuta, % 49,6k Espainiako estatuan du jatorria, eta atzerriko herrialde batean % 50,4k; azken horien artean, ohikoena da atzerriko herrialde hori Afrikako herrialde bat izatea. DBE jasotzen duten pertsona guztien % 21,4 Magrebetik etorritakoa da, eta % 12,0 Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritakoa. Beste eremu batzuek ere presentzia dute, baina distantzia handi samarra da: besteak beste, Hego Amerika (% 11,1) eta EBeko herrialdeak (% 4,3) (31. taula).


Kasu bakoitzaren barnean, ikus dezakegu talde bakoitza modu batera edo bestera osatuta dagoela jatorriaren arabera. Hala, pertsonen profila oso bestelakoa da Afrikako kontinenteko biztanleriari buruz hitz egiten badugu, edo Hego Amerikatik edo EBetik etorritako biztanleriari buruz hitz egiten badugu. Lehen kasu horretan, hamar pertsona onuradunetik ia zortzi gizonezkoak dira (% 84 Magreben kasuan eta % 78,6 Saharaz hegoaldeko Afrikaren kasuan), eta bigarren kasuan, berriz, pertsona jasotzaile gehienak emakumezkoak dira (% 84,6 Hego Amerikaren kasuan eta % 60,0 EBren kasuan).

38. TAULA: DBE JASOTZEN DUTEN PERTSONAK GORBEIALDEAN, SEXUAREN ETA JATORRIZKO EREMU HANDIEN ARABERA (2018KO AZAROA)

	Gizonezkoak	Gizonezkoak%	Emakumezkoak	Emakumezkoak %	Guztira	Guztira%
Zehaztu gabea	0	0	0	0	0	0
Herrigabeak	0	0	0	0	0	0
Europar Batasuna	2	3	3	5,9	5	4,3
Gainerako Europa	0	0	0	0	0	0
Magreb	21	31,8	4	7,8	25	21,4
Saharaz hegoaldeko Afrika	11	16,7	3	5,9	14	12
Asia	2	3	0	0	2	1,7
Ipar Amerika	0	0	0	0	0	0
Hego Amerika	2	3	11	21,6	13	11,1
Ozeania	0	0	0	0	0	0
Espainiako estatua	28	42,4	30	58,8	58	49,6
Guztira	66	100	51	100	117	100

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

29. GRAFIKOA: OSAGARRIEN PERTSONA JASOTZAILEAK GORBEIALDEAN, SEXUAREN ARABERA (2018KO AZAROA)



Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Gorbeialdean, familia gurasobakarrentzako osagarria emakumezkoiei eman zitzaien, batez ere (% 94,44), eta etxebizitzako gastuak ordaintzera zuzendutakoa, berriz, oreka handiagoaz banatu zen (azken laguntza horien % 41,43 emakumezkoiei eman zitzaien, eta % 58,57, berriz, gizonezkoiei).

39. TAULA: OSAGARRIEN JASOTZAILEAK GORBEIALDEAN, JATORRIAREN ARABERA (2018KO AZAROA)

	Gurasobakarra	Gurasobakarra%	Etxebizitza	Etxebizitza%
Zehaztu gabea	0	0	0	0
Herrigabeak	0	0	0	0
Europar Batasuna	1	5,56	3	4,29
Gainerako Europa	0	0	0	0
Magreb	1	5,56	17	24,29
Saharaz hegoaldeko Afrika	1	5,56	13	18,57
Asia	0	0	2	2,86
Ipar Amerika	0	0	0	0
Hego Amerika	6	33,33	11	15,71
Ozeania	0	0	0	0
Espainiako estatua	9	50	24	34,29
Guztira	18	100	70	100

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Eremu handiei erreparatuta, ikus dezakegu familia gurasobakarrentzako laguntzen erdiak Espainiako estatuan jatorria duten pertsonak jaso zituztela (% 50). Osagarri horien heren bat Hego Amerikako herrialdeetatik etorritako pertsonentzat izan zen, eta, hondar-balioekin (% 5,56), EBetik edo Magrebetik etorritako pertsonen kasua ere ageri da.

Etxebizitzarako osagarriari dagokionean, ikus dezakegu laguntza guztien % 34,29 Espainiako estatuan jatorria duten pertsonen bideratu zela, % 24,29 magrebtar biztanleriari, % 18,57 Saharaz hegoaldeko biztanleriari, eta % 15,71 latino-amerikar biztanleriari.

• Gasteiz

249.176 gizon-emakume bizi dira Gasteizko kuadrillako herrialdeetan. Biztanle horietatik guztietatik, 6.742k DBE jasotzen dute, hau da, biztanle guztien % 2,70ak.

Arabako hiriburuko pertsona jasotzaile horien guztien gehienak (% 54,5) emakumezkoak dira, 40. taulan ikus dezakegun bezala. Arreta pertsonen jatorrian jarrita, Espainiako lurraldean jaioetako biztanle guztien % 56,2 emakumezkoa dela ikus dezakegu, eta atzeritar jatorriko biztanleriaren % 50,6 dela emakumezkoa.

40. DBE JASOTZEN DUTEN PERTSONAK GASTEIZEN, SEXUAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (2018KO AZAROA)

		Atzerritar jatorriko biztanleak	Espainiar jatorriko biztanleak	Guztira
Gasteiz	Gizonezkoak	46,8	43,8	45,4
	Emakumezkoak	50,6	56,2	54,5
Araba	Gizonezkoak	48,21	43,29	45,86
	Emakumezkoak	51,79	56,71	54,14

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Espainiako lurraldetik kanpo jaio eta DBE jasotzen duten pertsonen kolektiboen artean, azpimarratu behar da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren banaketa beste kuadrilla batzuetan baino orekatuagoa dela. Hala, kuadrilla honetan DBE jasotzen duten pertsona guztiak kontuan hartuta, Magreb bezalako jatorri batek (DBE jasotzen duten pertsona guztien % 17,59 magrebtar jatorrikoa da) parekotasun handiagoa du Saharaz hegoaldeko Afrika (% 15,36) edo Hego Amerika (% 14,44) bezalako jatorriekin alderatuta.

Talde horien barnean, DBE jasotzen duten magrebtar biztanle gehienak gizonezkoak dira hemen ere: hala, magrebtar jatorriko hamar onuradunetik ia zazpi gizonezkoak dira. Bestalde, Hego Amerikako, EBeko edo Saharaz hegoaldeko Afrikako beste jatorri batzuetan emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago dira. Emakumezkoen ehunekoak hauek dira jatorri horietan: % 77,82, % 67,17 eta % 53,76, hurrenez hurren.


41. TAULA: DBE JASOTZEN DUTEN PERTSONAK GASTEIZEN, SEXUAREN ETA JATORRIZKO EREMU HANDIEN ARABERA (2018KO AZAROA)

	Gizonezkoak	Gizonezkoak%	Emakumezkoak	Emakumezkoak %	Guztira	Guztira%
Europar Batasuna	72	2,35	91	2,47	163	2,42
Gainerako Europa	43	1,40	88	2,39	131	1,94
Magreb	764	24,93	422	11,47	1.186	17,59
Saharaz hegoaldeko Afrika	479	15,63	557	15,14	1.036	15,36
Asia	139	4,54	25	0,68	164	2,43
Ipar Amerika	0	0	2	0,05	2	0,03
Hego Amerika	216	7,05	758	20,61	974	14,44
Ozeania	0	0	1	0,03	3	0,04
Espainiako estatua	1.351	44,09	1.734	47,15	3.085	45,74
Guztira	3.064	100	3.678	100	6.744	100

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Berriro ere, Gasteizko kuadrillaren kasuan, familia gurasobakarrentzako osagarri gehienak emakumezkoek ematen zaizkiela ikus dezakegu (% 95,14). Aldiz, etxebizitzarako osagarriaren banaketa heterogeneoagoa da (% 51,02 gizonezkoak dira, eta % 48,98 emakumezkoak).

30. GRAFIKOA: OSAGARRIEN PERTSONA JASOTZAILEAK GASTEIZEN, SEXUAREN ARABERA (2018KO AZAROA)



Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

TAULA 42: OSAGARRIAK JASOTZEN DITUZTEN PERTSONAK GASTEIZEN, JATORRIAREN ARABERA (2018KO AZAROA)

	Gurasobakarria	Gurasobakarria%	Etxebizitza	Etxebizitza%
Zehaztu gabea	0	0	0	0
Herrigabeak	0	0	0	0
Europar Batasuna	25	2,34	102	3,09
Gainerako Europa	23	2,15	101	3,06
Magreb	113	10,57	667	20,23
Saharaz hegoaldeko Afrika	206	19,27	779	23,63
Asia	5	0,47	129	3,91
Ipar Amerika	0	0	0	0
Hego Amerika	313	29,28	645	19,56
Ozeania	0	0	0	0
Espainiako estatua	384	35,92	874	26,51
Guztira	1.069	100	3.297	100

Iturria: Lanbideren datuak oinarri hartuta egin da

Familia gurasobakarrentzako etxebizitzarako osagarriei dagokienean, 42. taulan ikus dezakegu osagarri horien heren bat baino gehiago jaso zituztela Espainiako estatuan jatorria duten biztanleek (% 35,92). Haren atzetik daude hegoamerikar biztanleria (% 29,28), Saharaz hegoaldeko Afrikakoa (% 19,27) eta magrebtarra (% 10,57).

Etxebizitzarako osagarriaren kasuan, azpimarratu behar da onuradun nagusiak Espainiako estatuan jatorria duten pertsonak izan zirela (% 26,51), eta, gero, Afrika beltzean jatorria duten biztanleak (% 23,63), magrebtarrak (% 20,23) eta latino-amerikarrak (% 19,56).



Lan-merkatua

3

Atal honetan, Arabako lan-merkatuan atzerriko nazionalitatea duten biztanleen egoera aztertuko dugu. Horretarako, lehendabizi Gizarte Segurantzako afiliatzeari dagozkien datuak atalkatu eta aztertuko ditugu; bigarrenik, kontratazio-mota eta ezaugarriak; azkenik, langabeziaren ezaugarriak. Analisiaren lurralde-esparrua datuen eskuragarritasunaren arabera izango da, eta Araba gainerako lurralde historikoekin eta EAErekin alderatuko da. Bestalde, ahal izanez gero, kuadrillen arabera azterketa egingo da. Azkenik, datu-iturriei dagokienez, SISPEren eta Gizarte Segurantzaren datu-baseak lantzen dituen SEPE Behatokiaren txostenetatik eskuratu dira. Lanbideren datuak ere erabili dira.

Afiliazioa

Atal honetan, atzerriko nazionalitatea duten biztanleen Gizarte Segurantzako afiliazio-ezaugarriak aztertuko ditugu. 43 taularen arabera, 2017. urtean zehar 9.780 atzerritar afiliatu zeuden Arabako Gizarte Segurantzari; horietatik 5.915 gizonezkoak ziren (% 60,5), eta 3.864 emakumezkoak (% 39,5).

43. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO ATZERRIKO BIZTANLEAK, SEXUAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA, 2017 (URTEKO BATEZ BESTEKOAK)

	Guztira	Gizonezkoak		Emakumezkoak	
	Kopurua	Kopurua	%	Kopurua	%
Espainia	1.813.792	1.010.504	55,7	803.288	44,3
EAE	55.310	30.010	54,3	25.300	45,7
Araba	9.780	5.915	60,5	3.865	39,5
Bizkaia	19.551	10.457	53,5	9.094	46,5
Gipuzkoa	25.979	13.638	52,5	12.341	47,5

Iturria: SEPEren behatokia

Arabako errealitatea gainerako erkidegoekin alderatuz gero, Araban afiliatutako atzerritar gizonezkoen ehunekoa handiagoa da. Estatuari dagokionez, afiliatutako 1,8 milioi atzerritarren % 55,7 gizonezkoa da, eta % 44,3 emakumezkoa. EAERI dagokionez, antzeko genero-desberdintasunak daude: afiliatutako 55.312 atzerritarren % 54,3 gizonezkoa da, eta % 45,7 berriz, emakumezkoa. Hala ere, beste bi lurralde historikoekin alderatuta, desberdintasunak handiagoak dira. Bizkaian eta Gipuzkoan orekatuagoa da gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aldea; atzerritar afiliatuen % 52-54 gizonezkoa da, eta % 46-48 emakumezkoa. Laburbilduz, generoari dagokionez, Araban Gizarte Segurantzari afiliatutako atzerriko biztanleriak Estatuko eta Euskadiko ehunekoa baino handiagoa den profil maskulinoago bat du bereizgarri, eta alde hori are eta nabarmenagoa da Gipuzkoa eta Bizkaiaarekin alderatzean.

Bestalde, Gizarte Segurantzari erregistratutako atzerritarren kopuruak gora egin du 2014az geroztik (44 taula), susperraldi ekonomikoarekin bat etorritik. 2017ko abenduaren 31an, Gizarte Segurantzari afiliatutako 9.914 atzerritar zeuden Araban; 2.006 pertsona gehiago, 2014ko kopuruarekin alderatuta. Hau da, 2014 eta 2017 bitartean, afiliazio-mailak % 25,4 egin du gora.

44. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO ATZERRIKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (ABENDUAK 31)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
2017	9.914	26.548	20.022	56.484
2016	8.872	24.682	18.018	51.572
2015	8.396	23.962	16.959	49.317
2014	7.908	22.710	15.945	46.563


Iturria: SEPEren behatokia

EAeri dagokionez, 56.484 atzerritar afiliatu zeuden 2017an. Horrek esan nahi du susperraldi ekonomikoa hasi zenetik 10.000 bat afiliatu gehiago daudela. Bizkaian eta Gipuzkoan ere joera positiboa da.

31 grafikoak urtetik urterako hazkundera erakusten du, eta, bertan, hobekuntza hori argiago ikus daiteke. Araban urtetik urterako hazkundera % 6,17 - % 5,67 bi-tartekoa izan da 2014 eta 2016 artean. 2016 eta 2017 artean, berriz, intentsitatea hamar puntutik gora hazi da; % 11,7 zehazki.

Lurralde-eremuak alderatuz gero, Araban eta Gipuzkoan antzeko joera ikusten da; Bizkaian eta EAEn aldiz, gorakada ez da hain nabarmena. Hala ere, agerikoa da eremu guztietan hazi dela afiliatuen kopurua 2016 eta 2017 artean, ekonomiaren hobekuntzari esker.

31. GRAFIKOA. GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO ATZERRIKO BIZTANLERIAREN URTETIK URTERAKO HAZKUNDEA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%) (ABENDUAK 31)



Iturria: SEPEren behatokia

Grafikoko dinamikari erreparatzen badiogu, Arabako afiliatuen ehunekoa gero eta handiagoa da EAEn. 2014 eta 2017 artean, Arabako atzerritar afiliatuen ehunekoa % 0,6ko igoera izan du, eta % 17,6 izatera heldu da. Hala ere, tarte horretako hazkunderik handiena Gipuzkoan izan da; bertan, % 1,2 hazi da. Bizkaian, aldiz, % 1,8 egin du behera.

45. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO ATZERRIKO BIZTANLERIAREN BANAKETAREN BILAKAERA EHUNEKOTAN, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (ABENDUAK 31)


	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
2017	17,6	47	35,4	100
2016	17,2	47,9	34,9	100
2015	17	48,6	34,4	100
2014	17	48,8	34,2	100

Iturria: SEPEren behatokia

Afiliatutako atzerriko biztanleriaren guztizko kopuruari dagokionez ere, 32 grafikoan ikus daiteke etengabe egin duela gora. Araban, afiliatutako biztanleen % 5,4ak atzerriko nazionalitatea zuen; 2017an, berriz, ehuneko hori % 6,4ra arte igo

zen. Horrenbestez, afiliazioen kopuru-hazkunderen ondorioz afiliatutako atzerri-tar-kopurua ere portzentajezko puntu bat hazi dela ikus dezakegu. Joera bera ikus daiteke EAEn ere; % 5,3 izatetik % 6,0 izatera igaro da tarte berean; hazkunderik handiena, ordea, Bizkaian izan da, % 6,4 izatera igaro baita.


32. GRAFIKOA. GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO ATZERRIKO BIZTANLERIAREN EHUNEKOAREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (ABENDUAK 31)



Iturria: SEPEren behatokia

Arabako jarduera-sektoreei dagokienez, bost jarduera-sektorek hartzen dute afiliazioen % 73,1 (33 grafikoa). Lehendabizi, ostalaritzak afiliazioen % 19,2 hartzen du; horren ondoren, handizkako merkataritzak eta ibilgailuen konponketak % 15,7, manufaktura-industriak % 13,8, jarduera administratiboek eta zerbitzu lagungarriek % 13,4 eta eraikuntzak, berriz, % 10,9. Bestalde, deigarria da nekazaritza-sektorean % 0,7k besterik ez jardutea, Araban sektore horrek duen pisua kontuan hartuta. Hala ere, kopuru hori 33 grafikoa zehazten da; bertan, % 4,9 afiliatuta ageri da Nekazaritza Sistema Berezian afiliatuta.

33. GRAFIKOA. GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO ATZERRIKO BIZTANLERIAREN BANAKETA EHUNEKOTAN, JARDUERA EKONOMIKOAREN ETA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (ABENDUAK 31)




Iturria: SEPEren behatokia

Afiliazio-erregimenari dagokionez, Araban afiliatutako atzerritarren % 68,3k Erregimen Orokorra du; % 14,3k Langile Autonomoen Erregimen berezia; % 12,5k Etxe Zerbitzarien Sistema Berezia; % 4,9 berriz Nekazaritzako Sistema Berezian afiliatuta dago.

Arabako eta gainerako lurralde-eremuetako egoerak alderatuz gero, Araban garrantzi handiagoa dute Erregimen Orokorrak, Ikatz Meatzaritzako Erregimen Bereziak eta Nekazaritzako Sistema Berezia; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, pisu erlatibo handiagoa du Etxe Zerbitzarien Sistema Berezia.

34. GRAFIKOA. GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO ATZERRIKO BIZTANLERIAREN BANAKETA EHUNEKOTAN, GIZARTE SEGURANTZAKO ERREGIMENAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (ABENDUAK 31)



Iturria: SEPEren behatokia

Kontratazioa

Atal honetan, kontratazioari buruzko datuak aztertuko ditugu⁶. Afiliazioen kasuan ikusi dugu, susperraldi ekonomikoari esker, kontratatuko atzerriko biztanleriak ere gora egin duela. 2014an, atzerritar biztanleei 24.242 kontratu egin zitzaizkien Araban; 2017an, berriz, 31.896 kontratu sinatu ziren, 7.654 gehiago, hain zuzen. EAEn antzeko joera izan da; 30.588 kontratu gehiago sinatu dira hiru urteetan.

46. TAULA. KONTRATATUTAKO ATZERRITARRAK, ATZERRITARREN EHUNEKOA KONTRATU GUZTIEKIKO ETA ERROTazio-INDIZEA.

	Kontratuak		Atzerritarrak %		Errotazioa	
	Araba	EAE	Araba	EAE	Araba	EAE
2014	24.242	75.986	17,1	10,0	2,3	2,1
2015	25.650	84.787	15,8	9,8	2,4	2,3
2016	29.636	93.888	17,3	10,1	2,6	2,4
2017	31.896	106.574	17,5	11,1	2,9	2,5
2014-2017	7.654	30.588	0,3	1,1	0,6	0,5

Iturria: SEPEren behatokia

Hazkunde horrek handitu egin du kontratatutako atzerritar-kopurua Araban eta EAEn. 2014an Araban sinatutako kontratuen % 17,1 atzerritar batek sinatu zuen; 2017an, kopuru hori % 17,5koa izan zen; hau da, % 0,4 hazi zen. EAEn, kopuru hori % 10,0 izatetik % 11,1 izatera igaro da 2014 eta 2017 artean, hau da, % 1,1 hazi zen. Horrez gain, datu horiek adierazten dute kontratupeko atzerriko biztanleriaren pisa handiagoa dela Araban, EAerekin alderatuta.

⁶ Bizkaia eta Gipuzkoari buruzko datuen koherentziarik ezaren ondorioz, lurralde horiek ez dira azterketan sartu.

Hala ere, joera positibo hori errotazio-indizeak zehazten du. 2014an, biztanle atzerritar bakoitzeko 2,3 kontratu sinatu ziren Araban; 2017an, berriz, kopuru hori 2,9koa zen. Horrenbestez, kontratuen kopuruak gora egin duen arren, lanpostuen errotazio handiagoaren eragina ere bada.

Kontratututako atzerritarren ezaugarri demografikoei erreparatuz, zera ikus dezakegu: kontratuen kopuruak gora egin duela gizonezko zein emakumezko atzerritarren artean (47 taula).

47. TAULA. KONTRATUTUTAKO ATZERRITARRAK, SEXUAREN ARABERA

		Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
2014	Araba	18.044	6.198	24.242
	EAE	46.280	29.706	75.986
2015	Araba	3.056	2.755	5.811
	EAE	12.542	11.021	23.563
2016	Araba	21.517	8.119	29.636
	EAE	56.363	37.525	93.888
2017	Araba	23.154	8.742	31.896
	EAE	63.849	42.725	106.574
2014-17	Araba	5.110	2.544	7.654
	EAE	17.569	13.019	30.588
	Araba %	28,3	41,0	31,6
	EAE %	38,0	43,8	40,3


Iturria: SEPEren behatokia

2014an, gizonezko atzerritarrek 18.044 kontratu sinatu zituzten Araban; emakumezko atzerritarrek, berriz, 6.198. 2017an, gizonezkoek 23.154 kontratu sinatu zituzten; emakumezkoek, berriz, 8.742. Kopuru absolututan kontratatutako gizonezko atzerritarren kopurua handiagoa izan zen arren, termino erlatibotan gorakada nabarmenagoa izan du kontratatutako emakumezkoen kopuruak; % 28,3tik % 41,0 izatera igaro da, hain zuzen.

Bestalde, Arabako eta EAeko zifra absolutuak alderatuz gero, antzeko joera dutela ikus daiteke; hau da, kontratatutako atzerritar gizonezkoen kopuruak gora egin du. Termino erlatiboei erreparatuz, ordea, EAEn gorakada handiagoa izan da emakumezkoen kasuan (+% 43,8); gizonezkoen kasuan, berriz, gorakada erlatiboa 10 puntu handiagoa da (+% 38) Arabako joerarekin alderatuta (+% 28,3).

Sexuaren araberako banaketari dagokionez (35 grafikoa), 2014an Araban atzerritarrei egindako kontratuen % 74,4 gizonezkoek sinatu zituzten, eta kontratuen % 25,6 emakumezkoek. 2017an ehuneko horiek ez zuten ia aldaketarik jasan. Hala ere, 2015ean kopuruak nabarmen berdindu zirela ikus daiteke (% 52,6 gizonezkoak eta % 47,4 emakumezkoak), baina ez da berriro gertatu.


35. GRAFIKOA. KONTRATATUTAKO ATZERRITARRAK, SEXUAREN ARABERA (%)



Iturria: SEPEren behatokia

Araba eta EAE alderatzean, Araban genero-desberdintasuna nabarmenagoa dela ikus daiteke, kontratatutako gizonezkoen kopuruak pisu handiagoa duelako. Izan ere, EAEn gizonezko atzerritarrek emakumezko atzerritarrek baino kontratu gehiago sinatu arren, aldea hogeit hamar puntu ingurukoa da; Araban, berriz, berrogei puntutik gorakoa. Alde hori, neurri batean, afrikar jatorriko biztanleriak Araban pisu handiagoa duelako gerta daiteke; izan ere, talde horretan handiagoak dira gizonezkoen kopurua eta jarduerarik ezaren tasa. Bestalde, litekeena da kontratatutako emakumezkoen ehunekoari dagokion presentzia aitortu gabe egotea, ezkutuko ekonomiak etxeko lanen sektorean duen pisuaren ondorioz, batik bat. Izan ere, emakumezko atzerritarren lan-esparru nagusietako bat da, bereziki latinoamerikarrena.

36. GRAFIKOA. KONTRATATUTAKO ATZERRITARRAK, ADIN-TALDEEN ARABERA (%)



Iturria: SEPEren behatokia

Adin-taldeeireparatur, grafikoan argi eta garbi ikusten dugu kontratatutako atzerritar gehienek 25 eta 45 urte artean dituztela. 2014an, adin-talde horrek kontratuen % 70,5 biltzen zuen; horren ondoren, 45 urtetik gorakoek % 16,1; 25 urte-

tik beherakoek, berriz, % 13,5. 2017an kopuru horiek ez dira asko aldatu; 25 eta 45 urte artekoek atzerritarren kontratuen % 69,7 biltzen dute; 45 urtetik gorakoek % 17,3; 25 urtetik beherakoek, berriz, % 14,3.

Ikasketa-mailari dagokionez (48 taula), datuek argi eta garbi adierazten dute kontratu bat lortzen duten pertsonen hezkuntza-maila baxua dutela. Araban, atzerritarren kontratuen % 53,7 lehen mailako ikasketak zituzten edo ikasketarik egiaztatu gabe zuten atzerritarrek sinatu zituzten 2014an; % 55ak, berriz, bigarren mailako ikasketak zituen. Hau da, % 92,5ak bigarren mailako ikasketak edo hezkuntza-maila baxuagoa zuen.

48. TAULA. KONTRATATUTAKO ATZERRITARRAK, IKASKETA-MAILAREN ARABERA (%)

		Lehen ikasketak / Ziurtagiririk ez	DBH	Batxilergoa	Erdi-mailako LB	Goi-mailako LB	Unibertsitatea	Zehaztu gabe
2014	Araba	53,7	38,8	4,1	1,5	0,7	1,1	0,1
	EAE	45,3	39,7	8,7	2,1	1,1	2,4	0,5
2015	Araba	54,4	37,9	4,0	1,3	0,7	1,3	0,4
	EAE	45,3	39,7	8,7	2,1	1,1	2,4	0,5
2016	Araba	50,7	36,8	5,4	3,0	1,3	1,6	1,2
	EAE	40,2	37,9	12,0	1,0	0,4	4,0	4,5
2017	Araba	74,3	12,0	6,7	2,5	1,4	2,1	1,1
	EAE	58,8	16,0	11,9	3,4	1,9	4,4	3,5
2014-17	Araba	20,58	-26,79	2,60	1,02	0,64	0,95	0,99
	EAE	13,43	-23,68	3,18	1,32	0,75	1,96	3,03


Iturria: SEPEren behatokia

2017an ikasketa-maila are eta baxuagoa da; izan ere, % 74,3k lehen mailako ikasketak dituzte edo ikasketarik egiaztatu gabe dute; % 12k, berriz, bigarren mailako ikasketak ditu. Bi urteak alderatzen baditugu, ikasketa-maila baxuena dutenen kopuruak 20 puntuko gorakada izan du; bigarren mailako ikasketak dituztenen kopuruak, berriz, 26 puntu egin du behera. Arabako egoera EAErekin alderatzen badugu, Euskadi mailan hezkuntza-maila zertxobait handiagoa dela ikus daiteke, alde handirik ez dagoen arren.

Emitza horiek talde horren giza kapital txikia erakusten dute, eta kontuan hartu beharrekoa da, aukera dezaketen lanbide-mota baldintzatzen baitu (oro har, kualifikazio txikikoak). Horregatik, egiturazko faktore horrek ordainsaririk apalenak dituzten, ezegonkorrenak diren eta lan-baldintza okerrenak dituzten enpleguetan kokatzen ditu.

Ezaugarri demografikoekin amaitzeko, 37 grafikoan kontratatutako atzerritarren ehunekoa ikus dezakegu, nazionalitate nagusien arabera.

37. GRAFIKOA. KONTRATATUTAKO ATZERRITARRAK, NAZIONALITATEAREN ARABERA. NAZIONALITATE NAGUSIAK. ARABA. 2017 (%)




Iturria: SEPEren behatokia

37 grafikoak Araban kontratatutako atzerritarren hamar nazionalitate nagusiak adierazten ditu. Nazionalitate horiek 2017an atzerritar biztanleei egindako kontratuen % 69,5 biltzen dute. Gehienak marokoarrak dira; hain zuzen, kontratuen % 18,4. Horien ondoren, berriz, portugaldarrak eta errumaniarrak, % 11,9 eta % 8,6 hurrenez hurren. Jatorriari kontinenteen arabera erreparatzen badiogu, sailkapen horretan afrikar nazionalitatea dutenek biltzen dituzte kontratu gehien. Hain zuzen, Maroko, Nigeria, Senegal, Aljeria eta Malik kontratuen % 35,1 biltzen dute. Horien ondoren europar nazionalitateak daude; portugaldar eta errumaniar jatorrikoek kontratuen % 20,5 biltzen dute.

Behin ezaugarri demografikoei erreparatu ondoren, kontratu horien jarduera ekonomiko mota aztertuko dugu. 38 grafikoak atzerriko biztanleei EAEn eta Araban egindako kontratuen banaketa adierazten du, ehunekotan eta sektore ekonomikoaren arabera. Alde handiak daude bi lurraldeen artean. Alde horrek zerikusi handia du Arabako lurraldearen egitura ekonomikoarekin eta atzerriko immigrazioaren lan-esparruekin, nekazaritza-sektorearekin, bereziki.

2014an, atzerritarrei egindako kontratuen % 43,8 nekazaritza-sektorekoak izan ziren; kopuru askoz ere handiagoa, EAEko % 16,2ren aldean. Urte hartan bertan, aldiz, EAEko kontratuen % 65,5 zerbitzuen sektorean sinatu ziren; Araban kopuru hori % 43,1ekoa besterik ez zen izan.

38. GRAFIKOA. KONTRATATUTAKO ATZERRITARRAK, SEKTORE EKONOMIKOAREN ARABERA (%)




Iturria: SEPEren behatokia

2014 eta 2017 arteko bilakaerak, hala ere, argi erakusten du nekazaritzaren pisua gero eta txikiagoa dela, eta zerbitzuen sektorean dihardutenen kopuruak goranzko joera duela. 2017an, atzerritarrek sinatutako kontratuen % 28 nekazaritza-sektorekoak izan ziren (-15,8 puntu); zerbitzuen sektorea, aldiz, % 56,2ra arte handitu zen (+13,2 puntu). Gainerako sektoreetan, kopuruak ez dira hain aldakorrak izan. Horrenbestez, ekonomia suspertu ahala kontratu gehiago egin direla ikus daiteke, eta gorakada hori, batik bat, zerbitzuen sektorean gertatu dela.

39 grafikoan xehetasun handiagoz ikus dezakegu 2017ko jarduera ekonomiko motaren arabera kontratuen banaketa. % 27,9k kontratu bat sinatu du nekazaritza, abeltzaintza, ehiza edo esparru horietako zerbitzuekin lotutako jarduera ekonomiko batean; ondoren, % 11,6k janari- eta edari-zerbitzuekin lotutako kontratu batean, eta % 10ak eraikinetarako zerbitzuetan eta lorazaintza-jardueretan. Gainerako jarduera ekonomikoen ehunekoa hamar puntutik beherakoa da.


39. GRAFIKOA. KONTRATATUTAKO ATZERRITARRAK, SEKTORE EKONOMIKOAREN ARABERA
KONTRATATUTAKO ATZERRITAR GUZTIEN GAINEKO EHUNEKOAK. JARDUERA NAGUSIAK. ARABA. 2017



Iturria: SEPEren behatokia

40 grafikoak atzerriarren ehunekoa adierazten du, jarduera ekonomiko bakoitzean egindako kontratuen guztizkoan. Horrela, Arabako zenbait jarduera ekonomikok jatorriaren arabera zer lan-segmentazio duten jakin dezakegu. 2017ko Arabako datuetan ikus dezakegu nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin lotutako zerbitzuetan egindako kontratuen % 73,2 atzerriko nazionalitatea duen biztanle batek sinatu zuela; hau da, Arabako nekazaritza-sektoreko hamar kontratutik zazpi baino gehiago atzerriko biztanle batek sinatzen dituela. Horren ondoren, etxeko zerbitzuek atzerriko biztanleen % 47,2ri ematen diete lana, biltegiatze- eta garraio-jarduerak % 30,1i eta eraikuntza-jarduerak % 27,7ri.

40. GRAFIKOA. ATZERRITARREN EHUNEKOA, JARDUERA EKONOMIKO BAKOITZEAN EGINDAKO
KONTRATUEN GUZTIZKOAN. JARDUERA NAGUSIAK. ARABA. 2017



Iturria: SEPEren behatokia

Atzerriko biztanle gehienek kualifikazio txikiko enpleguetan lanean dihardutela ikus daiteke. Hori berretsi egiten da 41 grafikoan, non kontratuen okupazio-kategoriak ikus ditzakegun.

41. TAULA. KONTRATATUTAKO ATZERRITARRAK, OKUPAZIO-KATEGORIAREN ARABERA. EHUNekoAK. ARABA. 2017




Iturria: SEPEren behatokia

2017an, atzerritarrek sinatutako kontratuen % 64,3 oinarrizko lanen lan-kategoriari zegozkion; lan-kategoriarik apalenari, hain zuzen. Horren ondoren, sukaldaritzako langileak, zerbitzu pertsonala, babesa eta saltzaileak lanbide-multzoan dihardutenek % 17,0 biltzen zuten, eta artisauen eta manufaktura-industrietako eta eraikuntzako langile kualifikatuek, berriz, % 10,6. Laburbilduz, atzerriko biztanleek sinatutako kontratu gehienek kualifikazio eta lan-kategoria txikiko enpleguak hartzen dituzte.

Beraz, enpleguaren sektore-mota eta lan-kategoria lotuta daude sektore horien egiturazko lan-baldintzekin. 42 grafikoan ikus daiteke atzerriko biztanleek sinatutako ia kontratu denak (% 94,1) aldi baterako lan-kontratuak direla.


42. GRAFIKOA. KONTRATATUTAKO ATZERRITARRAK, KONTRATU-MOTAREN ARABERA (MUGAGABEA / ALDI BATERAKOA). EHUNekoAK. ARABA. 2017



Iturria: SEPEren behatokia

Era berean, zertxobait handiagoa da aldi baterako lan-kontratudun atzeritarren ehunekoa, lan-kontratudun atzeritarren guztizkoa baino. 43 grafikoan ikus daiteke 2017an Araban atzeritarrek sinatu zituztela lan-kontratuen % 17,5, aldi baterako kontratuen % 17,7 eta kontratu mugagabeen % 14,0.

43. GRAFIKOA. ATZERITARREN EHUNEOA KONTRATU GUZTIEN GAINEAN, KONTRATU-MOTAREN ARABERA (MUGAGABEA / ALDI BATERAKOA). JARDUERA NAGUSIAK. ARABA. 2017



Iturria: SEPEren behatokia

Langabezia

Atzeritar langabe enplegu-eskatzaileak Araban

Ekonomia suspertzearekin batera, atzerriko biztanleen langabezia-tasek behera egin dute, bai Araban, bai gainerako lurraldeetan. 2015ean (49 taula), 5.652 atzeritar langabe enplegu-eskatzaile zeuden Araban erregistratuta. 2018an, kopuru hori 4.714koa zen; hau da, 938 atzeritar langabe gutxiago zeuden 3 urtean (-% 16,6).

49. TAULA. ATZERITAR LANGABE ENPLEGU-ESKATZAILEAK, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. URTEKO BATEZ BESTEKOA)


	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2015	22.756	5.652	10.437	6.667
2016	23.815	5.915	10.976	6.924
2017	21.081	5.086	9.830	6.165
2018	19.544	4.714	9.197	5.633
2015-2018	-3.212	-938	-1.240	-1.034
2015-2018(%)	-14,11	-16,59	-11,88	-15,51

Iturria: Lanbide

Arabako dinamika gainerako lurraldeekin alderatuz gero, langabeziak Araban izan du beherakadarik handiena, ehunekoei dagokienez. EAeri dagokionez, biztanle langabeen kopurua 22.756 izatetik 19.544 izatera igaro da; hau da, 3.212 atzerritar langabe enplegu-eskatzailer gutxiago (-% 14,1). Bestalde, gainerako lurralde historikoekin alderatuta ikus daiteke Gipuzkoa dela langabezia-tasaren beherakada handiena izan duen bigarren lurraldea; bertan, talde horretako 1.034 langabe gutxiago izan dira, hau da, % 15,5 gutxiago. Bizkaian, berriz, jaitsiera nabarmenagoa izan da kopuru absolututan (1.240 pertsona gutxiago), baina ehunekoei dagokienez, % 11,9ko beherakada izan du. Laburbilduz, atzerriko biztanleria langabeak Araban izan du susperraldi ekonomikoaren ondoriozko bilakaerarik onena.

Joera hori agerikoa da atzerriko biztanle langabeen banaketan, lurralde historiko batetik bestera. 44 grafikoan ikus daiteke, 2018an, % 47,1 Bizkaian bizi zela; % 28,8 Gipuzkoan, eta % 24,1 Araban.


44. GRAFIKOA. EAEKO ATZERRITAR ENPLEGU-ESKATZAILEEN BANAKETA EHUNEKOTAN, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. URTEKO BATEZ BESTEKOA)



Iturria: Lanbide

2015eko eta 2018ko banaketak alderatuta, zenbait aldaketa ikus daitezke: orokorrean, Bizkaiko atzerriko biztanleria langabearen pisu erlatiboa handitu egin da, eta txikitu, berriz, Araban eta Gipuzkoan. Hain zuzen, datuek adierazten dute 2015ean atzerriko biztanleria langabearen % 24,8 Araban biltzen zela; 2018an, berriz, % 24,1. Hau da, hiru urtetan portzentajezko 0,7 puntu egin du behera, langabezia-tasa txikiagotu delako. Gipuzkoan, atzerriko biztanleria langabea % 29,3 izatetik % 28,8 izatera igaro da; hau da, portzentajezko puntu erdi egin du behera.

45. GRAFIKOA. ATZERRIKO BIZTANLE LANGABE ENPLEGU-ESKATZAILEAK, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (URTEKO BATAZ BESTEKOA)




Iturria: Lanbide

Grafikoak atzerriko biztanleen pisua adierazten du, langabezian dauden biztanleen guztizkoaren gainean. Bertan ikus daiteke Araban langabeen % 23,3 atzerritarra dela. Gainera, Arabako atzerriko biztanle langabeen pisua handitu egin da 2015az geroztik: hiru urtetan % 22,4 izatetik % 23,3 izatera igaro da; hau da, portzentajezko 0,9 puntu egin du gora. Izan ere, susperraldi ekonomikoaren ondorioz lehenago atera dira langabeziatik espainiar jatorriko biztanleak, atzerriko biztanleria baino.

Bestalde, lurraldeen arteko alderaketari erreparatuz gero, atzerriko biztanleek Arabako biztanleria langabeen dute pisurik handiena. 2018ko datuei erreparatuz gero, Araban atzerritar langabe enplegu-eskatzailen kopurua % 7,5 handiagoa da EAEn baino, eta baita Gipuzkoan (% 5,9) eta Bizkaian (% 2,8) baino handiagoa ere; Bizkaian, atzerriko biztanleen pisua, biztanleria langabearen guztizkoaren artean, EAEko batez besteko joeraren azpitik dago (-% 2,8). 2015. urtetik aurrera ez da bilakaera handirik izan: Araba da, langabeziari dagokionez, Euskadin atzerriko biztanleriak pisu erlatibo handiena duen lurraldea.

Langabezia-motaren ezaugarrien berri izateko beste adierazle nabarmen bat langabeziaren iraupena da. 46. grafikoak Arabako epe luzeko atzerritar langabeen eta epe luzekoak ez diren atzerritar langabeen kopuruak zer bilakaera izan duen adierazten du, 2008 eta 2017 artean.

46. GRAFIKOA. EPE LUZEKO ATZERRITAR LANGABEEN ETA EPE LUZEKOAK EZ DIREN ATZERRITAR LANGABEEN KOPURUAREN BILAKAERA ARABAN. 2008-2017 (ABENDUAK 31)




Iturria: SEPEren behatokia

Bi kategorietan aldaketa handiak ageri dira. Krisi ekonomikoaren lehen urteetan (2008-2012), atzerriko biztanleriaren langabeziak bereizgarri zuen epe luzekoa ez izatea. 2008an, 119 atzerritar epe luzeko langabezian zeuden, eta 2.321 atzerritar ez zeuden epe luzeko langabezian. 2013an joera hori aldatu egiten da, eta epe luzeko langabeziaren kopuruak (2.882), lehen aldiz, gainditu egiten du epe luzekoa ez den langabeziaren kopurua (2.811). 2013 eta 2017 artean nabarmendu egiten da bien arteko aldea; 2017an, 2.735 atzerritar epe luzeko langabezian zeuden, eta 2.182, berriz, ez zeuden epe luzeko langabezian.

Krisi egoeran gertatutako kronifikazioaren ondorioz, gora egin du atzerriko biztanleen epe luzeko langabezia-tasak. Horrez gain, langabeziak behera egin izanak epe luzeko langabeen kopurua txikitu duen arren, alde horiek oraindik mantendu egin dira.

47 grafikoak xehetasun handiagoz erakusten du pertsona horiek langabezian zenbat denbora daramaten. 2017an, hamar atzerritarretik lauk bi urtetik gora zeramatzaten langabezian, eta % 15,2k urtebete zeraman enplegu bila. Aldiz, % 6,3k hilabete bat baino gutxiago zeraman; % 12,8k hilabete bat eta hiru hilabeteren artean; % 12,8k hiru eta sei hilabete artean; % 12,5ak 6 hilabete eta urtebeteren artean.

47. GRAFIKOA. ATZERITAR LANGABE ENPLEGU-ESKATZAILEAK LANGABEZIAREN IRAUPENAREN ARABERA, ARABAN. EHUNEKOAK. 2015-2017 (ABENDUAK 31)



Iturria: SEPEren behatokia

2015 eta 2017 arteko datuak alderatuz gero, enplegu bila urtebete baino gutxiago daramaten atzerriko biztanle langabe enplegu-eskatzaileen kopurua antzekoa dela ikus dezakegu, eta enplegu bila urtebete baino gehiago daramatenen kasuan, kronifikazioa handiagoa dela. Hori dela eta, 2015ean % 18,0k 12 eta 24 hilabete bitartean zeraman lan bila; 2017an, berriz, % 15,2k zeraman, hau da, % 2,8 gutxiagok. Tarte horretan bertan, enplegu bila bi urtetik gora zeramaten atzerriko biztanle langabe enplegu-eskatzaileen kopurua % 37,9tik % 40,5 izatera igaro zen; hau da, % 2,6 hazi zen. Langabe-mota horren pisuak gora egin duela adierazten du, kronifikazioaren ondorioz.

Oraindik atzerriko biztanleen langabeziaren ezaugarriak jakiteko adierazleei helduz, 50 taulak Araban talde horrek zer ikasketa-maila duen adierazten du, sexua-ren arabera.

50. TAULA. ATZERRIKO BIZTANLE LANGABE ENPLEGU-ESKATZAILEAK, IKASKETA-MAILAREN ETA SEXUAREN ARABERA, ARABAN. 2017 (ABENDUAK 31)

	Gizonak		Emakumeak		Guztira	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Lehen ikasketak / Ziurtagiririk ez	1.741	79,4	2.306	84,8	4.047	82,4
DBH	250	11,4	184	6,8	434	8,8
Batzilergoa	117	5,3	117	4,3	234	4,8
Erdi-mailako LB	34	1,5	27	1,0	61	1,2
Goi-mailako LB	20	0,9	25	0,9	45	0,9
Unibertsitatea	32	1,5	60	2,2	92	1,9
Guztira	2.194	100	2.719	100	4.913	100

Iturria: SEPEren behatokia

Emaitzak nahiko sendoak dira; atzerriko biztanle langabeen % 82,0k lehen mailako ikasketak dituzte edo ikasketak egiaztatu gabe dituzte; % 8,8k bigarren mailako ikasketak dituzte, eta % 4,8k batxilergoko ikasketak. Datuek argi uzten dute lan-merkatuan txertatu beharreko talde horrek hezkuntza-maila txikia duela. Gainera, errealitate hori are eta nabarmenagoa da langabezian dauden emakumezko atzeritarren kasuan; izan ere, % 84,8k lehen mailako ikasketak edo ikasketak egiaztatu gabe dituzte.

Azkenik, 51 taulak eta 48 grafikoak atzerriko biztanleria langabearen 2011., 2015. eta 2017. urteetako datuak adierazten dituzte, jarduera ekonomikoko sektorearen arabera.

51. TAULA. ATZERRITAR LANGABE ENPLEGU-ESKATZAILEAK, JARDUERA EKONOMIKOKO SEKTOREAREN ARABERA, ARABAN. 2011-2017 (ABENDUAK 31)


	2011	2015	2017	2011-2017	2011-2017 %
Nekazaritza eta arrantza	241	520	432	191	79,3
Industria	467	351	278	-189	-40,5
Eraikuntza	1.015	711	408	-607	-59,8
Zerbitzuak	2.510	2.737	2.309	-201	-8,0
Ez dago aurreko lanik	885	1.492	1.490	605	68,4
Guztira	5.118	5.811	4.917	-201	-3,9

Iturria: SEPEren behatokia

51 taulari erreparatuz gero, jarduera-sektoreen arabera langabeziaren bilakaerari ikus dezakegu, krisi betean (2011an) eta susperraldi ekonomikoaren fasean (2017), langabeziak gora egin duela nekazaritza-sektorean (+% 79,3) eta lehen enplegu bila dabiltzan pertsonen artean (+% 68,4). Industria- eta eraikuntza-sektorean ziharduten atzerriko biztanleen artean, aitzitik, kontrako joera nabari da; izan ere, bi sektore horiek kolektibo horren langabezia-tasa txikitu dute Araban. Industria-sektorean % 40,5 txikitu da; eraikuntza-sektorean, berriz, % 59,8. Bestalde, zerbitzuen sektorean lan egiten zuten eta langabezian dauden atzeritarren kasuan, joera positiboa izan da oro har, baina ez hain nabarmena; izan ere, langabezia % 8,0 txikitu da 2011 eta 2017 artean.

Joera horien ondorioz, atzerriko biztanleriaren langabeziak bestelako ezaugarriak ditu. 48 grafikoan ikus daitekeen bezala, 2011an atzerriko biztanle langabeen % 49,0 zerbitzuen sektoreari zegokion; horren ondoren, % 19,8 eraikuntza-sektoreari; % 17,3 lehen enplegu bila ari zen. 2017an, oraindik ere zerbitzuen sektorea da enplegu-eskatzailearen profil nagusia (% 47,0); hala ere, orain % 30,0 lehen enplegu bila dabil, % 8,9 nekazaritza-sektoretik dator, eta % 8,3, berriz, eraikuntza-sektoretik. 2011 eta 2017ko datuak alderatuta, lehen enplegu bila dabiltzan eta nekazaritza-sektoretik datozen atzeritarren profilek pisu handiagoa dutela ikus daiteke kolektibo horretako langabeen artean.

48. GRAFIKOA. ATZERRITAR LANGABE ENPLEGU-ESKATZAILEEN BANAKETA EHUNEKOTAN, JARDUERA EKONOMIKOKO SEKTOREAREN ARABERA, ARABAN. 2011-2015-2017 (ABENDUAK 31)



Iturria: SEPEren behatokia

Atzerriko biztanleen langabezia, kuadrillen arabera

Atal honetan atzerriko biztanle langabeak Arabako kuadrillen arabera aztertuko ditugu; izan ere, udalerrien arabera datu bereziak ditugunez, Kuadrillen arabera multzokatu ahal izan ditugu. 52 taularen arabera, Gasteizen dago atzerriar langabe enplegu-eskatzailen kopururik handiena, lurralde historikoak pisu demografiko handia baitu. Zehazki, kopuru hori 3.809 biztanlek osatzen zuten 2018an; horren ondoren, 378 biztanlek Aiaraldean; 218 ziren Guardia-Arabako Errioxan; 160, berriz, Arabako Lautadan. Beste kuadrilletan, langabeen kopurua 100 biztanletik beherakoa da.

52. TAULA. ATZERRITAR LANGABE ENPLEGU-ESKATZAILEAK, KUADRILLEN ARABERA. (ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. URTEKO BATEZ BESTEKOA)

	2015	2016	2017	2018	2015-2018	2015-2018 %
Gasteiz	4.843	4.617	3.845	3.809	-1.034	-21,3
Aiara	432	413	421	378	-54	-12,5
Guardia-Arabako Errioxa	248	239	276	218	-30	-12,1
Arabako Lautada	204	203	238	160	-44	-21,7
Gorbeialdea	59	53	109	49	-10	-18,0
Añana	113	105	144	81	-32	-27,7
Kanpezu-Arabako Mendiak	19	21	87	19	0	-1,3
Araba	5.918	5.651	5.120	4.714	-1.204	-20,3

Iturria: Lanbide

2015 eta 2018 arteko bilakaerari erreparatzen badiogu, atzerriko biztanleen langabezia kuadrilla guztietan behera egin du, nahiz eta kuadrilla batetik bestera aldeak ikus daitezkeen. Kontuan hartzen badugu Arabako lurralde osoan atzerriar langabe enplegu-eskatzailen kopurua % 20,3 txikitu dela, beherakada nabarmenagoa

izan da Añanan (-% 27,7), Arabako Lautadan (-% 21,7) eta Gasteizen (-% 21,3). Era berean, beherakada txikiagoa izan da, batez bestekoarekin alderatuta, Gorbeialdean (-% 18), Aiaraldean (-% 12,5) eta Guardia-Arabako Errioxan (-% 12,1). Datu horien arabera, atzerriko biztanleriaren langabezia-tasa Gasteizen txikitu da bereziki. Zentzuzkoa da, pisu demografiko handia duelako, baina baita beherakadak Arabako batez bestekoaz gaindiko intentsitatea izan duelako ere.

53. TAULA. ATZERRITAR LANGABE ENPLEGU-ESKATZAILEEN BANAKETA EHUNEKOTAN, KUADRILLEN ARABERA. (ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. URTEKO BATEZ BESTEKO)


	2015	2016	2017	2018	2015-2018
Gasteiz	81,8	81,7	75,1	80,8	-1
Aiara	7,3	7,3	8,2	8	0,7
Guardia-Arabako Errioxa	4,2	4,2	5,4	4,6	0,4
Arabako Lautada	3,4	3,6	4,7	3,4	-0,1
Gorbeialdea	1	0,9	2,1	1	0
Añana	1,9	1,9	2,8	1,7	-0,2
Kanpezu-Arabako Mendialdea	0,3	0,4	1,7	0,4	0,1
Araba	100	100	100	100	0

Iturria: Lanbide

Dinamika horien ondorioz, kuadrilla bakoitzean dauden atzerritar langabeen kopurua zertxobait aldatu da. 2018an, hamar langabetik zortzi Gasteizen zeuden, oraindik ere. Hala ere, hiru urtean ehuneko bat egin du behera, langabezia-tasak txikitzearen ondorioz. Aiaraldean aldiz, talde horren banaketaren pisu erlatibok gora egin du, eta 2015ean % 7,3 izatetik 2018an % 8,0 izatera igaro da. Guardia-Arabako Errioxan, berriz, % 0,4 egin du gora. Beste kuadrilletan, ehunekoak ez dira ia aldatu.

Atzerritar langabe enplegu-eskatzailen eta Espainiako estatuan jaio diren langabe enplegu-eskatzailen banaketak alderatuz gero (49 grafikoa), oro har antzeko banaketa dutela ikus daiteke, xehetasun batzuk dauden arren.

49. GRAFIKOA. BIZTANLE LANGABE ENPLEGU-ESKATZAILEEN BANAKETA EHUNEKOTAN, JATORRIAREN (ESPAINIARRA/ATZERRITARRA) ETA KUADRILLEN ARABERA. 2018 (ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. URTEKO BATEZ BESTEKO)




Iturria: Lanbide

Atzerritar langabe enplegu-eskatzailen kontzentrazioa 4 puntu handiagoa da Gasteizen (% 80,8 atzerritarra da; espainiarra, berriz, % 76,8). Aiaraldean, berriz, 4,8 puntu txikiagoa da. Azkenik, Guardia-Arabako Errioxan, atzerritar langabe enplegu-eskatzailen kontzentrazioa 1,5 puntu handiagoa da. Gainerako kuadrilletan, ehunekoak oso antzekoak dira.

Atzerriko biztanleen lurralde-banaketa gain, 50 grafikoak atzerritar langabe enplegu-eskatzailen pisua adierazten du, guztizkoaren gainean. Hartara, kolektibo horrek kuadrilla bakoitzeko langabezian duen pisuaren berri izan dezakegu.


50. GRAFIKOA. ATZERRITAR LANGABE ENPLEGU-ESKATZAILEEN EHUNEKOA, GUZTIZKOAREN GAINEAN. KUADRILLAK. 2018. (ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. URTEKO BATEZ BESTEKOA)



Iturria: Lanbide

Arabako lurralde osoko atzerritar langabeen ehunekoa (% 23,3) erreferentzia gisa hartuz gero, kopuru hori kuadrilla bakar batek gaindika duela ikus daiteke. Guardia-Arabako Errioxan, hain zuzen, enplegu bila dabiltzan langabeen % 31,0 atzerritarra da. Horren ondoren, Gasteizen kopuru hori % 24,2koa da; Arabako Lautadan berriz % 23,4koa, Arabako guztizkoaren maila berean. Gainerako kuadrilletan, atzerriko biztanleria langabearen pisua txikiagoa da: Gorbeialdean % 18,1; Kanpezu-Arabako Mendialdean % 16,9; Aiaraldean, berriz, % 16,0.

51. GRAFIKOA. ATZERRITAR LANGABE ENPLEGU-ESKATZAILEEN EHUNEKOAREN BILAKAERA, ARABAKO BIZTANLEEN GUZTIZKOAREN GAINEAN. KUADRILLAK. 2015-2018 (ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. URTEKO BATEZ BESTEKO)




Iturria: Lanbide

2015tik 2018rako bilakaerari erreparatuz gero (51 grafikoa), kuadrilla bakoitzeko, atzerriko biztanleek langabezian pisu desberdina dutela ikus dezakegu. Gorakadarik handiena Aiaraaldeak eta Kanpezu-Arabako Mendialdeak izan dute. Aiaraaldean atzerriko langabeen kopuruak etengabe egin du gora, % 13,8tik % 16,0ra; hau da, 2,2 puntu hazi da hiru urtetan. Kanpezu-Arabako Mendialdea kuadrilla % 14,2 izatetik % 16,9 izatera igaro da; hau da, 2,7 puntu hazi da. Guardia-Arabako Errioxan (ehunekorik handiena duen kuadrilla) 1,3 puntu hazi da, nahiz eta kontuan hartu behar den 2017an 5 puntu egin zuela behera. Gorbeialdean ere antzera hazi da (+1,2 puntu), eta horren ondoren, Arabako Lautadan (+1 puntu). Ehunekotan Gasteizen gorakadarik ahulena izan den arren, (+0,7 puntu); kopuru absolututan bertan hazi da gehien.

52 grafikoa kuadrilla bakoitzaren langabezia-tasa orokorraren eta atzerriko langabe enplegu-eskatzailen ehunekoaren arteko lotura erakusten du. Bi aldagai horien arteko loturaren bidez, langabezia-tasa handiagoko edo txikiagoko kuadrilletan atzerriko biztanleriak zer pisu duen ikus dezakegu.

52. GRAFIKOA. KUADRILLAK LANGABEZIA-TASA OROKORRAREN ETA ATZERRITAR LANGABE ENPLEGU-ESKATZAILEEN EHUNEKOAREN ARABERA. 2018 (ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. URTEKO BATEZ BESTEKO)




Iturria: Lanbide

Grafikoan argi ikus daiteke atzerritar langabeen ehunekorik handiena duten kuadrillak, halaber, langabezia-tasa handieneko lurraldeak direla. Gainera, erregresio-lerroak bi aldagai horien arteko kopuru handiko (0,216) azalpen-lerro bat ezartzen du. Kuadrillei dagokienez, beraz, langabezia-tasa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da atzerritar langabeen kopurua ere.

Atzerritarren jatorria ere ezinbesteko aldagaia da, atzerriko nazionalitatea duten biztanleen langabeziak zer ezaugarri dituen jakiteko. 53 grafikoan atzerritar langabeen jatorrizko lurraldeen arabera banaketa ikus dezakegu, Arabako kuadrillen eta lurralde historikoaren baitan.

53. GRAFIKOA. ATZERRITAR LANGABE ENPLEGU-ESKATZAILEEN JATORRIA, KUADRILLEN ARABERA. BANAKETA EHUNEKOTAN. 2018. (ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. URTEKO BATEZ BESTEKOA)



Iturria: Lanbide

Araban, atzerritar langabe enplegu-eskatzailen % 64,1 afrikarra da; % 48,9 Afrika Iparraldekoa edo Magrebekoa da zehazki, eta % 15,1 Saharaz hegoaldeko Afrikakoa. % 14 Erdialdeko Amerikakoa eta Hego Amerikakoa da, % 11,6 Europakoa (Europako Esparru Ekonomikoa) eta % 6,7 Asiakoa. Datuek islatzen duten errealtateari jarraiki, atzerritar langabe gehienak afrikarrak dira, batez ere Magrebekoa.


Gasteizek Araban pisu demografiko handia duenez, jatorriaren arabera banaketa lurralde osoarekin antzekotasun handiena duen lurraldea da. Hala ere, gainerako kuadrillekin alderatuz gero, hiriburuan pisu handiagoa du Saharaz hegoaldeko Afrikako eta Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako biztanleriak. Datu horiek adierazten dute Araban jatorri horretako biztanle gehienak Gasteizen biltzen direla, eta gainerako kuadrilletan presentzia txikiagoa dutela.

Gainerako kuadrilletan argi ikusten da magrebtarrek pisu handiagoa dutela, Gasteizen eta Arabako lurralde osoan baino. Presentzia handia dute Kanpezu-Arabako Mendietan, atzeritar langabe enplegu-eskatzailen % 72,0 osatzen baitute; Aiaraldean % 68,0; Añanan, berriz, % 67,0. Eraitza horien arabera, Araban magrebtarren pisuak garrantzi handia duen arren, landa-eremuk kuadrilletan kontzentratuta dago bereziki, hiriburutik urrun.

Bestalde, gainerako jatorriek kuadrilla bakoitzean duten pisua eta Araba osoan duten pisua alderatuz gero, zenbait desberdintasun hauteman daitezke. Guardia-Arabako Errioxan pisu nabarmena dute europar eta asiar jatorriko atzeritar langabe enplegu-eskatzailak (% 26,9 eta % 7,2, hurrenez hurren); europarren kolektiboa bakarrik nabarmentzen da, ordea, Gorbeialdean (% 23,2), Añanan (% 17,9) eta Kanpezu-Arabako Mendialdean (% 18,2). Aiaraldea gainerako kuadrilletatik bereizten du Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako biztanleen pisu handiak (% 13); Arabako Lautada, berriz, herrigabeen % 9,7k nabarmentzen du.


Azkenik, generoari erreparatuz, grafikoan ikus daiteke Araban eta kuadrilla guztietan atzeritar langabe enplegu-eskatzaila gehienak emakumezkoak direla.

54. GRAFIKOA. ATZERITAR LANGABE ENPLEGU-ESKATZAILAEN SEXUA, KUADRILLEN ARABERA. BANAKETA EHUNEKOTAN. 2018. (ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. URTEKO BATEZ BESTEKOA)



Iturria: Lanbide

Sexuaren arabera aldeari dagokionez, Araban talde horren % 57,8 emakumezkoek osatzen dute, eta % 42,2 gizonezkoek. Kuadrillak alderatuta, argi ikusten da Gasteizek, Gorbeialdeak eta Aiaraldea antzeko joera dutela gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aldean. Gainerako kuadrilletan, emakumezkoen ehunekoa are eta handiagoa da; hain zuzen, Kanpezu-Arabako Mendialdean % 68,4koa da; Arabako Lautadan % 68,3koa, Guardia-Arabako Errioxan % 66,5koa, eta Añanan % 61,7koa.



Hezkuntza

4

Atal honetan, Arabako unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sisteman ikasle atzerritarrek duten presentzia aztertuko dugu. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandako 2017/2018 ikasturteko matrikulazio-datuetatik abiatuta, matrikulatu ziren ikasle atzerritarren ezaugarriak aztertuko ditugu, ikastetxe bakoitza zer sare-motatakoa den eta zer hezkuntza-etapa eta hizkuntza-eredu eskaintzen dituen kontuan izanda. Eskola-segregazioa ere aztertuko dugu, ikastetxe bakoitzeko ikasleen kontzentrazioari erreparatuz.

Matrikulazioa

2017/2018 ikasturtean, 6.102 ikasle atzerritar zeuden Araban matrikulatuta, eta horrek matrikulazio guztien % 9,5 hartzen zuen⁷. Taulan ageri denez, Gasteizen pilatzen da bertako zein atzerriko ikasleen gehiengoa, hiriak duen pisu demografikoarekin bat etorritz; jarraian datoz Aiaraldea, Guardia-Arabako Errioxa eta Arabako Lautada.

54. TAULA. MATRIKULAZIOA KUADRILLEN ETA NAZIONALITATEEN ARABERA. 2017/2018 IKASTURTEA


	Guztira	Espainiako nazionalitatea	Atzerriko nazionalitatea
Añana	1.195	1.111	84
Aiara	6.065	5.692	373
Gorbeialdea	2.364	2.312	52
Arabako Lautada	1.909	1.689	220
Kanpezu - Arabako Mendialdea	271	234	37
Guardia - Arabako Errioxa	2.123	1.849	274
Gasteiz	46.206	41.144	5.062
Araba	64.480	58.378	6.102

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila

Matrikulazio-zifra absolutuetatik harago, 55 grafikoan argiago ikusiko dugu atzerriko nazionalitatea dutenen kolektiboak kuadrilla bakoitzeko ikastetxeetan zer ehuneko hartzen duen. Arabako ikasleen artean atzerritarrek % 9,5 direla kontuan hartuta, lau kuadrillatan atzerritarren ehunekoa datu orokor hori baino handiagoa dela ikusten dugu, eta beste hirutan azpitik dagoela. Kanpezu-Arabako Mendialdea da ehuneko handiena duen kuadrilla: % 13,7. Hurrengoak Guardia-Arabako Errioxa (% 12,9), Arabako Lautada (% 11,5) eta Gasteiz (% 11,0) dira. Ehuneko txikiak, berriz, Gorbeialdeak (% 2,2), Aiaraldeak (% 6,2) eta Añanak (% 7,0) dituzte. Ikasle atzerritarren kopuruak aldeak ditu Arabako lurraldean zehar dauden ikastetxeen artean; argi ikusten da erdialdeko eta hego-ekialdeko kuadrilletan pisu handiagoa dutela, eta lurraldearen mendebaldeko eta ipar-mendebaldekoetan, txikiagoa.

⁷ Kontuan izan behar da atzerriko nazionalitatea eta Espainiako nazionalitatea duten ikasleak desberdinduak ditugula. Horrek esan nahi du atzerritar jatorria (Espainiako estatutik kanpo jaioak) eta/edo atzerriko gurasoak (ama eta/edo aita atzerrian jaioak) dituzten ikasleek Espainiako nazionalitatea badute, Espainiako nazionalitatea duten ikasleen multzoan sartuko direla, eta ez ikasle atzerritarren multzoan. Hortaz, atzerriko nazionalitateak ez ditu biltzen jatorri eta/edo guraso atzerritarrek dituzten ikasle guztiak, baizik eta atzerriko nazionalitatea dutenak.

55. GRAFIKOA. MATRIKULATUTAKO IKASLE ATZERRITARREN EHUNekoAK, KUADRILLEN ARABERA. 2017/2018 IKASTURTEA



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila

Beste alde batetik, hezkuntza-etapen araberako datuek ere desberdintasun nabarmenak erakusten dituzte. 55 taulan ikusten denez, ikasle atzerritarren ehunekoa oso handia da hasierako etapetako hezkuntza berezian (% 31,4), DBHko hezkuntza berezian (% 21,4) eta Oinarrizko Lanbide Heziketan (% 23,2).

Horrez gain, Haur Hezkuntzako lehen ziklotik Batxilergo arteko irakasmailei erreparatuko diegu, Araban ikasle atzerritarren matrikulazioak % 9,5 direla kontuan hartuz. Haur Hezkuntzari dagokionez, ikusiko dugu Haur Hezkuntzako bigarren zikloan ikasle atzerritar gehiago dagoela (% 13,0) lehen zikloan baino (% 7,2). Gogoroko irakasmailei dagokionez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (% 9,0) eta Batxilergoan (% 7,1) dauden ikasle atzerritarren kopurua txikiagoa da Arabako ikasle atzerritarren ehunekoa baino. Lanbide Heziketan, ehunekoa handiagoa da erdi-mailako zikloetan (% 10,4) eta txikiagoa goi-mailakoetan (% 7,2). Kuadrillatan banatutako emaitzetan antzeko joerak nabari dira, eta ikasle atzerritar gehien Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan daude.

55. TAULA: MATRIKULATUTAKO IKASLE ATZERRITARREN EHUNekoAK, HEZKUNTZA-ETAPEN ETA KUADRILLEN ARABERA. 2017/2018 IKASTURTEA

	Añana	Aiara	Gorbeialdea	Arabako Lautada	Kanpezu-Arabako Mendialdea	Guardia-Arabako Errioxa	Gasteiz	Araba
Haur-hezkuntza 1. zikloa	6,3	4,1	4,3	10,9	7,1	10,4	7,4	7,2
Haur-hezkuntza 2. zikloa	9,5	8,6	2,5	12,6	12,5	16,2	14,2	13
Lehen hezkuntza	6,4	7	2,6	12,1	14,5	13,1	11,9	10,9
Hasierako 2 etapetako hezkuntza berezia	0	0	0	0	0	0	34,4	31,4
Derrigorrezko bigarren hezkuntza	6,8	5,9	1,3	8,5	16,1	11,4	9,8	9
Batxilergoa	0	1,3	1,1	3,9	0	8,1	8	7,1
Zereginen ikaskuntza	0	20	0	0	0	0	8,3	9,3
Erdi-mailako lanbide-heziketa	0	5,2	0	0	0	12,5	11,2	10,4
Goi-mailako lanbide-heziketa	0	2,9	0	0	0	0	7,6	7,2
DBHko hezkuntza berezia	0	12,5	0	0	0	0	22,4	21,4
Oinarrizko lanbide-heziketa	4,5	10,9	0	90	0	36,8	23,7	23,2
Araba	7	6,2	2,2	11,5	13,7	12,9	11	9,5

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila

Sare-motaren eta ikasleen jatorriaren arabera emaitzek erakusten dutenez, bertako ikasleak eta ikasle atzerritarrek segmentatuta daude sare publikoan eta itunpekoan⁸. Araban, Espainiako nazionalitatea duten ikasleen % 44,9 itunpeko sarean matrikulatuta dago, eta % 55,1 sare publikoan. Ikasle atzerritarren kasuan, % 80,6 sare publikoan dago, eta % 19,4 itunpeko sarean. Datu horiek argi erakusten dute atzerriko biztanleen gehiengoa sare publikoan matrikulatzen dela, eta Espainiako nazionalitatea dutenen artean bi sareak orekatuago daudela.

56. TAULA. IKASLEEN MATRIKULAZIOAK SARE BAKOITZEAN (%), NAZIONALITATEEN ETA KUADRILLEN ARABERA. 2017/2018 IKASTURTEA

	Bertakoak		Atzerritarrek	
	Itunpekoa	Publikoa	Itunpekoa	Publikoa
Añana	7,7	92,3	10,7	89,3
Aiara	40,7	59,3	32,4	67,6
Gorbeialdea	0	100	0	100
Arabako Lautada	22	78	7,7	92,3
Kanpezu-Arabako Mendialdea	0	100	0	100
Guardia-Arabako Errioxa	47,2	52,8	1,5	98,5
Gasteiz	50,2	49,8	20,4	79,6
Araba	44,9	55,1	19,4	80,6

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila

Hala ere, kuadrillen arabera datuek segmentazioan aldeak dituzte. Kuadrilla batzuetan, Espainiako eta atzerriko nazionalitatea duten ikasleen arteko aldea nahiko txikia da; beste batzuetan, berriz, handiagoa da. Segmentazioan alde gutxien duten kuadrillak Añana, Gorbeialdea eta Kanpezu-Arabako Mendialdea dira. Azken bi kuadrilla horietan, ikasle guztiak, nazionalitatea edozein dutela ere, sare publikoan matrikulatuta daude, ez dagoelako sare pribatuko ikastetxerik. Añanaren kasuan, sarean arabera banaketa antzekoa erakusten dute bi jatorrietako ikasleek: ikasleen % 90 inguru dago sare publikoan matrikulatuta.


Beste muturrean daude Gasteiz eta Guardia-Arabako Errioxa. Hiriburuan, sare publikoan matrikulatuta dago Espainiako nazionalitatea duten ikasleen % 49,8, eta ikasle atzerritarren % 79,6. Beraz, ikasle atzerritarren ehunekoa 30 puntu handiagoa da. Guardia-Arabako Errioxaren kasuan, aldea handiagoa da, ikasle atzerritarren % 98,5 sare publikoan baitago, eta Espainiako nazionalitatea duten ikasleen % 52,8 soilik baitago sare horretan.

Azkenik, Arabako Lautadan eta Aiaraldean, sare publikoak pisua handiagoa du atzerriko nazionalitatea duten ikasleen artean, Espainiako nazionalitatea dutenen artean baino, baina aldea ez da horren handia. Aiaraldean, sare publikoan daude ikasle atzerritarren % 67,6 eta Espainiako nazionalitatea dutenen % 59,3. Arabako Lautadan, sare horretan daude ikasle atzerritarren % 92,3 eta Espainiako nazionalitatea dutenen % 78,0.

⁸ Itunpeko sareaz ari garen arren, benetan itunpeko ikastetxeen eta ikastetxe pribatuen baturari buruz ari gara, hau da, titulartasun publikokoak ez diren guztiei buruz.

Emitza horiek erakusten dute sare-mota ikasle atzerritarren eskola-segregazioan eragina duen faktoreetako bat dela. Errealitate hori argiago ikusten da 56 grafikoan, kuadrilla bakoitzean bi sareetan ikasten duten ikasle atzerritarren ehunekoak erakusten baititu.

56. GRAFIKOA. IKASLE GUZTIEN MATRIKULAZIOETATIK ATZERRIKOEN EHUNEKOAK, SARE-MOTEN ETA KUADRILLEN ARABERA. 2017/2018 IKASTURTEA



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila

Arabako hezkuntza-sarean, ikasle atzerritarrak ikasle guztien % 9,5 direla kontuan izanda, sareen arabera ehunekoak agerian uzten dute alde handiak daudela bien artean, eta ehunekoa handiagoa dela sare publikoan, eta txikiagoa itunpeko sarean. Zehazki, Araban, sare publikoko ikasleen % 14,2 atzerrikoak dira; itunpeko sareakoak, aldiz, % 4,6.

Kasu horretan ere, kuadrillen arabera azterketak eremuen artean aldeak daudela erakusten du. Lehenik eta behin, Guardia-Arabako Errioxan sareen artean dagoen aldea oso handia dela aipatu behar da: sare publikoan, ikasleen % 21,7 da atzerritarra, eta itunpeko sarean % 0,5 besterik ez. Hau da, ehunekoetan, 21,2 puntuko aldea dago. Bestalde, aipatu beharra dago Kanpezu-Arabako Mendialdean eta Gorbeialdean ageri diren aldeak ez direla errealak, eremu horietan ez dagoelako itunpeko ikastetxerik.

Gasteizen eta Arabako Lautadan ere aldea handia da. Gasteizen, sare publikoko ikasleen % 16,4 da atzerritarra; itunpeko sarean, berriz, % 4,8 da. Arabako Lautadan, sare publikoan % 13,4 da atzerritarra, eta itunpeko sarean % 4,4.

Aiaraldean eta Añanan, errealitatea oso bestelakoa da, bi sareen artean oreka handiagoa baitago, eta kasu batean itunpeko sarea nagusitzen baita. Hala, Aiaraldeko sare publikoko ikasleen % 7,0 da atzerritarra, eta itunpeko sarean % 5. Añanan, itunpeko sarean % 9,6 da atzerritarra, eta sare publikoan % 6,8.

Horrez gain, euskal hezkuntza-ereduak duen alderdi bereizgarri bat hizkuntza-eredu bat baino gehiago izatea da. Eredu horiek segmentazio gehigarri bat dakarte, hezkuntza-sareek eragindakoaz gain, eta faktore bereizgarri bat da ikasle atzerritarren eskola-segregazioaren ezaugarriak ulertzeko, hizkuntza-eredurik ez duten beste errealitate batzuekin alderatzen badugu.

57. TAULA. MATRIKULATUTAKO IKASLE ATZERRITARRAK, HIZKUNTZA-EREDUEN, NAZIONALITATEEN ETA KUADRILLEN ARABERA. 2017/2018 IKASTURTEA

	A			B			D			R		
	Guztira	Bertokoak	Atzerrita.	Guztira	Bertokoak	Atzerrita.	Guztira	Bertokoak	Atzerrita.	Guztira	Bertokoak	Atzerrita.
Añana	94	85	9	399	350	49	702	676	26	-	-	-
Aiara	538	507	31	1.137	999	138	4.202	4.004	198	188	182	6
Gorbeialdea	102	102	0	132	121	11	2.130	2.089	41	-	-	-
Arabako Lautada	-	-	-	294	252	42	1.615	1.437	178	-	-	-
Kanpezu-Arabako Mendialdea	-	-	-	73	68	5	198	166	32	-	-	-
Guardia-Arabako Errioxa	333	239	94	760	614	146	1.030	996	34	-	-	-
Gasteiz	10.693	8.758	1.935	14.088	13.038	1.050	20.605	18.567	2.038	820	781	39
Araba	11.760	9.691	2.069	16.883	15.442	1.441	30.482	27.935	2.547	1.008	963	45


Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila

D ereduak izan duen garapena dela eta, gaur egun, Arabako ikasle gehienak eredu horretan matrikulatzen dira, eta ondoren datoz B eta A ereduak. 2017/2018 ikasturtean, zehazki, Araban 30.482 ikaslek ikasi zuten D ereduan, 16.883 ikaslek B ereduan eta 11.760 ikaslek A ereduan. Gainera, kuadrilla guztietan banaketa antzekoa da.

Datuak nazionalitatearen arabera aztertuz gero, aldeak nabari dira. Alde horiek, batez ere, Espainiako nazionalitatea duten ikasle gehiago D ereduan pilotzen direla eta atzerriko nazionalitatea dutenek A ereduan bertakoek baino presentzia handiagoa dutela erakusten dute. Baina, alde horiek gorabehera, atzerriko nazionalitatea duten Arabako ikasleen zati handiena D ereduan matrikulatuta dago, 2.547 ikasle, hain zuzen ere. A ereduan 2.069 daude, eta B ereduan 1.441.

Desberdintasun horiek argiago ikusten dira 57 grafikoan. Araban, ikasle atzerritarren % 41,7k D ereduan ikasten du, % 33,9k A ereduan, eta % 23,6k B ereduan. Espainiako nazionalitatea duten ikasleen artean, % 51,7k jotzen du D eredura, % 28,6k B eredura eta % 17,9k A eredura. Ikasle atzerritarren artean, D ereduan daude matrikulazio gehien, baina 7,8 puntuko aldea dute B ereduokoen, eta 18,1ekoa A ereduokoen. Espainiako nazionalitatea duten ikasleen artean, berriz, D eredu eta B eredu matrikulazioen artean 23,1 puntuko aldea dago, eta D eta A eredu artean 33,8koa.

57. TAULA. MATRIKULATUTAKO IKASLEAK, HIZKUNTZA-EREDUEN, NAZIONALITATEEN ETA KUADRILLEN ARABERA (%). 2017/2018 IKASTURTEA



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila

Kuadrillaka eginiko azterketak Arabako lurraldean ikasle atzerritarren artean D eredua nagusitzen dela erakusten du. Gorbeialdea, Arabako Lautada eta Kanpezu-Arabako Mendiak kuadrilletan, D ereduko matrikulazioak nagusitasun handia du. Kasu horietan, D ereduko matrikulazioak % 78,8 eta 86,5 artekoak dira, eta gainerako ikasleak B ereduan daude. Aiaraldean ere D eredua da nagusi (% 53,1), baina B ereduarekin ez du alde handirik (% 37). Horrez gain, kuadrilla horietan guztietan, A ereduan ez dago ikasle atzerritarrik matrikulatuta, edo ehunekoa oso txikia da.

Bi kuadrillatan, ikasle atzerritar gehienek B eredua aukeratu dute. Hain zuzen ere, Añanan eta Guardia-Arabako Errioxan, Arabako hegoaldean eta mendebaldean. Añanan, ikasle atzerritarren % 58,3 B ereduan matrikulatuta dago, % 31 D ereduan eta % 10,7 A ereduan. Guardia-Arabako Errioxaren kasuan ere, B eredua nagusi dela ikusten da (% 53,3), baina kuadrilla hori beste zerbaitengatik da berezia: D ereduan beste bi ereduetan baino ikasle gutxiago (% 12,4) dituen kuadrilla bakarra delako. Gainerako % 34,3a A ereduko matrikulazioek hartzen dute.

Azkenik, Gasteizen kasuan, oreka handiagoa dago D eta A ereduaren artean, eta antzeko ehunekoa dituzte. Ikasle atzerritarren % 40,3k D ereduan ikasten du, eta % 38,2k A ereduan. Gainerako % 20,7ak B ereduan ikasten du.

Ikasle atzerritarrek ereduaren eta lurraldeen arabera duten banaketa Espainiako nazionalitatea duten ikasleen banaketarekin alderatzen badugu, jatorriaren arabera segmentazioa dagoela ikusiko dugu. Espainiako nazionalitateko ikasleei dagokienez, D eredua gailentzen da kuadrilla guztietan, bigarrena B eredua da, eta A ereduak presentzia txikia du. Horrenbestez, sare-motarekin gertatzen den moduan, hizkuntza-ereduetan ere banaketa desorekatua dute Espainiako nazionalitatea duten ikasleek.

Hala ere, ikasleen jatorriaren arabera hezkuntza-sisteman dagoen segmentazioaren neurri erreala ikusteko, matrikulazioa sare-mota eta hizkuntza-eredua konbinatuta aztertu behar dira (58 taula).

58. TAULA. MATRIKULATUTAKO IKASLEAK, JATORRIEN, SARE-MOTEN, EREDUEN ETA KUADRILLEN ARABERA. EHUNEKO HORIZONTALAK. 2017/2018 IKASTURTEA

		Itunpekoa				Publikoa			
		A	B	D	R	A	B	D	R
Ikasle atzerritarak	Añana	10,7	0	0	0	0	58,3	31	0
	Aiara	0	22	10,5	0	8,3	15	42,6	1,6
	Gorbeialdea	0	0	0	0	0	21,2	78,8	0
	Arabako Lautada	0	0	7,7	0	0	19,1	73,2	0
	Kanpezu-Arabako Mendialdea	0	0	0	0	0	13,5	86,5	0
	Guardia-Arabako Errioxa	0	0	1,5	0	34,3	53,3	10,9	0
	Gasteiz	14,5	5,4	0,4	0,2	23,7	15,4	39,9	0,6
	Araba	12,2	5,8	1,3	0,1	21,7	17,8	40,4	0,6
Bertako ikasleak	Añana	7,7	0	0	0	0	31,5	60,8	0
	Aiara	0	13,2	27,5	0	8,9	4,4	42,8	3,2
	Gorbeialdea	0	0	0	0	4,4	5,2	90,4	0
	Arabako Lautada	0	8,6	13,4	0	0	6,3	71,6	0
	Kanpezu-Arabako Mendialdea	0	0	0	0	0	29,1	70,9	0
	Guardia-Arabako Errioxa	0	0	47,2	0	12,9	33,2	6,7	0
	Gasteiz	12,3	28	8,8	1,1	9	3,7	36,4	0,8
	Araba	9,5	23	11,6	0,8	8,4	5,6	40,1	0,9

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila

Atzerriko nazionalitatea eta Espainiako nazionalitatea duten ikasleen arteko antzekotasun nagusia bien % 40 inguru sare publikoan eta D ereduari matrikulatuta dagoela da. Beraz, euskal eskola publikoko D ereduari Arabako matrikulazio-eredu nagusia dela ikusten da. Hala ere, gainerako kasuetan aldeak daude.

Ikasle atzerritarren kasuan, bigarren matrikulazio-kopuru handiena sare publikoko A ereduak du (% 21,7), eta atzetik datoz sare publikoko B ereduari (% 17,8) eta itunpeko sareko A ereduari (% 12,2). Itunpeko sareko B eta D ereduak zifra baxuak dituzte (% 5,8 eta % 1,3, hurrenez hurren). Espainiako nazionalitatea duten ikasleei dago-kienez, matrikulazio gehien dituen bigarren ereduari itunpeko sareko B ereduari da (% 23), eta ondoren itunpeko sareko D ereduari (% 11,6) eta bi sareetako A ereduak (% 9,5 itunpeko sarean eta % 8,4 publikoan). Gainerako ikasleak sare publikoko B ereduari matrikulatuta daude (% 5,6). Horrenbestez, Araban ikasle atzerritarrek sare publikoari gehiago jotzen dutela ikusten da, eta D ereduak ehuneko esanguratsua hartzen duen arren, matrikulatzen diren gainerako ereduari euskarak ez duela horrenbeste pisu. Espainiako nazionalitatea duten biztanleen kasuan, ez da hori gertatzen. Horrekin lotuta, aipagarria da ikasle atzerritar gutxi matrikulatzen direla itunpeko D ereduari, eta dezente direla itunpeko A ereduari aukeratzen dutenak.

Kuadrilla batzuetan, sare- eta eredu-motaren arabeko segmentazioa nabarmenagoa da. Guardia-Arabako Errioxan, ikasle atzerritarren % 34,3 sare publikoko A ereduari matrikulatuta dago, eta % 53,3 sare horretako B ereduari. Gasteizen, % 23,7 sare publikoko A ereduari dago, eta % 14,5 itunpeko sareko A ereduari. Beste muturrean daude Arabako Lautada eta Aiaraldea. Bi kuadrilla horiek besteetatik desberdintzen dira, ikasle atzerritarren matrikulazio gehiago dituztelako itunpeko D ereduari: % 10,5 Aiaraldean eta % 7,7 Arabako Lautadan.

Eskola-segregazioa

Dagoeneko aztertu dugu Araban atzerriko nazionalitatea duten ikasleen banaketaren segmentazioa, sare-motak eta hizkuntza-ereduak kontuan izanda. Atal honetan, eskola-segregazioa aztertuko dugu, ikasle horiek ikastetxe bakoitzean duten kontzentrazioari erreparatuta. Horretarako, ikastetxeak zazpi tipologiatan banatu ditugu, matrikulatuta dituzten ikasle atzerriarren ehunekoak kontuan izanda, eta Arabako % 9,5eko datua erreferentzia gisa erabiliz.

59. TAULA. IKASTETXEAK, IKASLE ATZERRITARREN KONTZENTRAZIOAREN ARABERA ETA KUADRILLAKA. 2017/2018 IKASTURTEA

	Ikasle atzerriarrik ez	% 9,5a baino gutxiago	% 9,5a ren inguruan	% 9,5a baino gehiago	% 9,5a baino dezente gehiago	% 9,5a baino askoz gehiago	% 50a baino gehiago
Añana	3	2	3	0	0	0	0
Aiara	7	10	3	0	0	2	0
Gorbeialdea	6	5	1	0	0	0	0
Arabako Lautada	5	1	2	2	0	0	0
Kanpezu-Arabako Mendialdea	3	0	1	1	0	0	0
Guardia-Arabako Errioxa	5	4	0	1	5	0	0
Gasteiz	28	34	16	6	6	13	5
Araba	57	56	26	10	11	15	5

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila

59 taulan ikusten denez, Araban dauden 180 ikastetxetatik 57tan ez dago ikasle atzerriarrik. Beste muturrean daude bost ikastetxe, ikasleen erdia baino gehiago atzerriko nazionalitatekoak direnak, eta hamabost ikastetxe, ehuneko globala baino askoz atzerriar gehiago dituztenak. Tartean hainbat ikastetxe daude: 56tan, atzerriarren ehunekoa zifra globalaren oso azpitik dago, 26tan honen inguruan dago, 10etan handiagoa da, eta 11tan ehuneko globala baino dezente handiagoa da. Horrenbestez, Araban 20 ikastetxek ikasle atzerriarren kontzentrazio oso handia dutela ikusten da; horietatik 18 Gasteizen daude, eta 2 Aiaraldean.

60 taulak kontzentrazio-tipologia bakoitzaren ehunekoen kuadrillakako banaketa erakusten du. Laburbilduz, hiru kuadrillatan soilik daude ehuneko globala baino dezente atzerriar gehiago edo askoz atzerriar gehiago dituzten ikastetxeak, edo ikasleen % 50 baino gehiago atzerriarrek direnak.

60. TAULA. IKASTETXEAK, IKASLE ATZERRITARREN KONTZENTRAZIOAREN ARABERA ETA KUADRILLAKA. EHUNEKOEN BANAKETA HORIZONTALA. 2017/2018 IKASTURTEA

	Ikasle atzerritarrik ez	% 9,5a baino gutxiago	% 9,5aren inguruan	% 9,5a baino gehiago	% 9,5a baino dezente gehiago	% 9,5a baino askoz gehiago	% 50a baino gehiago
Añana	37,5	25	37,5	0	0	0	0
Aiara	31,8	45,5	13,6	0	0	9,1	0
Gorbeialdea	50	41,7	8,3	0	0	0	0
Arabako Lautada	50	10	20	20	0	0	0
Kanpezu-Arabako Mendialdea	60	0	20	20	0	0	0
Guardia-Arabako Errioxa	33,3	26,7	0	6,7	33,3	0	0
Gasteiz	25,9	31,5	14,8	5,6	5,6	12	4,6
Araba	31,7	31,1	14,4	5,6	6,1	8,3	2,8

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila

Horietako bat Guardia-Arabako Errioxa da, hango ikastetxeen % 33,3tan atzerritarren ehunekoa ehuneko globala baino dezente handiagoa baita; Aiaraldean, ikastetxeen % 9,1 ehuneko globalatik oso gora dago; Gasteizen, ikastetxeen % 4,6tan ikasleen erdia baino gehiago atzerritarrak dira, eta % 12tan ikasle atzerritarrak ehuneko globala baino askoz gehiago dira. Hau da, hiriburuko ikastetxeen % 16,6k ikasle atzerritarren ehuneko oso handia dute.

61. TAULA. IKASTETXEAK, IKASLE ATZERRITARREN KONTZENTRAZIOAREN, SARE-MOTEN ETA KUADRILLEN ARABERA. EHUNEKOEN BANAKETA HORIZONTALA. 2017/2018 IKASTURTEA

		Ikasle atzerritarrik ez	% 9,5a baino gutxiago	% 9,5aren inguruan	% 9,5a baino gehiago	% 9,5a baino dezente gehiago	% 9,5a baino askoz gehiago	% 50a baino gehiago
Añana	Itunpekoa	0	0	100	0	0	0	0
	Publikoa	42,9	28,6	28,6	0	0	0	0
Aiara	Itunpekoa	20	60	20	0	0	0	0
	Publikoa	35,3	41,2	11,8	0	0	11,8	0
Gorbeialdea	Itunpekoa	0	0	0	0	0	0	0
	Publikoa	50	41,7	8,3	0	0	0	0
Arabako Lautada	Itunpekoa	50	50	0	0	0	0	0
	Publikoa	50	0	25	25	0	0	0
Kanpezu-Arabako Mendialdea	Itunpekoa	0	0	0	0	0	0	0
	Publikoa	60	0	20	20	0	0	0
Guardia-Arabako Errioxa	Itunpekoa	25	75	0	0	0	0	0
	Publikoa	36,4	9,1	0	9,1	45,5	0	0
Gasteiz	Itunpekoa	26,5	52,9	8,8	2,9	2,9	5,9	0
	Publikoa	25,7	21,6	17,6	6,8	6,8	14,9	6,8
Araba	Itunpekoa	26,1	54,3	10,9	2,2	2,2	4,3	0
	Publikoa	33,6	23,1	15,7	6,7	7,5	9,7	3,7

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila

Ikastetxe bakoitza zer saretakoa den kontuan hartuz gero, sare-motaren arabera kontzentrazioa aldatu egiten dela ikusten da (61 taula). Araban, ikasle atzerritarren kontzentrazio handieneko ikastetxeek pisu handiagoa dute sare publikoan itunpeko sarean baino. Ikasleen erdia baino gehiago atzerritarrak dituzten ikastetxe guztiak sare publikokoak dira. Ehuneko globala baino askoz ikasle atzerritar gehiago dituzten ikastetxeek sare publikoaren % 9,7 hartzen dute, eta itunpeko sarearen % 4,3. Ehuneko globala baino dezente atzerritar gehiago dituzten ikastetxeen kasuan, sare publikoan % 7,5 dira, eta itunpeko sarean soilik % 2,2.

Horrez gain, datu horiek kuadrillaka aztertuz gero, ikasle atzerritarren ehuneko handienak dituzten ikastetxeak sare publikoan bakarrik daudela ikusiko dugu, Gasteizen izan ezik. Zehazki, Guardia-Arabako Errioxako ikastetxe publikoen % 45ek ehuneko globala baino ehuneko dezente handiagoa du; Aiaraldean, berriz, ikastetxe publikoen % 11,8k ehuneko globaletik oso gorako balioak ditu. Gasteizi dagokionez, ikastetxe publikoen % 6,8tan ikasleen % 50 baino gehiago atzerrikoak dira, % 14,9tan ehuneko globaletik oso gora daude, eta % 6,8tan zifra hori baino dezente gehiago dira. Guztira, hiru tipologia horiek hiriburuko ikastetxe publikoen % 28,5 hartzen dute, eta itunpeko ikastetxeen kasuan, % 8,8 besterik ez.

Amaitzeko, 62 taulan ikasleen ehunekoak ikusiko ditugu, duten jatorriaren eta ikastetxe-tipologiaren arabera. Taula honen bidez, ikasleen eta eskola-segregazioaren arteko erlazioa azter dezakegu.

62. TAULA. IKASTETXEAK, IKASLE ATZERRITARREN KONTZENTRAZIOAREN, NAZIONALITATEAREN ETA KUADRILLEN ARABERA. EHUNEKOEN BANAKETA HORIZONTALA. 2017/2018 IKASTURTEA

		Ikasle atzerritarrik ez	% 9,5a baino gutxiago	% 9,5aren inguruan	% 9,5a baino gehiago	% 9,5a baino dezente gehiago	% 9,5a baino askoz gehiago	% 50a baino gehiago
Añana	Atzerritarra	0	44	56	0	0	0	0
	Bertakoa	2,6	60,8	36,6	0	0	0	0
Aiara	Atzerritarra	0	45	34	0	0	20,9	0
	Bertakoa	2,7	76,4	18,7	0	0	2,2	0
Gorbeialdea	Atzerritarra	0	63,5	36,5	0	0	0	0
	Bertakoa	7,1	85,3	7,5	0	0	0	0
Arabako Lautada	Atzerritarra	0	7,7	43,2	49,1	0	0	0
	Bertakoa	10,5	14,6	40,1	34,8	0	0	0
Kanpezu-Arabako Mendialdea	Atzerritarra	0	0	13,5	86,5	0	0	0
	Bertakoa	5,6	0	29,1	65,4	0	0	0
Guardia-Arabako Errioxa	Atzerritarra	0	1,8	0	9,9	88,3	0	0
	Bertakoa	1,8	47,7	0	6	44,5	0	0
Gasteiz	Atzerritarra	0	11,7	16,8	7,8	16,5	27,5	19,7
	Bertakoa	2,7	57,9	19,7	4,7	6,7	6,6	1,6
Araba	Atzerritarra	0	14	18,8	9,2	17,6	24,1	16,4
	Bertakoa	3,1	59,1	19,4	5,1	6,7	5,3	1,2

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila

Espainiako nazionalitatea eta atzerriko nazionalitatea duten ikasleen arteko aldeak agerikoak dira. Araban, Espainiako nazionalitatea duten ikasleen % 59,1ek ehuneko globala baino ikasle atzerritar gutxiago dituzten ikastetxeetan ikasten du, eta % 3,1ek ikasle atzerritarrik ez dagoen ikastetxeetan. Hau da, Espainiako nazionalitatea duten hamar ikasletik seik ikasle atzerritar gutxi dagoen inguruetan ikasten dute. Ikasle atzerritarrei dagokienez, % 17,6k ehuneko globala baino kontzentrazio dezente handiagoa duten ikastetxeetan ikasten du, eta % 24,1ek zifra hori baino askoz atzerritar gehiago dituzten ikastetxeetan; ikasle atzerritarren % 16,4k soilik ikasten du ikasleen erdia baino gehiago atzerritarren diren ikastetxeetan. Guztira, Arabako ikasle atzerritarren % 58,0k kontzentrazio handiko ikastetxeetan ikasten du.

Espainiako eta atzerriko nazionalitatea duten ikasleen arteko alde horrek eskola-segregazioak duen inpaktu handia nabarmentzen du; izan ere, bertako ikasle gehienek ikasle atzerritarren presentzia urriko ikastetxeetan ikasten dute, eta, beraz, inguru etnokultural homogeneoagoak dituzte; ikasle atzerritarrek, aldiz, etnokulturaren aldetik anitzagoak diren ikastetxeetan ikasten dute batik bat. Bereizketa horrek ere ikasleek jatorriaren arabera gizarte-interakzio gutxi dutela adierazten du.

Kuadrillen artean, Gasteiz, Guardia-Arabako Errioxa Aiaraldea dira segregazio handiena dutenak. Aiaraldean, ikasle atzerritarren % 20,9 ehuneko globaletik oso gorako ehunekoak dituzten ikastetxeetan dago matrikulatuta, eta Espainiako nazionalitatea duten ikasleen % 2,2k soilik ikasten du ikastetxe horietan. Guardia-Arabako Errioxaren kasuan, ikasle atzerritarren % 88,3k ehuneko globala baino ehuneko dezente handiagoak dituzten ikastetxeetan ikasten du, eta Espainiako nazionalitatea duten ikasleen % 44,5ek ikasten du ikastetxe horietan.

Dena den, segregazio-foku nagusia hiriburua da, Gasteiz. Ikasle atzerritarren % 63,7k ehuneko globala baino dezente atzerritar gehiago edo askoz gehiago dituzten ikastetxeetan edo ikasle atzerritarren % 50etik gora diren ikastetxeetan ikasten dute. Ikastetxe horietan ikasten duten Espainiako nazionalitateko ikasleak % 15 dira. Alderantziz, Espainiako nazionalitateko ikasleen % 60,6k ehuneko globaletik beherako ehunekoak dituzten edo ikasle atzerritarrik ez duten ikastetxeetan ikasten du. Ikastetxe horietan matrikulatutako ikasle atzerritarren, berriz, % 11,7 besterik ez dira.



Gakoak eta gomendioak

Etxebizitza

Atal honetako emaitzek erakusten dutenez, atzerriko biztanleena da etxebizitza lortzeko arazo handienak dituen populazio-taldeetako bat. Etxebizitza eskuratze-ko estrategiak oso lotuta daude migrazio-prozesuaren etapekin. Hainbat ikerketek agerian utzi dute migratzaileek, hasieran, gela bat alokairuan hartzeko joera dutela, eta ondoren, egoera ekonomikoa hobetu eta migrazio-prozesua egonkortu ahala, etxebizitza bat alokatzen dutela, edo are erosi ere bai. Hala ere, kasu askotan etxebizitza-mugimendu 'tipiko' hori aldatu egin da, ekonomia-krisia dela eta. Hala, etxebizitza baten jabe egin diren edo etxebizitza bat beren kabuz alokatu duten atzerritarrak azpierrentamendu-estrategiak erabiltzera itzuli behar izan dira, kostuei aurre egin eta hitzemandako kredituak ordaintzeko.

Emaitzek atzerriko biztanleek bizi-baldintza okerragoak dituztela erakusten dute, bai eta alokairuaren sektorean pilatuago daudela ere, izan merkatu librean, izan babes ofizialeko etxebizitzaren markatuan. Horrez gain, Araban, babes ofizialeko etxeetan, atzerriko nazionalitateko eskatzaileen ehunekoa handiagoa da EAEn orokorrean baino. Azterketa honetan oinarrituta, gomendio hauek egiten dira:

- **Alokairu sozialeko etxebizitza gehiago jartzea:** Eusko Jaurlaritzak eta Etxebizitza Lege berriak sustatutako etxebizitza-politikaren ildotik, babes ofizialeko etxe berriak egitean, batez ere –edo soil-soilik– alokairu sozialeko etxebizitzak eraikitzea gomendatzen da. Jabetzako babes ofizialeko etxebizitzetan, eskatzaileetako askok ez dituztenez betetzen hipoteka-kreditu bat lortzeko baldintzak, eskatzaile gehienei etxebizitza horiek eskuratzea galarazten zaie. Atzerriko biztanleen kasuan, bazterketa hori are nabarmenagoa da, hipoteka bat lortzeko oztopoak izaten baitituzte, duten lege-egoera eta egoera ekonomiko estua direla eta.
- **Etxebizitza hutsak alokairu sozialerako mobilizatzea:** Alokairu sozialeko etxebizitza-parkea handitzeko ez da eraikuntza berrira soilik jo behar, hutsik dauden etxebizitzak erabiltzea ere sustatu behar da. Horretarako mekanismoak daude, hala nola Eusko Jaurlaritzaren ASAP eta Bizigune programak. Hutsik dauden etxebizitzaren azterketa zehatza egitea gomendatzen da, etxebizitza hori mobilizatzekeo programak modu eraginkorragoan abiarazteko. Administrazioak askoz jarrera proaktiboagoa izan behar du arlo horretan.

- **Etxebizitza-politika kuadrilletara zabaltzea:** Arabako hiriburuak duen pisu nabarmenaren ondorioetako bat etxebizitza-politika ia guztiz Gasteizen pila-tuta egotea da. Ezinbestekoa da alokairu sozialeko etxebizitzaren ekoizpena eta etxebizitza hutsen mobilizazioa kuadrilletara zabaltzea.
- **Higiezinaren arloko diskriminazioaren aurka egitea:** Atzerriko biztanleek etxebizitzaren arloan duten arazo espezifikoetako bat etxebizitzak eskuratzeko dagoen diskriminazioa da. Atzerriko pertsonen etxebizitza ez alokatu edo saldu nahi izatea hainbat azterketak berresten duten errealitatea da. Horrek etxebizitzaren pilaketa eta segregazioa eragiten ditu. Egoera horri aurre egiteko ekintzak martxan jartzea gomendatzen da.

Gizarte-zerbitzuak, prestazio ekonomikoak eta DBEa

Sei kuadrillatan egindako azterketak –Gasteiz kontuan izan gabe– erakusten duenez, 2012tik 2017ra, gizarte-zerbitzuen eskariak gora egin du. Kuadrilla gehienetan, igoera hori orokorra izan da bertako eta atzerriko biztanleen artean, eta ekonomia-krisia izan da eragile nagusia. Eskaria handitzearen ondorioz, ehun biztanleko zegoen ratioa ere igo egin da.

Sei kuadrilletan, gizarte-zerbitzuak eskatzen dituzten atzerriarren pisua % 17 ingurukoa da, baina kasu batzuetan, hala nola Arabako Lautadan, dezente handiagoa da, % 29ra iritsi baita. Bestalde, gizarte-zerbitzuen eskari handiena magrebtarrak dute kuadrilla guztietan.

GLLe dagokionez, atzerriko biztanleen eskariak ere gora egin du orokorrean, baina gorakada hori kuadrilla jendeztatuenean bakarrik eman da; gutxien jendeztatutakoetan, eskaria gutxitu da. Horrez gain, atzerriko biztanleek pisu handiagoa dute laguntza horretan, gizarte-zerbitzuen eskariarekin alderatuz gero. Oro har, GLLen eskariaren erdia inguru atzerriko biztanleei dagokie, eta % 60 ingurura iristen dira Arabako Lautadan eta Kanpezu-Arabako Mendialdean. Esparru horretan ere magrebtarrak dira kuadrilla guztietako eskatzaileen gehiengoa, ehuneko handiagoa hartzen baitute: kuadrilla guztietan % 60tik gorakoa.

Gasteizen, gizarte-zerbitzuek artatutako pertsonen % 36 atzerriar jatorriko pertsonak dira, batez ere 30 eta 45 urte artekoak, eta gizonen eta emakumeen artean oreka dago. Jatorriari dagokionez, magrebtarrak dira gehienak, eta ondoren datoz latinoamerikarrak. Gehien erabiltzen dituzten zerbitzuak oinarritzko gizarte-zerbitzuak dira. GLLak jasotzen dituzten atzerriko biztanleen ehunekoa handiagoa da laguntza horiek jasotzen dituzten bertako biztanleena baino.

Gizarte-zerbitzuen eta GLLen eskariari buruzko datuekin kuadrillaka egin dugun azterketa zehatza oinarri hartuta, kontu hauek aipatu nahi ditugu:

- **Datuen heterogeneotasuna.** Gasteizko Udala eta bertako datu-baseak izan ezik, kuadrilletako informazio-iturriak eta datu-baseak desberdinak dira. Irudi-pena dugu gizarte-zerbitzuen eta gizarte-laguntzen eskariarekin loturiko informazioa biltzeko protokoloa ez dagoela behar bezain sistematizatuta. Hori dela eta, lortutako informazioak homogeneizazio- eta zehaztasun-arazoak ematen ditu. Informazio sistematizatua eta homogeneoa lortzea oinarritzko baldintza da atzerriko eta bertako pertsonen egiten duten gizarte-zerbitzuen erabilera-aren errealitatea ezagutzeko, hautemateko eta ebaluatzeko.

Komeniko litzateke datu-iturri horietatik informazioa biltzeko prozesuak hobetzea, horrek Araban gizarte-zerbitzu eta laguntzak eskatzen dituzten pertsonen errealitatearen ikuspegi hobea izaten lagunduko luke.

- **Kuadrillen aniztasunari erreparatzea.** Datuek erakusten dute Arabako lurraldea osatzen duten kuadrilletako errealitatea ez dela uniforme.

Kuadrilletako gizarte-zerbitzuek artatutako pertsonen jatorri-aniztasuna kontuan izan behar da baliabideak antolatze eta bideratzeko.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari dagokionez, nabarmendu nahi dugu Araban bizikidetzaren unitateen hileko diru-sarreraren osagarria dela, eta laguntza horiek jasotzen dituztenen erdiak baino gehiago emakumeak direla; izan ere, Euskal Enplegu Zerbitzua – Lanbiden erregistratutako DBEaren onuradunen % 54,05 emakumezkoak dira, eta, nagusiki, atzeritarrak.

Laguntza osagarrien artean –bai etxebizitzarekin loturiko gastuei aurre egitekoak (EPO), bai guraso bakarreko familiei laguntzekoak–, onuradun nagusiak atzerriko biztanleak direla ikusten da, Espainiako nazionalitatea dutenek baino benetako gabezia handiagoko egoerak izaten dituztelako: atzerriko pertsonen oztopo gehiago izaten dituzte lan-merkatuan sartzeko, eta lan-prekarietatea ere handiagoa da haien artean; % 10 inguruk administrazio-egoera irregularra izaten du; eta kasu gehienetan, ez dute babes-saririk izaten. Laguntza hori EAEn duela zenbait urte finkatutako ongizate-estatuaren funtsezko zutabea da, eta, finean, kolektibo horretako pertsonen aukera gehiago dituzte laguntza osagarri horrentzat eskatzen diren bazterkeria-baldintzak betetzeko edo bazterkeria-arriskuan egoteko.

Atzeritar jatorria eta/edo nazionalitatea duten pertsonen kolektiboa da Lanbidek eskaintako datuak aztertu ondoren nabarmentzen diren bi kolektiboetako bat; bestea pentsiodunena da. Pentsiodunen kolektiboko pertsonen kasuan (erretiroa hartu dutelako, edo desgaitasunagatik edo bestelako egoerengatik gizarte- eta/edo lan-bazterkeriaren biktima potentzialak direlako eta diru-sarrera osagarriak jasotzen dituztelako), gehiengoak Espainiako estatuan jaiotako pertsonen osatzen dutela ikusten da, bai autonomia-mailan, bai kuadrilletan.

Baina ez dugu geure burua engainatu behar, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten pertsonen gehiengoak espainiar jatorria eta/edo nazionalitatea duela nabarmenduz; izan ere, ikusi dugunez, bi kolektibo oso desberdin dira. Egia da espainiar jatorria eta/edo nazionalitatea duten pertsonen kolektibo handi batek erabiltzen duela DBEa, beren errenta eskasaren osagarri eta/edo laguntza gisa.

Kolektibo adindua da eta nahiko feminizatuta dago, funtsean, emakumeek gizonen baino bizi-itxaropen handiagoa dutelako, baina, batez ere, lan-bizitzan kotizatu ez duten emakumeen alarguntze-pentsioak oso txikiak direlako, nahiz eta beren etxean edo beste batzuen etxeetan lanean jardun duten.

Badago, ordea, DBEa sostengu nagusi gisa erabiltzen duen beste kolektibo bat: familiaren eta norberaren pobrezia-egoerari edo baliabide ekonomikoak sortzeko gaitasunik ezari aurre egiteko erabiltzen dute, nahiz eta adin aktiboan egon. Kolektibo horretan, atzerritar jatorria eta/edo nazionalitatea duten pertsona asko daude, ausazko egoera batean proportzionalki egongo liratekeenak baino gehiago. Horrek, hain zuzen, adierazten du, pobrezia, autonomia pertsonaleko egoeran egoteko zailtasunak eta gizarte-bazterkeria ez direla ausaz banatzen, eta kolektibo jakin batzuei eragiten dietela, modu bereizi eta partzialean. Atzerritar jatorria eta/edo nazionalitatea duten biztanleak gehiegizko ordezkaritza dute DBEa jasotzen duten pertsonen artean, hain zuzen, pobrezia eta bazterketa sozioekonomikoaren laztasunen aurrean kalteberenak direlako.

Bazterkeriaren fenomenoak hobeto neurtzeko eta profil zaurgarrienak zehatzago identifikatzeko helburuz, atzerritar jatorriaren arabera erreparatu behar diegu Lanbideak DBEa jasotzen duten pertsonen buruz ematen dizkigun datuei; izan ere, nazionalitateari buruzko datuek ezkutuan uzten dituzte DBEa jasotzen duten pertsona-multzo batzuk, zehazki, jatorria atzerrian izan arren dagoeneko nazionalizatuta daudenak eta Espainiako nazionalitateko pertsonen multzoan sartzen direnak. Hala, DBEa jasotzen duten atzerriko nazionalitateko pertsonen kolektiboa txikiagoa da laguntza hori jasotzen duten atzerritar jatorriko pertsonena baino.

Gaur egun, DBEaren datuek aipatu ditugun bi kolektiboak nahastuta erakusten dituzte, baina Lanbideko proiekturen batean proposatu den moduan, bi laguntza-motak bereiziko balira –alde batetik, pentsio edo erretiro eskasak osatzekoak; bestetik, lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten biztanle aktiboen bazterkeria-egoerak konpontzekoak edo prekaritateari aurre egitekoak–, bigarren kolektiboko datuek agerian utziko lukete zer puntutaraino ari garen parte hartzen ‘pobrezia-aren etnifikazio-prozesu’ batean, ez soilik Araban, EAE osoan baizik. Eta horrek kezkatu egiten gaitu.

Azterketa honek eta aurretik eginiko beste batzuek atzerritar jatorria duten pertsonen kolektiboaren gero eta prekarizazio eta hauskortasun handiagoa aipatzen dute, bereziki, Afrikatik datozenen artean. Dena den, ez dugu ahaztu behar beste profil bat, horren zaurgarria ez dena baina hortxe dagoena: adin aktiboan dauden emakume latinoamerikarrena. Hala ere, Afrikako kolektiboak nabarmentzen dira DBEa jasotzen dutenen artean, eta egoera hori okertzen ari da pixkanaka.

Krisiaren aurretik, mende honen hasieran, DBEaren datuetatik bi ondorio ateratzeko, baina gaur egun aldatu egin dira. Batetik, Espainiako jatorria zuten DBEaren hartzaileek gaur egungo profil bera zuten, eta beren kronikotasuna zen azpimarragarria. Hau da, behin sisteman sartuta, ez ziren ateratzen hil arte. Bestalde, atzerritar jatorriko jasotzaileak, biztanle aktiboen adinean zeudenak, behar ekonomikoko egoeran zeudenean sartzen ziren sisteman, eta atera egiten ziren enplegua aurkitu eta egoera hobetutakoan. Garai hartan, pertsona horien jatorria oso anitza zen.

Gaur egun, atzerritar jatorriko pertsonen kolektiboaren profila aldatu egin da: Afrikatik datozen biztanleen protagonismoa handitu da, baina, horrez gain, diru-

laguntzak jasotzeko joera gero eta kronikoagoa dela ikusten da. Beraz, dagoeneko DBEa ez da egoeraren arabera salbamendu-laguntza bat, lehen zen bezala, eta pertsona jasotzaileen egiturazko laguntza izatera pasatzen ari da.

2008ko krisiaren aurretik, Afrikako jatorriko pertsonen kolektiboak, batez ere gure gizartean bizitzeko tradizioa aspalditik duten Ipar Afrikako pertsonak eta familiak, gaur egun baino lan-, ekonomia- eta gizarte-egoera askoz sendoagoan zeuden. Makroekonomiaren susperraldia 2014-2015 inguruan gertatu zen, baina badakigu krisi haren ondorioek irauten dutela: prekarietate handiagoa, soldata txikiagoak eta gizarte-estadura gutxiago. Batez ere Espainiako estatuan nabaritzen da, eta neurri txikiagoan, EAEn.

Engungo datuek adierazten dute DBEaren hartzaileen artean Afrikako jatorria duten pertsonen presentziak ez diola hazteari eta kroniko bihurtzeari uzten. Arabako lurraldean, biztanle magrebtarrek bolumen handia hartzen dute, eta kezagarria da gizarte-bazterkeria ez dela auzi pertsonal bat, baizik eta kolektibo edo talde jakin batzuen kutsua duen auzia. Hemendik zaila da bazterkeria-prozesu hauei aurre egin eta horiek ahultzeko neurri zehatzak proposatzea, zailtasunak dituelako eta alderdi askotako esku-hartzea eskatzen duelako:

- Iritzi publikoa lantzea
- Aurreiritziei aurre egitea, hala nola islamobofiari
- Komunitate magrebtarra eta euskalduna elkarrengana hurbiltzea
- Genero-berdintasunerako prozesuetan esku hartzea kultura-desberdintasunak dituzten inguruetan
- Kolektibo horren trebakuntza profesionala hobetzea
- Lan-merkatuan sartzeko trabak ezabatzea
- Etab.

Lan-merkatua

Arabako lan-merkatuan, atzerriko biztanleen errealitateak elementu positibo batzuk eta negatibo batzuk ditu, argia eta itzalak ditu.

Alderdi positiboak hazkunde ekonomikoarekin eta krisia gainditzearekin (adierazle makroekonomikoei dagokienez gutxienez) lotuta daude, Gizarte Segurantzako afiliazioak gora egin baitu, kontratuak ugaritu baitira eta langabezia gutxitu baita. Joera horiek faktore positiboak dira; izan ere, bertako biztanleriak baino langabezia-tasa nabarmen altuagoa duen kolektibo baten errealitatea aztertzen ari gara, eta krisialdiaren eraginez, nabarmen okertu ziren lan-merkatuan parte hartzeko zituzten aukerak.

Horrez gain, joera positibo horrek Arabako adierazle batzuk hobetu ditu, gainerako lurraldeekin alderatuz. Araban, Gizarte Segurantzako afiliacion pisua handitu egin da, eta atzerriko pertsonen kontratazioen ehunekoak ere gora egin du.

Elementu negatiboei dagokienez, atzerriko biztanleriak lan-merkatuan duen parte-hartzearen egiturazko alderdiekin lotuta daude nagusiki. Alde batetik, kontratazioaren igoerak errotazio-indizea handitzea ekarri du berekin, eta datu horrek hazkundearen inpaktua erlatibizatzen behartzen gaitu. Beste alde batetik, kontratuak zer jarduera-sektoretakoak eta lan-kategoriatakoak diren ikusita, argi geratzen da atzerriko biztanleek Arabako lan-merkatuan duten parte-hartzea kualifikazio gutxiko lan prekarioetan ematen dela batik bat. Horrez gain, kontratatutako pertsonen ikasketa-maila baxua da, eta horrek ibilbide profesionala hobetzeko, lan kualifikatuagoak eskuratzeko eta lan-baldintzak hobetzeko mugak sortzen ditu. Langabeziari dagokionez, kronikotasun handia dago, eta epe luzeko langabezia handiak eta lan bila dabiltzan atzerriko biztanleen ikasketa-maila baxuek erakusten dute hori.

Arabian lan egiten duten atzerriko pertsonen profila honelakoa da, batik bat: gizonak, Afrikako jatorriko pertsonak (nagusiki magrebtarrak), jende gaztea (25 eta 45 urte artekoak), kualifikazio txikiko jendea, lan-kategoria baxuko pertsonak, eta zerbitzuen sektoreko (ostalaritza) langileak, baina nekazaritza-sektorekoek ere presentzia dute.

Atzerriko pertsona langabetuen profilean, berriz, emakumeak dira nagusi, eta kuadrilla batzuetan, gizon bakoitzeko bi emakume izatera iristen dira, hala nola Guardia-Arabako Errioxan, Arabako Lautadan eta Kanpezu-Arabako Mendialdean. Magrebtar nazionalitateko pertsonen kolektiboa oso aipagarria da, batez ere kuadrilla landatarretan, eta bereziki, Kanpezu-Arabako Mendialdean.

Testuinguru horretatik abiatuta, gure gomendioa errealitate hori aldatzeko, edo, gutxienez, arintzeko, egin beharreko ekintzak hiru ardatz hauetan oinarritzea da:

- a) Lan bila dabilen atzerriko biztanleriaren ikasketa-maila, giza kapitala eta trebakuntza hobetzea.
- b) Atzerriko biztanleek lan egin ahal izateko jarduera ekonomikoko sektoreak dibertsifikatzea.
- c) Epe luzeko pertsona langabeek lana lortzeko ekintza espezifikoak diseinatzea.

Ez dago zalantzarik atzerriko pertsona immigranteak gure gizartera iristeak dakarren erronka handienetako baten aurrean gaudela. Alde batetik, bertako biztanle gaitzizkoak kualifikazio txikiagoko lan-egiturako lanpostuak albo batera utzi dituzte, lan-baldintza okerragoak, soldata baxuagoak eta egoera prekarioagoak eskaintzen dituztelako. Horrek lan-estratifikazioko behe-mailan dauden lanpostuak betetzeko eskaria sortu du, eta beste herrialde batzuetako zenbait pertsonari lan-aukerak sortu zaizkie, jatorriko herrialdeetan egoera pertsonal zein familia-egoera okerragoa zutelako (gizarte-ezegonkortasuna, egiturazko langabezia, gerrak, goseteak, ziurgabetasun pertsonala, jazarpen politikoa, hondamendi naturalak, multinazionalen interesak, etab.). Lan-merkatuko kualifikazio txikiko beharrei aurre egiteko pertsonak behar dira, ostalaritza- eta merkataritza-zerbitzuetan, industrian, nekazaritzan, eraikuntzan, mendekotasuna duten pertsonen eta etxeen zaintzan, etab. Hala, jendea etortzen da eskari hori betetzera. Baina ez dirudi lan-aukerak oso modu ausazkoan banatzen direnik. Jatorri batzuetako pertsonen artean, lan-munduan sartzeari buruzko datuak hobeak dira beste batzuenak baino, zenbaitek datu kezkarriak erakusten baitituzte. Afrikatik datozen pertsonen buruz ari gara, eta, batez ere, Afrikako emakumeei buruz.

Presa handieneko erronka pertsona horien gaitasunak hobetzen saiatzea da, lan-merkatuan lehiatzeko eta lanpostuak lortu ahal izateko. Hori dela eta, gure gomendioa eskumena duten erakundeekin (Lanbide) lan egitea da, pertsona horien lan-trebakuntza hobetzeko. Baina erronkarik handiena atzeritar jatorria duten pertsonen (ez gara ari nazionalitateari buruz) dituzten 'kristalezko sabaia eta paretak' haustea izango da, atal honetan deskribatutako lanez gain, bestelako lan-nitxoetara sartzeko aukera izan dezaten, lanbide-mugikortasun horizontal zein bertikalerako aukera izan dezaten eta guraso atzeritarrak izango dituzten etorkizuneko euskal belaunaldiak ez ditzaten beren lan-aukerak gaur egungoetara mugatu. Erronka handiena etorkizunean 'lan-munduan etniagatiko ghettoak' sortzea saihestea da, eta soldataren, lan-baldintzen, behin-behinekotasunaren eta prekaritatearen aldetik erakargarritasun gutxien duten lanbideak identifikatzea ere bai. Horrekin lotuta dago atzeritar jatorria duten pertsonak har ditzaketen jardura ekonomikoko sektoreak dibertsifikatzeko moduak bilatzeko dugun kezka.

Aipagarria da, bestalde, langabezian kronifikazio-arazo handienak dituzten kolektiboekin lan egin beharra dagoela. Badakigu eskumena duten erakundeetako arduradunak (Lanbide) horretan ari direla, kezka sortzen dien gaia delako, baina uste dugu fronte eta erakunde guztietatik egin behar dugula lan arazo horri aurre egiteko.

Hezkuntza

Arabian, unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sisteman, ikasle atzerritarrek hamar matrikulatik bat osatzen dute. Datu horretan oinarrituta, desberdintasunak daude lurraldean zehar, eta kolektibo horrek Kanpezu-Arabako Mendialdea, Guardia-Arabako Errioxa, Arabako Lautada eta Gasteiz kuadrilletan du pisu gehien.

Beste alde batetik, emaitzek agerian uzten dute ikasle atzerritarren artean eskola-segregazioa dagoela. Espainiako eta atzerriko nazionalitatea duten ikasleak desberdin banatzen dira hezkuntza-sisteman, eta patroia argi bat zehatz daiteke. Atzerriko biztanleak sare publikoan matrikulatzen dira batik bat; Espainiako nazionalitatea duten ikasleak, aldiz, sare publikoan gehiago matrikulatzen badira ere, sareen arteko banaketa orekatuagoa da.

Sareen titulartasunaren arabera zatiketa horrez gain, hizkuntza-ereduek ere beste zatiketa bat eragiten dute. Horri dagokionez, lehenik eta behin azpimarratu beharra dago Espainiako zein atzerriko nazionalitatea duten ikasleen artean D eredu dela ikasle gehien hartzen dituen hizkuntza-eredua. Ikasle atzerritarren artean matrikulazio gehien dituen hurrengo hizkuntza-eredua A eredu da, eta ondoren dator B eredu. Espainiako nazionalitatea duten ikasleen kasuan, berriz, A eredu gutxiengo da.

Azkenik, ikasle atzerritarrek ikastetxeetan duten kontzentrazioari erreparatu behar diogu. Arabako 20 ikastetxetan, ikasle atzerritarren ehuneko oso handia da, eta eskola horiek ghettoztat har daitezke. Horietako bostetan, ikasleen erdiak baino gehiago atzerritarrak dira. Ikastetxe horietan aniztasun handia dago, eta gehienak sare publikokoak dira. Horrez gain, beste datu garrantzitsu bat ikasleek ikastetxe horiekiko duten erlazioari buruzkoa da: Espainiako nazionalitatea duten hamar ikasletik sei ikasle atzerritar gutxi dituzten ikastetxeetan matrikulatuta daude; atzerriko nazionalitatea duten hamar ikasletik ia seik, berriz, jatorri-aniztasun handiko ikastetxeetan ikasten dute.


Ikastetxeetako kontzentrazioaren arazoa gai arantzatsua eta lantzeko zaila da, askotariko elementuek eta aldagaiek esku hartzen dutelako. Alde batetik, ikasleen ikastetxekako banaketa espaziala, hein handi batean, oinarritzko gizarte-estratifikazioak eragiten du, eta horrekin lotutako bizileku-estratifikazioak eta -segregazioak ere bai. Beste alde batetik, ikastetxea eta eskolatze-eredua aukeratzean, hizkuntza ere kontuan hartzeko elementua da. Gainera, ez dugu ahaztu behar, atzerriko nazionalitatea duten ikasleak, oro har, gizarte-estratifikazioaren erdiko edo beheko aldean kokatzen direla, eta, horren ondorioz, zaurgarriak direla ikastetxe pribatu batzuetara sartu eta bertan ikasteko dauden oztopo ukaezinen aurrean (eskolaz kanpoko zerbitzu batzuen ordainketa). Kontuan hartzeko beste alderdi bat seme-alabak eroso eta integratuta sentituko diren ikastetxeak aukeratzeko dagoen joera da. Gizarte-maila guztietako jendeak du joera hori. Nork bere gizarte-taldearen zatia homogeneoak diren inguruak bilatzen ditu, nahiz eta gizartean gora egitea nahi izan, erreferentziatzeko taldearen mailara iristeko. Azkenik, garrantzitsua da kontuan hartzea aurreiritzi eta estereotipo negatiboek ikasle atzerritar ugari dituzten ikastetxeak hezkuntza-kalitate txarrekin lotzen dituztela. Horrek Espainiako nazionalitateko ikasleak uxatzen ditu, eta ikasle atzerritar gutxiago dituzten ikastetxeak aukeratzera bultzatu.

Errealitate horretatik abiatuta, uste dugu neurriak hartu behar direla, honako hauek lortzeko:

- Ikasle atzerritarren eskola-segregazioa murriztea. Horretarako, funtsezkoa da matrikulazio-garaietan lan egitea eta jardutea, eta epez kanpoko matrikulak kontrolatzea.
- Atzerriko eta Espainiako nazionalitatea duten ikasleen matrikulazioa sare publikoaren eta pribatuaren artean orekatzea.
- Ikasle atzerritarrek D ereduan matrikulatzea sustatzen jarraitzea, eta A ereduko matrikulazioak pixkanaka murriztea.
- Ikasle atzerritarren kontzentrazio handia duten ikastetxeetan jarraipena egin eta jarduketa-plan bat osatzea, eta ikastetxe ghettoak desagerraraztea, ikasleen matrikulazioak orekatuz.

3



ARABAKO HERRITARREK ETORKINAK DIRELA ETA DITUZTEN PERTZEPZIOEN ETA IRITZIEN ANALISIA





Fitxa teknikoa

- Landa-lana 2018ko martxotik apirilera egin zen.
- Egindako inkestak: 1.200 (Konfiantza-maila = % 95 , $Z = 1,96$ eta errorea = % $\pm 2,83$).
- 18 urtetik gorakoei etxean egindako inkesta pertsonala.
- Esleipen sinple bidez estratifikatutako laginketa, kuadrilla aldagaiaren arabera (kuadrilla bakoitzeko 100 inkesta, Gasteizen salbu, han 600 inkesta egin baitira), eta udalerriaren, adinaren eta sexuaren araberako kuotekin.
- Etxeen hautaketa: ausazko ibilbideen sistema.
- Zazpi kuadrilletan banatutako 60 laginketa-puntu.




Atzerritar jatorria duten pertsonek etorrena

1

Atzeritar jatorriko pertsonen presentzia arazotzat hartzea

1. GRAFIKOA: EUSKADIKO ARAZOAK (BAT-BATEKO ERANTZUNA, %)



Iturria: Geuk egina

EArabako gizartearentzat arazorik garrantzitsuenak hauek dira: langabezia (hiru arazo nagusietako bat da Arabako biztanleen %65,0entzat), pentsioak (%19,3) eta ekonomiarekin lotutako arazoak (17,5%).

Biztanleen %10,6rentzat bakarrik da immigrazioa hiru arazo nagusietako bat. Ez da arazo handia, Arabako biztanleek badituzte arazo garrantzitsuagoak.

1. TAULA: EAEKO ARAZOAK KUADRILLETAKO, ARABAKO ETA EAEKO HERRITARREN ESANETAN (BAT-BATEKO ERANTZUNA, %)

	Añana	Arabako Lautada	Aiara	Kanpezu-Arabako Mendialdea	Gorbeialdea	Guardia-Arabako Errioxa	Gasteiz	ARABA	EAE
Langabezia	66	40	77	92	76	71	63,3	65	67,5
Pentsioak	16	15	29	37	40	25	17,1	19,3	19,7
Arazo ekonomikoak	14	19	15	21	20	26	17,5	17,5	22,3
Enpleguari loturiko arazoak (prekarietatea, soldada baxuak)	15	19	7	16	21	17	17,4	16,3	15
Beste erantzun batzuk	14	13	16	11	19	7	16,2	15,7	13,5
Politikariak, alderdi politikoak, gobernua	8	13	6	10	12	9	11,9	11,1	9,8
Immigrazioa	11	8	14	6	10	15	10,1	10,6	7,7
Etxebizitza	12	5	7	10	11	5	9,6	9,1	9,8
Ustelkeria eta iruzurra	8	9	11	11	18	13	7,2	8,2	8,2
Osasungintza, osasun-sistema	9	5	14	10	10	10	6,4	7,4	7,3
Hezkuntza	9	5	9	11	5	6	7,3	7,3	5,5
Herritarren segurtasunik eza	4	2	6	1	2	6	7,2	6,6	9,8
Arazo sozialak	7	6	4	4	5	6	6	5,8	7
Emakumeen aurkako indarkeria	8	7	5		6	4	3,8	4,2	4,8
Gazteriaren arazoak	8	2	2	8	9	2	2,8	3	2,5
Emakumeen arazoak (berdintasuna...)	6	1	5	1	2	1	1,8	2,2	1,3
Norberaren kezak eta egoera	3	4	2	2		4	1,6	1,8	2
Ez daki/ Ez du erantzun		2	2			1	1,9	1,8	1,7


	Añana	Arabako Lautada	Aiara	Kanpezu-Arabako Mendiak	Gorbeialdea	Guardia-Arabako Errioxa	Gasteiz	ARABA	EAE
Baloreen krisia		1		2	1	2	2	1,7	1,3
Ingurumenari loturiko arazoak	4	6	1	1	2	2	1,2	1,5	1
Arrazakeria	3	2	2	1	1		1,1	1,2	1
Bat ere ez	1						1,1	0,9	0,8
Nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako arazoak	4	1		8	7	9	0,1	0,8	0,3
Zerbitzu publikoen funtzionamendua	5		2	1	2		0,4	0,7	0,2
Drogak	1	1	1			2	0,6	0,7	0,7
Nazionalismoak	2		2				0,5	0,6	
Justizia-administrazioa	1	1	3		2		0,1	0,5	0,8
Azpiegiturak		3	1				0,2	0,4	
Nazioarteko terrorismoa eta terrorismo yihadista			2				0,2	0,4	0,5
Terrorismoa, ETA			1	1	2	2	0	0,3	0,3
Gerrak, orokorrean	1				1			0,1	

Iturria: Geuk egina

Kuadrilla guzti-guztietan langabezia da arazo handiena bertako biztanleentzat, nahiz eta batetik bestera alde esanguratsuak dauden: Arabako lautadan askoz guxtiago aipatzen da (% 40k soilik) eta Kanpezu-Arabako mendialdean, berriz, askoz gehiago (% 92k).

Orokorrean, Arabatarren arazo nagusiak bat datoz EAEko gainerako biztanleekin.

2. GRAFIKOA: EAEKO ARAZOAK KUADRILLETAKO, ARABAKO ETA EAEKO HERRITARREN ESANETAN (BAT-BATEKO ERANTZUNA, %)




Iturria: Geuk egina

Immigraizoari dagokionez, EAEko datuekin alderatuta, ikusiko dugu Araban handixeagoa dela lurraldeko hiru arazo nagusien artean immigrazioa aipatzen dutenen kopurua.

Arabako aurreko barometroekin alderatuta ere, immigrazioa arazotzat hartzen dutenen kopurua handixeagoa da orain, nahiz eta aldea ez den esanguratsua.

3. GRAFIKOA: ARAZOAK EUSKADIN (IRADOKITAKO ERANTZUNA, %)



Iturria: Geuk egina

Arabako biztanleei zenbait arazoren zerrenda itxi bat aurkeztu diegu (Eurostaten Eurobarometroan galdetzen diren berberak), eta ikusi dugu %67,4k aipatzen dutela langabezia, %42,3k pentsioak eta %31,0k egoera ekonomikoa. Horiek dira, beraz, gehien aipatutako hiru arazoak.

Immigrazioa sailkapeneko bederatzigarren postuan dago: Arabako biztanleen %13,7k bakarrik aipatu dute.

3. TAULA: EAEKO ARAZOAK KUADRILLETAKO, ARABAKO ETA EAEKO HERRITARREN ESANETAN (IRADOKITAKO ERANTZUNAK, %)

	Añana	Arabako Lautada	Aiara	Kanpezu-Arabako Mendialdea	Gorbeialdea	Guardia-Arabako Errioxa	Gasteiz	ARABA	EAE
Langabezia	71	57	71	91	85	69	66,1	67,4	71,2
Pentsioak	21	30	51	40	37	29	43,1	42,3	40
Egoera ekonomikoa	45	39	25	60	46	38	29,7	31	42,2
Prezioen igoera/Inflazioa/Bizi-kostua	32	19	35	57	63	37	24,9	27,7	29
Etxebizitza	9	11	12	7	14	8	21,4	18,9	18,8
Hezkuntza sistema	13	16	11	12	7	7	19,1	17	12,5
Delinkuentzia	12	11	20	2	2	10	16,4	15,8	17,2
Osasungintza eta gizarte segurantz	15	13	19	10	13	17	15,2	15,4	11,8
Immigrazioa	17	19	13	6	8	14	13,7	13,7	8,2
Zergak	15	13	6	7	4	17	12,5	11,7	7,3
Ingurumena, klima eta energiari loturiko kontuak	5	11	9	4	11	5	7,6	7,8	8,2
Zor publikoa		2	2		3	1	4,1	3,4	2,3


	Añana	Arabako Lautada	Aiara	Kanpezu-Arabako Mendialdea	Gorbeialdea	Guardia-Arabako Errioxa	Gasteiz	ARABA	EAE
Terrorismoa	4	1	6		4	2	2,5	2,9	1,5
Ez daki/Ez du erantzun		2				3	0,4	0,4	0,7

Informazioa kuadrillaka banatuta aztertzean, ikusiko dugu arazo nagusiak, berberak direla kuadrilla guztietan –kontuan hartu beharra dago, noski, erantzunak iradokitakoak direla–: langabezia, pentsioak eta ekonomiari loturiko arazoak.

Hala ere, badira hainbat ñabardura: Añanan ez dira pentsioak hain sarri aipatu (% 21); Arabako lautadan gutxiago aipatu da inflazioa (% 19); Aiara gehiago aipatu dira delinkuentzia (% 20), terrorismoa (% 6) eta pentsioak (% 51), eta gutxiago egoera ekonomikoa (% 25); Kanpezu-Arabako mendialdean askoz gehiago aipatu dira langabezia (% 91), egoera ekonomikoa (% 60) eta inflazioa (% 57), eta gutxiago delinkuentzia (% 2) eta etxebizitza (% 7); Gorbeialdean gehiago aipatu da inflazioa (% 63), eta gutxiago delinkuentzia (% 2), zergak (% 4) eta hezkuntza sistema (% 7); Guardia-Arabako Errioxan gutxiago aipatu da hezkuntza-sistema; Vitoria-Gasteizen gehiago aipatu dira pentsioak (% 43,1), etxebizitza (% 21,4), hezkuntza sistema (% 19,1) eta delinkuentzia (% 16,4), eta gutxiago egoera ekonomikoa (% 29,7) eta inflazioa (% 24,9).

Immigrazioari eginiko aipuei dagokienez, ordea, aldea ez da estatistikoki esanguratsua kuadrilla batetik bestera.

4. GRAFIKOA: IMMIGRAZIOA ARAZOTZAT HARTZEN DUTENAK (IRADOKITAKO ERANTZUNAK, %)




Iturria: Geuk egina

Zenbakiei erreparatuta zenbait desparekotasun dauden arren, ikuspuntu estatistikorik begiratuta ezin genezake esan kuadrillen artean desberdintasunak daudenik immigrazioa arazotzat hartzeko garaian: kuadrilla guztiak batez besteko jarreraren (% 13,7) inguruko tartean daude.

Aurreko barometroetako datuei erreparatuta, ikusiko dugu joera goranzkoa dela: % 8,5 2008an, % 12,0 2013an, eta % 13,7 gaur egun. EAE osoko datuetakin alderatuta, ikusiko dugu Araban kezka zertxobait handiagoa dela.

5. GRAFIKO: IMMIGRAZIOA ARAZO PERTSONAL ETA EUSKADIKO ARAZO MODUAN (LABURPENA, %). ARABA



Iturria: Geuk egina

Arabako biztanleei beren arazo pertsonalei buruz galdetutakoan ere langabezia (%37,8), pentsioak (%21,4), ekonomiarekin lotutako arazoak (%14,7), enpleguarekin lotutakoak, prekarietatea (%12,6) eta abar dira gehien aipatutakoak.

Immigrazioaren arazoa askoz gutxiago agertzen da, eta Arabako biztanleen %6,4rentzat bakarrik da beren hiru arazo pertsonal nagusietako bat.

Hala, arazoak iradokitakoan, %13,7koa da kopurua, eta %10,6ra pasatu gara lurraldeko arazoei buruz orokorrean ari garenean; herritarrei zuzenean eragiten dieten arazoetan sakontzen dugunean, berriz, %6,4koa da kopurua. Kopuru hori 2013an izan genuenaren oso antzekoa da.

EAEEn, oro har, arazo pertsonalari dagokion kopurua oso antzekoa da, baina pixka bat txikiagoa. Hala, euskal gizartearen %4,5ek bakarrik aipatzen dute immigrazioa arazo pertsonal gisa.


4. TAULA: BIZTANLEEI PERTSONALKI ERAGITEN DIETEN ARAZOAK KUADRILLETAN, ARABAN ETA EAEN (%)

	Añana	Arabako Lautada	Aiara	Kanpezu-Arabako Mendialdea	Gorbeialdea	Guardia-Arabako Errioxa	Gasteiz	ARABA	EAE
Langabezia	51	19	40	66	55	47	36,4	37,8	40,3
Pentsioak	18	15	32	40	35	26	19,5	21,4	22,7
Arazo ekonomikoak	26	21	22	59	46	44	9,9	14,7	28,5
Enpleguari loturiko arazoak (prekaritatea, soldata baxuak)	21	9	13	20	23	15	11,7	12,6	12,7
Beste erantzun batzuk	12	12	14	2	6	7	11,6	11,5	8,8
Hezkuntza	5	5	7	9	4	5	11,9	10,4	7
Bat ere ez	3	6	6			3	11,9	10,1	7,5
Osasungintza, osasun-sistema	8	7	14	12	12	11	9,5	9,8	8,8
Etxebizitza	10	3	7	7	9	4	10,2	9,3	9,8
Politikariak, alderdi politikoak, gobernua	9	13	10	14	13	13	7,3	8,2	10
Ustelkeria eta iruzurra	8	9	9	6	9	9	7,4	7,7	6
Arazo sozialak	9	12	11	17	13	13	5	6,6	9,2
Immigrazioa	9	6	7	4	7	16	5,7	6,4	4,5
Emakumeen aurkako indarkeria	9	6	5		3	2	6,2	5,8	3,8
Norberaren kezka eta egoera	15	5	1	8	13	9	5,8	5,8	5,7
Herritarren segurtasunik eza	5	2	7	1	5	4	5,7	5,5	10
Gazteriaren arazoak	5	3	2	11	11	4	2,8	3,2	3,2
Emakumeen arazoak (berdintasuna...)	2	4	7	2	3	2	2,8	3,2	3,3
Ingurumenari loturiko arazoak	5	6	5	2	1	3	2,6	3	1
Baloreen krisia	2	1	1	3	5	3	2,7	2,5	2,5
Zerbitzu publikoen funtzionamendua	3	1	4		1	3	0,9	1,4	0,7
Drogak	4	2	1	1	1		1,3	1,3	1,3

Iturria: Geuk egina

Kuadrillen artean ez dago aipatzea merezi duen alderik ia. Zerbait aipatzearen, esango dugu Arabako lautadan gutxiago aipatu dela langabezia arazo nagusi gisa; hala ere, oro har, langabeziak kezka pertsonal nagusia izaten jarraitzen du kuadrilletan. Horren atzetik, pentsioak eta arazo ekonomikoak aipatu dira gehien.

6. GRAFIKOA: IMMIGRAZIOA ARAZO PERTSONAL GISA EAEN (%)




Iturria: Geuk egina

Kuadrilla batetik bestera ez dago ia aipatzea merezi duen alderik, salbuespen batekin: Guardia-Arabako Errioxa kuadrillan beste kuadrilletan baino askoz gehiago aipatu da immigrazioa arazo pertsonal gisa (% 16).

Atzerritar jatorriko pertsonen presentziari buruzko pertzepzioa: bolumena


7. GRAFIKOA: ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN BOLUMENARI BURUZKO PERTZEPZIOA (BAT-BATEKOA)



Iturria: Geuk egina

Arabako biztanleen ia erdiek (%48,5) esan dute atzerritar jatorriko pertsonen gaur egungo bolumena handiegia dela edo askotxo direla, edo beharrezko kopurutik edo kopuru egokitik gora daudela behintzat; kopurua egokia dela %34,3k esaten dute. %4,1ek bakarrik uste dute kopurua txikiegia dela.

8. GRAFIKOA: BIZTANLEEK ATZERRITARREN KOPURUAREN INGURUAN DUTEN USTEA ETA BENETAN ERROLDATUTAKO ATZERRITARREN KOPURUA KUADRILLETAN, ARABAN ETA EAEN



Iturria: Geuk egina


Kuadrillei banan-banan begiratuta, ikusiko dugu alde esanguratsua dagoela bate-tik bestera biztanleen uste subjektiboari dagokienean.

Hala, Guardia-Araba Errioxa kuadrillan, atzerritarren bolumena askoz handiagoa dela uste dute: kuadrilla horretako biztanleek uste dute atzerriko biztanleriak biztanleria osoaren % 20,37 hartzen duela. Ehuneko hori Añanan Arabako lautadan, Kanpezu-Arabako mendialdean eta Gorbeialdean jasotakoa baino zatia handiagoa da.

Vitoria-Gasteizko (% 18,67) eta Aiarako (% 17,66) ehunekoek ere aise gainditzen dituzte Kanpezu-Arabako mendialdea eta Gorbeialdea kuadrilletakoak.

Aurretik egindako barometroe bati begiratuta, ikusiko dugu ez dela ia aldaketik izan (% 17 eta % 20 bitartean egoten jarraitzen du), aldi honetan lurraldean dagoen atzerritarren kopuruak gora egin duen arren.

9. GRAFIKOA: BEHIN ERROLDATUTAKO ATZERRITARREN DATU OFIZIALAK EMAN ETA GERO KOPURU HORIEN INGURUAN DUTEN USTEA KUADRILLETAN, ARABAN ETA EAEN




Iturria: Geuk egina

Inkestatuei EAEn dauden atzerritarrek benetan zer ehuneko hartzen duten esan eta gero, ehuneko hori baloratzeko eskatu diegu:

- Hiru arabarretik batek (% 33,8) soilik jarraitzen du pentsatzen atzerritarren kopurua gehiegizkoa dela. Atzerritarren kopurua neurrikoa edo egokia dela uste dutenen bolumenak gora egin du, %40k uste dute hala orain (lehen % 34,3 ziren). Atzerritarren kopurua nahikoa ez dela uste dutenen ehunekoak ere nabarmen egin du gora, eta % 17,2ra ailegatu da (% 4,1 zen lehen).
- Kanpezu-Arabako mendialdea eta Guardia-Arabako Errioxa kuadrilletako datuak dira gehien nabarmentzen direnak, horietan baitaude atzerritarren kopurua gehiegizkoa dela uste dutenen ehuneko handienak: % 62 eta % 56, hurrenez hurren.
- Vitoria-Gasteizen, aldiz, oso bestelako jarrera agertu dute: gutxiagok uste dute atzerritarren kopurua gehiegizkoa dela (% 29,9k soilik) eta gehiagok kopuru hori ez dela nahikoa (% 18,6).

10. GRAFIKOA: DATOZEN BOST URTEEI BEGIRA, ZEIN USTE DUZU IZANGO DELA IMMIGRAZIOAREN JOERA EAEN? (%)



Iturria: Geuk egina


Arabako biztanleen gehiengoak (% 68,1) uste du atzerritarren kopuruak gora egingo duela datozen 5 urteetan. Badirudi hasi garela onartzen luze iraungo duen zerbait dela eta ez fenomeno iragankor bat, eta hain zuzen ere, horren seinale da ia inork ez duela uste immigrazioak behera egingo duenik.

Kuadrillei banan-banan begiratuta ez dago ia aipatzea merezi duen desberdintasunik, sabuespen batekin:

Kanpezu-Arabako mendialdea kuadrillan immigrazioak behera egingo duela uste duen jende gehiago dago (% 14).

EAE osoko datuekin alderatuta ere ez dugu jarreraren desberdintasunik ikusi.

11. GRAFIKOA: DEMAGUN ETORKIZUNEAN ERE ETORKINEK EAERA ETORTZEN JARRAITZEN DUTELA. ZURE USTEZ, NONGO JENDEA ETORRIKO DA? **ARABA**




Iturria: Geuk egina

Arabako biztanle gehienek uste dute etorkizunean etorriko diren atzerritar jatorriko biztanleak nagusiki Magrebekoak izango direla, eta, bigarren tokian, Saharaz hegoaldeko Afrikakoak. Pertzepzio hori ez dator bat esku artean ditugun datuekin; izan ere, azken urtean, 2017an, multzorik handiena latinoamerikarrena izan da (iritsitako guztien %60 inguru), magrebtarren (%20 inguru) eta Saharaz hegoaldeko Afrikakoen oso aurretik (azken horiek ez dira %5era iristen).

Euskal biztanleek item honi emandako erantzunak oso ezberdinak izan dira, eta etorriko diren artean multzo nagusietako bat Latinoamerikako jatorria dutenak izango direla uste duten pertsonen kopurua nabarmentzen da.

Agian, komunikabideak pertzepzio hori desitxuratzen ariko dira; izan ere, Afrikako pertsona batzuk pateretan etortzen direnez, oihartzun handia izaten dute komunikabideetan, bizi dituzten egoera dramatikoengatik; jatorri latinoamerikarrekoak, berriz, hegazkinean etorri ohi dira (edo errepideko garraiobideen bidez), eta haien etorreraz ez da inor ohartzen.


12. GRAFIKOA: DEMAGUN ETOKIZUNEAN ATZERRITARREK EAERA ETORTZEN JARRAITUKO DUTELA, NONDIK USTE DUZU ETORRIKO DIRELA? **AÑANAKO KUADRILLA**



Iturria: Geuk egina

Añanan uste dute beren kuadrillara helduko diren pertsonak Magrebetik, Latinoamerikatik eta, maila txikiagoan, ekialdeko Europatik etorriko direla. Saharaz hegoaldeko Afrikako pertsonak etortzea ere espero dute.


13. GRAFIKOA: DEMAGUN ETOKIZUNEAN ATZERRITARREK EAERA ETORTZEN JARRAITUKO DUTELA, NONDIK USTE DUZU ETORRIKO DIRELA? **ARABAKO LAUTADA KUADRILLA**



Iturria: Geuk egina

Arabako lautadan uste dute beren kuadrillara helduko diren pertsonak batik bat Magrebekoak eta Saharaz hegoaldeko Afrikakoak izango direla. Latinoamerikarrak eta asiarrak etorriko direla ere uste dute.


14. GRAFIKOA: DEMAGUN ETOKIZUNEAN ATZERRITARREK EAERA ETORTZEN JARRAITUKO DUTELA, NONDIK USTE DUZU ETORRIKO DIRELA? **AIARAKO KUADRILLA**



Iturria: Geuk egina

Aiara uste dute beren kuadrillara helduko diren pertsonak batik bat Magrebekoak izango direla. Horien atzetik, baina oso urrun, Saharaz hegoaldeko Afrikako pertsonak eta Latinoamerikakoak aipatu dituzte. Asiatik eta Europako ekialdetik immigrazioa etorriko dela uste dutenen ehunekoak ere esanguratsuak dira.


15. GRAFIKOA: DEMAGUN ETOKIZUNEAN ATZERRITARREK EAERA ETORTZEN JARRAITUKO DUTELA, NONDIK USTE DUZU ETORRIKO DIRELA? **KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEA KUADRILLA**



Iturria: Geuk egina

Kanpezu-Arabako Mendialdea kuadrillan, batik bat, eta alde nabarmenarekin, Latinoamerikako eta Magrebeko pertsonak helduko direla uste dute. Europako ekialdetik immigrazioa helduko dela uste dutenak ere ugari dira.


16. GRAFIKOA: DEMAGUN ETOKIZUNEAN ATZERRITARREK EAERA ETORTZEN JARRAITUKO DUTELA, NONDIK USTE DUZU ETORRIKO DIRELA? **GORBEIALDEA KUADRILLA**



Iturria: Geuk egina

Gorbeialdean uste dute beren kuadrillara helduko diren pertsonak batik bat, eta alde nabarmenarekin, Magrebekoak eta Latinoamerikakoak izango direla, eta asko dira Saharaz hegoaldeko Afrikatik jendea etorriko dela uste dutenak ere. Horien atzetik, Europako ekitaldetik immigrazioa helduko dela uste dutenak ere hor daude, baina ez dira hainbeste.


17. GRAFIKOA 17: DEMAGUN ETOKIZUNEAN ATZERRITARREK EAERA ETORTZEN JARRAITUKO DUTELA, NONDIK USTE DUZU ETORRIKO DIRELA? **GUARDIA-ARABAKO ERRIOKA KUADRILLA**



Iturria: Geuk egina





Guardia-Arabako Errioxa kuadrillan argi dute nongoak izango diren beren kaudrillara helduko diren atzerritar gehienak: Magrebekoak. Latinoamerikako, Europa ekialdeko eta Saharaz hegoaldeko Afrikako pertsonak ere aipatu dituzte, baina lehen talde nagusi horrengandik oso urrun geratu dira sailkapenean.

18. GRAFIKOA: DEMAGUN ETOKIZUNEAN ATZERRITARREK EAERA ETORTZEN JARRAITUKO DUTELA, NONDIK USTE DUZU ETORRIKO DIRELA? **GASTEIZ KUADRILLA**



Iturria: Geuk egina

Vitoria-Gasteizen uste dute beren kuadrillara helduko diren pertsonak batik bat Magrebekoak eta Saharaz hegoaldeko Afrikakoak izango direla. Latinoamerikarrak eta asiarrak etorriko direla uste dutenak ere hor daude, baina ez dira hainbeste.




Gizarte hartzailean hautemandako ondorioak

2

Ekonomiarekin lotutakoak

19. GRAFIKOA: ORO HAR, SOLDATAK TXIKITU EGITEN DIRA BIZITZERA ETA LANERA ETORTZEN DIREN PERTSONEN ERAGINEZ (%)




Iturria: Geuk egina

Estereotipo hori klasikoetako bat da, eta defendatzen du atzerritar jatorriko pertsonak etortzeak eragina duela gizarte hartzailaren soldata-egituran. Estereotipo horrek gero eta aldeko gutxiago ditu Araban: %22,6k bakarrik egiten dute bat, eta %65,8k gezurtatu egiten dute. Azken kopuru hori gorantz joan da 2008tik: %39,3tik %42,8ra pasatu da 2008tik 2013ra, eta aipatutako %65,8ra iritsi da 2018an.

Kuadrillei erreparatuta, Guardia-Arabako Errioxa eta Kanpezu-Arabako Mendialdea nabarmentzen dira, estereotipo faltsu horrek kuadrilla horietan baitu indar gehien.

20. GRAFIKOA: ETORKINEK AUKERA EMATEN DUTE EKONOMIAK HOBETO FUNTZIONATZEKO, BERTAKO BIZTANLEEK NAHI EZ DITUZTEN LANPOSTUAK BETETZEN DITUZTELAKO (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako gizartea jabetzen da bertako biztanleek behar bezainbeste bete gabe-ko lanpostuak eta merkatu-nitxoak betetzen dituztela Euskadira eta Arabara lanera etorritako atzerritar jatorriko pertsonak. Hala uste dute Arabako biztanleen %51,8k; kontrakoa uste dutenak, berriz, %25,2 dira.

Krisiak murriztu egin zuen uste horrekin bat egiten zutenen kopurua, eta ehunekoa %37,3ra jaitsi zen 2013an; 2018an, logikaren bidera itzuli gara.

Kuadrillaka, Kanpezu-Arabako Mendialdea nabarmentzen da alde handiz, hango biztanleak bereziki ados baitaude aztertzen ari garen esaldiarekin: %78k uste dute immigrazioak hobeto funtzionatzen laguntzen diola ekonomiari.

21. GRAFIKOA: ETORKINEK LANGABEZIA HANDITZEN DUTE EUSKADIN (%)




Iturria: Geuk egina

Arabar gehienak (%49,7) jabetzen dira etorkinen etorrerak ez duela eragiten langabezia-tasaren igoerarik gure lurraldean. Oraindik ere badago bi fenomeno sozialak, immigrazioa eta langabezia, batera doazela uste duenik (%30,5). Kopuru horiek gehiago datoz bat errealitatearekin EAEko datu orokorretako kopuruak baino.

Kuadrillei erreparatuta, kasu honetan ere deigarriak dira Guardia-Arabako Errioxa eta Kanpezu-Arabako Mendialdeko datuak, besteen datuetatik nahiko ezberdinak direlako. Izan ere, hauetan gehiago lotzen da immigrazioa langabeziaren igoerarekin: hurrenez hurren, bertako biztanleen %55ek eta %52k bat egiten dute ideia horrekin.

Edonola ere, badirudi 2013tik hobetzen ari direla gai horri buruzko jarrerak, eta estereotipo ekonomiko horrekin bat egiten dutenen eta bat egiten ez dutenen kopuruak alderantzikatzen ari direla.

22. GRAFIKOA: ETORKINEK LANA KENTZEN DIGUTE (%)




Iturria: Geuk egina

Komentatu berri dugun aurreko diapositibaren beste aldagai bat da pentsatzea etorkinek lana kentzen digutela bertakooi. Agian argudio pixka bat hutsalagoa delako, Arabako gizarteak irmoago gaitzesten du: %67,2 ez daude ados baieztapen horrekin.

Kuadrillaka, ordea, aldeak ikusten ditugu: Kanpezu-Arabako Mendialdeak, Gorbeialdeak eta Guardia-Arabako Errioxak nabarmen gutxiago gaitzesten dute argudio hori: haietako biztanleen %37k, %37k eta %43k gaitzesten dute, hurrenez hurren.

2013tik, Arabako gizarteak hobetu egin du gai horri buruzko jarrera, eta etorkinek bertakoei lana kentzen dietela dioen argudioa gaitzesten dutenen kopuruak gora egin du, %47,3tik aipatutako %67,2ra.

23. GRAFIKOA: ETORKINAK BEHAR DITUGU GURE EKONOMIAKO SEKTORE BATZUETAN LAN EGITEKO (%)



Iturria: Geuk egina


Irmoagoa izan zitekeen arren, Arabako gizarteak nagusiki (%55,9) uste du etorkinak behar ditugula gure ekonomiako zenbait sektoretan lan egiteko. Hain zuzen, kopuru hori euskal gizarteak (%50,5) oro har esandakoa baino zertxobait handiagoa da.

Kuadrillaka, Añanak, Arabako Lautadak eta Aiaraldeak besteek baino gehiago gaitzesten dute esaldi horren edukia.

2013ko datuekin alderatuta, Arabako gizarteak, oro har, hobeto ulertzen du immigrazioa beharrezkoa dela gure ekonomiako zenbait sektorek ondo funtzionatzeko.

Hizkuntzarekin eta identitatearekin lotutakoak

24. GRAFIKOA: ETORKINEN ETORRERAREN ERAGINAK EUSKAL GIZARTEAN (%). ARABA.




Iturria: Geuk egina

Oro har, Arabako gizarteak ez du uste immigrazioak ondorio okerrak edo negatiboak izan ditzakeenik gure identitatean edo euskararen erabileran: 10etik 7-8 pertsonak ez dute inolako arriskurik ikusten.

Eta, oro har, euskararen garapenari buruzko 2013ko zenbait erreparatu salbu, Arabako gizarteak inoiz ez du ikusi immigrazioa euskararentzat eta euskal identitatearentzat mehatxu gisa.

25. GRAFIKOA: ETORKINEN HELDUERAK EUSKARAREN GARAPENA OZTOPATUKO DU (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako eta EAEko gizarteak bat datoz puntu honetan: bi-bietan inkestatuek uste dute immigrazioak ez duela euskararen garapena oztopatuko, krisiak gai honen inguruak zalantzak sortu zituen arren.

Kuadrillei banan-banan begiratuta, ikusiko dugu Aiaran dagoela etorkinek euskarara ahulduko dutela uste dutenen kopuru txikiena.

26. GRAFIKOA: IMMIGRANTEEN HELDUERAK EUSKARAREN ERABILERA MURRIZTUKO DU ORAIN GEHIENEK ERABILTZEN DUTEN GUNEETAN (%)




Iturria: Geuk egina

Kasu honetan ere Arabako gizarteak, EAEkoak bezalaxe, ez du uste immigrazioa euskararen aurrerabidean oztupo izango denik gaur egun gehienek euskara eza-gutzen eta erabiltzen duten guneetan. Iritzi hori 2008ko eta 2013ko barometroetan ere jaso zen, baina egia da orain indartu egin dela.

Kuadrillei banan-banan erreparatuta, Gorbeialdekoa da arreta handiena merezi duena, hor ere gehienak immigrazioa euskararentzat mehatxua ez delako iritzi orokorraren barruan badaude ere, gaiaren inguruan zalantza gehien azaldu dituen gunea baita.

27. GRAFIKOA: ETORKINEN HELDUERAK EUSKAL NORTASUNA GALTZEA EKARRIKO DU (%)




Iturria: Geuk egina

Euskal gizarteak bere osotasunean hartzen duen nortasun propio eta zehaztu bat dagoela suposatuta, Arabarrek ez uste uste immigrazioak hari eragingo dionik: inkestan parte hartutako 10 pertsonatik ia 8k uste dute ez duela horretan eragin negatiborik izango. Datu hauek EAEn jasotako oso antzekoak dira.

Kuadrillak banan-banan aztertuta, Aiara, Arabako lautada eta Vitoria-Gasteiz dira mehatxu sentsazio txikiena dutenak; eta Kanpezu-Arabako mendialdea eta Gorbeialdea kuadrilletakoak, berriz, zalanza gehien dituztenak, zalanza dituzten herriarren ehunekoak oso txikiak badira ere.

Badirudi 2008tik hona finkatu egin dela immigrazioak euskal nortasuna mehatxatzen ez duelako sentsazioa.

28. GRAFIKOA: ETORKINEN HELDUEK EUSKAL NAZIONALISMOAK BERE HELBURUAK BETETZEA OZTOPATUKO DU (%)




Iturria: Geuk egina

Azkenik, euskal gizartearen alderdi bati soilik loturiko kontua den arren, euskal nazionalismoak bere helburuak betetzeko bidean etorkinek zer eragin izan dezaketen ere galdetu genien arabarrei: puntu honetan ere gizarteak ez du immigrazioa oztopotzat jotzen, ez Araban ez EAEn, ez orain ez aurreko barometroetan.

Kuadrillei banan-banan erreparatuta, ikusiko dugu Aiaran dagoela etorkinak nazionalismoaren helburuak betetzeko oztopo izango direla uste dutenen kopuru txikiena, eta Kanpezu-Arabako mendialdea eta Gorbeialdea kuadrilletan sortzen dituela zalanza gehien gaiak.

29. GRAFIKOA: NOLA HAUTEMATEN DEN IMMIGRAZIOAK EUSKAL GIZARTEAN DUEN ERAGINA: 0 PUNTUTIK (OSO NEGATIBOA) 10 PUNTURA (OSO POSITIBOA)




Iturria: Geuk egina

Gai oso zehatzen inguruko zenbait galderari erantzun eta gero, inkestatutako pertsonen eskatu genien immigrazioak euskal gizartean duen eragin orokorra baloratzeko. Jasotako puntuazioa erdibidean dago eragin positiboen eta negatiboen eskalan; izan ere, Arabako gizarteak 5,31 puntuan kokatu du eragin hori –EAEko gizartearen puntuaziotik oso hurbil–, eta hortaz, esan genezake eragin positiboak ikusten dituzten arren, alderdi negatiboak ere hautematen dituztela arabarrek.

Kuadrillei banan-banan erreparaturaz, Vitoria-Gasteiz eta Gorbeialdea kuadrilletan Guardia-Arabako Errioxan baino alderdi positibo gehiago ikusten dituztela ondorioztatuko dugu.

2008az geroztik izandako bilakaerari dagokionez –urte hartan 4,78 puntukoa izan zen balorazioa, eta 2013an, 4,45 puntukoa–, esan dezakegu gaur egun Arabako gizarteak onura gehiago ikusten dituela immigrazioak euskal gizarten duen eraginean.

30. GRAFIKOA: IMMIGRAZIOAK EUSKAL GIZARTEAN DITUEN ONDORIO POSITIBO ETA NEGATIBOEN BURUZKO PERTZEPZIOA: 0TIK (NEGATIBOAK) 10 (POSITIBOAK) PUNTURA



Iturria: Geuk egina


Puntuazio negatiboaren eta positiboaren ehunekoak elkarrekin lotzen baditugu, ikusten dugu Gasteizko eta Gorbeialdeko biztanleak nabarmentzen direla balantza positiboan, 16 eta 9 punturekin, hurrenez hurren. Aitzitik, Guardia-Arabako Errioxan, puntuazio negatiboek positiboek baino pisu handiagoa dute: 4 puntukoa da aldea.



Eskubide eta zerbitzuetarako sarbidea

3

31. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, EUSKADIN BIZI DIREN ETORKINEK ERE BERTAKOEN BALDINTZA BERBERETAN IZAN BEHAR AL LITUZKETE ESKUBIDE HAUEK? ARABA (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako gizarteak argi du hezkuntza publikorako sarbideak (batez ere) eta osasun-arretak eskubide unibertsalak izan behar dutela atzerritar jatorriko biztanleentzat: arabar guztien %86,4k eta %77,3k uste dute jende guztiak izan behar duela bi eskubide horietarako sarbidea.

Alabaina, Arabako gizartea askoz murriztaileagoa da, neurri handiagoan edo txikiagoan, atzerritar jatorriko etorkinek beste eskubide batzuetara sarbidea izateari buruz ari garenean.

Hauek dira horietako batzuk: laguntza juridikoa, diru-sarrerak bermatzeko errenta, familia berriz elkartzea, babes ofizialeko etxebizitzetarako sarbidea eta botoa emateko aukera. Eskubide horiek guztiak administrazio-egoera erregularrean dauden pertsonentzat mugatzen ditu.

32. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, EAEKO IMMIGRANTEEK BERTAKO BIZTANLEEK DITUZTEN AUKERA BERAK IZAN BEHARKO LITUZKETE HONAKO ESKUBIDE HAUEI DAGOKIENEAN? ESKOLA PUBLIKOA (%)




Iturria: Geuk egina

Hezkuntza publikoa erabiltzeko aukera emateari dagokionean, ez dago alde handirik EAEko gizartearen eta Arabakoaren artean; zerbait aipatzekotan, zehaztuko genuke Arabako gizartean zertxobait handiagoa dela immigrante guztiak hura erabiltzeko aukera izatearen alde daudenen ehunekoa.

Datuek erakusten dute 2008ko (% 57,4) eta, batez ere, 2013ko (% 51,3) datuekin alderatuta, asko hobetu dela Arabako gizartean immigrante guztiei hezkuntza publikoa erabiltzeko aukera emateko prest dauden herritarren datua.

Kuadrillei banan-banan begiratuta ez dugu estatistikoki esanguratsua den desberdintasunik aurkitu: guzti-guztietan eskubide hori immigrante guztiei zabaltzarean alde agertu dira herritarrak.

33. GRAFIKOA. ZURE USTEZ, EAEKO IMMIGRANTEEK BERTAKO BIZTANLEEK DITUZTEN AUKERA BERAK IZAN BEHARKO LITUZKETE HONAKO ESKUBIDE HAUEI DAGOKIENEAN? OSASUN-ARRETA (%)




Iturria: Geuk egina

Osasun-harretari buruzko galdera honetan ere, ez dago alde handirik Arabako gizartearen eta EAEkoaren erantzunen artean; hori bai, honetan ere, Araban zertxobait handiagoa izan da immigrante guztiek hura erabiltzeko aukera izatearen alde dauden ehunekoa.

Aurreko barometroei erreparatzen badiegu, 2008koari (% 59,9) eta, batez ere, 2013koari (% 54,8), ikusiko dugu Arabako gizartean immigrante guztiei osasun-arreta jasotzeko aukera emateko prest dauden herritarren datua hobetu egin dela.

Kuadrillei banan-banan begiratuta, Vitoria-Gasteiz nabarmenki inklusiboagoa dela ikusiko dugu (% 79,2 dago eskubide hau immigrante guztiei ematearen alde). Bestalde, Kanpezu-Arabako mendialdea eta Guardia-Arabako Errioxa kuadrillak dira murriztaileenak (hurrenez hurren, % 58k eta % 38k uste dute erregularizatutako goieran daudenek soilik izan beharko luketela eskubide hori).

34. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, EUSKADIN BIZI DIREN ETORKINEK ESKUBIDE HAUEK IZAN BEHARKO LITUZKETE, BERTOKO PERTSONEK BEZALA ETA BALDINTZA BERDINETAN? **LAGUNTZA JURIDIKOA** (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako herritar gehienek ustez, egoera administratibo erregularrean dauden etorkinek bakarrik eduki beharko lukete laguntza juridikoa eskuratzeko sarbidea. Euskal gizartearen gehiengoak antzeko iritzia du. Hala ere, 2008. urtetik gero eta jende gutxiagok du jarrera murriztaile hori: Arabako herritarren 20 puntuk, gutxi gorabehera, iritzia aldatu du etorkin guztiak barne hartzen dituen jarrera ireki baterantz.

Kuadrillen arabera, ikus dezakegu Vitoria-Gasteiz askoz ere inklusiboagoa dela (% 41,6ren iritziz, etorkin guztiek izan beharko lukete eskubide hori), eta Kanpezu-Arabako Mendiialdea, Guardia-Arabako Errioxa eta Gorbeialdea murriztaileenak dira (% 81, % 72 eta % 72, hurrenez hurren, administrazio egoera erregular batean egoteko baldintza jartzearen alde daude).

35. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, EUSKADIN BIZI DIREN ETORKINEK ESKUBIDE HAUEK IZAN BEHARKO LITUZKETE, BERTOKO PERTSONEK BEZALA ETA BALDINTZA BERDINETAN? **GIZARTE-LAGUNTZAK: DSBEA, GILBA...** (%)




Iturria: Geuk egina

Gai honetan ere inklusiboagoa dirudi Arabako gizarteak euskal gizarteak baino (% 36,6ren iritziz, etorkin guztiek izan beharko lukete gizarte-laguntzak eskuratze-ko aukera; EAEko % 25,5 horren alde dago); hala ere, kasu bietan, administrazio-egoera erregular batean egoteko baldintza nagusitzen da.

Arabana, 2008. urtetik jarrerak nahiko hobetu dira eta gaur egun inklusiboagoak dira.

Kuadrillen arabera, ikus dezakegu Vitoria-Gasteiz askoz ere inklusiboagoa dela (% 41,1en iritziz, etorkin guztiek izan beharko lukete eskubide hori), eta Kanpezu-Arabako Mendialdea, Guardia-Arabako Errioxa eta Gorbeialdea murriztaileenak dira (% 78, % 81 eta % 72, hurrenez hurren, administrazio egoera erregular batean egoteko baldintza jartzearen alde daude).

36. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, EUSKADIN BIZI DIREN ETORKINEK ESKUBIDE HAUEK IZAN BEHARKO LITUZKETE, BERTOKO PERTSONEK BEZALA ETA BALDINTZA BERDINETAN? **FAMILIA BERRELKARTZEA (%)**




Iturria: Geuk egina

Gai honetan ere inklusiboagoa dirudi Arabako gizarteak euskal gizarteak baino (% 31,2ren iritziz, etorkin guztiek izan beharko lukete beren familia berrelkartzeko aukera; EAEko % 22,5 horren alde dago); hala ere, kasu bietan, administrazio-egoera erregular batean egoteko baldintza nagusitzen da.

Gai honetan ere Arabako herritarren jarrerak 2008. urtekoak baino inklusiboagoak dira (% 14,4), batez ere 2013. urtetik (% 11,8).

Kuadrillen arabera, ikus dezakegu Vitoria-Gasteiz askoz ere inklusiboagoa dela (% 34ren iritziz, etorkin guztiek izan beharko lukete eskubide hori), eta Kanpezu-Arabako Mendialdea eta Gorbeialdea murriztaileenak dira (% 82 eta % 88, hurrenez hurren, administrazio egoera erregular batean egoteko baldintza jartzearen alde daude). Aiaran nabarmentzekoa da jende asko dagoela etorkinek familia berrelkartzeko aukerarik ez izatearen alde (% 17).

37. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, EUSKADIN BIZI DIREN ETORKINEK ESKUBIDE HAUEK IZAN BEHARKO LITUZKETE, BERTOKO PERTSONEK BEZALA ETA BALDINTZA BERDINETAN? **BOE** (%)




Iturria: Geuk egina

Gai honetan ere inklusiboagoa dirudi Arabako gizarteak euskal gizarte osoak baino (% 27,5en iritziz, etorkin guztiek izan beharko lukete BOE bat eskuratzeko aukera; EAEko % 19,8 horren alde dago); hala ere, kasu bietan, administrazio-egoera erregular batean egoteko baldintza nagusitzen da.

Hala ere, 2008. urtetik Arabako herritarren jarrerak nabarmen hobetu dira.

Kuadrillen arabera, ikus dezakegu Vitoria-Gasteiza askoz ere inklusiboagoa dela (% 30,2ren iritziz, etorkin guztiek izan beharko lukete eskubide hori), eta Kanpezu-Arabako Mendialdea, Gorbeialdea eta Guardia-Arabako Errioxa murriztaileenak dira, (% 82k, % 85ek eta % 76k, hurrenez hurren, administrazio egoera erregular batean egoteko baldintza jartzen baitute.

38. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, EUSKADIN BIZI DIREN ETORKINEK ESKUBIDE HAUEK IZAN BEHARKO LITUZKETE, BERTOKO PERTSONEK BEZALA ETA BALDINTZA BERDINETAN? **BOZKATZEKO ESKUBIDEA** (%)




Iturria: Geuk egina

Gai honetan Arabako gizarteak eta EAEkoak antzeko iritzia dute: oso jarrera murriztailea dute, eta administrazio-egoera erregularrean dauden herritarrek bakanrik izan beharko lukete bozkatzeko eskubidea.

Gai honetan ere hobetu dira Arabako gizartearen jarrerak 2008. urtetik.

Kuadrillen arabera, Arabako Lautada askoz ere inklusiboagoa da (% 25en iritziz, etorkin guztiek izan beharko lukete eskubide hori), eta Kanpezu-Arabako Mendialdea eta Gorbeialdea murriztaileenak dira (% 82k eta % 86k, hurrenez hurren, administrazio egoera erregular batean egoteko baldintza jartzen dute).

39. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, EUSKADIN BIZI DIREN ETORKINEK HAUETARAKO DOAKO SARBIDEA IZAN BEHARKO LUKETE? ARABA (%)




Iturria: Geuk egina

Etorkinek eskuratu litzaketen beste mota bateko eskubide eta/edo zerbitzuei dagokienez, herritarren gehiengoak badaki gizarte osoak EAEko hizkuntza ofizialak ikasi behar dituela: % 65,0 eta % 61,1 ingururen ustez, pertsona guztiek eduki beharko lukete doako gaztelania-eskolak eta euskara-eskolak, hurrenez hurren, jasotzeko aukera.

Bestalde, etorkin guztiek lanbide prestakuntzako ikastaroak egiteko aukera eduki-tzearen aldeko jarrera inklusiboa nagusitzen da (% 54,7); hala ere, ama-hizkuntza-ko doako eskolei dagokienez, oso iritzi desberdinak daude.

40. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, EUSKADIN BIZI DIREN ETORKINEK AUKERA IZAN BEHARKO LUKETE GAZTELANIAKO ESKOLAK DOAN JASOTZEKO? (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako gizartea eta EAE osokoa iritzi berdina dute gai horretan: herritarren bi herenen ustez, etorkinek doako gaztelania-eskolak jasotzeko aukera izan beharko lukete, eta jarrera hori 2018. urtean oso agerikoa izan da, aurreko urteetan ez bezala (2008an % 39,9 eta 2013an % 36,3).

Kuadrillen arabera, Vitoria-Gasteiz eta Aiara kasuak nabarmentzen ditugu, askoz ere murriztaileak direlako: % 15,9 eta % 16, hurrenez hurren, etorkinek doako gaztelania-eskolak jasotzeko aukeraren aurka daude.

41. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, EUSKADIN BIZI DIREN ETORKINEK AUKERA IZAN BEHARKO LUKETE DOAKO EUSKARA-ESKOLAK JASOTZEKO? (%)




■ Guztiak ■ Erregularizatuak ■ Bat ere ez ■ Ed/Ee

Iturria: Geuk egina

Doako euskara-eskolei dagokienez, Arabako eta EAE osoko biztanleek jarrera berdina dute: 3 pertsonatik bik dute iritzi hori. Hala ere, azken urteotan jarrera hori aldatu da, eta 2008an eta 2013an gehiengoa administrazio-egoera erregularrean egoteko baldintzaren aldekoa zen.

Kuadrillen arabera, Vitoria-Gasteiz eta Aiarako kasuak nabarmentzen ditugu, askoz ere murriztaileagoak direlako: % 17,8 eta % 16, hurrenez hurren, etorkinek doako euskara-eskolak jasotzeko aukeraren aurka daude.

42. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, EUSKADIN BIZI DIREN ETORKINEK AUKERA IZAN BEHARKO LUKETE LANBIDE-PRESTAKUNTZAKO DOAKO IKASTAROAK JASOTZEKO? (%)




Iturria: Geuk egina

Gai honetan, Arabako gizartea euskal gizartea baino zuhurragoa da. EAEko gizarteak jarrera irekiagoa dauka jende guztiak lanbide-prestakuntza jasotzeko aukeraren inguruan, nahiz eta Arabako biztanleen artean ere gehiengoaren jarrera izan. 2008. urtetik jarrera hori nahiko hobetu da.

Kuadrillen arabera, Kanpezu-Arabako Mendialdea eta Gorbeialdea nabarmentzen dira, inklusiboenak direlako: % 81 eta % 79, hurrenez hurren, etorkin guztiak lanbide-prestakuntza jasotzeko aukeraren alde daude. Bestalde, Vitoria-Gasteiz eta Aiara murriztaileenak dira, eta % 17,8 eta % 16, hurrenez hurren, etorkinei zerbitzu hori ukatzearen alde daude.

43. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, EUSKADIN BIZI DIREN ETORKINEK AUKERA IZAN BEHARKO LUKETE BEREN AMA HIZKUNTZAKO DOAKO ESKOLAK JASOTZEKO? (%)



Iturria: Geuk egina

Arabako gizartean eta euskal gizarte osoan ere iritzi ugari daude gai horren inguruan. Hala ere, euskal gizartean desberdintasun gutxiago daude iritzien artean, zerbitzu hori etorkin guztiei eskaintzearen aldekoak gehiengoa direlako.

Gainera, ikus daiteke Arabako gizartean jarrerak bi muturretara hurbiltzen ari direla, alde batetik, zerbitzu hori etorkin guztiei eskaintzearen aldekoak, eta bestetik, zerbitzu hori inori ere ez eskaintzearen aldekoak.


Kuadrillen arabera, Vitoria-Gasteiz eta Arabako Lautada nabarmentzen dira, inklusiboenak direlako: % 39,8 eta % 38, hurrenez hurren, etorkin guztiek zerbitzu hori jasotzeko aukeraren alde daude. Bestalde, Kanpezu-Arabako Mendialdea eta Gorbeialdea murriztaileenak dira, eta herritarren % 71en eta % 75en ustez, hurrenez hurren, inork ez luke eduki behar ama hizkuntzako doako eskolak jasotzeko eskubiderik.



Elkarbizitza-ereduak eta harremanetarako espazioak

4

44. GRAFIKOA: ZURE HERRIKO EDO AUZOKO ELKARBIZITZA ETA HARREMANAK, 0TIK (OSO TXARRA) 10 (BIKAINA) PUNTURA.




Iturria: Geuk egina

Arabako gizarteak, bertako biztanleen eta etorkinen arteko elkarbizitza-giroa ebaluatzen eskatu zaionean, nota hau eman du: nahiko altu bat eman dio. Eta euskal gizarteak ere balorazio hori bera egiten du oro har. Bitxia da ikustea balorazio horiek bat datozela euskal gizarteri eta Arabako gizarteari, tolerantzia-indizearen bidez, atzerriko immigrazioaren aurrean esleitzen dizkiogun jarrerekin (ikusi 293 orria).

Kuadrillei erreparatuta, Gasteiz bakarrik nabarmentzen da, elkarbizitza-giroari buruz besteek baino balorazio nabarmen hobea egiten duelako.

45. GRAFIKOA: ZURE USTEZ, EUSKAL BIZTANLEEN ETA ATZERRITARREN ARTEKO HARREMANA HOBETU EGIN DA, OKERTU EGIN DA ALA BERDIN MANTENDU DA IAZTIK? (%)




Iturria: Geuk egina

Gainera, Arabako biztanle gehienek uste dute bertako biztanleen eta etorkinen arteko harremana edo elkarbizitzagiroa ez dela nabarmen aldatu azken urtean. Badirudi elkarrekin bizitzen ikasten ari garela, eta, akaso, inguruko baldintzek ere horretan laguntzen dutela, 2013tik batez ere elkarbizitza-giroari buruzko pertzepzioa asko hobetu baita.

Arabako gizartea EAEkoarekin alderatuz gero, ez dugu aipatzeko moduko alderik ikusten.

Kuadrillen artean ere ez dugu ikusten nabarmentzea merezi duen ezberdintasunik.

46. GRAFIKOA: ETORKINEKIN ELKARBIZITZA AUZO BEREAN EDO ETXEPE BEREAN. ARABA (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako biztanleei galdetu diegunean ea zenbateraino egongo liratekeen prest auzo berean edo etxepe berean beste jatorri batzuetako pertsonekin bizitzeko, ikusten dugu jatorri batzuk besteak baino hobeto onartzen direla:

1. Mendebaldeko jatorrikoak ondo onartzen dira: Mendebaldeko EBkoak, Argentinakoak eta AEBkoak ere bai.
2. Jatorri latinoak eta asiarrak (txinatarra bada) ere naturaltasunez onartzen dira.
3. Kulturalki urruntzen joan ahala, eragozpenak agertzen dira, eta jatorri afrikarra dutenekin, pakistandarrekin, errumaniarrekin eta magrebtarrekin espazioak partekatzeko arbuioa eta zuhurtzia handitu egiten dira.

Mailaketa hori bete-betean bat dator jatorri batzuek eta besteek eragiten duten begikotasun-mailarekin (ikusi 264 orria).

47. GRAFIKOA: BIZIKIDETZA-MAILA ETORKINEKIN AUZO EDO ETXEBIZITZA-BLOKE BEREAN. **AÑANAKO KUADRILLA (%)**




Iturria: Geuk egina

Añanako kuadrillako biztanleei galdetu diegu ea prest dauden auzoan edo etxebizitza-bloke berean jatorri desberdinetako etorkinekin bizitzeko, eta erantzunetan ikusten da jatorrietako batzuk hobeto onartzen direla:

1. Mendebaldeko jatorriak begi onez ikusten dira: Mendebaldeko EB, Argentina
2. Naturaltasunez onartzen dira jatorri hauek: latinoak, AEB, Saharaz hegoaldeko Afrika, edo asiarrak (txinatarra bada).
3. Kultura zenbat eta gehiago urrundu, gero eta kautela eta errefusa gehiago jatorri errumaniar, magrebtar edo pakistandarreko pertsonekin espazioak partekatzen.

Mailakatze hori eta herritarrek gogokoen dituzten jatorri desberdinen mailakatzea antzekoak dira (ikusi 264 diapositiba).

48. GRAFIKOA: BIZIKIDETZA-MAILA ETORKINEKIN AUZO EDO ETXEBIZITZA-BLOKE BEREAN. **ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA (%)**




Iturria: Geuk egina

Arabako Lautadako kuadrillako biztanleei galdetu diegu ea prest dauden auzoan edo etxebizitza-bloke berean jatorri desberdinetako etorkinekin bizitzeko, eta erantzunetan ikusten da jatorrietako batzuk hobeto onartzen direla:

1. Mendebaldeko jatorriak begi onez ikusten dira: Mendebaldeko EB
2. Naturaltasunez onartzen dira jatorri hauek: latinoak, AEB, Saharaz hegoaldeko Afrika, edo asiarra (txinatarra bada).
3. Kultura zenbat eta gehiago urrundu, gero eta kautela eta traba gehiago jatorri afrikar, pakistandar, errumaniar edo magrebtarreko pertsonekin espazioak partekatzen.

Mailakatze hori, oso polarizatuta egon arren, herritarrek gogokoen dituzten jatorri desberdinen mailakatzearen antzekoa da (ikusi 264 diapositiba).

49. GRAFIKOA: BIZIKIDETZA-MAILA ETORKINEKIN AUZO EDO ETXEBIZITZA-BLOKE BEREAN. AIARAKOA KUADRILLA(%)




Iturria: Geuk egina

Aiarako kuadrillako biztanleei galdetu diegu ea prest dauden auzoan edo etxebizitza-bloke berean jatorri desberdinetako etorkinekin bizitzeko, eta erantzunetan ikusten da jatorrietako batzuk hobeto onartzen direla:

1. Mendebaldeko jatorriak begi onez ikusten dira: Mendebaldeko EB, argentinarra barne.
2. Naturaltasunez onartzen dira jatorri hauek: latinoak, AEB, Saharaz hegoaldeko Afrika, edo asiarra (txinatarra bada)
3. Kultura zenbat eta gehiago urrundu, gero eta kautela eta traba gehiago jatorri afrikar, magrebtar, pakistandar edo errumaniarreko pertsonekin espazioak partekatzen.

Mailakatze hori eta herritarrek gogokoen dituzten jatorri desberdinen mailakatzea antzekoak dira (ikusi 265 diapositiba).

50. BIZIKIDETZA-MAILA ETORKINEKIN AUZO EDO ETXEBIZITZA-BLOKE BEREAN. **KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEA (%)**




Iturria: Geuk egina

Kanpezu-Arabako Mendialdeko kuadrillako biztanleei galdetu diegu ea prest dauden auzoan edo etxebizitza-bloke berean jatorri desberdinetako etorkinekin bizitzeko, eta erantzunetan ikusten da jatorrietako batzuk hobeto onartzen direla:

1. Mendebaldeko jatorriak begi onez ikusten dira: Mendebaldeko EB
2. Naturaltasunez onartzen dira jatorri hauek: Argentina, Saharaz hegoaldeko Afrika edo Brasil.
3. Hasi dira jatorri latinekoei edo errumaniarrekoei trabak ipintzen
4. Baldintzak jartzen zaizkie jatorri asiarrak, txinatar eta pakistandarrekoei eta AEBekoei.
5. Gaitzespen handia dago magrebtar jatorriko pertsonen aurka.

Mailakatze hori eta herritarrek gogokoen dituzten jatorri desberdinen mailakatzea antzekoak dira (ikusi 265 diapositiba), ñabardurak gorabehera.

51. GRAFIKOA: BIZIKIDETZA-MAILA ETORKINEKIN AUZO EDO ETXEBIZITZA-BLOKE BEREAN. **GORBEIALDEKO KUADRILLA (%)**




Iturria: Geuk egina

Gorbeialdeko kuadrillako biztanleei galdetu diegu ea prest dauden auzoan edo etxebizitza-bloke berean jatorri desberdinetako etorkinekin bizitzeko, eta erantzunetan ikusten da jatorrietako batzuk hobeto onartzen direla:

1. Mendebaldeko jatorriak begi onez ikusten dira: Mendebaldeko EB, Argentina.
2. Saharaz hegoaldeko Afrikakoak eta jatorri latinoko batzuk naturaltasunez onartzen dira, baina beste batzuk ez hainbeste, hala nola AEB, latino batzuk, errumaniarrak, asiarrak, magrebtarrak...

Mailakatze hori eta herritarrek gogokoen dituzten jatorri desberdinen mailakatzea antzekoak dira (ikusi 265 diapositiba), ñabardurak gorabehera.

52. GRAFIKOA: BIZIKIDETZA-MAILA ETORKINEKIN AUZO EDO ETXEBIZITZA-BLOKE BEREAN. **GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA (%)**




Iturria: Geuk egina

Guardia-Arabako Errioxako kuadrillako biztanleei galdetu diegu ea prest dauden auzoan edo etxebizitza-bloke berean jatorri desberdinetako etorkinekin bizitzeko, eta erantzunetan ikusten da jatorrietako batzuk hobeto onartzen direla:

1. Mendebaldeko jatorriak begi onez ikusten dira: Mendebaldeko EB
2. Saharaz hegoaldeko Afrikako jatorria, latina, errumaniarra... ondo onartzen dira, zenbait erreparorekin.
3. Eta erreparo gehiagorekin jatorri hauek: Txina, latino batzuk, AEB, Magreb (gaitzespen handia) eta Pakistan.

Mailakatze hori eta gogokoen dituzten jatorri desberdinen mailakatzea antzekoak dira (ikusi 265 diapositiba), ñabardurak gorabehera.

53. GRAFIKOA: BIZIKIDETZA-MAILA ETORKINEKIN AUZO EDO ETXEBIZITZA-BLOKE BEREAN. GASTEIZKO KUADRILLA (%)




Iturria: Geuk egina

Gasteizko kuadrillako biztanleei galdetu diegu ea prest dauden auzoan edo etxebizitza-bloke berean jatorri desberdinetako etorkinekin bizitzeko, eta erantzunetan ikusten da jatorrietako batzuk hobeto onartzen direla:

1. Mendebaldeko jatorriak begi onez ikusten dira: Mendebaldeko EB, Argentina, AEB
2. Naturaltasunez onartzen dira jatorri latinoak, asiarrak (txinatarra bada) eta Saharaz hegoaldeko Afrikakoa.
3. Erreparo handienak pakistandar, errumaniar eta magrebtar jatorriko pertsonentzat dira.

Mailakatze hori eta gogokoen dituzten jatorri desberdinen mailakatzea antzekoak dira (ikusi 266 diapositiba).

54. GRAFIKOA: BESTE TALDE ETNIKO BATZUETAKO ETORKINEK ABERASTU EGITEN DUTE EUSKADIKO BIZITZA KULTURALA (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako gizarteak argi du beste talde etniko batzuetako etorkinak etortzeak aberastu egiten duela Euskadiko bizitza kulturala. Ehunekoa EAEko ehunekoaren antzekoa da: 3tik 2 pertsona inguruk uste dute hori.

Aurreko urteekin alderatuta, 2008an eta 2013an item hau pixka bat ezberdin formulatuta zegoen arren, badirudi baieztza dezakegula Arabako gizartearen jarrera hobetu egin dela 2008tik.

Kuadrillaka, Gasteizkoa nabarmentzen da, kultura aldetik bertakoek estimatzen baitute gehien etorkinak etortzea; Kanpezu-Arabako Mendialdea, berriz, ez dio onurarik ikusten etorrera horri.

55. GRAFIKOA: EUSKAL GIZARTEAREN USTEZ, HOBE DA GIZARTEA OSATZEN DUGUN PERTSONA GUZTIOK OHITURA ETA TRADIZIO BERBERAK IZATEA (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako gizarteak ez du uste beharrezkoa denik gizarte osoak ohitura eta tradizio berberak izatea: hori diote %44,8k. 2008tik, handituz joan da dibertsitatearekin eroso egoteko jarrera hori dutenen ehunekoa. Euskal gizarteari dagokionez, jarraia horri dagozkion kopuruak alderantzikatu egiten dira, ohikoena baita pentsatzea hobe dela gizartearen denek ohitura eta tradizio berberak izatea.

Kuadrillaka, Gasteizkoa nabarmentzen da, erosoena hura baitago dibertsitatearekin; Kanpezu-Arabako Mendialdea eta Gorbeialdea, berriz, kontrakoagatik nabarmentzen dira: gizarte gisa ohitura eta tradizio berberak izatea nahiago izateagatik, alegia.

56. GRAFIKOA: EUSKAL GIZARTEAREN USTEZ, HOBE DA GUZTIEK, ETORKINEK NAHIZ BERTAKOEK, HARRERA-HERRIALDEKO HIZKUNTZAK HITZ EGITEA (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako gizarteko gehiengoak uste du hobe dela guztiek harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea. Alabaina, hori esaten dutenen kopurua (%52) euskal gizartean (%67,5) hori esaten dutenena baino txikiagoa da. Euskal gizarteak jarrera irmoagoa du gai honetan.

2013tik (itema formulatuta zegoen moduagatik, ezin da alderaketarik egin 2008ko datuekin) atzerakada nabari da jarrera honetan.

Kuadrillaka, Gasteizkoa nabarmentzen da, hark erakusten baitu desadostasunik handiena baieztapen honekin (%30,8); Arabako Mendialdea (%88) eta Gorbeialdea (%91), aldiz, euskal gizartearentzat gure hizkuntzak ezagutzea hobe dela pentsatzen dutelako nabarmentzen dira.

57. GRAFIKOA: ERABAT ONARTUAK IZATEKO, ETORKINEK ALDE BATERA UTZI BEHAR DITUZTE BEREN ERLIJIOKO ETA KULTURAKO ALDERDI BATZUK, GURE LEGEDIAREKIN TALKA EGITEN DUTELAKO (%)




Iturria: Geuk egina

Kasu honetan ere, Arabako gizarteak argi du bere jarrera: gehiengo zabal batek uste du, erabat onartuak izateko, etorkinek alde batera utzi behar dituztela gure legediarekin talka egiten duten beren erlijio eta kulturako alderdi batzuk. Euskal gizarteak jarrera berbera du, are adostasun handiagoarekin.

Aurreko urteekin alderatuta, Arabako gizartearen jarrera ez da aldatu.

Kuadrillaka, Kanpezu-Arabako Mendialdea, Gorbeialdea eta Guardia-Arabako Errioxa nabarmentzen dira, haiek baitute gai horri buruzko jarrera irmoena.

58. GRAFIKOA: EUOPARA ETORKINAK ETORTZEA OSO ERAGINKORRA IZAN DAITEKE, EUROPAKO BIZTANLERIAREN ZAHARTZEAREKIN LOTUTAKO ZENBAIT ARAZO KONPONTZEKO (%)




Iturria: Geuk egina

Nahiz eta jakin Euskadin arazo demografikoa larriak ditugula eta etorkinak, neurri batean, arazo horiek arintzen laguntzen ari direla (etortze hutsagatik eta jaiotza-tasa handiagoa izateagatik), Arabako gizartean ez da ikusten immigrazioa oso lagungarria izan daitekeela Europako biztanleriaren zahartzearekin lotutako arazoei aurre egiteko. Arabako biztanleen %56,4 bakarrik datoz bat baieztapenarekin, eta euskal gizartean ere oso antzekoa da ehunekoa (%56,5).

2013tik, jarrera horrek oso gutxi egin du gora.

Kuadrillaka, Kanpezu-Arabako Mendialdeko biztanleek sinesten dute hori gehien (%82 daude ados); aldiz, Aiaraldeko (%54) eta Gasteizko (%55,8) biztanleak dira ideia horrekin gutxien bat datozenak.

59. GRAFIKOA: EUSKADIN ELKARBIZITZA HOBEA LORTZEKO, ETORKINEK GURE OHITURA ETA TRADIZIOEI JARRAITZEKO AHALEGINA EGIN BEHAR LUKETE (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako gizarteak argi du, Euskadin elkarbizitza hobea lortu ahal izateko, etorkinek gure ohitura eta tradizioei jarraitzeko ahalegina egin behar luketela: hori esan dute %78,5ek. Euskal gizartean ere jarrera hori da nagusi, eta ez dago alde handirik ehunekoetan.

Aurreko urteetako jarrera berbera da, akaso, irmotasun pixka bat gutxiagorekin.

Kuadrillak, Kanpezu-Arabako Mendialdea (%99) eta Gorbeialdea (%95) nabarmentzen dira, haietan erakutsi baitute adostasunik handiena baieztapen horrekin.

60. GRAFIKOA: EUSKADIN ELKARBIZITZA HOBEA LORTZEKO, BERTAKO EK AHALEGIN BAT EGIN BEHAR LUKETE ETORKINEN ZENBAIT OHITURA ETA TRADIZIO EZAGUTZEKO ETA HORIETARA EGOKITZEKO (%)




Iturria: Geuk egina

Oro har, Arabako gizarteak ez du uste bertako biztanleek ahalegina egin behar dutenik gure herrialdera etortzen diren pertsonen ohiturak eta tradizioak ezagutzeko eta horietara egokitzeko. Euskal gizarteak ere iritzi hori du.

Aurreko urteekin alderatuta, jarrera ez da aldatu.

Kuadrillak, Gasteizko biztanleen kasua bakarrik da aipagarria, han baitituzte ideia horri buruzko zalantza gehien, nagusiki gainerako kuadrillen iritzi bera izan arren.

61. GRAFIKOA: ELKARBIZITZA HOBETZEKO, BEHARREZKOA DA DENOK EGITEA AHALEGIN BAT, ETORKINEK ETA BERTAKO EK (%)






Iturria: Geuk egina

Etorkinak jarri arren erdigunean, badirudi Arabako gizarteak onartzen duela, elkarbizitza hobetzeko, beharrezkoa dela pertsona guztiek elkarrekin egitea ahalegin bat, bertakoek nahiz etorkinek. Euskal gizartearen iritzia ere antzekoa da.

2013an baino aldeko gehiago ditu iritzi horrek.


Kuadrillaka, Kanpezu-Arabako Mendialdea, Gasteiz eta Aiaraldea dira gehien dau-denak prest etorkinekin batera ahalegin bat egiteko; aitzitik, Arabako Lautadan eta Guardia-Arabako Errioxan ez dute hain beharrezkoa ikusten elkarrekin ahalegin bat egiteko premia hori.



Eredu kulturalak mantentzea

5

62. GRAFIKOA: ONARTUKO NUKE, SAIHESTEN AHALEGINDUKO NINTZATEKE, UKO EGINGO NIOKE... ARABA (%)




Iturria: Geuk egina

Atzerritar etorkinen etorrera dela-eta, gure eguneroko errealitatea, eredu kulturalak, elkarrekin erlazionatzeko moduak eta pertsonen arteko harremanak aldatzen ari dira. Aldaketa horien aurrean, Arabako gizarteak erreazio ezberdinak ditu: gai batzuei dagokienez, hasiera batean, gogo onez hartzen ditu atzerritar jatorriko pertsonetikiko harremanak eta interakzioa; beste egoera batzuetan, berriz, uzkurrago agertzen da. Harremanak eremu publikoan direnean, Arabako gizarteak ulerko-rragoa da, eta onartzen ditu atzerritar jatorriko pertsonetikiko harremanak, baina eremu pribatuagoan, mesfidantza gehiago izaten du.

Arabako gizarteak gogo onez onartzen ditu lan-eremuko eta ikasketa-eremuko harremanak, bai eta seme-alabek etxera lagun etorkinak ekartzea ere. Alabaina, gehiago kostatzen zaio auzoa, etxepea eta seme-alaben eskola partekatzea.

63. GRAFIKOA: ONARTU, SAIHESTU EDO ERREFUSATUKO ZENUKE ETORKINEKIN LAN EGITEA EDO IKASTEA? (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako gizarteak oso gustura onartzen du etorkinekin lan egin edo ikastea, eta euskal gizarte osoko jarrera oso antzekoa da.

Kuadrillen arabera, Kanpezu-Arabako Mendialdeko gizarteak da mesfidatiena: % 51ek bakarrik onartuko luke, eta % 34 harreman hori saihesten saiatuko litzateke. Gorbeialdeko gizarteak (% 66 eta % 27, hurrenez hurren) eta Guardia-Arabako Errioxakoa ere mesfidatiak dira (% 66% eta % 26, hurrenez hurren). Beste muturrean, Vitoria-Gasteizko herritarren % 86,1ek gustura onartuko luke.

64. GRAFIKOA: ETORKIN BAT LANEKO NAGUSIA IZATEA ONARTU, SAIHESTU EDO ERREFUSATUKO ZENUKE? (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako gizarteak begi onez ikusten dira lan harreman hierarkikoak, nagusia jatorri atzeritarreko etorkina bada ere. EAEko gizarte osoan ere nagusi da jarrera da hori.

Kuadrillen arabera, Kanpezu-Arabako Mendialdeko gizarteak da mesfidatiena: % 51ek onartuko luke, eta % 33 saihesten saiatuko litzateke. Mesfidati azaltzen dira, baita ere, Gorbeialdea (% 64 eta % 27, hurrenez hurren) eta Guardia-Arabako Errioxa (% 63 eta % 25, hurrenez hurren). Beste muturrean, Vitoria-Gasteizen % 84,5ek begi onez ikusiko luke.

65. GRAFIKOA: ZURE SEME-ALABEK LAGUN ETORKINAK ETXERA ERAMATEA ONARTU, SAIHESTU EDO ERREFUSATUKO ZENUKE?(%)




Iturria: Geuk egina

Kasu honetan, Arabako biztanleei eremu pribatuarekin lotura handiagoa duen egoera bat aurkezten diegunean, jarrera permisiboa eta inklusiboa agertzen dute, eta adierazten dute begi onez ikusiko luketela seme-alabek lagun etorkinak etxera eramatea. EAEko gizartean ere gehiengoaren jarrera da, baina irmotasun gutxiagorekin.

Kuadrillen arabera, Kanpezu-Arabako Mendialdeko gizartea da mesfidatiena: % 31ek bakarrik onartuko luke eta % 45 saihesten saiatuko litzateke. Gorbeialdea ere mesfidati agertzen da (% 46 eta % 38, hurrenez hurren). Guardia-Arabako Errioxa ere mesfidati azaltzen da (% 59 eta % 32, hurrenez hurren). Beste muturrean, Vitoria-Gasteizen % 83,6k arazorik gabe onartuko luke.

66. GRAFIKOA: ETORKIN ASKO BIZI DEN AUZO EDO ETXEBIZITZA-BLOKEAN BIZITZEA ONARTU, SAIHESTU EDO ERREFUSATUKO ZENUKE?(%)




Iturria: Geuk egina

Auzo edo etxebizitza-bloke berean jatorri atzerritarreko etorkinekin bizitzea ez da hain begi onez ikusten: Arabako biztanleen % 55,6k bakarrik onartuko luke, eta % 23,6 argi eta garbi egoera ekiditen saiatuko litzateke. EAE osoan jarrerak antzekoak dira.

Kuadrillen arabera, erantzunak nahiko antzekoak dira, baina estatistikak ikusita, Guardia-Arabako Errioxa eta Vitoria-Gasteiz nabarmentzen ditugu; izan ere, lehenengoan, % 39 (kopururik handiena) saiatuko litzateke egoera hori ekiditen, eta bigarreanean, % 22,1 (kopururik txikiena).

67. GRAFIKOA: ONARTU, SAIHESTU EDO ERREFUSATUKO ZENUKE ZURE SEME-ALABAK ETORKINEN SEME-ALABA ASKO DAUDEN IKASTETXE BATERA ERAMATEA? (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako gizartearen erdiak baino apur bat gehiagok begi onez ikusiko luke seme-alaben ikastetxean etorkinen seme-alabak egotea; hala ere, % 21,7 egoera hori ekiditen saiatuko litzateke, eta % 11,2k argi eta garbi uko egingo lioke egoera horri. EAE osoko gizartearen antzeko jarrerak daude, eta kautela gehiago ere bai (% 16,8k uko egingo lioke egoera horri).

Kuadrillen arabera, erantzunak nahiko antzekoak dira, baina estatistikak ikusita, Arabako Lautada nabarmentzen dugu, egoera horren aurrean duen jarrera irekiagatik: % 71k begi onez ikusiko luke baina % 7k ez. Vitoria-Gasteizko biztanleria ez da hain mesfidatia: % 54,9k begi onez ikusiko luke baina % 9,2k ez. Beste alde batetik, Kanpezu-Arabako Mendialdean eta Gorbeialdean jarrerak gogorragoak dira: lehenengoan, % 15ek bakarrik onartuko luke eta % 44k uko egingo lioke; bigarreanean, % 21ek onartuko luke baina % 37k ez.

68. GRAFIKOA: NOLA IKUSTEN DITUZU ATZERRITAR PERTSONAK BERTAKOEKIN ALDERATUTA. ARABA (%)




Iturria: Geuk egina

Oro har, Arabako biztanleek ez dituzte euskaldunen aldean oso ezberdinak ikusten atzerritar jatorriko pertsonak. Nahiz eta, akaso, iritzi zertxobait hobea izan bertako pertsonen kolektiboari buruz, gehienek uste dute atzerritar jatorriko pertsonak bertakoak bezain adeitsuak, solidarioak, langileak, ondraduak eta arduratsuak direla. Badirudi gauza bakar batek bereizten gaituela: bertako biztanleak ez dira atzerritar jatorrikoak bezain matxistatzat jotzen.

Hurrengo diapositibetan ikusiko dugun bezala, EAEko biztanleek ere Arabako en oso antzeko pertzepzioa dute.

69. GRAFIKOA: NOLA IKUSTEN DITUZU PERTSONA ATZERRITARRAK EUSKALDUNEKIN ALDERATUTA?. MATXISTAK (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako biztanleriak uste du atzerritarrak bertakoak baino matxistagoak direla, euskal biztanleriaren pertzepzioarekin bat etorritz; 2008an galdera hori egin genuenetik, ez da aldaketa aipagarririk izan.

Kuadrillen arabera, Kanpezu-Arabako Mendialdeko kuadrilla eta Guardia-Arabako Errioxako kuadrilla nabarmentzen dira uste hori sendoagoa izateagatik; bestalde, Gasteizko kuadrilla da bi biztanlerien (bertakoak eta atzerritarrak) artean alde gutxien agertzen duena.

70. GRAFIKOA: NOLA IKUSTEN DITUZU PERTSONA ATZERRITARRAK EUSKALDUNEKIN ALDERATUTA?
ADEITSUAK (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako biztanleriak uste du atzerritarrak bertakoak bezain adeitsuak direla, euskal biztanleriaren pertzepzioarekin bat etorritik; 2008an galdera hori egin genuenetik, ez da aldaketa aipagarriarik izan. Izatekotan, elkar ezagutzen joan ahala, guztien adeitasun maila berdina dela argiago geratzen da.

Kuadrillen arabera, Aiara bako bako nabarmendu dezakegu, gehien ustez atzerritarrak ez direlako euskaldunak bezain adeitsuak.

71. GRAFIKOA: NOLA IKUSTEN DITUZU PERTSONA ATZERRITARRAK EUSKALDUNEKIN ALDERATUTA?
SOLIDARIOAK (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako biztanleriak uste du atzerritarrak bertakoak bezain solidarioak direla, euskal biztanleriaren pertzepzioarekin bat etorritik; 2008an galdera hori egin genuenetik, ez da aldaketa aipagarriarik izan. Izatekotan, elkar ezagutzen joan ahala, argiago geratzen da solidaritateari dagokionez guztiok berdina gaita.

Kuadrillen arabera, Kanpe-Arabako Mendialdeko kuadrilla eta Guardia-Arabako Errioxako kuadrilla nabarmentzen dira, beraietan zabalduago dagoelako atzerritarrak bertakoak bezain solidarioak ez diren ustea; bestalde, Gasteizko kuadrilla da bi biztanlerien (bertakoak eta atzerritarrak) artean alde gutxien duena.

72. GRAFIKOA: NOLA IKUSTEN DITUZU PERTSONA ATZERITARRAK EUSKALDUNEKIN ALDERATUTA?
LANGILEAK (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako biztanleriak uste du atzerritarrak bertakoak bezain langileak direla, euskal biztanleriaren pertzepzioarekin bat etorritik (EAEko biztanleriak argiago dauka); 2013. urtetik ez da aldaketa aipagarrik izan.

Kuadrillen arabera, Aiara bako bakarrik nabarmendu dezakegu, bertan oso zabaldu-ta baitago atzerritarrak euskaldunak bezain langileak ez diren sentazioa.

73 GRAFIKOA: NOLA IKUSTEN DITUZU PERTSONA ATZERITARRAK EUSKALDUNEKIN ALDERATUTA?
ZINTZOAK (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako biztanleriak uste du atzerritarrak bertakoak bezain zintzoak direla, euskal biztanleriaren pertzepzioarekin bat etorritik (agian EAEko gizarteak pixka bat argia-go dauka); 2013. urtetik ez da aldaketa aipagarrik izan. Izatekotan, elkar ezagutzen joan ahala, argiago geratzen da zintzotasunari dagokionez guztiok berdinak garela.

Kuadrillen arabera, Gasteizko kuadrilla nabarmentzen da, bi biztanlerien artean (bertakoak eta atzerritarrak) alde gutxien duena izateagatik.

74. GRAFIKOA: NOLA IKUSTEN DITUZU PERTSONA ATZERRITARRAK EUSKALDUNEKIN ALDERATUTA?
ARDURATSUAK (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako biztanleriak uste du atzerritarrak bertakoak bezain arduratsuak direla, euskal biztanleriaren pertzepzioarekin bat etorriz. Aurreko urteekin alderatuta, badirudi pertsona atzerritarrak ezagutzen joan ahala argiago geratzen dela guztiok berdinak garela, arduratsuak izateari dagokionez.

Kuadrillen arabera, Kanpezu-Arabako Mendialdeko kuadrilla nabarmentzen da, atzerritarrak bertakoak bezain arduratsuak ez diren iritzia baita zabalduena; bestalde, Gasteizko kuadrilla da bi biztanlerien artean (bertakoak eta atzerritarrak) alde gutxien nabaritzen dituen.

75. GRAFIKOA: ETORKINEN EREDU KULTURALEKIKO TOLERANTZIA-MAILA. ARABA (%)




Iturria: Geuk egina

Atzerritar jatorriko etorkinak gure inguruan akaso eragiten ari diren eredu kulturalen aldaketari dagokionez, Arabako gizartea irekita ageri da aldaketa horietako batzuk onartzeko, baina gaitzetsi egiten ditu beste batzuk.

Oso ondo iruditzen zaio saltoki propioak izatea, sukaldaritza exotikoa duten jate-txeak irekitzea eta elikagai-denda propioak izatea. Onartzen du atzerritarrek beren hizkuntzan hitz egitea eta espazio publikoak erabiltzea ere. Eztabaida eta zatiketa handiagoak eragiten du, ordea, etorkinek beren erlijioentzat tenpluak izateak eta beren jatorrizko herrialdeko janzkera izateak. Arabako gizarteari gaizki iruditzen zaio etorkinek irakaskuntza-zentro propioak izatea.

Aurreko urteekin alderatuta, Arabako gizartearen tolerantzia da aztertutako zenbait alderditan, baina ez, ordea, aipatutako azken hiru horietan: tenplu erlijiosoak, jatorrizko janzkera eta hezkuntza-zentro propioak. Horiei buruzko jarrerak ez dira aldatu 2013tik.

76. GRAFIKOA: TOLERANTZIA-MAILA BIZTANLERIA ATZERRITARRAREN KULTURA-EREDUEN AURREAN.
AÑANAKO KUADRILLA (%)




Iturria: Geuk egina

Jatorri atzerritarreko biztanleriak gure inguruko kultura-ereduetan eragindako aldaketei dagokienez, Añanako biztanleria irekita agertzen da aldaketa horietako batzuen aurrean, baina beste batzuk gaitzesten ditu.

Biztanleei primeran iruditzen zaie atzerritarrek beren saltokiak izatea, sukaldaritza exotikoko jatetxeak irekitzea eta elikagai-dendak edukitzea. Horrez gain, onartzen dute atzerritarrek beren hizkuntzak erabiltzea, erlijioentzako tenpluak izatea eta espazio publikoak erabiltzea. Hala ere, gaitzesten dute, eta gehiengoari gaizki iruditzen zaio, atzerritarrek ikastetxe propioak izatea eta beren jatorrizko herrialdeetan bezala janztea.

77. GRAFIKOA: TOLERANTZIA-MAILA BIZTANLERIA ATZERRITARRAREN KULTURA-EREDUEN AURREAN.
ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA (%)




Iturria: Geuk egina

Jatorri atzerritarreko biztanleriak gure inguruko kultura-ereduetan eragindako aldaketei dagokienez, Arabako Lautadako kuadrillako biztanleria irekita agertzen da aldaketa horietako batzuen aurrean, baina beste batzuk gaitzesten ditu.

Biztanleei primeran iruditzen zaie atzerritarrek beren saltokiak izatea, sukaldaritza exotikoko jatetxeak irekitzea eta elikagai-dendak edukitzea. Horrez gain, onartzen dute atzerritarrek beren hizkuntzak erabiltzea, erlijioentzako tenpluak izatea eta espazio publikoak erabiltzea. Jatorrizko herrialdeetan bezala jantzeak, ordea, eztabaida eta desadostasun handiagoa eragiten du. Gainera, argi eta garbi gaitzesten dute, eta gehiengoari gaizki iruditzen zaio, atzerritarrek ikastetxe propioak izatea.

78. GRAFIKOA: TOLERANTZIA-MAILA BIZTANLERIA ATZERRITARRAREN KULTURA-EREDUEN AURREAN.
AIARAKO KUADRILLA (%)




Iturria: Geuk egina

Jatorri atzerritarreko biztanleriak gure inguruko kultura-ereduetan eragindako aldaketei dagokienez, Aiarako kuadrillako biztanleria irekita agertzen da aldaketa horietako batzuen aurrean, baina beste batzuk gaitzesten ditu.

Biztanleei primeran iruditzen zaie atzerritarrek beren saltokiak izatea, sukaldaritza exotikoko jatetxeak irekitzea eta elikagai-dendak edukitzea. Horrez gain, onartzen du atzerritarrek beren hizkuntzak erabiltzea, edota espazio publikoak okupatzea eta erabiltzea. Eztabaida handiagoa eragiten du beren erlijioentzako tenpluak izateak, eta horri buruz iritzi desberdin ugari daude. Bestalde, ez dute begi onez ikusten jatorrizko herrialdeetan bezala jantzea, eta, are gutxiago ikastetxe propioak izatea.

79. GRAFIKOA: TOLERANTZIA-MAILA BIZTANLERIA ATZERRITARRAREN KULTURA-EREDUEN AURREAN. KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA (%)




Iturria: Geuk egina

Jatorri atzerritarreko biztanleriak gure inguruko kultura-ereduetan eragindako aldaketei dagokienez, Kanpezu-Arabako Mendialdeko kuadrillako biztanleria irekita agertzen da aldaketa horietako batzuen aurrean, baina beste batzuk gaitzesten ditu.

Biztanleei primeran iruditzen zaie atzerritarrek beren saltokiak izatea eta sukaldaritza exotikoko jatetxeak irekitzea. Horrez gain, onartzen dute elikagai-denda propioak izatea eta beren hizkuntzan hitz egitea. Hala ere, iritzi desberdin ugari daude espazio publikoak okupatu eta erabiltzeari eta beren erlijioentzako tenpluak izateari dagokionez. Gainera, argi eta garbi gaitzesten dute atzerritarrek ikastetxe propioak izatea eta beren jatorrizko herrialdeetan bezala jantzea.

80. GRAFIKOA: TOLERANTZIA-MAILA BIZTANLERIA ATZERRITARRAREN KULTURA-EREDUEN AURREAN. GORBEIALDEKO KUADRILLA (%)




Iturria: Geuk egina

Jatorri atzerritarreko biztanleriak gure inguruko kultura-ereduetan eragindako aldaketei dagokienez, Gorbeialdeko kuadrillako biztanleria irekita agertzen da aldaketa horietako batzuen aurrean, baina beste batzuk gaitzesten ditu.

Biztanleei primeran iruditzen zaie beren saltokiak izatea, sukaldaritza exotiko-jatetxeak irekitzea eta elikagai-dendak edukitzea. Horrez gain, onartzen dute atzerritarrek beren hizkuntzak hitz egitea eta espazio publikoak erabiltzea, baina gaitzespena sumatzen da atzerritarrek erlijioentzako tenpluak izateari buruz hitz egitean. Bestalde, begi txarrez ikusten dute jatorrizko herrialdeetan bezala janztea eta ikastetxe propioak edukitzea, gai horietan jarrera irmoagoa izanik.

81. GRAFIKOA: TOLERANTZIA-MAILA BIZTANLERIA ATZERRITARRAREN KULTURA-EREDUEN AURREAN.
GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA (%)




Iturria: Geuk egina

Jatorri atzerritarreko biztanleriak gure inguruko kultura-ereduetan eragindako aldaketei dagokienez, Guardia-Arabako Errioxako kuadrillako biztanleria irekita agertzen da aldaketa horietako batzuen aurrean, baina beste batzuk gaitzesten ditu.

Biztanleei primeran iruditzen zaie atzerritarrek beren saltokiak izatea eta sukaldaritza exotikoko jatetxeak irekitzea. Horrez gain, begi onez ikusten dute atzerritarrek beren elikagai-dendak izatea eta beren hizkuntzan hitz egitea, baita espazio publikoa okupatzea eta erabiltzea ere. Hala ere, gehiengoak gaitzesten du atzerritarrentzat tenplu erlijiosoak eraikitzea, eta, argiago, ikastetxe propioak izatea eta beren jaioterrietan bezala janztea.

82. GRAFIKOA: TOLERANTZIA-MAILA BIZTANLERIA ATZERRITARRAREN KULTURA-EREDUEN AURREAN. GASTEIZKO KUADRILLA (%)




Iturria: Geuk egina

Jatorri atzerritarreko biztanleriak gure inguruko kultura-ereduetan eragindako aldaketei dagokienez, Gasteizko biztanleria irekita agertzen da aldaketa horietako batzuen aurrean, baina beste batzuk gaitzesten ditu.

Biztanleei primeran iruditzen zaie atzerritarrek beren saltokiak izatea, sukaldaritza exotikoko jatetxeak irekitzea eta elikagai-dendak edukitzea. Horrez gain, begi onez ikusten dute atzerritarrek beren hizkuntza erabiltzea, edota espazio publikoak okupatzea eta erabiltzea, baita beren erlijioentzako tenpluak eraikitzea eta jatorrizko herrialdeetan bezala jantzea, nahiz eta azken bi gai horiek eztabaida handiagoa piztu. Hala ere, ez zaie ondo iruditzen atzerritarrek ikastetxe propioak izatea, eta hori gehiengoari gaizki iruditzen zaio.

83. GRAFIKOA: TOLERANTZIA-MAILA BIZTANLERIA ATZERRITARRAREN KULTURA-EREDUEN AURREAN. KUADRILLAK, ARABA ETA EAE ("ONDO IRUDITZEN ZAIE" %)




Iturria: Geuk egina

Oro har, hiru gai horiei buruz Arabako biztanleriak duen iritzia eta EAE osoko biztanleriaren oso antzekoak dira.

Gainera, ikus dezakegunez, kuadrilla guztietan, intentsitate handiago edo txikia-goarekin, begi onez ikusten dira gure inguru hurbileko kultura-ereduetan izandako aldaketa horiek. Izan ere, estatistikan ez dago alde adierazgarririk. Kanpezu-Arabako Mendialdeko kuadrillan baino ez dago erresistentzia pixka bat handiagoa beren jatorrizko produktuen elikagai-dendak edukitzea onartzeko.

84. GRAFIKOA: TOLERANTZIA-MAILA BIZTANLERIA ATZERRITARRAREN KULTURA-EREDUEN AURREAN. KUADRILLAK, ARABA ETA EAE ("ONDO IRUDITZEN ZAIE" %)




Iturria: Geuk egina

Kultura-eredu horien onartze-mailari dagokionez ere ez dugu portaera ezberdinik ikusten Arabako biztanleriaren eta euskal biztanleria osoaren artean.

Hala ere, ezberdintasun batzuk ikusten ditugu kuadrillen artean: 1) beren jatorrizko janzkera erabiltzeari dagokionez, Kanpezu-Arabako Mendialdean, Gorbeialdean eta Guardia-Arabako Errioxan erresistentzia ugari ikusten dira; kontrako muturrean, Vitoria-Gasteiz eta Arabako Lautadako kuadrillak daude, ulerkorragoak izateagatik; 2) espazio publikoen erabilerari dagokionez, berriz ere Kanpezu-Arabako Mendialdeko kuadrilla da aldaketen aurrean erresistentzia handien agertzen duena, eta Vitoria-Gasteizkoa da naturaltasun handienarekin onartzen duena.

Beren hizkuntza erabiltzeari dagokionez, ez dugu alde nabarmenik ikusten.

85. GRAFIKOA: TOLERANTZIA-MAILA BIZTANLERIA ATZERRITARRAREN KULTURA-EREDUEN AURREAN. KUADRILLAK, ARABA ETA EAE ("ONDO IRUDITZEN ZAIE" %)




Iturria: Geuk egina

Gai horietan ere ez dugu alderik ikusten Arabako biztanleriaren eta euskal biztanleriaren artean.

Bi gai horiek eztabaida handiena eragiten dutenen artean daude, eta haiei buruzko jarrerai dagokienez, kuadrillen artean alde gutxi ikusten dugu. Beren erlijioentzako tenpluak eraikitzea onartzeari buruz iritzi desberdin ugari daude kuadrilla guztietan, batzuetan gehiengoa alde eta besteetan kontra izanik. Iritzi orokorretik pixka bat aldentzen den bakarra Kanpezu-Arabako Mendialdeko kuadrilla da, gainerakoek baino gaitzespen handiagoa agertzen baitu.

Jatorri atzerritarreko pertsonak ikastetxe propioak edukitzeari dagokionez, dagoeneko ikusi dugu kuadrilla gehienetan gaitzespen handiena eragiten duen gaia dela, kasu guztietan gehiengoa kontra agertzen baita. Gorbeialdea eta Kanpezu-Arabako Mendialdeko kuadrillak dira aurkakotasun handiena erakusten dutenak.

86. GRAFIKOA: BESTE KULTURA ETA ERLIJIO BATZUETAKO PERTSONAK ETORTZEAK JANTZI-OHITURA EZBERDINAK EKARRI DITU EUSKADIRA. EGOKIAK IRUDITZEN ZAIZKIZU GURE GIZARTERAKO, ALA EZ? ARABA (%)




Iturria: Geuk egina

Atzerriko etorkinek erabiltzen dituzten zenbait jantzik, gehienbat gai erlijiosoekin lotutakoek, dibertsitatea ekarri dute gure hiri, herri eta auzoetara. Zenbaitetan, erabilera horrek mesfidantza eragiten du, eta zenbait gatazka ere sortu ditu. Orain arte, aldean borondateari esker, gatazka horiek konpontzea lortu da, hobeto edo okerrago, eta ez dira larriagotu. Arabako gizarteak atzerritarren janzkerarekin lotutako zenbait sinboloren aurrean duen sentsibiltatea neurtu nahi izan dugu. Bost jantziri buruz galdetu dugu: kippa, hijaba, txadorra, nikaba eta burka.

Oro har, Arabako gizarteari egokia iruditzen zaio kippaba eta hijaba erabiltzea, baina ez txadorra, eta are gutxiago nikaba eta burka. Azken bi jantzi horiek asko gaitzesten dira. Badirudi, jantziak aurpegia ezkutatzen ez duen bitartean eta Mendebaldeko aire bat duen bitartean, onartu egiten dela, baina inondik inora ez dela onartzen pertsonaren (emakumea) aurpegia ezkutatzea.

EAEen, jarrerak antzekoak dira, akaso zertxobait laxoagoak.

87. GRAFIKOA: BESTE KULTURA ETA ERLIJIO BATZUETAKO PERTSONEK EUSKADIRA BESTE JANZKERA BATZUK EKARRI DITUZTE. GURE GIZARTEAN EGOKIAK EDO DESEGOKIAK IRUDITZEN ZAIZKIZU? **KIPPA** (%)




Iturria: Geuk egina

Kippa ondo onartzen da eta egokia iruditzen zaie kuadrilla guztietako biztanleei, portaerari dagokionez alde adierazgarriarik egon gabe. Kippa kuadrilla guztientzat egokia da, lau pertsonatik batek desadostasuna adierazten badu ere.

Egia da gure gizartearen oso gutxi ikusten dela.

88. GRAFIKOA: BESTE KULTURA ETA ERLIJIO BATZUETAKO PERTSONEK EUSKADIRA BESTE JANZKERA BATZUK EKARRI DITUZTE. GURE GIZARTEAN EGOKIAK EDO DESEGOKIAK IRUDITZEN ZAIZKIZU, **HIJABA** (%)




Iturria: Geuk egina

Hijaba ere ondo onartua dago, eta EAE, Araba eta kuadrilla guztietako biztanleen-tzat egokia dirudi. Kasu honetan, portaerari dagokionez, alde nabarmenak ikusten ditugu, Gasteizko biztanleek gainerako kuadrilletakoek baino desadostasun handiagoa adierazten baitu. Dena dela, kuadrilla guztientzat hijaba egokia da, Arabako hiru pertsonatik batek desadostasuna adierazten badu ere.

Herri mailan zapi edo belo islamikoa deitutakoa ohikoagoa da gure inguruan, eta, batzuetan, eztabaidak eragin ditu. Arabako gizartea ez da EAEkoa bezain permissibo (ez ahaztu Araba dela Ipar Afrikako pertsona islamiar gehien dituen lurraldea).

89. GRAFIKOA: BESTE KULTURA ETA ERLIJIO BATZUETAKO PERTSONEK EUSKADIRA BESTE JANZKERA BATZUK EKARRI DITUZTE. GURE GIZARTEAN EGOKIAK EDO DESEGOKIAK IRUDITZEN ZAIZKIZU? **TXADORRA** (%)




Iturria: Geuk egina

Txadorra gutxi ikusten da gure inguruan. Arabako gizartean iritzi desberdin ugari daude gai horretan, baina gehiengoarentzat jantzi hori ez da egokia: Arabako gizartean % 55,5 kontra eta % 42,0 alde dago. EAE osoan ere gehiago dira desegokia dela dioten pertsonak, baina ez horrenbesteko intentsitatearekin.

Kuadrillen arabera, Kanpezu-Arabako Mendialdea eta Gorbeia joera nagusitik aldentzen dira, eta, zalantzarik gabe, permisiboenak dira: kuadrilla horietako biztanleriaren gehiengoak uste du txadorra egokia dela. Kontrako muturrean, Vitoria-Gasteizkoa da gaitzespen handiena agertzen duen kuadrilla.

90. GRAFIKOA: BESTE KULTURA ETA ERLIJO BATZUETAKO PERTSONEK EUSKADIRA BESTE JANZKERA BATZUK EKARRI DITUZTE. GURE GIZARTEAN EGOKIAK EDO DESEGOKIAK IRUDITZEN ZAIZKIZU?, **NIKABA** (%)




Iturria: Geuk egina

Nikabari dagokionez, Arabako biztanleria kontra dago argi eta garbi: biztanleriaren % 82,7k desegokitzen jotzen du, euskal gizarte osoarekin bat etorritik.

Kuadrilla bakoitzari buruzko datuak aztertuz gero, ikus dezakegu guztietan gehiengoak nikabaren aurka dagoela eta desegokitzen jotzen duela, portaerari dagokionez kuadrillen artean alde adierazgarriarik gabe.

91. GRAFIKOA: BESTE KULTURA ETA ERLIJO BATZUETAKO PERTSONEK EUSKADIRA BESTE JANZKERA BATZUK EKARRI DITUZTE. GURE GIZARTEAN EGOKIAK EDO DESEGOKIAK IRUDITZEN ZAIZKIZU?, **BURKA** (%)




Iturria: Geuk egina

Azkenik, burkak nikabaren erreakzio bera eragiten du: gehiengoak gaitzesten du. Euskal gizartearen, Arabako gizartearen eta kuadrilla bakoitzeko hiritarren gehiengoak arropa horren kontra agertzen da.

Gasteizko kuadrillan dago burka egokitzen jotzen duen pertsona-kopuru txikiena.

92. GRAFIKOA: EUSKAL GIZARTEAREN KONFIANTZA-MAILA ISLAMAREKIKO (0 ERABATEKO MESFIDANTZA, 10 ERABATEKO KONFIANTZA)




Iturria: Geuk egina

Testuinguru batzuetan, "islamofobia" aipatzen da, islamarekin lotutako guztiaren aurrean aurreiritzi negatiboz betetako jarrerak deskribatzeko: sinbolo erlijiosoak, zenbait jantzi, islamaren jarraitzaileak, arabiera eta beste zenbait hizkuntza eta abar.

Illo horretatik, gai hori ere jaso nahi izan dugu, eta inkesta egin diegun pertsonari eskatu diegu islamak euskal gizartearen eragiten duen sentimenduari buruzko pistentak emateko. Ikus daitekeenez, emaitzek erakusten dute Arabako gizartearen iritziz, euskal gizartearen iritziz bezala, islamak mesfidantzasantimenduak eragiten dituela gure gizartearen.


Gasteizko kuadrillako biztanleek dute mesfidantzarik gutxien; beste muturrean daude, berriz, Kanpezu-Arabako Mendiialdeko eta Guardia-Arabako Errioxako biztanleak.



Begikotasun-maila

6

93. GRAFIKOA: BEGIKOTASUN-MAILA JATORRI NAGUSIEKIKO. ARABA ETA EAE (0 BATERE BEGIKOTASUNIK EZ, 10 ERABATEKO BEGIKOTASUNA)




Iturria: Geuk egina

GRAFIKOAan ikus daitekeen bezala, Arabako biztanleen begikotasuneta antipatia-mailak euskal gizartearen antzekoak dira. GeoGRAFIKOAki eta kulturalki gertuen dauden jatorriek eragiten dute begikotasunik handiena; aldiz, zentzu guztietan urrunenekoak diren jatorriek eragiten dute antipatia gehien. Duela urte batzuetatik, Magrebeko eta Errumaniako jatorriak dira antipatia gehien eragiten dutenak, eta duela gutxiagotik, Pakistango jatorria ere bai. Hiru jatorri horiek baloratzen dira gutxien kuadrilla guztietan.


Beste muturrean, Mendebaldeko EBko, Argentinako eta AEBko jatorriek eragiten dute begikotasunik handiena.

94. GRAFIKOA: BEGIKOTASUN-MAILA JATORRI NAGUSIEKIKO. AÑANAKO ETA ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLAK (0 INOLAKO BEGIKOTASUNIK EZ, 10 ERABATEKO BEGIKOTASUNA)

Añanako kuadrilla



Arabako Lautadako kuadrilla




Iturria: Geuk egina

Aurreratu dugun bezala, bi kuadrilla horietan begikotasun gutxien eragiten duten jatorriak Magreb, Pakistan (Nepal, Bangladesh...) eta Errumania dira.

Begikotasun-maila handien duten pertsonak mendebaldeko EBkoak, AEBkoak eta Argentinakoak dira; Saharaz hegoaldeko Afrikakoak ere begi onez ikusten dira.

95. GRAFIKOA: BEGIKOTASUN-MAILA JATORRI NAGUSIEKIKO. AIARAKO ETA KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAK (0 INOLAKO BEGIKOTASUNIK EZ, 10 ERABATEKO BEGIKOTASUNA)




Iturria: Geuk egina

Bi kuadrilla horietan ere begikotasun gutxien eragiten duten jatorriak Magreb, Pakistan (Nepal, Bangladesh...) eta Errumania dira.

Begikotasun-maila handien duten pertsonak mendebaldeko EBkoak, Argentinakoak eta Brasilgoak dira, Kanpezu-Arabako Mendialdeko kuadrillan Saharaz hegoaldeko Afrikakoak ere begi onez ikusita daude.

96. GRAFIKOA: BEGIKOTASUN-MAILA JATORRI NAGUSIENKIKO. GORBEIALDEKO ETA GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLAK (0 INOLAKO BEGIKOTASUNIK EZ, 10 ERABATEKO BEGIKOTASUNA)




Iturria: Geuk egina

Bi kuadrilla horietan ere begikotasun gutxien eragiten duten jatorriak Magreb, Pakistan (Nepal, Bangladesh...) eta Errumania dira.

Begikotasun-maila handien duten pertsonak mendebaldeko EBkoak, Argentina-koak eta Saharaz hegoaldeko Afrikakoak dira.


97. GRAFIKOA: BEGİKOTASUN-MAILA JATORRI NAGUSIENEKIKO. VITORIA-GASTEIZKO KUADRILLA (0 INOLAKO BEGİKOTASUNIK EZ, 10 ERABATEKO BEGİKOTASUNA)



Iturria: Geuk egina

Azkenik, Vitoria-Gasteizko kuadrillan ere begikotasun gutxien eragiten duten jatorriak Magreb, Pakistan (Nepal, Bangladesh...) eta Errumania dira.


Begikotasun-maila handien duten pertsonak mendebaldeko EBkoak eta Argentinakoak dira.



Estereotipoak

7


98. GRAFIKOA: ESTEREOTIPOAK. ARABA (%)



Iturria: Geuk egina

“Etorkinek lana kentzen digute” eta “Etorkinen presentziak langabezia handitzen du Euskadin” estereotipoak komentatu ditugu dagoeneko 29. eta 30. diapositibetan. Beste estereotipo hauek 133. diapositiban eta hurrengoetan komentatuko ditugu: “Etorkinak neurritz kanpo baliatzen dira diru-sarrerak bermatzeko errentaz, eta laguntza horretaz jabetzera iristen dira”, “etorkinak neurritz kanpo baliatzen dira gizarte-babeserako sistemaz” eta “etorkinak gizarte-laguntzen kontura bizi dira, eta haietaz abusatzten dute”.

99. GRAFIKOA: IMMIGRAZIOAK MATXISMOA ETA GENERO-INDARKERIA AREAGOTU DITU (%)




Iturria: Geuk egina

Gai honen inguruan, iritzi ezberdinak daude Arabako gizartean. Hala ere, gehiengoak dira (% 41,4) immigrazioa gure inguruan pairatzen dugun matxismoaren eta genero-indarkeriaren erantzuletzat hartzen ez dutenak. Euskal gizarte osoari dagokionez, aitzitik, gehiengoak dira uste dutenak immigrazioaren eraginez gure gizartean matxismo-maila handiagoa dagoela eta genero-indarkeriako kasu gehiago gertatzen direla.

2013. urtearekin alderatuta, Arabako gizarteak jarrerak alderantzikatu ditu, hobera, baina oraindik ere pertsona askok uste dute immigrazioak ondorio negatiboa duela gai honetan.

Ardatza kuadrilletan jartzen badugu, askoz kritikoagoak izateagatik nabarmentzen dira Kanpezu - Arabako Mendialdea, Gorbeialdea eta Guardia - Arabako Errioxa, Arabako Lautadarekin, Añanarekin eta Vitoria-Gasteizekin alderatzen baditugu.

100. GRAFIKOA: IMMIGRATZAILEEK EUSKAL OSASUN-SISTEMAZ ABUSATZEN DUTE ETA LARRIALDIAK KOLAPSATZEN DITUZTE(%)




Iturria: Geuk egina

Iraganeko zenbait diskurtso politikok hau bezalako estereotipoak mantendu eta sustatu dituzte. Horrekin bat datozen pertsonen kopurua handia bada ere (% 33,9), gehiengoa dira argumentu hori ukatzen dutenak (% 41,2). Euskal gizartean, zifrak nahiko antzekoak dira.

Ardatza kuadrilletan jartzen badugu, askoz kritikoagoak izateagatik nabarmentzen dira Kanpezu - Arabako Mendialdea, Gorbeialdea eta Guardia - Arabako Errioxa, Añanarekin, Arabako Lautadarekin, Aiararekin eta Vitoria-Gasteizekin alderatzen baditugu.

101. GRAFIKOA: ETORKINEK ERAMATEN DITUZTE BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK BOE (%)




Iturria: Geuk egina

Atzerriko jatorriko etorkinek babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeak ere iritzi desberdinak eragiten ditu. Arabako biztanle gehienek (% 35,9) ez dute uste babes ofizialeko etxebizitzak etorkinek eramaten dituztenik, baina pertsona askok (% 31,6) uste dute etorkinak babes ofizialeko etxebizitzak eramaten ari direla.

Kasu horretan, Arabako biztanleak Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanleak baino sentikorragoak dira.

Eskualdeen arabera, estatistikoki ez dago alde esanguratsurik portaerari dagokionez.

102. GRAFIKOA: IKASLE ETORKINEK ESKOLETAKO HEZKUNTZA-MAILA JAITSI DUTE (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako gizartearen gehiengoak (% 45,8) ez du uste ikasle etorkinek eskoletan hezkuntza-maila jaisten dutenik, baina iritzi hori dutenen kopurua ere handia da (% 30,1). Eta Arabako gizartearen iritzia hori ez da hobetu 2013az geroztik. Beste gai batzuetan, aldiz, hobetu egin dira jokabideak, iritziak eta jarrerak.

Konparazioan, euskal gizartea Arabakoa baino askoz sendagoa da, agian zenbait ikastetxetan iritzi publikoa baldintzatzen eta eragina duten atzerriko ikasleen kontzentrazio jakin batzuk eman daitezkeelako.

Gainerako eskualdeetakoekin alderatuta, Guardia-Arabako Errioxa eta Gasteizko biztanleak nabarmentzen dira argudio horri nabarmenago eusteagatik.

103. GRAFIKOA: ETORKINEK GERO JASOTZEN DUTENA BAINO ZERGA GUTXIAGO ORDAINZEN DITUZTE (%)




Iturria: Geuk egina

Item horrek balio gabeko erantzunen ehuneko oso altua du: Araban, hiru pertsonatik batek ez du iritzirik ematen, eta kopuru hori Euskal Autonomia Erkidego osokoaren oso antzekoa da. Eta ematen dutenek, oso iritzi desberdinak dituzte, argudioaren alde edo kontra.

Argi dagoena da Arabako gizarteak posizioak hobetu dituela 2013tik. Orduan, etorkinek jasotzen dutena baino gutxiago ordaintzen dutela uste zuten pertsonen ehunekoa askoz handiagoa zen.

Eskualdeen arabera, Kanpezu-Arabako Mendialdea nabarmentzen da batez ere, abusu bat baino gehiago dagoela uste delako eta, ondoren, Gorbeialdea. Kontra-ko muturrean dago Gasteizko eskualdeko biztanleria, nahiz eta erantzun ez dutenen zifra oso altua den.

104. GRAFIKOA: ETORKINEN PRESENTZIAK SEGURTASUNIK EZA ETA DELINKUENTZIA SORTZEN DITU (%)




Iturria: Geuk egina

Estereotipo klasiko horrek nolabaiteko indarra izaten jarraitzen du, baina indarra galtzen ari da Arabako gizarteak: 2018an, % 27,8k immigrazioa eta delinkuentzia lotzen jarraitzen zuten; zifra hori 2013koa baino askoz txikiagoa da, baina baita 2008koa baino txikiagoa ere. EAErekin alderatuta, Araban estereotipo horrek ezarpen txikiagoa du.

Eskualdeen arabera, Arabako Lautadako populazioak nabarmentzen dira, batez ere, baina baita Gasteizkoak ere. Aitzitik, estereotipo horrek garrantzi handiagoa du Kanpezu-Arabako Mendialdeko eta Gorbeialdeako eskualdeetan.

105. GRAFIKOA: ETORKINAK EZ DIRA INTEGRATU NAHI (%)




Iturria: Geuk egina

Berriro ere, Arabako gizartean iritzi desberdinak eragiten dituen estereotipo baten aurrean gaude, eta ez da jarri ez horren alde (% 26,0) eta ez kontra (% 27,7), eta pertsona asko zalantzati ageri dira. Antzeko zerbait gertatzen da EAE osoan: badirudi argudioarekin ados ez egotea erabaki dutela.

Egia da Arabako gizartearen iritzia argi eta garbi hobetu dela 2013az geroztik: pertsona-kopuru handi bat akordio deskalifikatzailea izatetik zalantza toleranteena izatera igaro da.

Eskualdeen arabera, Arabako Lautada eta Gasteiz nabarmentzen dira, iritzi ulergarriagoa edo enpatikoagoa dutelako. Beste muturrean, Kanpezu-Arabako Mendialdea, Gorbeialdea eta Guardia-Arabako Errioxa eskualdeetako biztanleen jarra ez da hain enpatikoa.

106. GRAFIKOA: ETORKINEK ESPAZIO PUBLIKOAK OKUPATU, GEHIEGIKERIAK EGIN ETA GAIZKI ERABILTZEN DITUZTE (%)




Iturria: Geuk egina

Urte batzuetan, joan den hamarkadaren amaieran, “alarma” batzuk sortu ziren beste kultura batzuetatik etorri eta aisialdian adiskidetasun- eta familia-harremak ulertzeko beste kontzeptu bat zuten pertsonen espazio publikoak erabiltzeko moduari buruz. Batzuetan espazio publikoak egiten zuten erabilera legitimoa bertako biztanleek egiten zutenaren desberdina zen, eta tirabira batzuk eragin zituen. Badirudi denborak eta elkar ezagutzeak tentsio horiek baretu dituela. Eta item horri Arabako biztanleek ematen dioten erantzunak hori adierazten duela dirudi; izan ere, gehienek (% 60,0) ez dute uste etorkinek espazio publikoak okupatu eta horiek gaizki erabiltzen dituztenik. Euskal gizarte osoaren antzeko iritzia dute.

Eskualdeen arabera, Añana, Arabako Lautada, Aiara eta Gasteiz nabarmentzen dira, kontrako jarrera sendoagoa dutelako. Beste muturrean, iritzi kritikoagoa duten Kanpezu-Arabako Mendialdea, Gorbeialdea eta Guardia-Arabako Errioxa eskualdeak daude.

107. GRAFIKOA: ETORKINEK EZ DITUZTE ARAUAK EZAGUTZEN ETA EZ DUTE GIZALEGERIK (%)




Iturria: Geuk egina

Badirudi item honek lotura duela aurrekoarekin, eta Arabako gizartea are eta sendoagoa da, gehienek (% 62,0) ez dutelako uste etorkinek arauak ezagutzen ez dituztenik eta gizalegerik ez dutenik. % 10 inguruko gutxiengo batek bakarrik uste du hori horrela dela, eta zifra horiek guztiak EAE osokoen oso antzekoak dira.

Eskualdeei dagokienez, ez dugu alde aipagarriarik ikusten gai honetan.

108. GRAFIKOA: ETORKINEN ERLIJIOZKO JARDUNBIDEEK ARRISKUAN JARTZEN DUTE GURE BIZIMODUA (%)




Iturria: Geuk egina

Une batzuetan gure ingurunean islamaren presentzia mehatxu gisa bizi dezakegula ematen duen arren, ez dirudi ez Arabako gizarteak ez euskal gizarteak, oro har, inpresio hori dutenik: Araban, biztanleriaren % 73,0k ez du mehatxu hori nabaritzen, eta EAeko ehunekoa antzekoa da,% 69,5 ingurukoa.

2008ko posizioak berreskuratu ditugu, krisian zehar hondatu zirenak, 2013ko datuek agerian uzten duten bezala.

Eskualdeen arabera, Aiara, Arabako Lautada eta Gasteiz nabarmentzen dira, posizio fidagarriagoa dutelako. Beste muturrean, Kanpezu-Arabako Mendialdea, Gorbeialdea eta Guardia-Arabako Errioxa eskualdeek dituzte mehatxu gehien.

109. GRAFIKOA: ZURE HERRIAN EDO AUZOAN GEHIEN ENTZUTEN DIREN ZURRUMURRUAK, ARABA. LEHEN ERANTZUNA ETA AIPAMENAK GUZTIRA (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako biztanleen arabera, gehien zabalduta dagoen “zurrumurru”, estereotipo edo aurreiritzia hau da: “etorkinak gizarte-laguntzen kontura bizi dira, eta haie-taz abusatzen dute”. %76,7rentzat gehien zabaldutako hiru zurrumurruren artean dago hori. Lehen erantzunean gehien aipatutakoa eta guztira gehien aipatutakoa ere hori da.

“Etorkinek ez dute integratu nahi” dioen zurrumurrua ere zabalduta dagoela diru-di, Arabako biztanleen %45,5ek aipatu baitute.

Azkenik, badirudi nabarmentzekoa dela aurreiritzi klasiko batzuen presentzia ere: “etorkinek lana kentzen digute”, “immigrazioarekin batera delinkuentzia handi-tzen da”, “ezin ditugu etorkin gehiago hartu, gehiegi dira” eta “immigrazioak han-ditu egiten ditu matxismoa eta genero-indarkeria”.

110. GRAFIKOA: UDALERRIAN EDO AUZOAN GEHIEN ENTZUTEN DIREN ZURRUMURRUAK, AÑANAKO KUADRILLA. 1. AIPAMENA ETA GUZTIZKO AIPAMENAK (%)




Iturria: Geuk egina

Añanako eskualdeko biztanleen arabera “zurrumurru”, estereotipo edo aurreiritzi zabalduena da “etorkinak gizarte laguntzetatik bizi direla, eta abusatu egiten dute-la”: %76k hiru hedatuenen artean jartzen du. Lehen aukeran aipatuena ere bada hedatuenetako gisa.

“Etorkinek lana kentzen digute” esaten duenaren presentzia ere garrantzitsua di-rudi, Arabako biztanleen %51ren iritziz.

Azkenik, beste aurreiritzi klasiko batzuen presentzia ere azpimarragarria dirudi: “Etorkinak ez dira integratu nahi”, “Ezin dugu etorkin gehiago onartu, gehiegi dira” eta “immigrazioarekin delinkuentzia areagotu egiten da”.

111. GRAFIKOA: UDALERRIAN EDO AUZOAN GEHIEN ENTZUTEN DIREN ZURRUMURRUAK, **ARABAKO LAUTADA ESKUALDEA**. 1. AIPAMENA ETA GUZTIZKO AIPAMENAK (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako Lautadako kuadrillako biztanleen arabera, “Zurrunmuru”, estereotipo edo aurreiritzi hedatuena da “etorkinak gizarte-laguntzetatik bizi direla eta abusatatu egiten dutela”: % 64k hiru hedatuenean artean aipatzen du. Lehen aukeran aipatuena ere bada, hedatuena bezala.

Halaber, garrantzitsua dirudi “etorkinak ez direla integratu nahi” diotenen presentzia, Arabako biztanleen % 50en iritzia baita, eta “etorkin gehiago ezin ditugula onartu, gehiegi direla” diotenen presentzia, eskualde horretako biztanleen % 45en iritzia baita.

Azkenik, beste aurreiritzi klasiko batzuen presentzia ere azpimarragarria dirudi: “Etorkinek lana kentzen digute” eta “immigrazioarekin delinkuentzia areagotu egiten da”.

112. GRAFIKOA: UDALERRIAN EDO AUZOAN GEHIEN ENTZUTEN DIREN ZURRUMURRUAK, **AIARA ESKUALDEA**. 1. AIPAMENA ETA GUZTIZKO AIPAMENAK (%)




Iturria: Geuk egina

Aiarako eskualdeko biztanleen arabera, “zurrunmuru”, estereotipo edo aurreiritzi hedatuena da “etorkinak gizarte-laguntzetatik bizi direla eta gehiegikeriaz jokatzen dutela”: % 78k hiru hedatuenean artean aipatzen du. Lehen aukeran aipatuena ere bada, hedatuena bezala.

Halaber, garrantzitsua dirudi “etorkinak ez direla integratu nahi” diotenen presentzia, Arabako biztanleen % 42ren iritzia baita: “Immigrazioarekin delinkuentzia handitzen da” (% 36), “Immigrazioak matxismoa eta genero-indarkeria areagotzen ditu” (% 34) eta “etorkinek lana kentzen digute” (% 31).

113. GRAFIKOA: UDALERRIAN EDO AUZOAN GEHIEN ENTZUTEN DIREN ZURRUMURRUAK, **KANPEZU-MENDIALDEKO ARABA ESKUALDEA**. 1. AIPAMENA ETA GUZTIZKO AIPAMENAK (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako Kanpezu-Mendialdea eskualdeko biztanleen arabera, “zurrumurru”, estereotipo edo aurreiritzi hedatuena da “etorkinak gizarte-laguntzetatik bizi direla eta abusatu egiten dutela”: % 84k hiru hedatuenean artean aipatzen du. Lehen aukeran aipatuena ere bada, hedatuena bezala.

Garrantzitsua dirudi, halaber, “Immigrazioak matxismoa eta genero-indarkeria areagotzen dituela” esaten dutenen presentzia, eskualde horretako biztanleen % 44ren iritzia baita, “Etorkinek lana kentzen digute” (% 33) eta “etorkinak ez dira integratu nahi” (% 33).

114. GRAFIKOA: UDALERRIAN EDO AUZOAN GEHIEN ENTZUTEN DIREN ZURRUMURRUAK, **GORBEIALDEA ESKUALDEA**. 1. AIPAMENA ETA GUZTIZKO AIPAMENAK (%)




Iturria: Geuk egina

Gorbeialdea eskualdeko biztanleen arabera, “zurrumurru”, estereotipo edo aurreiritzi hedatuena da “etorkinak gizarte-laguntzetatik bizi direla eta abusatu egiten dutela”: % 86k hiru hedatuenean artean aipatzen du. Lehen aukeran aipatuena ere bada, hedatuena bezala.

Garrantzitsua dirudi, halaber, “Etorkinak ez direla integratu nahi” esaten dutenen presentzia, eskualdeko biztanleen % 42ren iritzia baita, “Etorkinek lana kentzen digute” (% 40) eta “immigrazioak matxismoa eta genero-indarkeria areagotzen ditu” (% 36).

115. GRAFIKOA: UDALERRIAN EDO AUZOAN GEHIEN ENTZUTEN DIREN ZURRUMURRUAK, **GUARDIA-ARABAKO ERRIOKA ESKUALDEA**. 1. AIPAMENA ETA GUZTIZKO AIPAMENAK (%)




Iturria: Geuk egina

Guardia-Arabako Errioxa eskualdeko biztanleen arabera, “zurrumurru”, estereotipo edo aurreiritzi hedatuena da “etorkinak gizarte-laguntzetatik bizi direla eta abusatu egiten dutela”: % 78k hiru hedatuenen artean aipatzen du. Lehen aukeran aipatuena ere bada, hedatuena bezala.

Garrantzitsua dirudi, halaber, “Immigrazioak matxismoa eta genero-indarkeria areagotzen dituela” dioten presentzia, populazio horren % 44ren iritzia baita, “Etorkinek lana kentzen digute” (% 41), “Etorkinek ez dute integratu nahi” (% 37) eta “ezin dugu etorkin gehiago onartu, gehiegi dira” (% 26).

116. GRAFIKOA: UDALERRIAN EDO AUZOAN GEHIEN ENTZUTEN DIREN ZURRUMURRUAK, **GASTEIZKO ESKUALDEA**. 1. AIPAMENA ETA GUZTIZKO AIPAMENAK (%)




Iturria: Geuk egina

Gasteizko biztanleriaren arabera, “zurrumurru”, estereotipo edo aurreiritzi hedatuena da “etorkinak gizarte-laguntzetatik bizi direla eta gehiegikeriaz jokatu dutela”: % 76,6k hiru hedatuenetako bat dela dio. Lehen aukeran aipatuena ere bada, hedatuena bezala.

Arabako biztanleen % 46,4ren ustez, “etorkinak ez dira integratu nahi” esaten dutenen presentzia ere garrantzitsua da.



Azkenik, beste aurreiritzi klasiko batzuen presentzia ere azpimarragarria dirudi: “Immigrazioarekin delinkuentzia areagotu egiten da”, “Ezin dugu etorkin gehiago onartu, gehiegi dira”, “Etorkinek lana kentzen digute” eta “immigrazioak matxismoa eta genero indarkeria areagotzen ditu”.



Immigrazio-politika

8

117. GRAFIKOA: SARRERA-POLITIKA, KUADRILLAKA, ARABA ETA EAE (%)





Iturria: Geuk egina

Gai honi buruz zer esan ez dakiten arabarren kopurua oso esanguratsua da. Litekeena da azken gertaerak biztanleak nahasten aritzea: errefuxiatuekin gertatzen ari dena, AEBren politika murriztaileak, norberaren zalantzak, EB barruko adostasunik eza... Zalantza-jarrera hori handitzen ari da 2013tik (2008an, beste era batera formulatu zen galdera), eta batez ere hiriburuan eta Aiaraaldeko kuadrillan ageri da.

Kontua da %19,5ek bakarrik uste arren ez dela inolako trabarik jarri behar, Araban, %58,1ek bakarrik hautatzen dutela segurtasuna bermatzen duen aukera: lan-baimena dutenei, ikasketa-baimena dutenei, familiarekin elkartzea datozenei eta abarri uztea sartzen. EAEn, %70ek aukeratzen dute bide segurua.

Edonola ere, ia inork ez du egiten gure mugak erabat ixtearen alde.

118. GRAFIKOA: HONA ETORRITAKO NORBAITEK DELITUREN BAT EGITEN BADU, KANPORATU EGIN BEHAR DA HERRIALDETIK (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako biztanleen ia erdiak delituren bat egiten duten etorkinak kanporatzearen alde daude. Kopuru hori EAEkoaren oso antzekoa da. Jarrera murriztaile hori, ordea, leundu egin da 2013tik, eta 2008an krisia hasi aurretik Arabako gizarteak zuen kopuruaren parekoa da dagoeneko.

Kuadrillaka, Kanpezu-Arabako Mendialdea (batez ere) eta Gorbeialdea nabarmen-tzen dira, horiek baitira jarrera irmoena dutenak, eta gainerako kuadrillek baino gehiago bat datozenak argudio horrekin.

119. GRAFIKOA: LANERA DATOZEN ETORKINAK LANGABEZIAN GERATZEN BADIRA DENBORA BATEZ, KANPORATU EGIN BEHAR DIRA (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako gizarteak nahiz euskal gizarteak bereizi egiten dituzte delitu bat egitea eta langabezian geratzea. Hala, gehienek uste dute langabezian egoteak ez duela herrialdetik kanporatzea eragin behar. Jarrera hori irmoagoa da EAEn; izan ere, Arabako biztanleen %17,5ek etorkinen egonaldia lan-kontratu bat izatearekin lotzen dute erabat.

Kuadrillaka, Kanpezu-Arabako Mendialdea nabarmentzen da berriz ere, haren jarrera eta gainerako kuadrillena nahiko ezberdinak direlako, gai horri dagokionez ez baitu besteek bezain iritzi irmoa. Gasteizko kuadrillaren jarrera ere Kanpezu-Arabako Mendialdekoaren antzekoa da.

Aurreko urteei erreparatuz gero, ikusten dugu Arabako biztanleek jarrera malguagoak dituztela orain, 2008koen antzekoak.

120. GRAFIKOA: ADMINISTRAZIO-EGOERA IRREGULARREAN DAUDEN ETORKINEKIKO POLITIKA




Iturria: Geuk egina

Atzeritar jatorriko etorkinen egoera administratiboa izaten da askotariko erreakzioak sortzen dituen egoeretakoa bat: "paperak" dituzten, ez dituzten... Kasu hone-tan ere, Arabako gizarteak ez daki oso ondo zein jarrera hartu gai honen aurrean. Hala, %23k ez dute zehaztuta beren jarrera. Batez ere, Gasteizko biztanleen zehaztasun faltak eragiten du kopuru hori, bai eta Aiaraldeko, Arabako Lautadako eta Añanako kuadrilletako biztanleenak ere.

Edonola ere, lan bat dutenak bakarrik erregularizatzearen alde egitea izaten da arabarren aukerarik ohikoena, immigrazioa ordenatua izatearen ildotik eta batez ere lan-arloarekin lotuta egotearen ildotik. Badirudi 2013an Arabako biztanleek argi-go zutela gai hori, eta administrazioerregulartasuna lan bat izatearekin lotzen zuten estu-estu. Orduan, %18,8k nahi zuten administrazio-egoera irregularrean zeuden pertsona guztiak kanporatzea; eta orain, %5,2k bakarrik.

Kuadrillaka, Kanpezu-Arabako Mendialdea, Gorbeialdea eta Guardia-Arabako Errioxa dira erregulartasuna lanarekin gehien lotzen dutenak; Aiaraldea eta Arabako Lautada dira, berriz, administrazio-egoera irregularrean dauden etorkinak kanporatzearen aldeko pertsona gehien dituzten kuadrillak.

121. GRAFIKOA: PASILO-ESKAERA EGITEN DUTEN PERTSONEKIKO POLITIKA



2008

Iturria: Geuk egina

Errefuxiatuen gaia pil-pilean dago gaur egun. Horri dagokionez, Arabako biztanleak banatuta daude jarrera humanitarioenaren eta jarrera legalistenaren artean. “Mugarik gabe hartu” behar direla diote %38,5ek, eta “jazarriak direla egiaztatzen bada, hartu” egin behar direla %35ek. Antzeko zalantza du euskal gizarteak ere, baina gehiago egiten du bigarren aukeraren alde, hau da, aukera legalistenaren alde. Badirudi Arabako gizartea bere jarrerak argitzen ari dela 2008tik.


Kuadrillaka, Gasteizen oso handia da mugarik ez zaiela jarri behar uste dutenen kopurua; Añanan, Arabako Lautadan eta Kanpezu-Arabako Mendialdean, aldiz, jarrera horrek aldeko gutxiago ditu, eta jarrera legalista finkatuago dago.



DSBE eta gizarte-laguntzak

9

122. GRAFIKOA: DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTARI BURUZKO IRITZIA. ARABA (%)




Iturria: Geuk egina


DSBEren gaia beti agertzen da komunikabideen eztabaidetan eta euskal gizartearen ohiko elkarrizketetan. Arabako gizartea nahiko argi azaltzen da gai honen inguruan: uste du etorkinak gehiegi aprobetxatzen direla DSBEz (% 50,5), DSBEk etorkinak nagitu egiten dituela eta horregatik ez dutela lanik bilatzen (% 56) eta iruzurra ohikoagoa dela etorkinen artean (% 40,9). Baina horrek guztiak ez du esan nahi etorkinek DSBE jasotzearen aurka daudenik, eta DSBE bertako biztanleentzat bakarrik izan dadin nahi dutela: % 67,9k ez du DSBE eskusiboa nahi bertako biztanleentzat.

2013rekin alderatuta (2008an ez ziren item horiek formulatu), Arabako biztanleen jarrerak leundu egin direla ikusi dugu.

123. GRAFIKOA: ETORKINAK GEHIEGI APROBETXATZEN DIRA DSBEZ, ETA IA OSO-OSORIK EURENGANATZEN DUTE (%)



2013




Iturria: Geuk egina

Arabako gizarteak asko aldatu du bere iritzia 2013az geroztik, eta 15 puntu baino gehiago galdu ditu aurreiritzi gehien zuen jarrerak.

Eskualdeen arabera, alde nabarmenak ikusten ditugu: Arabako Lautadak, Gasteizek eta Gorbeialdeak aurreiritzi gutxiago dituzte, eta hobeto ulertzen dituzte DSBE jasotzen duten etorkinak, Añanako, Aiara, Kanpezu-Arabako Mendialdea eta Guardia-Arabako Errioxa eskualdeetako biztanleek baino.


124. GRAFIKOA: DSBEREN ONDORIOZ, ETORKINEK, KOBRATU EGITEN DUTENEZ, EZ DUTE LAN EGIN NAHI EDO EZ DUTE LANA BILATU NAHI (%)



Item honetan planteatutako gaian ere, Arabako gizarteak bere posizioa hobetu du: 2013an, % 63,3k uste zuen DSBE jasotzeak geldiarazi egiten dituela etorkinak lana bilatzeari dagokionez, baina orain % 56,0k baino ez du horrela pentsatzen.

Eskualdeen arabera, alde nabarmenak ikusten ditugu: Arabako Lautadak eta Gasteizek aurreiritzi gutxiago dituzte, eta DSBE jasotzen duten etorkinen kontzeptu hobea dute Añana, Aiara, Kanpezu-Arabako Mendialdea, Gorbeialdea eta Guardia-Errioxa eskualdeetako biztanleek baino.


125. GRAFIKOA: DSBEO IRUZURRA GEHIAGO IZATEN DA ETORKINEN ARTEAN BERTAKOEN ARTEAN BAINO (%)



Aurreiritzi horri dagokionez ere, Arabako gizarteak bere posizioak hobetu ditu argi eta garbi: 2013an, biztanleen erdiek baino gehiagok DSBEren iruzurra etorkinek bertakoek baino gehiago egiten zutela zioten, baina orain % 40,9k baino ez du baieztapen hori egiten, batik bat iritzia ematera ausartzen ez direnen gehikuntza-aren kontura.

Eskualdeen arabera, Kanpezu- Arabako Mendialdea eskualdea gainerako eskualdeekin alderatzen dugunean bakarrik ikusten ditugu alde esanguratsuak: lehenengoaren populazioak bere egiten du aurreiritzitako argudioa, beste guztien populazioak baino gehiago.

126. GRAFIKOA: ETORKINEK EZ LUKETE DSBE JASOTZEKO AUKEARRIK IZAN BEHAR: BERTAKOENTZAT BAKARRIK IZAN BEHARKO LUKE (%)




Iturria: Geuk egina

Arabako gizartearen parte handi batek aurreiritzi eta estereotipo desberdinak partekatzen ditu estereotipoen pertzepziotik gizarte gisa etikoki eta moralki nola jokatu behar dugun hautematera igarotzen garenean. Hala ere, Arabako biztanleriak irakasgai bat ematen digu eta, gehienetan, jarrera irmo bat adierazten du: DSBE ezin da bakarrik bertakoentzat izan. Baliteke etorkin batzuek horretaz baliatzea, batzuek lanik ez bilatzea, baita batzuek iruzurra egitea ere, baina egoera horrek ez du zalantzan jartzen etorkinek eta bertakoek DSBERako sarbide partekatua izan behar dutela.

Eskualdeen artean ere alde nabarmenak ikusten ditugu: Arabako Lautadako, Gasteizko eta Aiarako populazioak solidarioagoak dira Añanako eta Guardia-Arabako Errioxako eskualdeetakoak baino, baina, batez ere, Kanpezu-Arabako Mendialdeko eta Gorbeialdeko populazioak dira baztertzailenak.

127. GRAFIKOA: ETORKINEK ETEKIN HANDIEGIA ATERATZEN DIOTE GIZARTE-BABESEKO SISTEMARI (%)




Iturria: Geuk egina

Estereotipo hori euskal herritarren artean eta Arabako biztanleen artean hedatu den dagoen taldearen parte da, hain zuzen ere, atzerritar etorkinek gure ongizate-estatuari, historikoki hura sortzen lagundu gabe, onura ateratzen diotela dioten artean. Euskal gizartea (arabarra) ongizate-estatu horri eusteko gai ez izateko beldurrarekin lotuta dago, kanpotik datozen pertsonengana hedatuz gero, haiek kontsumoari dagozkion zuzeneko eta zeharkako zergen bidez mantentzen lagunduko ez balute bezala.

Ikusten dugunez, historikoki zurrumurru horrek indar handiagoa izan du krisi-garrian (2013ko datuak), eta 2018an krisi aurreko zifretara itzuli da.

Eskualdeen arabera, nabarmen kritikoagoak dira Kanpezu- Arabako Mendialdea, Gorbeialdea eta Guardia-Arabako Errioxako biztanleak, Gasteizkoak eta Arabako Lautadakoak baino.

128. GRAFIKOA: ETORKINAK GIZARTE-LAGUNTZETATIK BIZI DIRA ETA GEHIEGIKERIAK EGITEN DITUZTE (%)




Iturria: Geuk egina

Aurrekoarekin lotutako estereotipo horrek datu oso antzekoak ditu, eta gure ongizate-estatuarentzako mehatxu-sentimendu hori adierazten du: Arabako gizartearen zati handi batek (% 46,6) uste du etorkinak gizarte-laguntzetatik bizi direla eta gehiegikeriaz jokatzeko dutela.

Arabako gizartearen posizioak hobetu egin dira 2013tik, eta orain inklusiboagoak dira eta ez hain deskalifikatzaileak.


Eskualdeen arabera, nabarmen kritikoagoak dira Kanpezu-Arabako Mendialdea, Aiara eta Guardia-Arabako Errioxa eskualdeetako biztanleak, Gasteizkoak eta Arabako Lautadakoak baino.



Tolerantzia-indizea

10


129. GRAFIKOA: TOLERANTZIA-INDIZEA




Arabako 2018ko barometroak 60,40 puntuko tolerantziaindizea erakusten du; EAEn, Gasteizen eta Bilbon egindako beste barometro batzuen ildo beretik doa kopuru hori.

Adierazten du Arabako gizartearen tolerantzia dela alderdi batzuetan, baina jarrera murritzaleagoak dituela beste batzuetan.


130. GRAFIKO: TOLERANTZIA-INDIZEAREN BILAKAERA



131. GRAFIKO: INDIZEAREN BILAKAERA EAEN




132. GRAFIKO: EBPAGAREN BILAKAERA EAEN



EAEn, zertxobait gora egin du tolerantziak, eta igoera hori bat dator hazkunde ekonomikoaren etaparekin. Horrek berretsi egiten du ideia bat: immigrazioarekiko tolerantzia eta euskal gizarteak etorkizunera begira duen konfiantza- eta ziurtasunmaila nahiko bide beretik doazela.

Tolerantzia-indizeak, gainera, islatzen du zein den iritzia publikoa, euskal gizarteak gaur egun duen egoera sozialari buruz: amorru gutxiago, diskurtso politikoetan immigrazioari buruzko kritiketatik urruntzea, eztabaida interesaturik ez, eta abar.

133. GRAFIKOA: TOLERANTZIA-JARRERA SUBJEKTIBOA ETA TOLERANTZIA-INDIZEA



Tolerantzia-indizea ikertzaile-taldeak sortutako konstruktua bat da, pertsona bati edo biztanleriari atzerriko immigrazioarekiko zer tolerantzia-maila duen esleitzeko eratua. Inkesta egindako pertsonen aukera eman genien beren burua eta euskal gizartea 0tik 10 puntura arteko tolerantzia-indize batean kokatzeko (bi aldagaien arteko korrelazioa baxua da ($R=0,306$), baina esanguratsua (esang. 0.000)).

Arabako biztanleek tolerantzia-mailari dagokionez beren buruari esleitutako batez besteko puntuazioa 6,64 puntukoa da eskala horretan. 0tik 100era bitarteko eskala batera eramanez gero, 66,4 puntu izango lirateke, gure indizearen bidez esleitutako puntuazioa baino 6 puntu gehiago. Bi aldagaiek korrelazio ertain-altua dute ($R=0,581$), eta esanguratsua (esang. 0.000).

Inkesta egindako pertsonen euskal gizartea 0tik 10era bitarteko eskala horretan kokatzeko eskatu zainean, balorazioa kritikoagoa izan da: euskal gizarteak 5,71 puntu lortzen ditu, hau da, 0tik 100era bitarteko eskalan 57,1 puntu, gure indizean baino hiru puntu gutxiago. Bi aldagaiek korrelazio oso baxua dute ($R=0,122$), baina esanguratsua (esang. 0.000).

134. GRAFIKOA: TOLERANTZIA-INDIZEAREN KONPARAKETA




Iturria: Geuk egina

Arabako tolerantzia-indizea gainerako lurraldeetakoaren eta EAEkoaren antzekoa da. Estatistikoki, ez dugu jarreraren alde esanguratsurik ikusi bizileku-lurraldea aldagaiaren arabera. Hau da, tolerantzia-mailan ez dago alderik Arabaren, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren arte.

Arabako lurraldearen eta Gasteizen artean ere ez dirudi alderik dagoenik.

135. GRAFIKOA: TOLERANTZIA-INDIZEAREN 10 ARLOETAKO PUNTUAZIOAK



	2018
Bolumenaren pertzepzioa	4,6
Arazoaren pertzepzioa	9,14
Ekonomian dituen eraginak	6,11
Euskal gizartean dituen eraginak	6,79
Immigrazio-politika	5,78
Erabateko eraginak	5,42
Bizikidetza-ereduak	4,23
Estereotipoak	4,81
Eskubideak eskura izatea	7,16
Harreman-espazioak	6,38


Iturria: Geuk egina

Arabako biztanleek ez dute uste immigrazioa arazoa denik.

Jarrera guztiz toleranteak erakusten dituzte atzerriko jatorriko pertsonak eskubideak eskuratzeari dagokionez, euskal gizartean eta ekonomian dituzten ondorio positiboak dagokienez, bai eta kanpoko jatorriko biztanleekiko harreman-espazioen kudeaketari, immigrazioaren aurreko politika publikoei eta Arabako gizartean dituen eragin globalei dagokienez ere.

Hala ere, haien jarrerek hobetzeko tarte nabarmena dute estereotipoak, bolumenaren pertzepzioari eta bizikidetza-ereduei dagokienez.

136. GRAFIKOA TOLERANTZIA-INDIZEA ESKUALDEKA



Iturria: Geuk egina

Eskualdeen arabarako Tolerantzia Indizeak oso antzeko emaitzak ematen ditu. Estatistikaren ikuspuntutik, Gasteizko eskualdearen eta Guardia-Arabako Errioxa eta Kanpezu-Arabako Mendialdea eskualdeen artean soilik daude desberdintasunak jokabideari dagokionez, Gasteizko eskualdea tolerantetagoa baita.


5. TAULA: TOLERANTZIA-INDIZEAREKIN LOTUTAKO ALDAGAIK

Tolerantzia-atalase txikiena duten pertsonen profila	Aldagaia	Esangura	Tolerantzia-atalase handiena duten pertsonen profila
65 urte eta gehiago	Adina	.000	18-29 urte artean
Oinarrizko ikasketak	Ikasketak	.000	Unibertsitate-ikasketak
Landa-eremua	Habitata	.000	Hiria
Katoliko praktikatzaileak eta ez-praktikatzaileak	Erl Rioja	.000	Agnostikoak, ateoak
Erdaldunak	Hizkuntza	.000	Euskaldunak
Espainolak	Nazionalismoa	.000	Euskaldunak, euskaldun moderatuak
Espainol edo euskal-espainol sentimendua nagusi	Identitate-sentimendua	.000	Euskal sentimendua nagusi
Zentro-eskuinekoa	Ideologia	.000	Ezkerrekoa
1.000 €/hilean gehienez	Diru-sarrerak	.000	1.800 €/hilean edo gehiago
Beren oraingo egoera ekonomikoarekin ase gabekoak edo axolagabeak	Egoera ekonomikoa	.000	Beren oraingo egoera ekonomikoarekin pozik
Erretiroa hartutakoak edo etxeko lanetan aritzen direnak	Okupazioa	.000	Aktibo dauden pertsonak edo ikasleak
Estatus baxua	Estatua	.000	Estatus altua
Handia	Krisiaren eragina	.032	Txikia
Ezkorrak	Baikortasuna	.000	Baikorrak eta axolagabeak
Perspektiba txarrak edo normalek	Etorkizuna	.000	Perspektiba onak
Etorkin asko	Auzoa, herria	.005	Bertakoak nagusi
Inongo harremanik ez	Interakzio pribatua	.003	Harreman biziak
Inongo interakzioirik ez	Interakzio publikoa	.000	Harreman biziak edo batzuk
Hartu-emanik ez	Aisialdiko interakzioa	.000	Hartu-eman handiak edo batzuk
Kanpezu, Laguardia	Kuadrilla	.000	Gasteiz

Iturria: Geuk egina

Ez dugu aldaketa esanguratsurik ikusi sexuaren arabera.

137. GRAFIKOA: SEGMENTAZIO ZUHAITZA ETA ARABAKO BIZTANLERIAREN TIPOLOGIAK



Iturria: Geuk egina

SEGMENTAZIO ZUHAITZA ETA ARABAKO BIZTANLERIAREN TIPOLOGIAK

Segmentazio-zuhaitzean, tolerantzia handiagoa edo txikiagoa iragartzen duten eta 17 tipologiak eraikitzen dituzten aldagaiak honako hauek dira, hurrenkera honetan:

1. Ikasketak (sig. 0.000)
2. Aisia (sig. 0.000) eta ideologia (sig. 0.000 eta 0.000) erlazioa
3. Auzo-mota (sig. 0.003), nazionalismo-maila (sig. 0.008), harreman publikoa (sig. 0.000), erlijioa (sig. 0.006 eta 0.001), aisialdiko harremana (sig. 0.026) eta baikortasun maila (sig. 0.008)
4. Identitate-sentimendua (sig. 0.000) eta etorkizunerako itxaropenak (sig. 0.008)


Hona hemen hiru mota edo segmentu tolerantteenak, hurrenkera honetan:

1. Unibertsitate-ikasketak, ezkerreko ideologia eta aisialdian atzerriko jatorriko pertsonekin harremanen bat duten pertsonak: 74,46 puntu (laginaren % 4,2).
2. Unibertsitate-ikasketak, ezkerreko ideologia eta aisialdian atzerriko jatorriko pertsonekin harreman handia edo batere harremanik ez duten pertsonak: 70,15 puntu (laginaren % 7,4).
3. Unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak, zentro-ezkerreko ideologiakoak eta agnostikoak edo ateoak: 69,99 puntu (laginaren % 5,5)..

Gutxien toleratzen duten hiru motak edo segmentuak honako hauek dira, hurrenkera honetan:

1. Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak, aisialdian atzerriko jatorriko pertsonekin harremanik ez dutenak eta nazionalismoekiko interesik gabeak: 54,07 puntu (laginaren % 14,1).
2. Bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonak, zentro-eskuinekoak eta beren burua katoliko ez-praktikatzailatzat dutenak: 53,17 puntu (laginaren % 5,7).
3. Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak, aisialdian atzerriko jatorriko pertsonekin eta Euskadiko edo Espainiako nazionalistekin inoiz harremanik ez dutenak: 48,84 puntu (laginaren % 5,9).

137. GRAFIKOA: TALDEEN PUNTUAZIOAK 2018KO TOLERANTZIA-INDIZEAN



Iturria: Geuk egina

Arabako biztanleria hiru talde handitan banatzen badugu, ikusiko dugu toleranteen talde bat dugula, 72,69 puntu ingurukoa; beste bat ambibalentea, 58,43 puntu ingurukoa; eta uzkurrena, 42,86 puntu ingurukoa.

Hiru taldeen artean estatistikoki alde esanguratsuak dauden arren, ezin dugu esan Arabako gizartea polarizatuta dagoenik. Izan ere, talde uzkurra eskalaren erdiko puntutik oso gertu dago.

6. TAULA: 2018KO AMAIERAKO MULTZOEN ZENTROAK

	Talde Tolerantea	Talde Ambibalentea	Talde Uzkurra
Bolumenaren pertzepzioa	6,12	4,39	2,33
Arazoaren pertzepzioa	9,68	9,49	7,42
Ekonomian dituen eraginak	7,23	5,99	4,36
Euskal gizartean dituen eraginak	7,58	6,61	5,75
Immigrazio-politika	7,28	5,26	4,23
Erabateko eraginak	6,85	5,15	3,48
Bizikidetza-ereduak	5,06	4,04	3,16
Estereotipoak	6,31	4,42	2,99
Eskubideak eskura izatea	8,62	6,85	5,22
Harreman-espazioak	7,97	6,23	3,90


Iturria: Geuk egina

Ikus dezakegunez, Talde Tolerantea da irekiena eta aztertutako arlo guztietan jarrerara inklusiboenak dituen.

Talde Uzkurra, bestalde, arlo guztietan jokabide eta jarrerara murriztaileenak erakusten dituen ere bada.

Eta Talde Ambibalentea talde baten eta bestearen artean kokatzen da guztietan.


138. GRAFIKOA: TALDEEN PUNTUAZIOAK HAMAR ARLOETAN (AMAIERAKO ZENTROAK)



Iturria: Geuk egina

Nolanahi ere, talde guztien kasuan, jatorri atzerritarreko pertsonen etorrerak ez du arazorik sortzen. Arabako gizarteak, oro har, normaltasunez hartzen du fenomeno edo prozesu sozial hori.

139. GRAFIKOA: TALDE HANDIEN PUNTUAZIOEN BILAKAERA 2008-2018 ALDIKO TOLERANTZIA-INDIZEAN




Iturria: Geuk egina

Talde Toleranteak bere jarrera toleranteteei eutsi die urte hauetan, pixkanaka-pixkanaka hobetuz.

Talde Anbibalenteak ere hobetu egin ditu immigrazioarekiko iritziak eta jarrerak, eta puntuazioak eskalaren erdialdean kokatu ditu.

Talde Uzkurak, 2013an 2008ko puntuazioa okertu ondoren, nabarmen hobetutako batez besteko puntuazioa izan du 2018an.

140. GRAFIKOA: TALDEEN TAMAINA 2018




Iturria: Geuk egina

Aztergai ditugun hiru taldeen tamainari dagokionean, tolerantteen taldean biltzen da Arabako biztanleen % 36,00; ambivalenteen taldea da jendetsuena, hor biltzen baita biztanleen % 43,67; eta, azkenik, uzkurren taldeak Arabako biztanleen % 20,33 hartzen du.

Taldeen banaketa hori Gasteiz hiriburukoaren oso antzekoa da.

141. GRAFIKOA: TALDE NAGUSIEN TAMAINAREN BILAKAERA (%)




Iturria: Geuk egina

Ekonomiaren egoerak eta giro sozialak hobera egin dute, eta horrek ekarri du uzkurren taldearen pisu erlatiboak behera egitea: aurrez ikusi dugun moduan, talde horretako kideen immigrazioarekiko iritziak eta jarrerak hobetu egin dira 2013ko datuekin alderatuta, eta, horrez gain, talde horretako kideen kopuruak behera egin du.

Anbibalenteen taldea ia 2008ko tamaina berera iritsi da, jarrera eta iritzi zertxobait toleranteagoekin.

Azkenik, tolerantteen taldeak 2013ko tamainari eutsi dio, jarrera zertxobait positiboagoekin.



Laburpena

11

Atzerritar jatorriko pertsonen etorrera

1. Arabako biztanleek ez dute arazotzat hartzen atzerriko immigrazioa. Arabarrek badituzte arazo larriagoak: langabezia, pentsioak, ekonomiarekin loturikoak, klase politikoa, ustelkeria eta abar. Euskadik dituen hiru arazo aipatzeko eskatuta, arabarren % 10,6k baino ez du aipatu immigrazioa bat-bateko erantzutetan. Kuadrillen arabera ez da alde handirik batetik bestera. Nolanahi ere, immigrazioa EAEko arazotzat hartzen dutenen pertzepzioak gora egin du zertxobait 2008tik.
2. EAEk izan ditzakeen zenbait arazo iradokitzen ditugunean ere, immigrazioa ez da garrantzitsuenetako bat: arabarren % 13,7k baino ez du aipatzen hiru garrantzitsuenen artean.
3. Arazo pertsonala ere ez da arabarrentzat: biztanleen % 6,4k bakarrik adierazi du immigrazioa bere hiru arazo nagusietako bat dela. 2013koaren antzekoa da zifra. Guardia-Arabako Errioxako biztanleak zertxobait kezkatuago ageri dira gaiarekin (% 16).
4. Atzerritar jatorriko pertsona kopuruaren pertzepzioa altua da: biztanleen % 48,5en iritziz atzerritar jatorriko pertsona gehiegi edo nahiko daude gure inguruan. Ikuspegi hori, gainera, distortsionatua da: arabarren ustez biztanleen % 18,24 da atzerritar jatorrikoa, eta % 11,3 da zifra erreala. Pertzepzioaren datu hori 2008koaren eta 2013koaren antzekoa da, eta urte haietan benetako proportzioa txikiagoa zen. Guardia-Arabako Errioxan pertzepzio hori handiagoa da (% 20,37).
5. Arabako biztanleak hasi dira jabetzen immigrazioa egiturazko fenomeno dela; alde horretatik, datozen bost urteetan atzerritar jatorriko pertsonen etortzen jarraituko dutela uste dute arabarrek. Batez ere Magrebetik eta Saharaz hegoaldeko Afrikatik iritsiko direla espero dute.

Euskal gizartearen gain hautemandako eraginak

1. Arabarren iritziz, oro har, atzerriko immigrazioak eragin negatibo baino positibo gehiago ditu euskal gizartean. Arabako biztanleen jarrera, iritzi eta posizioak EAE osoko biztanleen antzekoak dira.
2. Eragin ekonomikoei buruz galdetuta, Arabako gizartearen gehiengoak (% 65,8) ez du uste atzerritarrek iristeak soldadak beheratzen dituenik, eta gehiengo are handiagoak (% 67,2) uste du ez dietela lanik kentzen bertako biztanleei. Bestalde, herritarren erdiak (% 49,7) ez du uste atzerritarren eraginez langabeziak gora egiten duenik Euskadin. Gainera, Arabako biztanleen gehiengoak uste du ekonomiak hobeto funtzionatzen duela immigrazioari esker, bertako biztanleek bete nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako (% 51,8), eta gehiengo zabalago batek (% 55,9) uste du etorkinak behar ditugula gure ekonomiako sektore batzuetan lan egiteko.
3. Alderdi ekonomikoei dagokienean, Kanpezu-Arabako Mendialdeko eta Guardia-Arabako Errioxako kuadrilletako biztanleek agertzen dute zalantza gehien atzerritar jatorriko pertsonen etorrerak izan ditzaketan onurak direla eta.

4. Hizkuntzarekin eta identitatearekin loturiko gaietan ere, Arabako biztanleek ez dute immigrazioa mehatxutzat hartzen: gehiengo zabalak (% 71,2) ez du uste immigrazioak euskararen garapena geldiaraziko duenik, gaur egun gehiengo euskaraz mintzatzen den eremuetan haren erabilera murriztuko duenik (% 72,8), euskal nortasuna galtzea ekarriko duenik (% 72,8), ez eta euskal nazionalismoaren helburuak geldiaraziko dituenik ere (% 67,1).
5. Immigrazioak euskal identitatean, kulturen eta euskararen izan ditzakeen eraginak direla eta, batez ere Araialdeko kuadrillako biztanleek, baina baita Gasteizko eta Arabako Lautadako biztanleek ere, agertzen dute jarrera lasaia, eta, aldiz, Gorbeialdeko eta Kanpezu-Arabako Mendialdeko biztanleek hautematen dituzte mehatxu handienak.
6. Azkenik, immigrazioak euskal gizartearen ongizatean dituen eragin orokorreki buruz galdetuta, arabarrek argilunak ikusten dituzte, eta 0tik 10erako eskalan 5,38 puntu eman dituzte. Onura gehien Gasteizko kuadrillako biztanleek hautematen dituzte, eta gutxien, Guardia-Arabako Errioxakoek.
7. Arabarrek atzerriko immigrazioarekiko agertzen duten tolerantzia neurtuta, badirudi iritziak eta jarrerak hobetu egin direla 2018an (60,40), 2008ko (56,55) eta 2013ko (54,83) datuekin alderatuz gero.

Eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera

1. Arabako biztanleek uste dute atzerriar jatorriko etorkin guztiek izan behar dutela hezkuntza publikoa (%86,4) eta osasun-arreta (% 77,3) jasotzeko eskubidea, edozein dela ere haien egoera administratiboa.
2. Alabaina, arabarren iritziz, beste zenbait eskubide egoera administratibo erregularrean dauden pertsonen soilik izan beharko lituzkete: laguntza juridikoa (% 51,3), gizarte-laguntzak (% 54,6), familia berriro elkartu ahal izatea (% 55), BOE etxebizitza bat (% 62,1) eta boto eskubidea (% 65,6).
3. Gasteizko eta Arabako Lautadako kuadrilletako biztanleak dira atzerriar jatorriko biztanleen eskubideekiko jarrera irekiena edo ez hain murriztailea agertzen dutenak. Eta, aldiz, jarrera murriztaileena Kanpezu-Arabako Lautadako, Gorbeialdeko eta Guardia-Arabako Errioxako kuadrilletako biztanleek adierazten dute.
4. Arabar gehienek iritziz, atzerriar jatorriko pertsona guztiek izan beharko lukete gaztelania (% 65,0), euskara (% 61,1) eta lanbide heziketako moduluak (% 54,7) doan ikasteko aukera, edozein dela ere haien egoera administratiboa. Iritziak banatuago ageri dira etorkinen ama hizkuntza ikasteko eskubideari dagokionean: arabarren % 37,5ek uste du etorkin guztiek izan beharko luketela aukera hori, % 18,8ren iritziz egoera erregularrean daudenek soilik, eta biztanleen % 37,7ren ustez, inork ere ez.
5. Gai horretan, Gasteizko eta Aiaraldeko kuadrillek agertzen dute jarrera uzkuarena, eta eskuzabalena, aldiz, Kanpezu-Arabako Mendialdeko eta Gorbeialdeko kuadrillek.
6. Oro har, Arabako herritarren iritzi eta jarrerak EAE osoko biztanleen antzekoak dira. Eta aurreko urteetako datuekin alderatuta, Arabako gizartearen jarrera eta iritziak hobetu egin dira.

Bizikidetza-ereduak eta harremanetarako eremuak

1. Arabarrek 6,14 punturekin baloratzen dute etorkinen eta bertakoen arteko bizikidetza-giroa; EAE osokoaren antzekoa da puntuazioa. Aurreko urtearekin alderatuta, arabarren iritziz bien arteko erlazioa antzekoa da, agian zertxobait hobea; horretan bat datoz EAEko biztanleak ere.
2. Beren auzoan edo etxe-multzoan atzerritar jatorriko biztanleekin bizitzeko prest dauden galdetuta, urruntasun kultural eta sinbolikoaren arabera-koak dira arabarren erantzunak eta lehentasunak. Lehenik eta behin, jatorriz “mendebaldekoak” diren etorkinak nahiago dituzte: Mendebaldeko EBkoak, Argentinakoak eta AEBetakoak. Ondoren, Latinoamerikako, Saharaz hegoaldeko Afrikako eta Txinako jatorria dutenak hobesten dituzte, haiekin zenbait gizarte- eta familia-balio partekatu ditzakegula uste dutelako. Eta, azkenik, jatorri urrunekoak eta estigmatizatuak aipatzen dituzte, hala nola Pakistan, Errumania eta Magrebeko etorkinak (kolektibo batzuek eta besteek sortzen duten begikotasun-mailan ere antzekoa da sailkapena).
3. Oro har, arabarrek uste dute atzerritarren etorrerak aberastu egiten duela euskal kultura (% 66,7), ez dela nahitaezkoa haiekin tradizioak eta ohiturak partekatzea (% 44,8; aldiz, EAEn baiezkua uste du gehiengoak), bai ordea harrerako hizkuntzak partekatzea eta hitz egitea (% 52,6, eta ehuneko hau ere apalagoa da EAEko baina); orobat, uste dute etorkinek alde batera utzi beharko lituzketela gure legediarekin talka egin dezaketen beren erlijio- eta kultura-alderdiak (% 73,8), eta immigrazioak leundu egin dezakeela biztanleria zahartzearen arazoa (% 56,4).
4. Gizarteratzeko eta bizikidetzarako ahalegina nork egin behar duen aztergai hartuta, Arabako biztanleen gehiengo zabalak uste du etorkinek egin behar dutela ahalegina (% 78,5), eta aldiz, bertakoek ez dutela egin behar ahaleginik (% 62,2). Finean, arabar gehienek (% 77,3) uste dute ahalegina bi aldeek egin behar dutela, baina batez ere atzerritar jatorriko etorkinek.
5. Kuadrillen arabera, Gasteizko herritarrek adierazi dute jarrera tolerante eta irekiena; aldiz, Kanpezu-Arabako Mendialdeko, Gorbeialdeko eta, neurri txikiagoan, Guardia-Arabako Errioxako kuadrilletako biztanleek mesfidantza eta mehatxu handiagoa adierazi dituzte.
6. Oro har, esparru honetan ere hobetu egin dira arabarren iritzia eta jarrerak, 2008ko eta 2013ko datuekin alderatuz ger.

Kultura-ereduei eustea

1. Arabarrek gogo onez onartuko lukete atzerritar jatorriko pertsonekin lan egitea edo ikastea (% 83,3), atzerritar jatorriko nagusi bat izatea (% 82,5) edo seme-alabek atzerritar jatorriko lagunak etxera ekartzea (% 79,4). Baina zalan-tzak agertzen dituzte auzo edo etxe-multzo berean etxebizitza partekatzeko (% 55,6) edo etorkinekin eskola berera joateko (% 54,4).
2. Arabako biztanleek beren buruari buruz duten iritzia atzerritar jatorriko biztanleei buruz dutenaren antzekoa da, beharbada zertxobait hobea, baina gehien-

go zabalak uste du etorkinak bertakoak bezain atseginak, solidarioak, langileak, zintzoak eta arduratsuak direla. Hori bai, bertakoak baino matxistagoak direla ere uste du.

3. Arabarrek begi onez onartzen dute etorkinek beren negozioak zabaltzea (% 70,8), sukaldaritza exotikoko jatetxeak irekitzea (% 67,5) eta beren herrialde-tako elikagaien saltokiak zabaltzea (% 65,3). Ez dute hain begi onez ikusten beren hizkuntza hitz egitea (% 56,7) eta espazio publikoak hartzea (% 50,2), baina onartzen dute. Aldiz, eragozpen handiak jartzen dituzte etorkinek beren erlijioetarako tenpluak izan ditzaten (% 38,9), beren jatorriko jantziak erabil ditzaten (% 36) edota beren hezkuntza-zentroak izan ditzaten (% 29,8). Azken hiru gai horietan ez dago aldaketarik 2008ko eta 2013ko datuekiko; aldiz, gainerako gaietan Arabako biztanleak malguago eta toleranteago agertu dira.
4. Jantzi zehatz batzuei buruz galdetuta, arabarrek onartzen dute kipa (% 70,1) eta hijab beloa (%65,6) erabiltzea, baina ez dituzte hain egoki ikusten beste hauek: txadorra (%55,5), nikaba (% 82,7) eta burka (% 84,7).
5. Zenbait gairen laburpen gisa, arabarren iritziz euskal gizarteak mesfidantza agertzen du islamarekiko (2,74 puntu 0tik 10erako eskalan).
6. Kuadrillen arabera, Gasteizko herritarrek agertzen dute jarrera malguena eta toleranteena, eta, aldiz, Kanpezu-Arabako Mendialdeko, Gorbeialdeko eta Guardia-Arabako Errioxako biztanleek jarrera murritzaleena eta intoleranteena.
7. Aurreko urteekin alderatuta, arabarren iritzia eta jarrerak hobetu egin dira.
8. EAE osoko biztanleek agertutako iritzi eta jarrerekin ez dago alde nabarmenik; izatekotan, jantzi jakin batzuen egokitasuna hizpide harturik, EAE osoko biztanleek jarrera irekiagoa adierazten dut.

Begikotasun-maila

1. Atzerritar jatorriko etorkin batzuek eta besteek bertakoengan sortzen duten begikotasun-maila haien eta Arabako gizartearen distantzia kulturalaren arabera da, hein handi batean. Hala, arabarrek begikoago dituzte mendebaldeko jatorriak: Mendebaldeko EB, Argentina ("europarrenak Latinoamerikako jatorrien artean") eta AEB.
2. Ondoren, begikotasun-mailaren arabera, Latinoamerikako eta Erdialdeko Amerikako jatorri guztiak leudeke (Argentina izan ezik), eta Txina eta Saharaz hegoaldeko Afrika.
3. Azkenik, 0tik 10erako eskalan 5aren langa gainditzen ez dutenen artean daude Pakistan, Errumania eta Magrebeko herritarrak, kultura aldetik ere urrunen daudenak, hizkuntza, erlijio, ohitura, fenotipo eta abarrei dagokienean.
4. Arabarrek hiru jatorri horiekiko agertzen dute begikotasun gutxien zazpi kuadrilletan, eta guztien artean magrebtar jatorrikoek dute puntuazio txikiena.
5. Esparru honetan, arabarraren jarrera, iritzi eta balorazioak EAE osoko biztanleek adierazitakoen antzekoak dira.

Estereotipoak

1. Aipatu ditugu gure ongizate-egoerarekin loturiko estereotipo edo aurreiritziak (oso zabaldua daude jende askoren artean), bai eta ekonomian eragiten duten beste zenbait ere (nabarmen atzera egiten ari dira horiek), baina aipatutako horiez gain, badira beste batzuk ere, eta horiek garrantzia galtzen ari dira arabarren diskurtsoetan. Hala, Arabako herritarrek ez dute uste immigrazioak eskoletako hezkuntza maila jaisten duenik (% 45,8k ezetz uste du eta % 30,1k baietz), ez eta segurtasunik eza eta delinkuentzia sortzen duenik ere (% 44,1k ezetz uste du eta % 27,8k baietz), edota etorkinek espazio publikoak hartu eta neurriz gain erabiltzen dituztenik (% 60k ezetz uste du eta % 16,6k baietz), edota gizalegez jokatzeko ez dutenik (% 62k uste du gizalegez jokatzeko dutela eta % 9,8k ezetz), ez eta gure bizimoldea arriskuan jartzen dutenik (% 73k ezetz uste du eta % 8,7k baietz).
2. Alabaina, beste estereotipo batzuk oso errotuta daude gure biztanleen artean, eta zalantzak eta alde bietako iritziak eragiten dituzte. Hala, arabarrek ez dute garbi immigrazioak matxismoa eta genero-indarkeria areagotzen duen ala ez: biztanleen % 38k uste du baietz eta % 41,4k ezetz. Zalantzak dituzte BOEak berenganatzen dituzten ala ez: % 31,6k baietz uste du eta % 35,9k ezetz. Ez daukate argi jasotzen dutena baino gutxiago ordaintzen duten ala ez: % 28,1k baietz uste du eta % 26,6k ezetz. Eta ez daukate garbi gizarteratu nahi duten ala ez: % 26k ezetz uste du eta % 27,7k baietz.
3. Bi dira, funtsean, arabarren artean hedatuen dauden zurrumurruak: etorkinak gizarte-laguntzetatik bizi direla (% 76,7ren ustea da hori), eta ez dutela gizarteratu nahi (% 45,5en iritzia da). Neurri txikiagoan, badira beste batzuk ere, hala nola lana kentzen digutela (% 30), haiekin delinkuentzia areagotu egiten dela (% 28,3), dagoeneko gehiegi direla (% 27,8) edo haiekin matxismoa eta genero-indarkeria areagotu egiten direla (% 26,4).

Immigrazio-politika

1. Arabako biztanle gehien-gehienaren iritziz, atzerritar jatorriko pertsonen sartzen utzi behar zaie, baldin eta lan-kontratua badute edota lege ezarritako eskakizunak betetzen badituzte (familia berriro elkartzea, ikasketak, babes politikoa edo asiloa...). Halaxe baiesten du % 58,1ek. Hori izan da betidanik gehiengoak adierazi duen iritzia. Alabaina, 2018an izugarri handitu da zer erantzun ez dakiten pertsonen ehunekoa (% 20,4). Beharbada, nahasmena sortu dute azken aldian AEBetan, Erresuma Batuan eta Ekialdeko EBko herrialdeetan izan diren diskurtsoek, errefuxiatuen krisiak eta bestelakoek.
2. EAE osoan, postura legalistaren aldekoak gehiago dira Araban baino (% 70 Euskadin, eta arestian aipatu dugun moduan, % 58,1 Araban).
3. Euskadin bizitzen jarraitzeko baimenaren harira, arabarrek ez dute uste langabezian geratzea nahikoa arrazoi denik inor kanporatzeko (% 72,7), baina bai, aldiz, delitu bat egitea (% 52).


4. Administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritarrei dagokienean, arabarren gehiengoaren iritziz aukerarik egokienak bi dira: etorkin guztien egoera erregularizatzea (% 25,3), eta lana dutenak bakarrik erregularizatzea (% 35,5). Gainera, gai horri buruz biztanleen portzentaje handi batek (% 23) ez dauka iritzi argirik. EAE osoan, euskal herritarrek jarrera malguagoa adierazten dute.
5. Babes- eta asilo-politikaren harira, arabarrak zatituta ageri dira: biztanleen % 38,5ek uste du babesa eskatzen duten guztiei egin behar zaiela harrera, eta % 35ek uste du, aldiz, hobe dela jazarriak direla egiaztatu dezaketenak soilik hartzea.
6. Kuadrillen arabera, Gasteizko biztanleek adierazi dituzte diskurtso tolerantteenak, eta, beste aldean, Kanpezu-Arabako Mendialdeko, Gorbeialdeko eta, neurri txikiagoan, Guardia-Arabako Errioxako biztanleek jarrera murritzailleenak.
7. Nolanahi dela ere, oro har, arabarren iritzia eta jarrerak hobetu egin dira 2008ko eta 2013ko diskurtsoekin alderatuta.

DBE eta gizarte-laguntzak

1. Arabarren artean eztabaida, kritika eta mesfidantza gehien sortzen duen gaietako bat atzerritar jatorriko pertsonen gure ongizate-egoeraz egiten duten erabilera da, batez ere 2008tik 2014ra jasan dugun krisiaren eraginez gure ongizate hori mehatxupean ikusi izan dutelako hainbat herritarrek. Alde horretatik, arabarren iritziz etorkinak neurritz gain aprobetxatzen dira diru-sarrerak bermatzeko errentaz, ia osotasunean bereganatzeraino (% 51,8), DBEren eraginez etorkinak ez dira saiatzeko edo mugitzen lana topatzeko, laguntza hori kobratzen dutelako (% 56), DBE jasotzen duten pertsonen artean etorkinek iruzur gehiago egiten dute bertakoek baino (% 38,3), etorkinek gehiegizko onura lortzen dute babes sozialeko sistematik (% 53,7) eta gizarte-laguntzetatik bizi dira eta haietaz neurritz gain baliatzen dira (% 47,3).
2. Hala ere, estereotipo eta uste horiek hor izan arren, Arabako gizartearen gehiengoak ez du uste aparteko DBE bat sortu behar denik bertakoentzat bakarrik (% 67,9). Arabako biztanleek, besterik eskatzen dute: DBEren gaineko kontrol handiagoa, baina jasotzen duten pertsona guztientzat, eta gizarte-laguntza horiez gain enplegua aktibatzeke neurriak ere ezartzea.
3. Kuadrillen arabera, Arabako Lautadako eta Gasteizko biztanleek adierazi dituzte jarrera tolerante eta irekienak, eta, beste aldean, Kanpezu-Arabako Mendialdeko, Guardia-Arabako Errioxako, Aiaraldeko eta, neurri txikiagoan, Gorbeialdeko eta Añanako biztanleek adierazi dituzte aurreiritzi eta iritzi negatibo gehien beren diskurtsoetan.
4. Euskal gizarteak adierazitako iritziekin alderatuta, esparru honetan ere ez da alde nabarmenik antzematen. Eta Arabako biztanleen iritzi eta jarreraren bilakaerari erreparatuta, nabarmen hobetu dira herritarren diskurtsoak eta jarrerak.

Tolerantzia-indizea

1. Tolerantzia-indizean 2018an lortutako puntuazioa 60,4 puntukoa izan da, 2013an eta 2008an lortutakoa baino nabarmen altuagoa. Horrek erakusten du arabarren iritzia eta jarrerak hobetu egin direla azken urteotan, adierazle makroekonomikoak eta sozialak hobetu diren heinean.
2. Arabarrek lortutako puntuazioa estatistikoki EAEko biztanleek lortutakoaren antzekoa da (59,71 puntu), eta Gasteizko biztanleen puntuazioarekiko ere alde handirik gabea (60,89 puntu).
3. Kuadrillen arabera, Kanpezu-Arabako Mendialdeko (54,30 puntu) eta Guardia-Arabako Errioxako (55,07 puntu) biztanleen puntuazioak apalagoak dira Gasteizko kuadrillakoek lortutakoarekin alderatuta (60,85 puntu, haztapenen arabera doitu).
4. Hauek dira Arabako biztanleen tolerantzia-indizea estimatzeko zehaztasun handiena eskaintzen duten aldagai soziodemografikoak, ordena honetan: lehenik eta behin, ikasketa-maila; bigarrenik, aisialdian atzeritar jatorriko pertsonekin duten erlazioa eta ideologia; 3. mailan, auzune mota, nazionalismo maila, etorkinekiko erlazio publikoa, erlijioa, aisialdian atzeritar jatorriko pertsonekin duten erlazioa eta baikortasun maila; eta 4. mailan, identitate-sentimendua eta etorkizunerako aurreikuspenak.
5. Arabako biztanleak hiru talde nagusitan bana daitezke: 1) pertsona tolerantzak, tolerantzia-indizean 72,69 puntutik gora lortzen dituztenak, Arabako biztanleen % 36; 2) pertsona anbibalenteak, tolerantzia-indizean 58,43 puntutik gora lortzen dituztenak, Arabako biztanleen % 43,7; 3) eta uzkurak, 42,86 puntu lortzen dituztenak, Arabako biztanle guztien % 20,3.



Ondorioak

12

ONDORIOAK

1. Atzerriko immigrazioa ez da arazo Arabako biztanleentzat, badituzte arazo askoz garrantzitsuagoak (langabezia, ekonomiarekin lotutako kontuak, pensioak, klase politikoa, ustelkeria eta abar). Ez zaie iruditzen immigrazioa EAE-rentzat arazo denik, eta are gutxiago arazo pertsonala denik beraientzat.
2. 2008ko eta 2013ko egoerarekin alderatuta, ez dago alde handirik. Egungo tolerantzia-indizeak antzeko kopuruak ditu, zertxobait handiagoak, baina ildo beretik: 2008an, 56,55 puntukoa zen; 2013an, 54,83 puntukoa; eta 2018an, 60,40 puntukoa. Anibalenteak gara oraindik ere: gauza batzuetarako toleranteak gara, baina beste batzuetarako, intoleranteagoak. Arabako gizartearen jarrera EAEkoaren antzekoa da, ez dago alde esanguratsurik. Oro har, Arabako biztanleen iritzia eta jarrerak hobetu egin dira 2013tik.
3. Arabako biztanleriak desitxuratuta du EAEn bizi diren etorkinen bolumenari buruzko ikuspegia. Gainera, neurriz kanpoko irudi hori, gizartearen zenbait sektoretan, immunea da ematen zaion informazio objektiboaren aurrean. Ikuspegi hori bera du euskal gizarteak ere.
4. Elkarbizitzarako ereduetan, bolumenari buruzko pertzepzioan eta aurreiritziz eta estereotipoz betetako diskurtsoetan daude gure jarrera eta diskurtsoetako punturik beltzenak. Gure gomendioa argia da: estereotipo faltsu eta negatiboetan oinarrituta atzeritar jatorriko etorkinen aurka egiten diren diskurtsoak gelditzeko eta elkarbizitzari kalte larria egiten dioten eta diskriminazioa sustatzen duten diskurtso horien inpunitate-espazioak ixteko, funtsezkoa da buruzagien eta lider sozialen rola (politikan, gizartean, kulturean, ekonomian, kirolean eta abar).
5. Badirudi, 2018ko datuek erakusten digutenez, egoera ekonomikoak oro har hobera egin ahala (gutxienez adierazle makroekonomikoei dagokionez), Arabako biztanleek berriro ere estimatzen dituztela atzeritar jatorriko pertsonak etortzearen onura ekonomikoak.
6. Gure ongizate-estatuari, gizarte-laguntzetarako sarbidearekin eta laguntzen banaketarekin lotutakoak dira Arabako gizartearen errezelo handienak. Gai horretan eta elkarbizitzarako ereduan (eta zerikusia du lurralde berean bizi diren pertsona guztiek eskubide eta obligazio berberak izatearekin) ikusi ditugu mesfidantza eta jarrera uzkurrenak. Eztabaida (eta batzuetan gaitzespena) eragiten dute, halaber, etorkinek beren erlijioentzat tenpluak egiteak, jatorrizko herrialdean bezala jantzeak eta hezkuntza-zentro pribatuak sortzeak.
7. Kuadrillaka, oro har, Kanpezu-Arabako Mendialdean eta Guardia-Arabako Errioxan dituzte diskurtso kritikoenak eta tolerantzia txikienekoak. Aitzitik, Gasteiz eta Arabako Lautadak dituzte jarrera toleranteenak. Gainerako kuadrillek, hau da, Añanak, Aiaraldeak eta Gorbeialdeak, tarteko profil, jarrera eta diskurtsoak dituzte, eta batzuetan lehen taldekoekin bat egiten dute eta besteetan bigarrenekoekin.
8. Elkarbizitza-ereduari dagokionez, ez dago alde handirik: nahiz eta onartu integrazio-prozesuetan pertsona guztiok jarri behar dugula gure aldetik, oraindik ere ahaleginik handiena etorkinek egin behar dutela uste dute gehienek, eta gure legedia onartu eta gure hizkuntzak ezagutu behar dituztela. Beste az-


terketa eta barometro batzuetan, “asimilazionismo biguna” edo “dekantazio bidezkoa” esan izan diogu horri.

9. Eskubideetarako sarbideari dagokionez, Arabako biztanleriak gero eta gehiago uste du etorkin guztiek izan behar dutela hezkuntzarako eta osasun-arretarako eskubidea, eta gehiago mugatu behar zaiela egoera erregularrean daudenei arreta juridikorako, gizartelaguntzetarako, familiarekin berriz elkartzeko, botorako eta babes ofizialeko etxebizitzetarako sarbidea.
10. Atzeritar jatorriko pertsonen buruz ari garenean, Arabako biztanleek ez dute ezkututzen zein dituzten gogokoen: Mendebaldeko EBko eta Latinoamerikako pertsonengana dute begikotasunik handiena, kulturalki gertuen daudenengana; Magrebeko, Errumaniako, Ekialdeko EBko, Pakistango eta gure mundu sinbolikotik urrunagoko pertsonak, berriz, estigmatizatu egiten dira. Egoera bera ikusten da euskal gizartean ere.
11. Immigrazio-politikei lotuta, Arabako biztanleek leundu egin dute atzeritar etorkinen sarrerari buruzko jarrera. Erregularizazioa eta gure lurraldean egoteko aukera lankontratuarekin lotzen dute batez ere. Eta gauza bera, planteatutako edozein egoeretako egonaldietarako ere.
12. Estereotipoen dagokionez, gehien agertzen direnak gizarte-laguntzei, diru-sarrerak bermatzeko errentaren metaketari, babes ofizialeko etxeei, zergei behar baino etekin gehiago ateratzeari eta langabezia igotzeari buruzkoak dira. Hau da, ekonomiarekin dute zerikusia. Beste estereotipo batzuk ere agertzen dira, baina askoz garrantzi gutxiago dute.
13. Atzerriko immigrazioari buruz tolerantzia gutxien duten pertsonen profilari dagokionez, ez dago alderik EAEko datuekin alderatuta:
 1. Egoerazko pertsona xenofoboak. Gure gizartera lanera datozen atzerriko etorkinekin gizarteegiturako espazio berberetan lehiatzen diren pertsonak dira: ikasketa-maila gutxiko pertsonak, gaitasun profesional txikikoak, etxean diru-sarrera urriak dituztenak, gizarte-laguntzen beharra dutenak (gutxienez, noizean behin), langabezia daudenak, gizarte- eta ekonomia-estratifikazioan beheko aldean daudenak, beren egoera ekonomikoarekin pozik ez daudenak, krisi ekonomikoak kalte handia eragin dienak...;
 2. Pertsona arrazista zaurgarriak. Objektiboki eta subjektiboki zaurgarritasun-egoera pertsonal eta sozial handiengan daudenak dira, eta segurtasun eza eta mehatxua sentitzen dituzte, etorkinen etorrerak aldaketak eragiten dituelako beren inguruan eta ez dutelako beren burua horiei aurre egiteko gai ikusten, edo behar adina tresna ez dutela uste dutelako: adinik handieneko pertsonak dira (65 urtetik gorakoak...), erretiroa hartua dutenak, etxearen zaintzaz arduratzen direnak, diru-sarrera urrikoak, beren burua ezkortzat duten pertsonak, krisiak kalte egin dienak, beren dirusarrerak gizarte-laguntzekin osatzen dituztenak (gutxienez, kopuru esanguratsu bat), gizarte-sare txikia dutenak, etorkizunari begira beldurra eta ziurtasunik eza dutenak...;
 3. Ideologikoki intoleranteak diren pertsonak. Ohiko ezaugarri eta jokabideak (hizkuntza, erlijioa, kultura, ohiturak, mundu-ikuskera, arraza...) ez dituzten atzerriko pertsonen etorrera onartzen ez dutenak

dira. Nortasun autoritarioa eta dogmatikoa duten pertsonak dira, pentsaera itxikoak, aldaketetara egokitzeko zailtasunak dituztenak eta zurrinak: beren burua eskuineko ideologia politikoarekin lotzen dute, espainoltzat dute beren burua (Euskadin...), katoliko praktikatzaileak edo ez-praktikatzaileak dira, nazionalista espainoltzat dute beren burua, adin-tarte zaharrean da...

4

JATORRIZ ATZERRITARRAK DIREN PERTSONEN DISKURTSOAK ARABAN





Diskurtsoen analisia

1

Atal honetan, antolatu ditugun eztabaida-taldeetatik lortu dugun informazioa garatuko dugu. Metodologiari buruzko atalean zehaztasunez azaldu dugunez, sei dinamika burutu ditugu Gasteizen eta hamabi dinamika Arabako gainerako sei koadriletan. Lortutako informazioa sei ataletan antolatu dugu, eta horietako bakoitzaren azalpenean bereizi egingo ditugu hiriburuan sortzen diren diskurtsoak, lehenengoak azalduko direnak, eta koadriletan jasotakoak, ondoren azalduko direnak. Era horretan, batzuen eta besteen artean dauden aldeak eta antzekotasunak ongi islatzea espero dugu.

Emigratzeko erabakia

Abiapuntu gisa, Gasteizen bizi diren jatorri atzerritarreko pertsonen emigrazio-prozesua aztertzerakoan, sorterriko bizimoduari buruz galdetu dugu, handik alde egiteko arrazoiez eta destinora iritsi ondorengo balorazioaz.

Sorterrian zuten bizimoduari buruz galdetuta, kasu gehienetan presentzia handia dute familiak eta gizarte-sareak. Oro har, bizi-kalitatea oso baxua zen han, etorkizunerako itxaropena eskasa, eta bizimodu hobea bilatzeko ametsa agertzen da, ateratzeko arrazoiak azaltzen dituztenean. Europa ikusten da aukera gehiago eskaintzen duen leku gisa, eskubide eta zerbitzuei dagokienez, lana aurkitzeko, sorterrian dagoen familiari laguntzeko dirua lortzeko, etab. Gainera, presio pertsonala eta familiarra ere aipatzen da kanpora ateratzeko arrazoiez hitz egitean, batez ere, Magrebeko eta Saharaz hegoaldeko Afrikako gizon gazteez osatutako eztabaida-taldeetan.

Gasteizera iristeko moduak, berriz, askotarikoak izan dira: familia berrelkartzea batzuetan, lan-karta bat lortu izana, ikasketak egitea, eta pateran iritsi denik ere bada... bide zuzenagoak edo luzeagoak eraman izan dituzte, zenbaitetan beste herrialde edo autonomia erkidego batzuetatik igaroz.

«Nik neuk behintzat, gustukoa nuen nire bizimodua, etorri baino lehen. Orain naizen bezalakoa nintzen lehen ere, bizia: tailerrak egitea, lagunekin egotea, meskitetara maiz joatea, elkarteak... Ni kultura-elkarte batean nengoen Tangerren, eta erlijio-elkarte batean ere bai. Eta Tangerren ezkondu nahi zutela esaten zutenetakoa nintzen. Nik Tangerren geratu nahi nuen eta azkenean Tangerretik atera nintzen, senarrarekin ezkondu nintzelako, bera Espainian bizi zela. Maitasuna... (barreak). Ez nuen Marokotik alde egin nahi nire anai-arrebek esaten zidatelako Espainian eguraldi txarra egiten duela eta bakardadeak depresioa eragiten duela. Eta ni beldur nintzen Marokon nuen gizarte-giroa ez nuela aurkituko. Ni Gasteizera etorri naiz zuzen, eta 7 urte daramatzat bertan». (Emakume magrebtarra) ¹

«Hilabete batzuk lehenago nire koinatu bat etorri zen, lan-kontratu batekin. Une hartan Amerikako zenbait herritako pertsonak lan-kontratuak lortzen ari ziren, eta berak zortea izan zuen. Eta hemen Gasteizen lan egitea egokitu zitzaion. Bera zen ezagutzen genuen pertsona bakarra eta, horregatik etorri ginen hona». (Emakume latinoamerikarra)

«Ni berdin, nire ahizpa hemen zegoen eta, hona ekarri ninduen, Gasteizera zuzen-zuzen». (Emakume latinoamerikarra)

«Ni senarragatik etorri nintzen. Oso gazterik ezkondu nintzen eta Kolonbian ez nuen lanik egiten. Unibertsitatea bukatu eta umeak zaintzen hasi nintzen. Hain gazte ezkondu, ama ere gazterik izan nintzen, nire seme-alabei dedikatua... Senarrak sei urte zeramatzan hemen, eta azkenean etortzea

¹ Erreferentziak arintzearen, ez dugu argitzen partehartzaileen herritartasuna den, jatorria den edo hango gurasoen seme-alabak diren. Beraz, 'emakume magrebtarra' esaten denean, berdin izan daiteke haren herritartasuna, jatorria edo hango gurasoen alaba.

erabaki nuen. Ez nuen Kolonbiatik mugitu nahi, baina ordurako hiru seme-alaba nituen eta beragatik etorri nintzen, seme-alabek aita ikus zezaten». (Emakume latinoamerikarra)

«Ni orain dela hamahiru urte hemen dagoen alaba batengatik etorri nintzen. Hark egin zidan gonbidapen-gutuna, eta paseatzera etorri nintzen. Baina gauza asko aurkitu nituen hemen, eta paseoa luzatu zen, eta uste dut oraindik luzatuko dela gehiago». (Emakume latinoamerikarra)

Emigrazioaren helmuga Gasteizen jarri izanaren arrazoiez galdetuta, gehienetan lagunek, ezagunek eta familiarrek hiriaren inguruan emandako gomendioengatik etorri direla erantzun dute. Bizi-kalitatea aipatzen dute, beste leku batzuetan baino handiagoa, atzeritar jatorriko pertsonetikiko abegi ona, gizartean integratzeko eta lanbidea ikasteko aukerak eta baliabideak badirela, lanpostu ugari, dokumentazioa tramitatzeke erraztasunak, etab. Beste kasu batzuetan, hiri honetara etorri, gustukoa aurkitu bertako bizi-kalitatea, giroa eta tamaina, eta bizimodu berri bat hasteko Gasteizek ezaugarri ezin hobeak zituela erabaki zuten.

«Helmuga zehatza baino, aukerak eta kondizio onak eskaintzen digun lekuan geratzen gara. Hona iritsi nintzen eta bertan geratzea erabaki genuen. Ni Madrilén bizi nintzen, baina hiri handi batean integrazioa gauza zaila da. Aterpetxez aterpetxe ibili nintzen han. Hala nenbilela, Gasteizera etortzea gomendatu zidaten, hiri txikia zelako eta bizi-baldintzak hobeak zirelako. Gainera, esan zidatenez, instituzioek hemen ez zuten etsaitasunik agertzen immigrazioarekiko». (Saharaz hegoaldeko mutil gaztea)

Arabara emigratzeko erabakia, batez ere, lagun, ezagun eta familiarren gomendioetan oinarritzen da.

«Anaia Gasteizen bizi zen eta aldian behin bisitan etortzen ginen. Alabak oso ongi sentitzen ziren Gasteizera etortzen ginenean. Beraz, etxebizitza bat alokairuan hartzeko aukera izan nuenean, hartu egin nuen. Alabak zoriontsuak izatea nahi nuen». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«Helmuga Gasteizen jartzea kasualitatea izan zen. Seinale bat ikusi nuen: lagun batek etortzera animatu ninduen. Nire ustez ezin da inora joan han ezagunik ez baduzu, oso zaila da, beti eduki behar duzu ezagun bat, hasieran lagunduko zaituena». (Emakume magrebtarra)

«Nik Gasteiz aipatzen dut dagoeneko hemen jende asko ezagutzen dudalako. Baina beste leku batzuen aldean, hemengo bizi-kalitatea hobe da». (Emakume latinoamerikarra)

«Espainiara iritsi nintzenean lehenengo hiria Almeria izan zen. Handik Sevillara iristen lagundu zidan Nigeriako nire auzo bereko neska batek. Han lana aurkitzen nuen, baina oso prekarioa. Lan bat ematen zizuten eta handik bi hilabetera lanik gabe zeunden. Lagun bat Durangon bizi zen eta Sevillara etortzen zen bisitan. Euskadira etortzeko esan zidan. Han berarekin geratu nintzen hainbat hilabetez, eta Gasteizen aldaparik ez zegoela ohartu nintzen. Lekua izugarri gustatu eta hemen geratu nintzen». (Saharaz hegoaldeko mutila)

Hiriko bizi-kalitatearen inguruko arrazoiez gain, beste batzuk ere aipatzen dira, esaterako lanean hasteko erraztasunak, gizarte-laguntzak, etab.:

«Ni Pakistanetik zuzen Italiara iritsi nintzen nekazaritzan aritzeko bisa batekin. Italiatik Bartzelonara iritsi nintzen, hilabete bat igaro eta gero lagun batek hemendik deitu zidan, hemengo legeei buruz hitz egin zidan, diru-laguntzak lortu ahal nituela, lanbide bat ikasi eta lana ugari zela. Horregatik etorri nintzen Gasteizera». (Gizon pakistandarra)

«Pakistanetik atera eta Dubaira iritsi nintzen. Han urte batzuk pasa eta Italiara joan nintzen gero. 8 hilabete igaro ditut Italian. Han jakin nuen Espainian 3 urte pasa eta paperak lortu ahal direla eta Espainiara joatea erabaki nuen. Lagun bat nuen Valentzian, harengana joan nintzen, han 3 hilabete pasa nituen eta gero, ezagun baten bitartez, Gasteizera etorri nintzen. Hona etortzeko arrazoia izan zen lagun bat hemen bizi zela eta esan zidala hemen ikasteko aukera zegoela, eta gaztelania eta beste hizkuntza batzuk ikasteko aukera zegoela, eta gobernuak diruz laguntzen dizula». (Gizon pakistandarra)

Helmugara iritsi ondorengo balorazioa egitean, leku berri batera iristeak eragiten duen inpaktua aipatzen da, kultura, hizkuntza, erlijio desberdinak aurkitzea, eta garrantzi handikoa dela egoera berrian egokitzeko denbora-epe bat izatea. Desberdintasun horiekin batera, diskurtsoen oinarrian ordura arte norbera izan den guztia galtzearen sentimendua dago, eta halako tristezia moduko bat.

«...Jakina, ados nago, guztia arrotza da, gizarte berri horretan beste hizkuntza bat mintzatzen delako, beste kultura bat dute, beste erlijio bat... hori guztia zail samarra egiten da, denbora bat behar duzu egoera berrian egokitzeko, janzteko modua batez ere». (Emakume magrebtarra)

Egoera administratiboaren arazoa ere aipatzen da, denboran luzatzen delako eta horrek zaildu egiten dituelako zenbait eskubide eta zerbitzu lortzeko aukera.

«Orain jendea oso kezkatuta dago. Hemendik beste hiri batzuetara joaten dira paperak aurkeztera, badakitelako hemen arazo asko izaten ari direla. Eta paper guztiak legeak esaten duen bezala izanda ere, badakizu zailtasun handiak izango dituzula bizileku-baimena lortzeko». (Gizon pakistandarra)

Arabako koadrila desberdinetan bizi diren pertsonen diskurtsoak aztertzen ditugunean, emigratzeko erabakiaren arrazoi berak aurkitzen ditugu han eta hiriburuan bizi diren pertsonen kasuan. Dinamika horietan, ordea, sakondu egiten da haien herrialdetik alde egitera animatu, edo behartu, kasua kasu, zituzten arrazoen azterketan. Haien kontakizunetan, jatorri atzerritarreko pertsonak beren herriatik atera eta gaur Arabako koadriletan bizi izatera ekarri dituzten motibazioetan arrazoi desberdinak agertzen dira.

Nabarmentzen dute, alde batetik, jatorrizko herrian dauden hainbat ezaugarri pertsonentzat gakoak diren beharrianak asetzea eragozten zietela, esaterako lanik eza, krisi estrukturala (ekonomikoa nahiz politikoa), delinkuentzia... Beste alde batetik, helmugako lekuaren erakarmena dago, sorterrian ase gabe zeuden beharrianekin lotzen ahal dena, esaterako aukera ekonomiko hobeak aurkitzea, etorkizuneko aukera onak seme-alabentzat, enplegua lortzeko aukerak, segurtasun eta lasaitasun handiagoak, etab.

Azpimarragarria da emigratzeko erabakia hartzerakoan familiari ematen zaion garrantzia. Beraz, familiaren erabakia dugu, eta ez norberarena, kasu gehienetan. Emigratzera bultzatzen duen erabakia familia-multzoari dagokio, gehienetan.

Horregatik guztiagatik, diskurtsotik erator daiteke funtsezko hiru arrazoik eragiten dutela sorterritik alde egiteko erabakia: lanik eza, gizartearen eta norberaren segurtasun falta, eta familiako belaunaldi gazteen (seme-alabak) etorkizunaren inguruko itxaropenik eza.

Has gaitezen enplegu faltatik. Oro har, norbera sorterritik ateratzera bultzatzen duen arrazoï nagusia ibilbide profesionala hobetzeko aukerari lotu ohi zaio, enplegu faltagatik edo lanbidea hobetu nahi izateagatik, bi kasuetan ere familiaren egoera ekonomikoa hobetzeko asmoz.

«Guk diru gutxi genuen eta lanik ez zegoen. Horregatik alde egiten zuten guztiak. Horregatik etorri ginen hona gehienok. Lanik ez zegoen, gutxi irabazten zen eta lan-baldintzak txarrak ziren. Gainera, hango iraultzarekin, enpresa guztiak hondoratu zituzten. Eta, jakina, bizimodua atera egin behar da. Non? Gehixeago irabaz daitekeen lekuan».
(Gizon errumaniarra)

Hiru arrazoik eragiten dutela sorterritik alde egiteko erabakia: lanik eza, gizartearen eta norberaren segurtasun falta, eta familiako belaunaldi gazteen (seme-alabak) etorkizunaren inguruko itxaropenik eza.

«Aitak hemen osaba bat zuelako etorri nintzen hona. Osabak aita ekarri zuen, lanerako behar zuelako. Eta gero aitak gu ekarri gintuen. Etorri nintzenetik lanean eta ikasten aritu izan naiz». (Gizon latinoamerikarra)

*«Badira 50 urte baino gehiago gurasoak etorri zirela lanera. Espainia-
ra etorri ziren, eta iparralde guztian zehar ibili ziren, Tuteran, Zaragozan,
mahats-bilketan, tomate, piper eta behar zena. Beti lanean, eta azkenean
inguru honetan aurkitu zuten lana».* (Gizon portugaldarra)

*«Bizimodu hobe baten bila atera gara, bizi-baldintza hobeena bila.
Oso egoera txarrean nengoen: bereiztua bi umerekin. Orain-
go bikotekideak lagundu ninduen handik ateratzen hona etortze-
ko, hark bilatu zidan lana, diruz lagundu ninduen egonkortu arte...».*
(Emakume errumaniarra)

*«Ni xxxxxxxxx naiz eta Portugaletik nator, 19 urte ditut eta hona etorri
nintzen gurasoak etorri zirelako, ez haiek hala nahita, dirua behar zutela-
ko baizik».* (Emakume portugaldarra)

*«Langabezian geunden eta, andrea eta biok hona etorri ginen. Lagun-
tzak ematen dizkigute».*
(Gizon magrebtarra)

*«Senarra lan bila etorri zen, eta nire paperak moldatu zituenen etorri nin-
tzen. Hasieran harekin lan egin nuen nekazaritzan».* (Emakume magrebtarra)

*«Familia osoa etorri ginen hona. Lehenik senarra, han langabezian geratu
zelako. Ez zuen bere lanbideko ezer aurkitzen. Hemen anaia bat zuen, bizi*

guztia hemen eman duena. Hark animatu zuen etortzera. Enpresa batean hasi zen lanean Gasteizen, eta handik urtebetera ni eta alabak ekarri ginen». (Emakume latinoamerikarra)

Bigarren faktorea segurtasun falta izaten da. Aukera falta eta egoera ekonomiko txarra emigratzeko arrazoi sendoak izanik, gizartearen eta norberaren segurtasun falta funtsezko arrazoiak bihurtu da sorterritik alde egitea erabakitzerakoan. Pertsona kontsultatuek segurtasun falta aipatzen dute, bai elkarbizitzaren arloan (gizarte-gatazkak, politikoak...), bai egunerokoan inguruan lapurretak, bahiketak, estortsioa, hilketak... izanik, beldurrez bizi dira eta arrazoi bat gehiago da sorterritik alde egiteko.

«Kolonbiakoa naiz eta orain dela 20 urte nago hemen. Errefuxiatu gisa atera nintzen eta 20 urte hauetan ez naiz itzuli hara. Nire familiarik hurbilenaekin etorri nintzen, emaztea eta umeekin, mehatxuetatik alde eginez». (Gizon latinoamerikarra)

«Urte eta erdi daramat hemen, besterik ez. Nire herritik atera nintzen, gehienak bezala, barne gatazkagatik. Ni autonomoa nintzen eta fruta inportatua saltzen nuen. Baina han dagoen egoeragatik familia hartu eta berehala alde egin behar nuen. Estortsioarekin hasi ziren. Nire akatsa izan zen lehenengoan ematea. Hortik aurrera ordaintzen jarraitu behar duzu. Une batek aurrera, ezin izan nuen aurrera jarraitu. Eta erabakia isilpean hartu genuen, kontatzeko beldur ginelako. Nire umeak mehatxupear zeuden...». (Gizon latinoamerikarra)

«Bizimodua oso zaila da Saharan. Nire herrian bizi nintzen Marokoren okupazioaren pean, eta hori da Europara etortzeko arrazoiak. Ez nuen askatasunik eta gobernuak kendu zizkidan lurrak». (Gizon magrebtarra)

«Ekuadorretik etorri ginen senarra eta biok segurtasunagatik. Etxean lapurtu ziguten eta ez ginen lasai bizi. Hemen bizitzea erabaki genuen». (Emakume latinoamerikarra)

Familiako belaunaldi gazteenen, alegia, seme-alaben etorkizunaren inguruko itxaropenik eza dela-eta, emigrazioaren eragile handienetako bat da, jatorriz atzerri-tarrak diren pertsonengan antzematen den erronkarik handienetako bat delako familiarentzat etorkizun hobea bilatzea, batez ere ondorengoentzat. Gehienek azaltzen dutenez, beraiek alde egin zutenean sorterrian zuten egoera ez zen ego-kiena hurrengo belaunaldiari etorkizun ona eskaintzeko.

«Nik familia daukat eta batek beti familiaren etorkizunerako onena bilatzen du. Aspaldi pentsatzen ari nintzen hona edo Estatu Batuetara joatea, hobe beharrez. Eta hona etorri nintzen lan eskaintza batekin». (Gizon latinoamerikarra)

«Krisian sartu ginen eta gure bi umeak eskolara joaten hasiak ziren eta, ordaintzeko lain ez genuenez, kanpoan bilatzea erabaki genuen. Orain dela zazpi urte etorri ginen. Lehenik senarra etorri zen, eta bost urte pasata umeekin etorri nintzen neu». (Emakume errumaniarra)

«Urteak pasatzen direnean eta norbera handitzen denean, jadanik ez du bere buruaz pentsatzen, seme-alabak dauzka buruan. Praktikan ni bigarren planora pasatzen naiz, nire alabak zaizkit axola. Hezkuntza hemen han baino askoz ere hobea dela ikusten dut eta gazteek aukera gehiago dituztela». (Gizon latinoamerikarra)

«Errumaniar dagoeneko ezinezkoa zen. Lan baterako deitu zidaten eta ilusio handiz etorri ginen. Seme-alabengatik eta hori guztia... ea zer egin zitekeen». (Gizon errumaniarra)

«Gure ametsa, praktikan, gure seme-alabek ikastea eta lan bat lortzea da». (Emakume magrebtarra)

«Emigratzeko arrazoia da han familia dutenak beldurrez daudela, delinkuentzia handia dagoelako. Seme-alabengatik eta, horrez gain, etorkizun hobe batengatik. Eta kultura maila hemen hobea da». (Gizon latinoamerikarra)

Aurreko atalean aipatutako zailtasunak zailtasun, oro har, jatorriz atzerritarren diren pertsonen sorterriaren oroitzapen ona dute. Oroiminez gogoratzen eta kontatzen dituzte haurtzaroa eta familiaren iraganeko bizimodua. Izan ere, esaerak dioenez, 'haurtzaroa da pertsonen arkadia galdua'.

«Nire haurtzaroan guztia oso ona zen. Bikaina izan zen. Batez ere, gure herriko oraingo haurtzaroaren aldean. Nik uste dut nirea ez nukeela ezerengatik ere aldatuko». (Emakume latinoamerikarra)

«Han El Aaiunen burutik oso lasai nengoen, eta hori ordainduko duen dirurik ez da munduan. Familia ondoan izateak ematen duen lasaitasuna. Diruz gaizki bizi ginen, baina burutik ongi». (Gizon magrebtarra)

«Egia esanda, Perun oso ongi. Haurtzaroko oroitzapenik onenak ditut. Senide asko gara eta gurasoak bizi dira. Sei anai-arreba gara. Eta egia esanda, nik uste dut erabateko zoriona zela. Gurasoek zuten onena ematen ziguten beti. Hezkuntza emateko ahaleginak egin zituzten. Izan ere, guztiok dugu lanbide bat». (Emakume latinoamerikarra)

Hala ere, migrazio-prozesuaren azken-aurreko aldia, bizipen txarrez betea agertzen da: langabezia, bizi-kalitate txarra, kezka, delinkuentzia, arriskua, ezegonkortasun orokorra, etab.

«Oraingo delinkuentzia gehiegizkoa da. Umea lapurtzen dizute, organoen trafikoa, Mexikora edo Panamara joaten da. Eta deus ez, ez dut uste Kolonbian inoiz biziko naizenik gehiago. Izatez ere, familia hona ekarriko nuke eta poz handiagoz biziko nintzateke». (Emakume latinoamerikarra)

Etorkinek bizileku gisa Arabako koadrilak aukeratu dituzte hiru arrazoi nagusi hauengatik: enplegua lortzeko aukerak, batez ere nekazaritzan eta industrian; migrazio-kultura finkatua egotea inguru horretan eta han lagunak edo familiarak izatea; sorterriko landa-ingurunearen antzeko geografia aurkitzea.

*«Aljeria oso ederra da eta oso oroitzapen onak ditut, baina ez nuen egoe-
ra ekonomiko onik. Etorkizuneko itxaropen hobeak nituen European».*
(Gizon magrebtarra)

Bizi-kalitatea jaisten deneko une horretan, etorkizun egonkorra jadanik antzema-
ten ez dutenean, orduan hasten dira sortzen beste herrialderen batean hobetzeko
itxaropenak, eta emigratzeko abenturari heltzeko prest agertzen dira pertsonak.

*«Hara, Errumanian hamabi orduz lan egin eta miseria kobratzen zenuen.
Eta hemen zortzi orduz lan egin eta hilabetean Errumanian halako hiru
edo lau irabazten duzu. Izan ere, orain Errumanian langileak 250 edo 300
euro irabazten ditu».* (Gizon errumaniarra)

Arabako koadriletan elkartu ditugun taldeen kontakizunetan behin eta berriro
agertzen da beren bizilekua ez dela hargatik edo halabeharrez aukeratutakoa: be-
raiek bilatu dute propio landa-ingurunea, Arabakoa kasu honetan.

Izan ere, argi esan daiteke, jaso ditugun gogoetetan agertu denaren arabera,
etorkinek bizimodu berri baten abenturari heltzeko Arabako koadrilak aukeratzeko
dituztela beraien pertzepzioagatik eta lanaren eta egoera ekonomiko hobeari
inguruan duten informazioan oinarrituta.

Aldi berean, Arabako landa-ingurunean lehendik lagunak edo familiarrak izatea
gako lagungarria izan da helmuga hori aukeratzekoan. Izan ere, atzerritar jato-
rriko migrazio-kultura landa-ingurunean finkatua izatea oso lagungarria izan da
etorkinentzat, lana aurkitzeko ez ezik, familia etorri berriak bizileku berrian egoki-
tzeko prozesuan ere.

Horretatik guzti horretatik ondorioztatzen denez, etorkinek bizileku gisa Arabako
koadrilak aukeratu dituzte hiru arrazoi nagusi hauengatik:

- Enplegua lortzeko aukerak, batez ere nekazaritzan eta industrian
- Migrazio-kultura finkatua egotea inguru horretan eta han lagunak edo fami-
liarrak izatea
- Sorterriko landa-ingurunearen antzeko geografia aurkitzea

Azkenik, garrantziaren arabera, hurrenez hurren agertzen dira osasun zerbitzuak
eskuratzeko aukera, heziketa ona lortzeko aukera eta, kasu askotan, giza eskubi-
deak berreskuratu ahal izatea.

*«Hemen osasun-arreta berehalakoa da. Anbulatorioan, umeak du lehen-
tasuna eta berehala artatzen dute. Eta larria ez bada, artatzeko hitzordua
ematen diote. Eta botika ere merke da. Han, Perun, nire umea gaixotzen
da eta...».* (Gizon latinoamerikarra)

*«Horixe falta da han. Seguritasuna hemen ona da, heziketa ere bai, eta
medikuntza, desberdina baita. Alderatzetik ere ez dago».*
(Gizon latinoamerikarra)

Elkarbizitza eta integrazioa

Elkarbizitza eta interakzio nahiz integrazio-prozesuei dagokienez, atzerritar jatorriko pertsonen kontakizunen artean alde nabarmenak antzematen dira, izan ere Gasteiz bezalako hiri ertain baten testuingurua eta Arabako gainerako udalerri txikien testuingurua nabarmen desberdinak baitira.

Gasteizen lekututako atzerritar jatorriko herritarren elkarbizitza eta integrazioa aztertutik, ingurune hurbilenari, auzoari buruz duten ikuspegia ezagutu nahi izan dugu. Eta auzoko giroari buruz, pertsona gehienek bizitzeko leku lasaia dela uste dute, giro onekoa:

«Ni Zaramagan bizi naiz eta bizitzeko oso leku ona da. Umeen ikastetxea berrogeita hamar metrora dago. Shopping ere badago, eta ni joaten naizen eliza ere hurbil dago. Inguruan bizi direnak adineko pertsonak dira, eta lehen esan dizudan bezala, kostatzen zaie ohitzea, baina dagoeneko ohitu dira. Guztiok lagunak gara eta elkar errespetatzen dugu». (Emakume latinoamerikarra)

«Nire auzoa, ni bizi naizen lekua, lasaia da, jende heldu asko dago, jendea lanera joaten da eta jendeak atseginak dira (bertakoak), erantzuten dizute, galdetzen baduzu, baina beti egoten da baten bat solastu nahi ez duena eta egon ezinik sentitzen dena. Baina, oro har, nire auzoa ondo dago. Era guztietako pertsonak bizi dira». (Gizon pakistandarra)

«Auzo oso lasai batean bizi naiz, euskal herritarrak dira gehienak». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«Nire auzoa oso lasaia da eta arraza desberdinak elkarrekin bizi gara. Gehienak atzerritarrak». (Gizon gazte magrebtarra)

«Nire auzoan, askoz gehiago dira espainiarrak. Nire inguruan atzerritar gutxi dago, guztia ondo dago, jendeak ondo hitz egiten dizu, ondo erantzuten dizu. Nik nire auzoan harreman onak ditut auzokide guztiekin». (Gizon pakistandarra)

Baina beste hainbat lagunek diotenez, beren auzoan segurtasunik ez dago, segurtasun eta kontrol gehiago behar du.

«Oso desberdinak ziren pertsonen arteko harremanak orain 20 urte, Gasteizera iritsi nintzenean». (Gizon pakistandarra)

«Nik uste dut nire auzoan segurtasun eta kontrol gehiago behar dela. Nerabeak ikusten ditut, eskolatik atera eta erretzen hasten direla, batzuetan droga...». (Saharaz hegoaldeko gizon gaztea)

«Nire auzoan ijito asko bizi dira. Egun batean, bizikleta kanpoan utzi nuen eta txikitu egin zidaten. Ez zait gustatzen pertsona horiek hor egotea». (Saharaz hegoaldeko gizon gaztea)

Estereotipo edo aurreiritzi hori, haien ustez, komunikabideek sortzen eta hedatzen dute, informazio hori zabalduz, izan ere, zati txiki batengan egia izanda ere, kolektibo osoa jartzen baitu auzitan

Atzerritar jatorriko populazioa integratzeko prozesuetan oso kontuan izan behar da etorkinekiko jarrerak eta ikuspegiak. Ildo horretatik, bertakoek atzerritarrekiko dituzten irizpide kulturalak, estereotipoak eta aurreiritziak ere jarrera eta ikuspegi horien osagaiak dira. Atal honetan, Gasteiztarrek jatorri atzerritarreko pertsonak nola ikusten dituzten ezagutu nahi izan dugu, jatorri atzerritarreko herritarren ahotik.

Irizpide kulturei buruz ari garela, atzerritar jatorriko populazioak kultura, erlijio eta hizkuntza aldeko desberdintasunak azpimarratzen ditu. Esaterako, emakume magrebtarren Gasteizko solas-taldeetan jantzien arazoak hitz egin zuten, eta haien iritziz, euskal herritarrek batzuetan ez dute haren esanahia ulertzen, eta horrek eragin txarra du haien bizitzaren zenbait arlotan: Lanean, aisialdian, etab. Haien ustez, irudi horretan eragin handia dute komunikabideek. Haiek ez dute bat egiten irudi horrekin, haien ustez ez datorrelako bat errealitatearekin.

«Nik uste dut arazoa lana dela. Eta adinekoak dira beste era batean pentsatzen dutenak. Gazteak ere badira, baina batez ere adinekoek dute arazoa beloarekin». (Emakume magrebtarra)

«Baina nire ustez, eskarmentua baduzu, diplomak, ikasketak, ziur deituko dizutela, zure beharra izango dutelako. Azkenean, guztia interes baten arabera da. Baina ez eskarmenturik eta ez ikasketarik ez baduzu, begiratu ere ez dizute egingo. Hemen interesa dago guztien gainetik. Zure nortasunaz gain. Hori ikusten dut nik. Horregatik, gu ez, beste atzerritar batzuk nahiago dituzte. Ez pertsona hobeak direlako, ez. Beste emakume atzerritar batzuk gu bezalakoak ez direlako izango da. Tapatua ez dagoen emakumea hartuko dute, jakina». (Emakume magrebtarra)

«Ados nago, nire ustez komunikabideek dute errua, egia ez den irudia zabaltzen dute. Ikusten zaituzte eta beloa eramatera behartuta zaudela pentsatzen dute. Beste irudi bat dute. Beraz, haiekin hitz egitera joan eta, aurreiritzia dute. Eta haiek zurekin hitz egin nahi dutenean, badute zertaz hitz egin. Nire ustez, hitz egin behar da, eta haiei azaltzen saiatu, haiek duten ideia ez dela errealitatea». (Emakume magrebtarra)

«Ni kiroldegi batera joan naiz, baina ez zaude beti gustura, jantziak direla-eta... haiek esaten dizute 'zapia honela edo bestela eraman dezakezu?'». (Emakume magrebtarra)

«Bai, ni emakumeentzako kiroldegi batera joaten nintzen eta, hala ere, zapiarekin itoko zarela esaten dizute. Baina ni gustura banago, inori ez zaio axola. NI EPARA joaten naiz». (Emakume magrebtarra)

Estereotipo eta aurreiritzien inguruan, oro har, Gasteizen bizi diren jatorri atzerritarreko pertsona gehienek, batez ere pakistandarrek, beraiek jasotzen dituzten gizarte-laguntzei buruz euskal herritarrek duten ikuspegia aipatzen dute. Gainera, poliziak gehiago kontrolatzen dituela uste dute, eta gazte magrebtarren artean azpimarratzen dituzte haien erlijioarekiko aurreiritziak. Enplegua eta hezkuntzari buruz, atzerritar jatorriko herritarren ustez, bertako herritarrek lanpostu batzuetara mugatzen dituzte haien lan egiteko gaitasunak, oro har zaintzara, ostalari-tzara eta nekazaritzara. Egoera hori bi ahoko ezpata da haien ustez: alde batetik,

ona da euskal gizarteak haien beharra duela sentitzea. Baina beste alde batetik, ikuspegi horrek zailtzen du mugikortasuna, bai horizontala, kategoria bereko beste enplegu batzuetara igarotzeko, bai bertikala, ardura-postuak hartzen hasteko. Atzeritar jatorriko pertsonen gaineko ikuspegi horrek eragin txarra du goi-mailako ikasketak dituen eta euskal ekonomiaren beste eremu batzuetan lan egin nahi duen jendearengan. Eta hurrengo belaunaldietako heziketa-biderako eta horren ondoriozko lanbiderako ere arazoa izan daitekeela uste dute.

«*Bai, badira aurreiritzi asko*». (Saharaz hegoaldeko gizon gaztea)

«*Ikastaro bat egin eta lana lortu nuen gobernuz kanpoko erakunde batean. Nire egoera administratiboa legeztatze kontratua aurkeztu nuen, funtzionarioak esan zidan nire kontratua ezin zela onartu, ez zuelako sinisten ni, afrikarra izanik, halako lan bat lor nezakeenik. Nire nagusiarri deitu behar izan genion azkenean kontratua onartzeko*». (Saharaz hegoaldeko gizon gaztea)

«*Gaztelania ikasten nengoela, tibetar baten laguna egin nintzen. Ingeleza hark baino hobeto hitz egiten nuen nik. Ingelerako irakasle bat behar izan zenean, bera hartu zuten, haren andregaia hemengoa zelako. Nire laguna saiatu zen niretzako leku bat bilatzen, baina alferrik*». (Saharaz hegoaldeko gizon gaztea)

«*Adibide bat daukat. Andre batek frantseseko irakaslea bilatzen zuen alabarentzat. Nirekin kontaktua egin zuen. Ikusi ninduenean atzera egin eta "Hara... frantses bat nahi nuen nik". Saiatu nintzen azaltzen diplomatura nuela, eta alabari laguntzen ahal niola, baina azkenean ez zuen onartu*». (Saharaz hegoaldeko gizon gaztea)

«*Jendea harritu egiten da batxilergoa ikasten ari naizela esaten didean. Hemen jendeak uste du etorkinek ez dakitela irakurtzen edo ez dutela ikasten*». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«*Hemen zenbait lan etorkinentzako bakarrik dira*». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

Gizarte-laguntzei buruz, estereotipo hori badela ikusten dute, haietako askok, gehienek, inongo laguntzarik hartzen ez badute ere. Haien ustez, laguntzak ez dira ongi erabiltzen, eta lan edo zerbitzu bat ematearen truke eman beharko lirateke. Orain ere pakistandarrak dira estigma beren gain gehien sentitzen dutenak, jatorri horretako pertsona batzuek egindako gehiegikeriengatik. Estereotipo edo aurreiritzi hori, haien ustez, komunikabideek sortzen eta hedatzen dute, informazio hori zabalduz, izan ere, zati txiki batengan egia izanda ere, kolektibo osoa jartzen baitu auzitan.

«*Nire ustez gaizki erabiltzen dira. Behar ez duten batzuek kobratzen dute laguntza, eta behar duten batzuek ez dute hartzen. Niri espainiarrek eta euskaldunek esan izan didate "laguntza guztiak atzeritarrentzat dira" eta nik ez dut laguntzarik kobratzen*». (Emakume magrebtarra)

«*Jendeak ikuspegi okerra du guri buruz, batek iruzur egin duela edo berrietan zerbait gaizki egin duen bat ateratzen dela, eta guztiok halakoak garela uste izaten du*». (Gizon pakistandarra)

Haien ustez, komunikabideek ez dute laguntzen haien kolektiboa era positiboan agerrarazten

«Nik nahiago dut diru-laguntzarik ez ematea eta diru hori enpresei ematea, jendea kontratatu dezaten. Horrela, lan egin eta zure dirua irabazten duzu». (Emakume magrebtarra)

«Ez dut nahi niri deus ematea eta gero nire bizitzari buruz azalpenak eman behar izatea». (Emakume magrebtarra)

«Baina nik lana izan nahiago nuke. Laguntza ez delako segurua. Eskuratzea erraza izan daiteke, baina gero zaila da laguntza-sisteman irautea. Gaur ordaintzen dizute eta bihar ez». (Saharaz hegoaldeko gizon gaztea)

Beste prejuizio batek delinkuentzia zenbait kolektiborekin lotzen du, eta haien artean, batez ere, jatorriz pakistandarrek diren herritarrek agertzen dira begiz jota. Haien artean, Gasteizen denbora gehien daramatenek uste dute gaur egun kontrol handiagoa ezartzen dela haien gainean, lehen baino. Haien ustez, komunikabideek ez dute laguntzen haien kolektiboa era positiboan agerrarazten.

«Behin arazo bat izan nuen. Neska bat etorri zen, nire negozioaren terrazan eserita zegoen mutil bat salatuz, eta han ziren pertsonak elkartu eta mutil hura jotzen hasi ziren, ustez neska errespeturik gabe tratatu zuelako. Orduan nik poliziari deitu nion. Eta bi aldeak hartu eta eraso egin zuten guztien datuak hartu beharrean, nire herrikidea bakarrik eraman zuten, eta ez zuten galdetu ere egin errua norena zen». Ni gertatutakoa salatzera hurbildu nintzen polizia batengana, eta inork ez zidan lagundu, abokatu bat bilatu arte... Nire iloba etorri zen epaitegira, terrazan gertatutakoaren lekuko izan zelako. Ez zioten jaramonik egin haren kontakizunari, eta hark kontatu zuen istilua neskaren erruz hasi zela, eta nire laguna erasotu zuten gizonen erruz, eta errua ez zela nire lagunarena... Izan ere, ziur naiz neskari eman ziotela garrantzia bi gauzarengatik: lehenik emakumea zelako, eta bigarrenik Gasteiztarra zelako, eta ez zuten kontuan hartu herrikide pakistandarraren errugabetasuna, neska haren hitza onetsiz». (Gizon pakistandarra)

«Ez dute zigortzen egintza kriminalak egiten dituenak, baina guztiok bando berekoak bagina bezala begiratzen digute, eta horrek arazoak ekartzen dizkigu bulego guztietan, atzerritartasun bulegoan ere bai, egoitza-baimena eskatzerakoan. Eskakizunak betez gero, normalean atzerritartasun-bulegoak baimena eman beharko luke, baina benetan ez da hain erraza, gauza asko justifikatu behar dituzulako. Epaitegira ere joan behar duzu, baimena emanda ere, eskakizunak bete dituzula egiaztatzeko, baina atzerritartasun-bulegoan denbora galarazten dizute eta lupaz begiratzen dizute». (Gizon pakistandarra)

«Guk uste dugu herrialde zehatz batekoak garelako eskatzen digutela beste pertsona batzuei baino eskakizun gehiago. Berriak iristen direnek ere zailtasun gehiago dituzte aspaldi daudenek baino, eta badakite nola erantzun edo erreklamatu, zerbaitekin ados ez badaude, administrazio publiko batean». (Gizon pakistandarra)

«Nire ustez erru handia poliziak du, polizia asko arrazistak direlako, berriz diot, behin agente batzuk nire lokalera etorri ziren eta barran sartu ziren baimenik gabe eta gauzak bilatzen hasi ziren. Azkenean galdetu zidaten ea non neukan erreklamazio-orria. Erantzun nien hor nonbait izango nuela, ziurrenik banuela, baina une hartan gogoratzen ez nintzen ezin niela erakutsi, orduan polizia batek erantzun zidan, iseka eginez, ogasunera joateko eta erreklamazio-orriak eskatzeko, berak ordainduko zituela. Ni iraindua sentitu nintzen oso, nire negozioan lanean ari nintzelako, diru asko inbertitu nuelako, eta ez litzaidake asko kostako erreklamazio-orriak erostea, nire lokalean ez baziren ere, baina polizia haren erantzuna, behin eta berriz esanez ogasunera joateko eta berak ordainduko zuela, hemen ogasunean erreklamazio-orriak dohainik direlako. Orduan berak esan zuen bere kotizazioarekin nik eskubidea eduki ahal nuela erreklamazio-orriak doan eskatzeko. Eta nire ustez, berak kotizatzen duen bezala, nik ere kotizatzen dut nire negozioan, berak baino gehiago ere, lau langileren gizarte-asegurua ordaintzen dudalako, gehi nire autonomo-asegurua, hileror». (Gizon pakistandarra)

Gasteizen egin ditugun dinamiketako beste une batean, euskal gizartean integartzeko gakoen gaiari heldu diogu. Planteatzen diren alderdi gehienek lotura dute, alde batetik, elkarbizitza moduekin eta dibertsitatearen kudeaketarekin, esaterako, ohiturak ezagutzea, hizkuntza, hiriaren bizimoduan parte-hartzea, etab.; baina beste alderdi batzuk ere gakoak dira egungo integrazioari begira, adibidez, enplegua, etxebizitza era segurtasun juridikoa, eta hurrengo belaunaldiak, ardatz nagusia heziketa dela.

Inguruaren eta ohituen ezagutzari dagokionez, sortu diren zenbait diskurtsoan beharrezkotzat jotzen da atzerritar jatorriko populazioaren aldetik ahalegina egitea ezaugarri kulturalak ezagutzeko eta ingurunean egokitzeko. Horretarako, haien ustez garrantzitsua da beste kulturekiko interesa erakusteko ahalegina. Bertako herritarrek ere zabalik agertzeko ahalegina egin behar dutela esaten dute.

«Horixe egingo luke hemengo pertsona batek gure herrialdera joaten bada, ezta? Nola bizi garen ezagutu, gure ohiturak, eta hango bizimoduan egokitu» (...) «Horixe bera». (Emakume latinoamerikarra)

«Etortzen garenontzat, hori da lehen gauza. Hemengo bizimoduan egokitu behar duzu eta, hainbeste eman behar dizutela pentsatu beharrean, zeuk eman eta zeuk ezagutu, egokitzeko eta integratu ahal izateko» (Emakume latinoamerikarra)

«Integratu, batzuek ez dute hori nahi». (Gizon gazte magrebtarra)

«Interesgarria dela beste kultura batzuk ezagutzea». (Gizon gazte magrebtarra)

«Guk ere integratu behar dugu hemen, baina bertakoek ere bai. Integratu ahal izateko, hemengoek espazio bat ireki behar dute gu integratu gaitezten. Bestela, ez dago integraziorik». (Emakume latinoamerikarra)

«Eta garbitasunak eta garbia izateak errazten dute gizarte honetan integratzea». (Gizon pakistandarra)

«Nire ustez, aztertu beharko litzateke zer den integrazioa. Aztertu eta ikusi nola... inor ezin delako behartu integratzera, ez hemengo eta ez hango. Baina landu. Ikusi zein proiektu egon daitekeen gizarte integratuago bat izateko, egiazko integrazioa lortzeko. Izan ere, norberak integratu nahi du baina, non? norekin?». (Emakume latinoamerikarra)

«(...) Non datorrenak abegia sumatu eta hemen denak ezinegona sentituko ez duen». (Emakume latinoamerikarra)

Gasteizko dinamiketan ere gakoa jotzen zen komunikazioa, ez isolatzea, eta ondo-koak errespetatze.

*«Irekitzen ari dira, ikusten dutelako. Begiratu dute eta dagoeneko komunikazioa oso irekia dago, baina oraindik asko falta da. Asko falta da auke-
ra-berdintasuna guztiei emateko. Guk dugun balioa, pertsonak eta profesio-
nolak garen aldetik, edo dena delakoa. Hori oraindik falta da».* (Emakume latinoamerikarra)

«Komunikazioa. Lehen esaten zenuen ba, nolakoak diren Gasteiz eta gasteiztarrak. Gure joera beti da arrazistak direla esatea, baina beharbada ez da arrazakeria arazoa, komunikazio falta baizik. Elkar ezagutzea, nondik zatozen eta ni non nagoen ezagutzea. Eta hitz egitea ere bai, batzuetan ez dugulako hitz egiten, beharbada beldurtzen gaituelako ez erantzuteak edo zer erantzungo diguten». (Emakume latinoamerikarra)

«Askotan komunikazio falta da arazoa, ez hitz egitea eta elkar ez ezagutzea eta, azkenean, elkar aintzat ez hartzea». (Emakume latinoamerikarra)

«Begirunea gainerako herritarrekiko eta lagunartekoa izatea». (Gizon gazte magrebtarra)

«Integratzeko beharrezkoa da jendearekin elkar-bizitzea» (Gizon gazte magrebtarra)

«Nire ustez, integratzeko gauzak egin behar dira, parte hartu behar da». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«Eskolara joatea, kirola egitea, lanbideak ikastea». (Gizon gazte magrebtarra)

«Hitzaldietara joatea eta talde-jardueretan parte hartzea». (Gizon gazte magrebtarra)

«Nik uste dut harrerako gizarteko jendearekin harremana eduki behar dela integratu ahal izateko». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

Elkarbizitzarekin eta integrazioarekin lotuta, hizkuntza ere izan da mintzagai, integrazioarako gakoa den aldetik. Alde batetik, euskal herritarrekiko gizarte-harremanak eta interakzioa errazten du (adibidez agurrak, esamoldeak, etab., bertako jendeari atsegin zaiola eta gehiago irekitzen dela antzematen dutelako) eta beste aldetik, lanpostu on bat lortzeko bidea izan daitekeelako.

«Hemengo jendeak sumatzen duenean haien gauzak ikasi nahi dituzula, gehiago irekitzen da. “Kaixo” esaten besterik ez badakizu ere, hunkitu egiten dira euskaldunak». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«Nik uste dut hizkuntza jakitea inportanteena dela hobeki integratzeko. Nik ez dut ikasi nire herrian, horregatik niretzat oso zaila da euskara ikastea, nahiz hemen Gasteizen euskara nahiago duten gaztelaniaren gainetik». (Gizon pakistandarra)

«Oso garrantzitsua da. Euskaraz ez badakizu ezin dituzu zenbait lanpostu bete». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«Batzuetan garrantzitsua da euskaraz jakitea lanpostu on bat izateko». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«Ni ere ados nago lagun hauekin, euskara guretzat oso zaila dela, baina doan da, ez dizute askorik kobratzen euskaraz ikasteko. Baina uste dut espainiarrek ordaintzen dutela euskara ikasteagatik. Hala ere, gaztelaniaz ere integratu daitekeela gizarte honetan eta gauza onak eskaini ahal dituzula uste dut». (Gizon pakistandarra)

Enplegua lortzeko buruz, haien ustez gakoa da pertsonak gizartean integratzeko aukera izan dezan. Horretarako, beharrezkoa ikusten dute lanean hasteko programak sustatzea. Eta lanean hasteko izapide administratibo nahiz juridikoak hobetu behar direla ere irizten diote. Behar hori agertzen da, batez ere, jatorri pakistandarrako gizonen azalpenetan. Orobat, laguntzak (DBE-RGI) eman behar direla irizten diote, baina horren trukean gizarteari zerbitzuren bat eman beharko litzaiokeela, lehen esan dugun bezala.

«Nire ustez integrazioa lanetik dator. Lanik ez baduzu, ezin duzu ezer egin». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«Nire ustez, lanerako aukera gehiago jarri behar dira. Enplegua eman behar zaie behartsuei. Nire ustez, lana izanez gero, arazo gutxi izango dituelako pertsonak, krimen gutxiago izango dira, jendartean arazo gutxiago izango dira. Elkarbizitza hobea izango litzateke. Gainera, gobernuaren bulegoetan hobeto tratatu beharko lukete jende». (Gizon pakistandarra)

Etxebizitzari buruz, hori ere gakoa da guztien ustez, orain eskuratzeko arazoak dituztelako, arrazoi ekonomikoak tartean direla (alokairu altuak) edo aurreiritziak, etxebizitzaren jabearekin kontratua kudeatzeko garaian. Beraz, haien ustez gakoa da etxebizitza atzerritar jatorriko pertsonen eskura jartzeko berariazko programak sustatzea.

«Gasteiz oso hiri garbia da bizitzeko. Ni bizi naizen lekuan oso polita dago, leku guztietara erraz joan daiteke. Arazoa Gasteizen etxebizitzaren prezioak dira. Alokairua oso garestia da inguruan. Beste hiri batzuetan alokairuak oso merkeak dira, hemen oso garestiak dira. Familian bizi diren askok beren etxebizitza izatea nahiago dute, ez dute alokairuko gela batean bizi nahi, baina alokairua garestia denez ezin dute etxebizitza eskuratu, diru-sarrera gutxi dituztelako eta etxebizitza garestia delako». (Gizon pakistandarra)

Hezkuntza da, haien ustez, 'jendarte-igogailu' moduko bat, ikasketak egin eta unibertsitatera iritsiz gero, ume horiek jendarteko lanpostu garrantzitsuetara iristeko aukera izango dutelako.

Euskal jendartean arrakastaz integratzeko gakoei buruz hitz egitean, beste faktore bat ere aipatzen da, alegia, segurtasun juridikoa, gai horren inguruko kontakizunetan, horrekin nahasita, lehen aipatutako faktoreak agertzen badira ere, besteak beste lana lortzea, etxebizitza, gizarte-laguntzak, etab.

Amaitzeko, harrerako jendartean integratzeko gakoa jotzen den beste faktore bat hezkuntza da. Alde horretatik, hezkuntza-sistema haientzat harremanetarako lekua da,

bertako umeak eta gurasoak atzerritarrak edo jatorriz atzerritarrak diren umeak elkartzeko lekua, etorkizunean haiek direlako elkarrekin biziko direnak. Haien ustez gakoa da egiazko integrazioa gauzatzea, orain ikastetxeetan gertatzen diren kontzentrazioak gaindituta. Hezkuntza da, haien ustez, 'jendarte-igogailu' moduko bat, ikasketak egin eta unibertsitatera iritsiz gero, ume horiek jendarteko lanpostu garrantzitsuetara iristeko aukera izango dutelako. Eta hori gertatzeko funtsezkoa jotzen dute irakasleen begirada.

«...Beraz, ez zait gustatzen eskola publikoetan sortzen ari den getoa. Zoriturrez, hori denbora-lehergailu bat delako. Integrazioa nahi badugu, etorkinak ehuneko hamar direla esaten badugu, hori baita alde-aldera, zergatik ehuneko hamar hori ez dago banatua eskola guztietan? Egiazko integrazioa egongo balitz gaur eta biharko, hemen jaiotzen diren umeek hemengo kultura guztia ikasiko dutelako, eta hemengo umeek hangoekin tratatzen ikasiko dutelako izango da. Eta horrek ondorio oso onak izango ditu». (Emakume latinoamerikarra)

Arabako koadriletan antolatutako dinamiketan parte hartu dutenen kontakizun eta arrazoibideetara hurbiltzen garenean, sakoneko aldeak antzematen ditugu, gure mintzakideek ikusten dutelako Arabako jendarteak jarrera integratzaileagoa eta toleranteagoa duela atzeritar jatorriko pertsonetikiko, Gasteizen eta, oro har, hirietan baino. Haien esanetan, "lasai" bizi dira landa-ingurunean eta, hasierako zailtasunak zailtasun, honez gero ez dute diskriminaziorik sentitzen.

«Nik erabaki nuen Gasteizetik hona etortzea lasaitasunagatik, harreragatik, eta gustukoa dut lagunarteko harremanak estuagoak izatea ere. Azkenean ezagutzen duzu nor den herri honetakoa, nor dagoen ezkondua norekin, nork duen negozio hori, halako gauzak egiten dituela... oso ondo dago». (Gizon latinoamerikarra).

«Ni neu zoriontsua naiz, lana dudalako eta nire familia ere oso eroso dago hemen. Hemengo bizimodua ona da, ez dago zailtasun handirik». (Gizon pakistandarra)

«Amurrio beste leku batzuk baino askoz ere hobea da, lasaiagoa da, lana hobeto ordaintzen da eta begirune handiz tratatzen zaituzte». (Emakume errumaniarra)

Arabako koadriletan antolatutako dinamiketan parte hartu dutenen kontakizun eta arrazoibideetara hurbiltzen garenean, sakoneko aldeak antzematen ditugu, gure mintzakideek ikusten dutelako Arabako jendarteak jarrera integratzaileagoa eta toleranteagoa duela atzeritar jatorriko pertsonetikiko, Gasteizen eta, oro har, hirietan baino

Inguruan bizitzen daramaten denborak eta jatorriak markatzen dituzte aldeak landa-ingurune berritarrekiko harremanaren balorazioan. Alde batetik, denbora gehiago bertan bizitzen, eta handiagoa da onartua izanaren sentipena edo pertzepzioa.

«Nire iritziz, hemengo bizimodua oso ona da. Ez dut izan, nik neuk, arazorik inorekin. Hona iritsi nintzenean, lantegian laguntza handia izan nuen hizkuntza ikasteko, gauzen izenak esaten zizkidaten. Ez dut arazorik izan haiekin». (Gizon errumaniarra)

«Ni oso ondo hartu ninduten hasieratik. Etorkin errumaniarren historia ezagutzen dutenean beste kontzeptu bat dute. Konfiantza falta zaie gu bakoitza ezagutzen gaituzten arte. Orduan ohartzen dira guztiok ez garela gaiztoak». (Emakume errumaniarra)

«Harreman ona dut herri guztiarekin, ez naiz baztertua sentitzen». (Gizon magrebtarra)

Bestalde, jatorriaz ari garela, onarpenaren sentipena desberdina da pertsona batzuegan eta besteengan. Jatorri errumaniar, portugesez eta latinoko jendeak bertakoen aldetik ongi baloratuak sentitzen dira, baina jatorri magrebtarrekoek beraiekiko hainbat estereotipo eta aurreiritzi antzematen dituzte.

«Nire ustez, traba eta aurreiritzi asko samar daude gizarte-langileen aldetik, nik eskatzen dudana bakarrik Espainian normal bizitzeko eskubidea baita. Eta nire ustez estereotipo txar asko dago gure jatorri magrebtarreko». (Emakume magrebtarra)

«Aurreiritzi dezente aurkitu ditut Espainian sartzeko garaian. Adiskidetasun-harreman luzea lortu behar duzu, eta hala ere, jendeak ez du erabateko konfiantzarik hartzen zurekiko». (Emakume magrebtarra)

«Era guztietako jendea dago. Jendearekin harremanak egiten jartzen saiatzen naiz, baina bai ikusten dut diskriminazioa, gizarte-laguntzen auziagatik, batez ere. Politikariek arrazismo handia eragiten dute». (Gizon magrebtarra)

«Batzuek esaten dute laguntzak hartzera, lapurtzera eta lanpostuak kentzera, beste asmorik gabe gatozela... 'zoaz zeure herrira' esaten digute». (Gizon magrebtarra)

Haien ustez, haien 'jendarteko irudi txarrak' eta gizarte-laguntzekiko jokabidean darabilten gehiegikeriak etorkinen irudi orokorra kaltetzen dute.

Azpimarragarria da, bestalde, atzerritar jatorriko pertsonen artean ere magrebtarra dela onarpenik eskasena eragiten duena. Haien ustez, haien 'jendarteko irudi txarrak' eta gizarte-laguntzekiko jokabidean darabilten gehiegikeriak etorkinen irudi orokorra kaltetzen dute.

«Hona Nanclaresera etortzen diren marokoarrak aldi batez egoten dira, ez dakit diru-laguntzekin edo nola, hiru-lau urte gehienez, eta gero alde egiten dute. Eta beste batzuk etortzen dira. Aldi batez egoten dira, eta ondoren berriz ere beste batzuk etorri. Eta etxebizitza berean geratzen dira... ez dakit nola egiten duten». (Emakume portugaldarra)

Arabako koadriletan egin ditugun dinamiketan aurreiritzi sendoak eta argiak agertzen dira jatorri atzerritarreko jendearekiko, baina jatorriaren arabera, beren ustez egozten zaizkien ezaugarriak desberdinak dira.

- **Jatorri magrebtarreko pertsonak:** haiek diotenez, jendeak uste du laguntzak hartzera, lapurtzera eta lanpostuak kentzera etortzen direla. Kolektiboarekiko diskriminazio handia dagoela uste dute eta haiei buruzko prejuizio asko ikusten dituzte. Gainera, diotenez, jatorri atzerritarreko kolektiboetatik, haiek dira gainerako herritarrekiko harreman gutxienak dituztenak, bertakoak izan nahiz jatorriz atzerritarrek izan.

«Errumaniarrekin bai hitz egiten duzula, baina marokoarrak-eta ez dira asko solasten gurekin. Batez ere, beren artean integratzen dira. Nik ikas-tetxean ikusten dut, guraso guztiok hitz egiten dugu eta marokoarrak alde batera geratzen dira eta ez dute gurasoekin hitz egiten. Baina, nire ustez, ohiturak dira. Gure ohiturak antzekoagoak dira europarrekin. Baina arabiarrenak erabat desberdinak dira». (Emakume portugaldarra)

«Behin bakarrik behar izan nuen laguntza, eta ez zidaten eman. Bitartean, beste alde batzuetatik etorri eta guztiek laguntzak dituztela entzuten dugu. Deskontrola da, ez da berdina guztientzat. Askok ezer egin gabe ko-bratzen ari dira, batez ere arabiarrek». (Emakume latinoamerikarra)

- **Jatorri latinoko pertsonak:** Gizon helduak langiletzat hartzen dira, eta gazteak pandillero eta zalapartatsutzat.

«Ohitura desberdinak ditugu, alegia, gu etxean gaudenean edo sukaldean, beti gure musika entzutea gustatzen zaigu. Eta orduan badirudi za-

laparta horrek traba egiten diela auzokideei. Edo barre egiten badugu edo dena delakoa». (Gizon latinoamerikarra)

Emakume latino gazteenen esanetan, landa-ingurunean oraindik ere haiei buruzko irudi oso estereotipatua dago, “desinhibituak” edo “irudi probokattiboa” dutela esaten dute. Haientzako lanak garbiketa edo zaintza-lanak dira, batez ere.

«Emakume latinoak janzteko modu oso desberdina dugu eta batzuetan deigarriak gara. Gauza askorengatik diskriminatzen gaituzte». (Emakume latinoamerikarra)

«Iritsi nintzenean, ostalaritzan lan egin nuen, eta kafea eramaten nuenean gizon zahar batek beti ipurdia ukitu nahi zidan. Nik esan nion ‘zer duzu zuk?’ Nik hori hemen ikasi nuen, gure kulturen gizon zahar bati ezin diolako gogor hitz egin». (Emakume latinoamerikarra)

- **Jatorri portugaldarreko pertsonak:** jendeak langile gisa ikusten dituela antzematen dute. Gizonak gehienbat nekazaritzarekin lotzen ditu jendeak, eta emakumeak etxeko lanekin eta adinekoen zaintzarekin.

«Langilea zarela-eta ikusita, ez zaituzte begitan hartzen. Buruan beloa janzten baduzu, orduan bai hartzen zaituzte begitan». (Emakume portugaldarra)

- **Jatorri errumaniarreko pertsonak:** Oro har, jendeak onartu eta langiletzat dituela antzematen dute.

«Lanerako ekarri gintuzten eta zernahi lanetan aritzen gara. Ongi egokitzen garen pertsonak gara». (Gizon errumaniarra)

- **Jatorri pakistandarreko pertsonak:** Mesfidatiak eta itxiak direla antzematen da. Merkataritzako eta industriako langileak. Egokitzen dira, baina ez dira jendartean integratzen.

- **EAEko biztanleria:** Argi esan daiteke Arabako koadriletako jendeak ongi baloratuak direla etorkinen aldetik. Haien ustez toleranteak dira, zuhurak, errespetuz aritzen dira, lagunartekoak, leialak, nobleak, itxiak eta hasieran mesfidati samarrak.

«Portugalen ‘vosé’ erabiltzen da eta ‘jauna’ edo ‘andrea’ darabiltzagu hitz egitean, errespetuz. Hemen mundu guztiak agurtzen zaitu, ezagutzen ez bazaitu ere, ‘egun on’ edo dena delakoa esaten dizute. Hitz egiteko era bera desberdina da». (Emakume portugaldarra)

«Euskaldunak itxiak dira adiskidetasunaren berrespenik ez duten bitartean. Bitartean ezer ez. Herrietan bertan ikusten da hasierako mesfidantza hori». (Gizon latinoamerikarra)

«Ikusten dut Izarra giza-harremanak lantzeko leku egokia dela, eta niri lagungarria zait hori. Nire ustez, hemengo jendea oso abegi onekoa da. Kanpotarrak garenok integratzearen aldeko ekitaldiak ere antolatzen dituzte». (Gizon latinoamerikarra)

Landa-ingurune herrietan, pertsonen harreman askoz ere zuzenagoa eta hurbilagoa da haien ustez.

Euskal herritarrekiko harremanaz eta elkar-eragintzaz eta haien harreman-sareaz galdetuta, Arabako koadriletan bizi diren jatorri atzerritarrek pertsonen, oro har, bertakoen abegi ona sentitzen dutela erantzun dute. Haien esanetan, beren udal-erriko eta inguruko jendea ezagutzen dute, eta iruditzen zaie halako herri txiki batean bizitzea abantaila dela harremanak egiteko eta integratzeko. Pertsona horietako asko lehenago hirian bizi izan dira eta, haien iritziz, hiriko harremanak 'hotzagoak' eta 'urrunagoak' dira. Landa-ingurune herrietan, pertsonen harreman askoz ere zuzenagoa eta hurbilagoa da haien ustez.

«Hau herri txikia da eta guztiek ezagutzen dute elkar. Eta jendea oso atsegina da. Nire herrian, berriz, Perun, oso bestelakoak dira gauzak. Sekulako aldea dago. Guztiak dira oso atseginak eta errespetuz tratatzen gaituzte, hemen mundu guztiak agurtzen zaitu. Perun helbide bat galdetzen duzunean, lapurreta egiten dizute». (Gizon latinoamerikarra)

«Nire senarrak koadrila dauka. 19 urte daramatza hemen. Hemengoak dira guztiak eta elkarrekin ateratzen gara. Gu gara portugaldar bakarrak». (Emakume portugaldarra)

«Haien artean bizi gara, erlazionatu beharko dugu. Nik gutxi gorabehera herriko guztiak ezagutzen ditut». (Emakume errumaniarra)

Beren ohiturak gordetzen dituztela eta gehienbat beren familiekin eta beste etorri-taldeekin erlazionatzen direla esaten dute, baina bizi diren herrietako bizimodu partaideak ere sentitzen dira.

Parte hartu duten gehienek baieztatzen dute 'lagun euskaldun onak' dituztela beren herrian. Azpimarragarria da parte hartzen duten batzuek familia osatu dutela bertako jendearekin.

Haien harreman-sarea gehien zabaltzen duten alderdiak eskola, kirola, ikastaroak edo udal-jarduerak dira, eta lana. Azpimarragarria da atzerritar jatorriko pertsonen integrazioan herriko udal-taldeak ematen ahal duen laguntza, herrietan gertatzen direlako interakzioak, elkarren ezagutza gizarteratzen da eta elkarrekiko lotura sortzen da. Aisialdiak abagune ezin hobea eskaintzen du elkar-trukatze horiek sustatzeko.

«Festa egitera ateratzen naiz lagunekin edo andregaiarekin. Futbolekin ere aritzen naiz, eta gaztelania ikasten ari naiz». (Gizon magrebtarra)

Haien ustez, euskaldunak ohitura handiagoa du kale-giroan ibiltzeko, haien sorterrian baino. Haiek gustukoagoa dute etxean egotea.

«Haien eta gure artean dagoen aldea da haiek gehiago gozatzen dutela bizitzaz, gehiago ateratzen dira, hobeto pasatzen dute. Gu berriz, lanera etorri gara. Familia eta umeekin gaude, eta haiekin denbora mugatzen dugu. Haiek bizitzaz gozatzen badakite, lanetik atera ondoren, dena uztartzen dute. Haiek lagun asko dituzte, guk berriz, hizkuntza ere ikasi behar dugu, elkar ulertzeko behintzat. Lan on bat aurkitzea dugu helburu, bizitzeko eta umeak aurrera ateratzeko». (Emakume errumaniarra)

Haien azalpenetan antzematen denez, adina garrantzitsua da puntu honetan; izan ere, umetatik edo gaztetatik herrian daudenek bertako lagun gehiago dituzte eta parte-hartze handiagoa dute, urte gehiagorekin emigratu zutenek baino.

«Ni 24 urte nituela etorri nintzen eta nire ustez hobeto nireganatu ditut euskaldunen ohiturak. Zureganatu ahala egokitzen zara. Hemengoen ikuspegia zureganatzen hasten zara eta egokitu behar duzu». (Gizon latinoamerikarra)

Beraz, baieztatu daiteke Arabako landa-inguruneako komunitateetan etorkinak gehiago sentitzen direla gizartearen partaideak, babestuak eta integratuak, Gasteiz bezalako hiri bateko zalapartan eta anonimotasunean baino.

Arabako landa-inguruneak, etorkinen arabera, lasaitasun handiagoa, bizi-kalitate hobea eta segurtasun handiagoa eskaintzen ditu, edozein hirik baino. Gainera etxebizitza errazago eskuratzen da, eta hori bihurtzen da Arabako koa-driletako herri batean bizitzea aukeratzeko arrazoi funtsezkoetakoa.

Arabako landa-inguruneak, etorkinen arabera, lasaitasun handiagoa, bizi-kalitate hobea eta segurtasun handiagoa eskaintzen ditu, edozein hirik baino.

«Etxebizitza ona aurkitu ahal duzu. Orain nagoen etxebizitza orain bi hilabete direla alokatu nuen eta berria da, gauza guztiak berriak dira. Behar dudan guztia daukat». (Gizon latinoamerikarra)

«Bizimodu lasaia da eta garbia dago, guztiek elkar ezagutzen dute. Badi dira etorkinak eta bertakoak, eta auzoan giro ona dago». (Gizon magrebtarra)

«Herri lasaia da eta ez dago arriskurik. Oso baketsua da, gehiegi ere. Ez dago batere zalapartarik». (Emakume portugaldarra)

«Auzoa oso ondo dago, oso garbia da eta ez dago arazorik, inork ez du arazorik bilatzen. Etxean behar den guztia dugu. Ordaintzen duzun diruaren arabera ere bada, norainoko erosotasuna bilatzen duzun. Etxe berriak eta zaharrak daude, denetik, inbertitzen duzun diruaren arabera». (Emakume errumaniarra)

«Lasaitasuna da irabazten nauena. Inguru guztia gustatzen zait, Murgia ere bai, handiagoa bada ere. Hiriaren orde, lasaitasun handiagoa bilatzen dut. Eta hori oso ona da, nire sorterrian indarkeria, iraultza, mugimendua... zirelako nagusi». (Gizon latinoamerikarra)

Azpimarragarria da ez direla bizi etorkinen gune eksklusiboetan. Oro har, koadriletan ez dago bazterkeriarik edo etorkinen kontzentrazio handiko bizilekurik.

«Ni bizi naizen auzoan euskaldun asko dago, gehienak euskaldunak dira. Eta ezin naiz kexatu. Atzerritar bakarra naiz. Gainerakoak hemen sortu eta hazitakoak dira. Ez dago marokoarrik». (Emakume portugaldarra)

Gainera, oso pozik agertzen dira herrietako zerbitzuekin.

«Herriak baditu zerbitzuak. Oso pozik nago Izarrak badituelako bi banku, farmazia, hainbat taberna, barazki-denda ona eta 'Corte Ingles' moduko bat, hori baita Txominen denda, denetik duelako. Horregatik esaten diote El Corte Ingles». (Gizon latinoamerikarra)

«Bizitzeko, egon naizen herri guztietatik Agurain da onena. Ez dut uste ezer falta duenik, behar diren oinarrizko gauza guztiak badituelako. Niri behintzat, ez zait ezer falta auzo honetan». (Gizon pakistandarra)

«Hemen denetik dago, eta gainera, denda errumaniarrak ere hurbil ditugu. Janaria eta Errumaniako gauzak. Logroñon ditugu nahi ditugun hango gauzak: mortadela, arto-irina, txorizoa...». (Gizon errumaniarra)

Zerbitzuen inguruko kexu nagusia garraio publikoari dagokio. Maiztasun handiagoa eta lotura hobeak eskatzen dituzte, gainerako herrieekin eta Gasteizekin. Izan ere, horixe eskatzen dute Arabako koadriletan bizi diren guztiek, jatorria edozein dela ere.

«Huts egiten duen bakarra autobusen maiztasuna da. Gasteizera goizean joaten bazara, arratsaldera arte itxoin behar duzu itzultzeko. Umea txikia zenean, goizean joaten nintzen eta lasterka egin behar izaten nituen gauzak, itzuli ahal izateko. Nire ustez autobusen maiztasun eskasa dago». (Emakume latinoamerikarra)

«Moz samar geratzen den bakarra, nire iritziz, garraio publikoa da, zerbitzu gutxi ditugu eta maiztasuna urritu nahi dute. Herrietako jendea eramateko dagoen taxi-zerbitzua ere kendu nahi dute». (Emakume latinoamerikarra)

Familia eta gizartean nahiz hezkuntzan integratzea

Beste zenbait gauzatan, ez dago halako alderik Gasteizko eta Arabako koadriletako taldeen kontakizunetan. Zenbait alderdi, egoera eta bizipen oso antzekoak izaten dira bi testuinguru horietan. Horietako bat da erlijioaren bizipena.

Gai horri Gasteizko dinamiketan heldu diogunean, atzeritar jatorriko pertsonen bizitzaren erdigunean dagoela agertzen da. Ildo horretatik, eztabaida-taldeetan nabarmendu dira bi erlijio minoritarioren azalpenak, alegia, islamaren eta eliza ebanjelikoaren diskurtsoak. Azalpen horietan nabarmentzen da, ororen gainetik, erlijioak haien bizitzan dituen zentzuaren eta praktikaren garrantzia. Haien nortasunari lotzen diote sentimendu hori. Bestalde, beren erlijioa espazio publikoan praktikatzeko sentitzen duten askatasunaz hitz egiten dute.

Esfera publikoan praktika erlijiosoa gauzatzeko askatasunaren inguruko arazoak antzematen dira.

«Erlijioa oso inportantea da niretzat. Baina ez du nire denbora guztia hartuko». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«Praktikantea naiz, nire bizitzaren lehenengo lekuan dago». (Gizon pakistandarra)

«Ni artzaina naiz. Erlijioak leku nagusia du nire eta familiaren bizitzan». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«Nik uste, niri hemen eusten gehien lagundu didan gauzetako bat alderdi hori izan da, alderdi soziala eta kristaua ere bai. Bestela, nahiz eta familia eduki, ez da erraza aurrera egitea bultzadarik edo euskarririk gabe. Ahultasun edo depresio une batean, hona iristen denak, sorterriko sustraia eta familiaz gain, beste gauza asko ere galtzen ditu. Batek badaki zer irabazten duen, baina uste dut ez dakiela zer galtzen duen. Gauza gehiegi galtzen dituelako». (Emakume latinoamerikarra)

«Erlijioa oso garrantzitsua da niretzat, askatasunez praktikatzen dut, ez dut arazorik izan». (Gizon pakistandarra)

Esfera publikoak erlijioaren praktika nola antzematen duen, askotariko iritziak daude: alde batetik, batzuen ustez praktika erlijiosoa askatasunez egiten da eta erlijio bereko pertsonekin harremanak izateko aukera da.

«Errutina erlijioso bat dugu. Igandean, asteazkenean eta ostiralean joaten gara kultua egitera. Oso garrantzitsua da guretzat». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«Etxean askatasuna dugu (...) eta etxetik kanpo ere bai!!! Egia esanda, nire ustez bada askatasuna... festa musulmanak iristen direnean ospatzeko lekua uzten digute-eta». (Emakume magrebtarra)

«Gu askatasunez joaten gara gure meskitara. Lasai aritzen gara otoitzean. Nire ustez orain mundu guztian daude gure erlijioarekin (islam) lotutako ohiko arazoak». (Gizon pakistandarra)

«Nigeriakoontzat, erlijioa praktikatzeak gure herriarekin konektatzen gaitu berriz. Elizan gure jendea ikusten dugu eta haiekin harremanak egiten ditugu». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

Baina pertsona batzuek arazorik ere sumatzen dute erlijioaren praktikarako askatasunaren inguruan. Esaterako, edonon otoitzean aritzeko mugak eta beren erlijioarekiko tolerantzia falta sumatzen dituzte. Diskurtso hori sortzen da, batez ere, Saharaz hegoaldeko, Magrebeko eta Pakistango pertsonen artean. Haien ustez, era batera edo bestera, tolerantzia falta dago haien erlijioarekiko, eta hori agertzen da entzuten dituzten esaldi gutxiesgarrietan, irainetan, meskitetikiko begirune faltan, etab.

«Mugatuta nago edonon otoitzean aritzeko».

(Gizon gazte magrebtarra)

«Begirune falta jasan izan dugu (zerri-buruak botatzea meskitara)...». (Gizon gazte magrebtarra)

«Musulmanak terroristak direla entzuteak asaldatu egiten ditu».

(Gizon gazte magrebtarra)

«Erlijioa oso garrantzitsua da niretzat, eta nik uste hemen guztiak bat datozela erlijioa dela gure bizitzaren funtsezko zutarria. Baina gure erlijioari buruz hemen arrazakeria handia dago. Jende askok hemen arrotz begiratzeko zaitu gure erlijioagatik. Publizitate oker asko dago gure erlijioari buruz, maila politiko gorenetik ere. Azken alkatea edo hautagaia, (ez dakit zuzen) Javier Marotok, hautesleen botoa eskatu zuen hemen, Gasteizen, meskita baten eraikuntza geraraziko zuela hitz emanda. Eta propaganda asko da gure meskitaren aurka. Zerri-burua ere bota zuten, eta hormak margotu. Hori guztia meskitaren eraikuntza galarazteko egin zuten, eta lortu ere lortu zuten. Telebistan eztabaida ugari izan zen, eta gaiaren inguruko berriak, baina azkenean hautagaiak lortu zuen meskitaren eraikuntza galaraztea».

(Gizon gazte magrebtarra)

Baina erlijioaren dimentsioa bizitzaren beste eremu batzuetara ere iristen da, esaterako jantzetara edo janarira, eta bi osagai horiek egoera arazotsuak ere ekar ditzakete. Ildo horretatik, jatorri magrebtarreko emakumeek diotenez ez dute askatasunik nahi duten moduan jantzita joateko kiroldegira edo ospitalera.

«Hara, nire ustez ospitaletan leku diskretuak falta dira otoitz egiteko, aireportuetan... oraindik halal-janaria falta da leku publikoetan». (Emakume magrebtarra)

«Nire ustez jantzeko askatasunik ez dago, nahi duzun moduan jantzeko, adibidez, ospitalean oso arau zorrotzak daude, gaixotzen bazara eta barnera sartzen bazaituzte jantziak irekiak dira alde guztietatik, eta gizon-jantziak eskatu behar dituzu pixka bat estaltzeko». (Emakume magrebtarra)

«Ni batzuetan aspertu arte errepikatu behar izan dut jantzi diskretuagoak emateko ospitalean, batzuetan buruko minez zaudela esan behar duzu zapia ez kentzeko...». (Emakume magrebtarra)

«Erditu behar nuenean loretxoekiko zapi bat eramaten nuen eta galdezen zidaten ea zer esan nahi zuen (barreak)». (Emakume magrebtarra)

Koadriletan egindako dinamiketan atera diren kontakizunak ez dira Gasteizen jasotakoez oso bestelakoak. Era argian adierazten dute sorterritik aterata ere beren ohiturak, sinesmenak eta gauzak egiteko erak gordetzen dituz.

Lehen esan denez, kasu gehienetan, emigratzeko erabakia familian hartutako erabaki estrategikoa da. Beraz, familia-bizitza oso garrantzitsua da guztientzat, eta lokarri nagusia da helmugara iritsi ondoren ere.

Esfera pribatuak garrantzi handia hartzen du beren bizitzan hona iristen direnean, 'etxeko bizimodua' izanik familiarrekin eta lagunekin elkartzeko gune nagusia, eta era berezian beren kultura mantentzeko lekua.

Esfera pribatuak garrantzi handia hartzen du beren bizitzan hona iristen direnean, 'etxeko bizimodua' izanik familiarrekin eta lagunekin elkartzeko gune nagusia, eta era berezian beren kultura mantentzeko lekua.

«Guztiok gustukoa dugu, nik uste, gure aisialdian familiarekin egotea». (Gizon latinoamerikarra)

«Niri ez zait gustatzen ateratzea. Errumaniarrok ez gara hainbeste atera zaleak. Badut nahikoa lan etxean. Janaria prestatzea, garbitu, lisatu...». (Emakume errumaniarra)

«Guk etxean egiten dugu pintxo-pote bat, tabernetan ere topatzen ez duzuna. Guk egiten dugu janaria etxean. Dena etxean». (Gizon errumaniarra)

«Han ez da ohikoa umea kalean haztea, hemen bazkaltzeko eta afaltzeko garaian ateratzen dira. Han ez da egunero kalera ateratzen parkera edo plazara edo den tokira. Han umeak etxean hazten dira. Kalean dagoen umea gurasorik gabeko alderraia da». (Emakume latinoamerikarra)

Hori da erlijioaren kasua, batez ere eremu pribatuan zentratu eta garatzen dena. Koadriletan bizi diren pertsona ia guztientzat ere, erlijioa bizitzaren osagai funtsezkoa da, eta iritsi ondoren ere ez diote uko egin behar izan.

«Erlijioa nire bizitzan garrantzitsuena da. Gure bizitzan lehenengo lekua du. Erlijioa % 100 praktikatzen dut, inolako mugarik gabe». (Gizon pakistandarra)

«Nire herrian jaiera handikoak gara, birjinak eta santuak ditugu eta guk otoitz egiten dugu, eta elizatik pasatzean gurutzearen seinalea egiten dugu eta guzti. Baina hemen ikusten dut elizak abandonatuta daudela. Apaiza lokartu egiten da mezatan...». (Gizon latinoamerikarra)

«Inoiz ez dut arazorik izan nire erlijioa bizitzeko». (Gizon magrebtarra)

Bada beste gai bat bereziki azpimarragarria familiari buruz ari garenean, alegia, haien seme-alaben heziketa. Heziketa osagai gakoa da gizarte-integratioko edozein prozesutan, eta jatorriz atzerritarren diren herritarren kasuan, hain zuzen ere, ez da salbuespena. Ildo horretatik, ezagutu nahi izan dugu zein diren eztabaidataldeen diskurtsoak eskolaren inguruan, gizarteratzeko eragilea den aldetik. Horri

dagokionez, hasieratik, atzerritar jatorriko herritarren ikuspegia da integrazioarako espazio bat izan behar duela. Hala ere, Gasteizko eztabaida-talde gehienetan agertzen da beldur eta kezka bat, geto bihurtzeko arriskua ikusten dutelako, jatorriz atzerritarrek diren ume asko biltzen dituzten ikastetxe batzuetan, zenbait ikastetxetan jatorri atzerritarreko umeen pilaketa gero eta handiagoa delako.

Gasteizen bada beldurra eta kezka, geto bihurtzeko arriskua ikusten dutelako, jatorriz atzerritarrek diren ume asko biltzen dituzten ikastetxe batzuetan.

«Integrazio falta dago. Ikastetxean gehiago dira atzerritarrek, eta integrazio handiagoa egotea nahi nuke». (Gizon gazte magrebtarra)

«Integrazioarena ondo dago, baina nik uste Eusko Jaurlaritzak zerikusia duela horrekin, ume guztiak batera ez bidaltzea, auzoei buruz etorkinekin esaten genuena. Aizu, integrazioa, orduan, nondik dator?». (Gizon gazte magrebtarra)

Gazte magrebtarren taldetik ere ikastetxearen inguruan sortzen diren beste arazo batzuk azpimarratzen dituzte, janariarekin eta erlijio-ikasgaiarekin erlazionatuak.

«Menu musulmanarekiko errespetua falta da jantokian».
(Gizon gazte magrebtarra)

«Arabiera-klaseak izatea nahi luke, bere nortasuna zaintzeko». (Gizon gazte magrebtarra)

Eskolako arrakasta eta heziketa-itxaropenei dagokienez, haien ustez zailtasun gehituak ditu jatorri atzerritarreko familia bateko mutilak edo neskak, ezegonkortasuna duelako ekonomia aldetik, etxebizitza edo bizilekuaren aldetik, etab.

«Ez, itxoin, erantzungo diot. Begira espainiarrak, kalera ateratzen dira eta giroa dago. Zergatik espainiarren seme-alabak iristen dira goiko postuetara eta marokoarrak ez? Nire ustez, gurasoen ezegonkortasunagatik, sorterrira itzultzea dute buruan, eta seme-alabak egonkortasunik gabe bizi dira... (...) Espainiarrek hemen dituzte gurasoak, etxea... etab. Egonkor daude, baina guk arazoak eta egoera zailak ditugu, eta hori umeek sentitu egiten dute. Badira presioak. Nola nahi duzu batxilergora joatea libururik ezin badu erosi?». (Emakume magrebtarra)

«Bai, laguntzak dituzu, baina horretarako ez, liburuak erosteko ez dago».
(Emakume magrebtarra)

Baina beste muga batzuk ere azpimarratzen dituzte, irakasleek jatorriz atzerritarrek diren herritarren gainean eta haien heziketa-ibilbidearen gainean duten ikuspegitik sortzen direnak, batzuek ez baitute sinisten unibertsitate-ikasketak egin ditzaketenik.

«Tira, ikasi behar dutela. Baina zer gertatzen da? Hemen muga bat dago etorkinentzat... tira, ez dakit etorkinentzat edo espainiarrentzat ere hala den. Zein da muga hori? Horiek DBHn daudenean, Batxilergora joan aurretik, gehienetan irakasle batek esaten die, ikusita daukat nik, zu ez zara unibertsitatera iristeko gai. Orduan, hori muga bat da, inork ez dakielako zertarako gai den bestea». (Emakume latinoamerikarra)

«Zu ez zara gai, zuk ikastaro tekniko bat hartu behar duzu. Baina pertsona horri ez bazaio gustatzen ikastaro tekniko hori, pertsona horrek zerbait gehiago egin nahi badu, gai dela uste duelako, behartu daiteke. Baina mugatu egiten dute». (Emakume latinoamerikarra)

Eskolan zentratzen diren diskurtsoak aztertzen ditugunean, Arabako landa-inguruneke udalerrietan bizi diren jatorri atzeritarreko pertsonen kontakizunak ez dira hiriburuan bizi direnen irudipenen oso bestelakoak.

Interesgarria da azpimarratzea koadriletako familia etorkinek haien seme-alaben heziketari ematen dioten garrantzi handia, bat etortzen baita Gasteizen bizi diren familien iritziarekin. Eskola ingurua eta ikastetxeak dira dagoeneko seme-alabena den gizarte berriko lehen harreman-lekua, eta nagusia. Eta haien integrazio onak eta egokitzapenak baldintzatu ahal dute, eta baldintzatzen dute, modu nabarmenean, haien etorkizuna, ikasketei, lanbideari eta lanari dagokienez.

«Nik sumatzen dut han gurasoek kezka handia hartzen dutela umeen prestakuntzaz. Eta, oro har, behartsuena ere unibertsitatera joaten da. Horretan lan egingo ez duela hasieratik jakinda ere. Baina mundu guztiak ditu unibertsitate-ikasketak». (Emakume latinoamerikarra)

Beren seme-alabak pozik ikusten dituzte, eskolako gainerako kideak bezala sentitzen direla, onartuak eta aintzat hartuak direla sumatzen dutela.

«Bai, ikas dezatela, ez dakiela gerta guri bezala. Ea, nik gidatu behar ditut. Haien lekuan jartzen naiz eta 15 edo 16 urte dituzunean uste duzu denetik daukazula, mundua jango duzula, eta ez da horrela. Nik dirua irabazi nahi nuen... baina burua erabili behar da». (Gizon pakistandarra)

«Nik badakit hemen hezkuntza ona dela. Eta Portugalen baino eraginkorragoak dira, ikasketen maila han baino askoz ere altuagoa da». (Emakume portugaldarra)

Onartzen dute haien eskola-integrazioak ez duela zailtasun handirik izan Arabako koadriletan. Egia da, hala ere, une kritiko batzuk aipatu direla, egokitzapenaren eta hizkuntzaren haritik, baina gehienek diote luze gabe egokitu zirela, arazo handirik gabe. Beren seme-alabak pozik ikusten dituzte, eskolako gainerako kideak bezala sentitzen direla, onartuak eta aintzat hartuak direla sumatzen dutela.

«Eskola oso garrantzitsua da gure seme-alabentzat. Ez dut inolako zailtasunik izan ikastetxean, gure umeak besteak bezala tratatzen dituzte. Ez dut bazterketarik ikusten». (Gizon magrebtarra)

«Umeak dira eta azkenean haiek ez dituzte gauza hauek ulertzen, haiek jostatzera eta ikastera joaten dira, bakoitzaren jatorriaz kezkatu gabe. Ikastetxera joaten direnean lagunak egiten dituzte, heziketak garrantzi handia du mundura ateratzeko». (Emakume errumaniarra)

«Gure alaba hasieran pixka bat baztertu zuten, baina orain lagunak ditu eta euskara ere ikasten ari da». (Gizon latinoamerikarra)

Arabako landa-ingurunera iritsi baino lehen hiri handietan bizi izan diren pertsona batzuek ondo baloratzen dituzte haien umeek orain duten heziketa eta familien artean sortzen den giro ona. Haien irudiko, bazterketa handiagoa pairatu dute hiri handietako eskoletan, koadriletako herri txikietako eskoletan baino. Bazterketa horren arrazoi nagusiak izan ziren hizkuntza edo hitz egiteko era, azalaren kolorea, hazpegiak... etab.

«Gure umeei, ikastetxean, portugesez ustelak esaten zieten eta hemen ez zutela ezer egiteko. Semeei esaten zieten ea uste zuten Cristiano Ronaldo zirela eta halako gauzak». (Emakume portugaldarra)

«Gure umeek bazterkeria-uneak bizi izan zituzten Gasteizko eskolan. Nire ustez, hirietan errazago gertatzen dira bazterkeria, arrazakeria eta xenofobia kasuak. Herrietan oso desberdina da. Egon garen herrietan errefusa hori ez da gertatzen. Umeek lagun asko egin dituzte herri horietan, asko». (Gizon latinoamerikarra)

Azpimarragarria da, emakumeen esanetan, umeen eskolari esker hasi direla haiek ere bertakoekiko harremana. Beraz, Arabako landa-inguruneko gizartearekiko lotakaria izan da eskola.

«Eskolan elkartzen gara aitak eta amak eta berriketan aritzen gara. Nire ustez, garrantzitsua da etorkizunerako eta gure harremanetarako». (Emakume magrebtarra)

Dinamiketako eztabaidara eraman den beste gai gako bat euskara ikastearen eta erabiltzearen ingurukoa da. Gasteizen bizi diren pertsona guztiek argiro lotzen dute laneratzeko eta gizartearen integratzeko aukerekin.

«Oso garrantzitsua da. Euskaraz ez badakizu ezin dituzu zenbait lanpostu bete». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«Bai, bai, zalantzarik gabe euskara ikasteak gauza onak eskaintzen dizkizu. Bulegoetan modu onean tratatzen zaituzte eta pozten dira bertako hizkuntza ikasi duzula jakiten dutenean. Nire ustez, etorkizunean euskara ikasteak onura handia ekarriko dio gure belaunaldi berriari. Atea zabalduko du administrazio publikoetan lan egiteko, han nahitaez eskatzen dutelako euskaraz hitz egiten jakitea». (Gizon pakistandarra)

«Batzuetan garrantzitsua da euskaraz jakitea lanpostu on bat izateko». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«Nire ustez, leku batean bizitzea erabakitzen duzunean, hango hizkuntzak ikasi behar dituzu. Horrek errazten dizu besteekiko komunikazioa. Nik gatzelaniaz bai, baina euskaraz ez dakit». (Gizon pakistandarra)

Euskara ikasteko gaia ateratzen denean, jatorriz atzerritarrak diren pertsona batzuek onartzen dute instituzioetatik euskara ikasteko doako ikastaroak eskaintzen dituztela.

«Gaztetxean ekimen bat antolatu zuten jendeak euskara ikas zezan, eta ez dakit zergatik ez zen arabiarrik batere apuntatu. Gainera, arabieraz ere egin zuten publizitatea, jendea erakartzeko. Eta hemen arabiar asko dago». (Emakume magrebtarra)

«Nik bai, izena eman nuen euskara ikasteko, Eibarren bizi nintzenean. Eta ondoren ere Gasteizen, ADRA». (Emakume magrebtarra)

«Bai, baina hori ez da arabiarren arazoa, nire senarra ere joan zelako euskara ikastera hemengoekin eta taldea ez da osatzen». (Emakume magrebtarra)

«Nik gustukoa dut, ikastera joan nintzen, baina oso zaila iruditu zitzaidan eta bertan utzi nuen». (Emakume magrebtarra)

Hala ere, gaur-gaurkoz, Gasteizko eztabaida-taldeetan lehentasuna ematen diote gaztelaniari, hainbat arrazoi direla-eta: alde batetik, emigrazio-proiektuaren gaineko ziurtasunik eza dute, eta ez dute beharrezkoa ikusten euskara ikatea, Euskadin bizitzeko bakarrik balio dielako, eta beharbada, etorkizunean beste leku batera joango direlako bizitzera. Bestalde, haien ustez, lehenik gaztelaniaren arazoa konpondu eta hobetu behar dute. Eta solasaldi horietan atera denez, Gasteizen euskaraz gutxiago egiten da beste eskualde batzuetan baino.

«Lehenik gaztelaniaren arazoa konpondu behar dugu eta hobetu (barreak)». (Emakume magrebtarra)

«Hemen, Gasteizen, ez da kalean euskaraz hitz egi-ten, ez herrietan adina». (Emakume magrebtarra)

«Euskaraz hitz egiteko aukera asko ere ez duzu. Nire ahizpa Bartzelonan bizi da eta katalana ikas-tera behartzen dute... ez dakit». (Emakume magrebtarra)

Alde batetik, emigrazio-proiektuaren gaineko ziurtasunik eza dute, eta ez dute beharrezkoa ikusten euskara ikatea.

Arabako koadriletako dinamiketan ere atera da euskararen gaia eta, Gasteizen bizi diren pertsonen diskurtsoekin sakoneko desberdintasunik ez badago ere, xehetasun interesgarri batzuk atera ziren, batez ere haien seme-alaben etorkizuna zutela gogoan.

Lehenik eta behin, euskara ez dute beharrezkoa jotzen atzerritar jatorriko pertso- nek Arabako koadriletan betetzen dituzten lanpostuak betetzeko. Baina garrantzi- tsua iruditzen zaie beren seme-alaben etorkizunerako. Heldu gehienek esaten dute ez dakitela euskaraz.

«Euskara garrantzitsua da, baina Euskal Herrirako bakarrik balio du. Nik uste dut gaztelania garrantzitsuagoa dela, Espainia osoan balio digulako. Ez dut euskaraz ez jakiteagatik arazorik izan hemen». (Gizon pakistandarra)

«Guk ez dakigu euskaraz, hamarreraino kontatzen, besterik ez, baina beharrik ere ez dugu izan, gaztelaniaz defendatzearekin nahia dugula uste dut». (Emakume errumaniarra)

Lehenik eta behin, euskara ez dute beharrezkoa jotzen atzerritar jatorriko pertsonen Arabako koadriletan betetzen dituzten lanpostuak betetzeko.

Iritsi ondorengo hasierako urteetan, familietako seme-alabek laguntza gehigarria izan dute ikastetxean eskatzen den euskara-maila lortzeko, eta hori ontzat eman dute familiek, eskolan egokitzea errazten duelako.

«Gure ume txikiari egokitu zitzaion irakasleak hasieran azaldu zidan bi urtez salbuetsita utziko zuela, beste herri batetik zetorrelako eta euskaraz batere ez zekielako. Ez zekien tutik ere, eta horregatik salbuetsi zuten bi urtez». (Gizon latinoamerikarra)

«Gure umeari ez zitzaion kostatu batere egokitzea. Ikasten ari zen ikastetxean, gainera, astean egun batez talde batean uzteko aukera genuen, euskaraz ikas zezan, besteekin parekatu zedin. Eta bi edo hiru astez geratu zen, hiru ostegunez, eta utzi zuen erritmoa hartua zuelako, eta esan zidaten ez zela beharrezkoa joatea». (Emakume latinoamerikarra)

EAEko mugen ondoko eskualdeetan bizi diren pertsona batzuek, seme-alaba handienen kasuetan, mugaz bestaldeko ikastetxeetan matrikulatzea aukeratu dute (Errioxa edo Nafarroa gehienbat), han euskararik ematen ez zenez, hizkuntzaren ikas-prozesua saihesteko eta ingurura egokitzea errazteko.

«Gure seme nagusiari ez zitzaion euskara gustatzen. Hemen urte batez ikasi zuen eta ondoren Lizarran informatika-modulu bat. Ez zitzaion euskara gustatzen eta Lizarrako beste eskola batera lekualdatu zuten hemen dena euskaraz zelako. Txikiak bai, euskaraz ikasten du». (Emakume errumaniarra)

«Ez dakigunez, diru gehiago gastatu behar dugu umeentzako laguntza-irakasleak hartzeko». (Emakume latinoamerikarra)

«Nire semeak ezinikusia hartu dio euskarari eta, ikasketak uztea nahi ez dudanez, hemen sartu dut, Menesianetan, pribatua eta ordaintzekoa baita. Horrela pozik dago, eta kitto». (Emakume portugaldarra)

Mintegietan parte hartu duten pertsona batzuek hizkuntza-harrerako programe-tan parte hartu dute beren udalerrietan, baina batez ere gaztelania ikasteko. Hori azaldu dute batez ere magrebtar edo pakistandar jatorriko kolektiboek.

«Guk errumaniarrok azkar ikasten dugu gaztelania. Oso azkar. Nik hizte-girik eta irakaslerik gabe ikasi nuen. Etxeko gauza guztiak zer ziren galde-tzen nuen: irratia, boligrafoa, dena delakoa. Eta nire hizkuntzan apun-tzen nuen, gaztelania eta errumaniera nahasiz. Eta hiru hilabeteren bu-ruan, ulertzen zidaten». (Gizon errumaniarra)

Laburbilduz, euskara ikastea onuragarriagoa ikusten dute beren seme-alabentzat, etorri orduko heziketa-sisteman integratzen direlako, eta ez hainbeste beren bu-ruarentzat, zailtasuna dutela ere aitortzen baitute.

«Nik ez dut erabili. Baina uste dut seme-alabak dituen jendearentzat eus-kara funtsezkoa dela. Umeen gizarte-ingurua erabat hemengo jendeaz osatzen delako. Eta azkenean haiek euskaraz egingo dutelako. Ez dakien umea baztertuta egongo da». (Gizon latinoamerikarra)

«Gure semeak ikasten ari dira. Handienak hamaika urte ditu eta besteak bost. Euskaraz ikasten ari dira eta gaztelaniaz ere bai. Baina ikasteko den-bora gehiago ematen dute euskaraz. Nire ustez, etorkizunean euskaraz-ko ikasketa horiek balioko dute Euskal Herrian geratzea erabakitzen ba-dute, baina Espainiako beste probintzia batera joatea erabakitzen badute,

*ez dakit norainoko eragina izango duen ikasgaiak gaztelaniaz egin ez izan-
nak».* (Gizon pakistandarra)

*«Gure alabak ikastolan daude. Eta nik han jarraitzea nahi dut. Handienak
bost urte ditu eta dagoeneko euskaraz mintzatzen da. Eta lau urtekoa ere
bai. Andereñoarekin hitz egiten dute eta beren artean ere bai».* (Gizon pakis-
tandarra)

Prestakuntza eta enplegua

Taldeetan parte hartu duten pertsonen kontakizunak aztertu ondoren, lan- eta prestakuntza-arloekiko dugun sententzia da Gasteizko egoera pixka bat zailagoa dela kuadrilletako landa-eremukoa baino. Dinamiketako kontaketek hori pentsatzera garamatzate behintzat.

Arabako hiriburuan bildutako taldeetan, lan-munduan txertatzeko prozesuan egoera desberdinak aurkitu ditugu: atzeritar jatorria duten pertsona batzuk ez daude lanean eta ez dira ari lan bila, baina gutxiengoa dira; beste batzuk informazioa bildu dugun unean langabezian zeuden, baina aurretik lan egin dute; eta beste zenbaitek lana dute. Dena den, gehienek (emakume latinoamerikarrek salbu) lan-merkatuko zailtasunak aipatzen dituzte: lana lortzeko, lanari eusteko eta lana hobetzeko dituzten zailtasunak. Izan ere, oztopo ugari izaten dituzte: beti ez dute administrazio-egoera erregularra izaten, beste kultura-ohitura batzuk dituzte, hizkuntza desberdina dute, batzuetan janzkera ere bai, beste batzuetan erlijioa, etab.

Enpleguan eta prestakuntzan, atzeritar jatorria duten pertsonen Gasteizen duten egoera pixka bat zailagoa da kuadrilletako landa-eremuan baino.

«Hemengo egoera oso zaila da, baina espero dut lan egin ahal izatea, bizimodua hobeto ateratzeko». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«Ezin dut aukeratu non lan egin. Lan bat besterik ez dut nahi». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«Guretzat oso zaila da. Baina itxaropena dugu». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«Barneko langile gisa nabil, etxeko lanetan, baina oso zaila da. Utzi egin dut, ez ginelako ulertzen». (Emakume magrebtarra)

«Gure senarrek lan egiten dute, ez dute arazorik beste gizonekin. Nire arazoa emakume serioa izatea da, eta jantziak... Haiek emakume irekiagoak bilatzen dituzte, ni serioegia nintzela iruditzen zitzaien». (Emakume magrebtarra)

«Nik lan pixka bat egin dut, urtebetez, hotel batean. Lehen urtean arazoak izan nituen, ez zidatelako uzten zapiarekin lan egiten. Iritsi nintzenean, zapi atzerantz jartzeko esan zidan, txano bat bezala, eta azkenean nagusit batek, oso emakume jatorra, zapiarekin lan egiten utzi zidan. Pixka bat egokitu naiz. Orain ez nago lanean, abuztuan kontratua amaitu zitzaidan». (Emakume magrebtarra)

«Ni orain aitona batekin nago, gizon bat zaintzen dut. Baina iritsi nintzenetik izan dut lana. Lehenik amona batekin lan egin nuen, gero garbiketaren enpresa batean, ondoren beste amona batekin, eta haurrak ere zaindu ditut. Baina paperik gabe lan gehiago egiten nuen lehen. Orain apur bat zailagoa da... (...) Egunero lan egiten nuen, batzuetan 1.800 eta beste batzuetan 2.000 eurotik gora irabazten nituen. Baina guztia beltzean. Hau da, ezer kotizatu gabe. Hiru urteren ondoren, paperak lortu ditut. Eta paperak ditudanetik, lana gutxitu zait. Haurrarekin geratu nintzen, eta ondoren beste batekin, eta goizetako lana utzi nuen. Beste amona batekin lana lortu dut, baina ez zidan kontraturik egin nahi, eta berriz ere kontraturik gabe ari naiz». (Emakume latinoamerikarra)

Zer lan-nitxotan lan egiten duten eta beren ustez zeinetan lan egin dezaketen galdetzean, gizonak eta emakumeak jarduten duten lan-nitxoaren artean aldeak daudela ikusten da. Hala, gizonen artean gehiago dira nekazaritzan, eraikuntzan eta industrian lan egiten dutenak; emakume gehienek garbiketan eta pertsonen zaintzan jarduten dute, eta, neurri txikiagoan, beste lan-nitxo batzuetan, hala nola klase partikularrak ematen edo beste jarduera batzuetan.

Latinoamerikatik datozen emakumeen kasuan, pertsonen zaintzaren lan-nitxoa oso errotuta dago. Beste jatorri batzuetako jendeak, berriz, zailtasun gehiago ditu sektore horretan, batez ere kultura-desberdintasunengatik eta pertsonen eta etxeen zaintzarako zerbitzu horiek kontratatzen dituzten euskal biztanleek izaten dituzten aurreiritziengatik.

Gizonen artean gehiago dira nekazaritzan, eraikuntzan eta industrian lan egiten dutenak, eta emakume gehienek garbiketan eta pertsonen zaintzan jarduten dute.

«Nik udan bakarrik egin nuen lan hurrekin. Ez dut inolako zailtasunik izan lana bilatzeko. Garbiketa-enpresa batean aritu naiz, eta hor bai egiten dela lan!». (Emakume latinoamerikarra)

«Gizarte-integratioko ikastaro bat egin eta horretan lan egin nahiko nuke». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

Dagoen beste arazo bat lan-bizitza eta familiako mendeko kideen zaintza uztartze-ko denbora-falta da.

«Ni ez nago lanean. Nire zailtasunetako bat haurrak direla uste dut. Bi haur txiki izanda, lana horretara egokitu behar da, nolabait esateko. Nik ezin baitut. Haurrak zaintzeko pertsona bat hartzen badut, nik lanean irabaziko dudana berdina ordaindu beharko diot. Horretarako, etxean gertatzen naiz. Baina orain hurrek jangelan bazkaltzen dute, ez lehen bezala. Eta orain denbora libre gehixeago dut». (Emakume latinoamerikarra)

Lana bilatzeko estrategietako bat lan-munduan sartzeko programetan sartzea da, Lanbideren eta elkarte bidez, eta aipatzen da gero eta garrantzitsuagoa dela prestakuntza-ziurtagiri bat izatea lanpostu bat lortzeko. Izan ere, sektore batzuetan ezinbesteko baldintza izaten da. Hala ere, hitz egin duten pertsonen ziurtagiri horiek lortzeko zailtasunak dituztela ere aipatzen dute, denbora faltagatik.

«Nik elkarte batean lan egiten dut, gizarte-langilea naiz eta enplegu-kontuetan ere laguntzen diot jendeari. Eta bai, nabaritzen dut prestakuntza-aren kontua. Berdin du zer enplegu edo lan-arlo aukeratzeko den. Garbiketa, adineko pertsonen zaintza edo adingabeen zaintza izanda ere, prestakuntza eskatzen ari dira». «Ziurtagiriaren prestakuntza». «Bai... eta lan egiten baduzu, ez duzu ikasteko astirik». «Horixe gertatzen da». «Adibidez, Lanbiden begiratu dut eta bost ordu dira. Eta nik diot: Nola ikasiko dut ba, ez badidate laguntzarik ematen?». (Emakume latinoamerikarra)

Arabako kuadrilletako jendearen kontaktetan, parte hartu duten pertsona atzerri-
tar ia guztiek lan egiten dute gaur egun. Inguru landatarrago horietan, kultura- eta/
edo hizkuntza-desberdintasunak ez diete oztopo handiegirik eragin lan-munduan
sartzeko.

«Sei urte daramatzat hemen, eta iritsi nintzenean Carrefourren hasi nintzen lanean, kutxan. Eta ez nekien hitz egiten. Oso ondo ikasi nuen eta ezin naiz kexatu, ondo daramat. Ezin naiz kexatu, beti izan baitut lana». (Emakume portugaldarra)

Pertsonetako askok diote jatorri bereko senide edo lagunak batek gomendatuta iritsi zirela, eta iritsi aurretik haiek lana lortu zietela. Modu horretan, dokumentazioa zuzenean lortzen dute.

«Nire senarra hona etorri zen lanera, anaia hemen zegoelako, eta lana lortu zion Gasteiztik». (Emakume latinoamerikarra)

«Nik zurarekin lan egiten nuen Errumanian, baso-mozketan. Eta hemen go nagusiak, Kanpezukoak, zura erosten zuen Errumanian. Espainiara etortzeko paperak prestatu zizkidan, langile bat behar zuelako hemen moztzarekin aritzeko». (Gizon errumaniarra)

Lanik egiten ez duten pertsonen artean, berriz, lan bila aritu eta ez aurkitzeko arrazoi nagusiak lanerako paperik ez izatea (lan-baimena) edo administrazio-egoera irregularrean egotea direla diote. Pertsona batzuek izaten dituzten egoera irregularrek lanpostu bat lortzea are gehiago zaildu dezakete.

«Ni hainbat lanetara aurkeztu naiz, eta lan egiteko agiririk ez nuela eta aukera bat emateko esaten nien. Baina inork ez nau hartzen. Aurkeztu naitzen hiru lanetan, gutxienez, ezezkoa jaso dut. Eta ezer ez. Aukera eman didan bakarra Caritaseko baratzea izan da. Soldata bat jasotzen dut, ez da asko, baina gutxienez zerbait lortzen dut». (Gizon latinoamerikarra)

Horren ondorioz, iristean enplegurik lortu ez duten eta/edo lan-baimenik ez duten immigranteek, edo administrazio-egoera irregularra dutenek, etsipen eta ondoez handia erakusten dute, bizitzeko oinarrizko beharrak ez dituztelako bermatuta.

Emakumeei dagokienez, beren etxeko lanetan eta seme-alabak zaintzen egun osoz aritzen ez direnek eta lana bilatu nahi izan dutenek ez dute zailtasun handiegirik izan. Etxeko lanetan eta zaintza-lanetan jarduteko eskaintza handia dago landa-eremuan.

Aipatu dugunez, landa-eremuan ere atzerriar jatorria duten pertsonen enplegua sektoreka kontzentratuta dago. Nekazaritza, bilketa, abeltzaintza, eraikuntza eta industria gizonezkoen lan-nitxoak dira, batik bat. Emakumeek, berriz, pertsonen zaintza-lanak eta etxeko lanak egiten dituzte gehienetan.

Egiten duten lan-jarduerarekin nahiko konforme daudela nabaritzen da, sarritan sorterrian baino soldata altuagoak dituztelako, aurretik zuten prestakuntza eta lan-esperientzia baino kualifikazio gutxiagoko lanak diren arren.

«Nire senarrak eraikuntzan lan egiten du eta hemen oso ondo dago. Baina hemengo soldata han izango balu, nik alde egin nahiko nuke. Gertatzen dena da han lan-mundua oso gaizki dagoela eta ezin zarela hara-hona ibili. Joanez gero, agian ez duzu lanik». (Emakume portugaldarra)

Izan ere, kuadrilletako dinamiketan parte hartu duten pertsonetako askok baieztatzen dute prestakuntza eta lanbide zehatzak zituztela beren sorterrian, baina zaila ikusten dutela Arabako landa-eremuan horiek berreskuratu ahal izatea. Hau da, desoreka dago jatorrian zuten prestakuntzaren eta helmugako herrialdean egiten duten lanaren artean.

Horren salbuespenak dira nekazaritzarekin eta industriarekin lotutako lanbideak. Kasu horietan, batzuek jatorriko herrialdeetan egiten zuten lan berdina lortu ahal izan dute. Baina, oro har, hona iristean, aukera gutxi ikusten dituzte duten prestakuntzarekin eta lan-esperientziarekin bat egiten duten lanpostuak lortzeko.

«Nire lana etxekoandrea izatea eta haurren autobus batean zaintzaile aritzea da, eta orain eskola bat ere garbitzen dut. Niri gustatuko litzaidakeena da enpresa batean dagozkidan zortzi orduak sartzeari, eta kito». (Emakume portugaldarra)

«Nik ere garbiketara lan egiten dut. Nire herrialdean inoiz ez dut lanik egin, printzesa baten moduan bizi nintzen. Nire familiak merkatu txiki bat eta okindegiak ditu. Nire ahizpa banku bateko zuzendaria da eta anaia ingeniari informatikoa. Nire asmoa Ingalaterrara ikastera joatea zen, baina bidetan geratu naiz». (Emakume portugaldarra)

«Nik Pakistango unibertsitatean ikasi nuen. Gero, hona iritsi nintzenean, eraikuntza lan egiten ikasi nuen. Hamalau urtez egin nuen lan sektore horretan, eta orain fruta-saltzailea naiz, nire negozio propioan. Hiru urte daramatzat autonomo gisa. Nire emazteak ez du lanik egiten, haurrak zaindu eta etxeko lanak egiten ditu». (Gizon pakistandarra)

Adierazten dute zailtasunak dituztela beren ikasketak homologatzeko eta dituzten titulazioen onarpen ofiziala lortzeko. Kasu batzuetan, ezin izaten dute titulazioa homologatu, helmugako herrialdean ez delako existitzen, edo ez dutelako beharrezko dokumentazio guztia bildu ikasketak baliozkotzeko.

«Nik, profesionalki, hemen ez dut lanerako lekunik, prestakuntzaren jarraipena etenda dudalako. Gauzak aurreratuz doaz, orain maisutza eta doktoretza eskatzen dizute lanpostu bat lortzeko». (Emakume latinoamerikarra)

Orokorrean, lanean ari diren pertsonen artean, izan dituzten lan-aukerak zenbait jarduera-sektoretara mugatzen dira, besteak beste, aipatu ditugunetara: nekazaritza, eraikuntza eta industria gizonen kasuan, eta ostalaritza, etxeko lanak eta pertsonen zaintza emakumeen kasuan. Lan-nitxo horiek atzeritar jatorriko pertsonen gasteizten oso antzekoak dira.

«Espainiarrek nahi ez dituzten lanak kanpokoentzat izaten dira. Nik ostalaritzan eta haurrak zaintzen lan egiten dut. Gau-erdi haurrak zaintzen eta eguna adinekoak zaintzen». (Emakume latinoamerikarra)

«Bueno, nire gurasoak Portugalgoak dira eta duela urte asko etorri ziren hona. Sasoika lan egiten dugu hemen. Mahats-bilketan, jorraldian, inausketan eta ateratzen diren lanetan. Une honetan zerbaiten zain gaude, las-ter lanean hasteko. Krisiaren aurretik etengabe lan egiten genuen, orain gehiago sasoika». (Gizon portugaldarra)

Egiten duten lan-jarduerarekin nahiko konforme daudela nabaritzen da, sarritan sorterrian baino soldata altuagoak dituztelako, nahiz eta aurretik zuten prestakuntza eta lan-esperientzia baino kualifikazio gutxiagoko lanetan aritu.

Etorkizunari begira, talde landatarrenetan izandako elkarrizketetan lanean egon-kortasuna lortzeko nahia aipatzen dute helburu nagusi gisa.

«Lan finko batekin imajinatzen naiz, guztia egonkorrago. Dena segurua-go hilaren amaieran. Benetako zerbait, zerbait segurua». (Gizon pakistandarra)

Administrazio-egoera irregularrean dauden eta oraindik lan egiteko aukerarik izan ez duten pertsonen helburuak dagozkien paperak lortu eta legezko egoeran lan egitea lortzea dira.

«Oraintxe bertan, niretzako funtsezkoena paperak dira. Paperik ez duena kanporatzeko moduan dago, ezin du ezer egin. Nik lan egin eta etxe bat izan nahi nuke. Baina orain buruan dudak guztia, pentsatzen dudak guztia ezin dut egin, agiririk ez dudalako». (Gizon latinoamerikarra)

«Dokumentazioa izatea gustatuko litzaidake, lanpostu bat aukeratu eta hobeto bizitzeko». (Gizon magrebtarra).

Baina parte hartu duten pertsonen benetako kezka eragiten diona eta lehentasuna ematen diotena beren seme-alaben etorkizuna da. Lan egonkorra izan nahi dute, seme-alabei lan-aukera hobeak eskaini ahal izateko, eta heziketa ona egiteko aukera emateko. Uste dute beren ondorengoek lan-aukera anitzagoak izango dituztela.

«Etorkizunean, hobera egingo dutela iruditzen zait. Zerbaitetarako etorri gara hona gurasoak, gure burua eman dugu beraiek ikasi besterik ez dezaten egin behar». (Gizon latinoamerikarra)

«Etorkizuna, noski, lan finko bat izatea da, eta nik diodan moduan, ondoren etxebizitza bat. Eta poliki-poliki aurrera egitea». (Gizon latinoamerikarra)

Atzerritar jatorria duten pertsonen kezka nagusia beren seme-alaben etorkizuna da. Beren laneko egonkortasunak ondorengo etorkizuneko aukerak baldintzatzen ditu.

«Ikasi eta ikasturteak gaindi ditzaten saiatzen gara, biharko egunean lana izan dezaten. Eta gu baino hobeto egon daitezela, guk beti unean-unean ateratzen denari begira egon behar baitugu. Gutxienez izan dezatela lan on bat». (Gizon portugaldarra)

«Haiek hemen jaiotzen dira, hemen bizi dira eta azkenean hemengo bat gehiago dira. Espero dugu guk izandakoa baino bizi hobea izango dutela. Azken finean, hemengo pentsamoldearekin hazten ari dira, eta ez Errumaniakoarekin. Guk haurtzaro zaila izan genuen, baliabide faltagatik, eta horrek asko eragiten du. Eta herrialdeko tradizioak ere hor daude. Haiek guk baino pentsamolde irekiagoa dute». (Emakume errumaniarra)

«Nik beti esaten dio semeari, zenbat eta urrunago iritsi, berarentzat hobe. Etorkizuna ez da niretzat, beretzat da. Nik neure modura antolatu dut bizitza, eta ez dit inporta lan egitea, berak ikasten jarraituz gero eta nik egindakoa balioetsiz gero. Nik urrunera iristea nahi dut eta animatu egiten dut. Zera esaten diot: 'Zu gai zara', kostatu arren, jarraitu egin behar duzu». (Emakume portugaldarra)

Migrazio-prozesuaren balantzea eta aurreikuspenak

Atzeritar jatorriko pertsonekin izandako elkarrizketen une batean, migrazio-esperientziari buruz egiten duten balorazioa landu genuen, eta jatorriko herrialdeetatik emigratzeko hartutako erabakiak merezi izan duen galdetu genien. Egin duten balorazioa oso lotuta dago jatorriko herrialdean zituzten itxaropenekin; kasu batzuetan helburuak bete dituzte, eta beste batzuetan ez.

Gasteizen bizi diren atzeritar jatorriko pertsonen azalpenetan, desberdintasunak daude beren esperientziari buruzko balantzean: gehienentzat, azken balorazioa positiboa da, jatorriko herrialdean baino hobeto daudela iruditzen baitzaie. Hala ere, beste pertsona batzuentzat, emaitza ez da horren positiboa izan, hasieran zituzten aurreikuspen batzuk oraindik ez dituztelako bete; besteak beste, lana bilatzeko eta administrazio-egoera erregularra lortzeko erraztasun handiagoa izango zutela uste zuten, eta errealtatea bestelakoa izan da.

«Iritsi aurretik uste genuen erraza izango zela lana lortu eta familiari laguntzea. Baina iritsitakoan, konturatzen zara ez dela horren erraza. Hala ere, eskerrak ematen ditut hemen izan ditudan eta izaten ari naizen auke-rengatik». (Saharaz hegoaldeko gizon gaztea)

«Beste itxaropen batzuk nituen. Lanerako erraztasun gehiago espero nuen». (Gizon gazte magrebtarra)

«Lanpostua aukeratu ahal izango nuela uste nuen, eta konturatu naiz ez dagoela lanik bertakoentzat ere». (Gizon gazte magrebtarra)

«Itxaropen berdinak izaten jarraitzen dut, nahiz eta lortzea gero eta zailagoa dela ikusi». (Gizon gazte magrebtarra)

«Erraztasun handiagoa izatea espero nuen, bai lan-arloan, bai ekonomikoki». (Gizon gazte magrebtarra)

«Uste nuen errazagoa izango zela nire dokumentuak legeztatzea». (Gizon gazte magrebtarra)

«Baina ezin naiz egoera honetan nire herrialdera itzuli. Oraindik ez dut ezer lortu, eta lotsagarria izango litzateke itzultzea. Itzultzeak nire migrazio-prozesuan porrot egin dudala esan nahiko luke. Nahiago dut borrokatzea». (Saharaz hegoaldeko gizon gaztea)

Une honetan etorkizunerako dituzten aurreikuspenei dagokienez, askotarikoak direla esan daiteke: Gasteizen bizitzen jarraitzea, hiritik alde egin eta beste herrialde batera lan bila joatea edo jatorriko herrialdera itzultzea pentsatzea. Etorkizunean Gasteizen bizitzen jarraitzeko itxaropena duten pertsonen artean, arrazoi nagusiak familia bertan izatea, lana, giro ona eta Gasteizko bizi-kalitatea direla diote.

«Hamaika urte daramatzat Gasteizen. Jende asko ezagutu dut, eta ez litzaidake gustatuko Gasteiz uztea. Uste dut orain beste leku batera joateak zailtasun gehiago ekarriko lizkidakeela». (Gizon pakistandarra)

«Bai, ni hemen geratuko naiz. Nire alabek, hazten direnean, beste herrialde batera joan nahi badute, joan daitezela, baina ni hemen geldituko naiz». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«Geratzekotan, hemen. Atsegin dut eta etorkizun ona izan dezakedala uste dut». (Gizon gazte magrebtarra)

«Nire alaba ikasten ari da eta Gasteiz gustatzen zaio. Eta berarekin geratu beharko». (Emakume latinoamerikarra)

«Bai, hemen bizi nahi dut, lana dudalako eta seme-alabak hemen ari direlako hazten». (Gizon gazte magrebtarra)

«Alde egitea zaila ikusten dut, nire seme-alabak dagoeneko hemen daudelako... eta ez naiz bananduko. Nire familia seme-alabak dira». (Emakume latinoamerikarra)

«Ni agian hemen geratuko naiz, negozioa baitut. Hemeretzi urte daramatzat hemen bizitzen, nire bigarren etxea da». (Gizon pakistandarra)

«Nik askotan pentsatu izan dut Marokora itzultzea, baina ezin dut, nire seme-alabak hemen jaio eta hazi dira». (Emakume magrebtarra)

Beste batzuek Gasteizen gelditu nahi dute, eta dituzten aurreikuspenak lana bilatzea, negozio bat sortzea, ikasketak homologatzea edo ikastea eta prestakuntza hobetzea dira:

«Nik lehen joan egin nahi nuen, baina une honetan eta etorkizunari begira dudan proiektua nire titulua homologatzea da, gustatzen zaidanean lan egiteko, ikasi nuenean» (Emakume latinoamerikarra)

«Hemen geratzea eta Mercedes fabrikan lana bilatzea gustatuko litzaidake. Lanpostu finkoa lortzea». (Gizon gazte magrebtarra)

«Ni ondo nago. Lan-arloan aurrera egiten jarraitu nahi dut». (Emakume latinoamerikarra)

«Gasteizen geratu nahi dut. Eta negozio bat zabaldu». (Gizon gazte magrebtarra)

«Gasteizen geratu nahi dut, lana behar dudalako eta hemen aurki dezakedala uste dudalako». (Gizon pakistandarra)

«Lehen alde egiteko gogoia nuen, baina orain geratzeko asmoa dut. Ikasketaren bat egin eta hemen geratu». (Emakume latinoamerikarra)

«Gasteizen geratzea nahi dut, titulua eskuratu eta gustatzen zaidanean lan egin ahal izateko». (Gizon gazte magrebtarra)

Kontrako aldean daude Gasteiztik Europako beste herrialde batzuetara joateko itxaropena dutenak, batez ere magrebtar jatorriko emakumeak. Hala ere, ez dira bakarrak, beste jatorri batzuetako zenbait pertsonak ere itxaropen hori dute. Kasu

horretan ere enplegu-bilaketa da jendea mugitzen duen indar eragilea, Gasteiz gustatu arren, hiriz aldatzera animatzen dituen. Izan ere, guztiaren gainetik dago migrazio-prozesuaren muina: bizitza hobetzea eta seme-alabei etorkizun hobea eskaintzea.

«Neure burua beste herrialde batean lanean irudikatzen dut, European edo komeni den lekuan». (Emakume magrebtarra)

«Gasteiz atsegin dut... baina egoera honetan jarraituz gero Alemaniara joango naiz bizimodua ateratzera». (Gizon gazte magrebtarra)

«Asko gustatzen zait leku hau. Baina ez badut lanik lortzen, alde egin beharko dut». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«Ni bi edo hiru urterako etorri nintzen hona eta hamar daramatzat, baina oraindik ez naiz bertakotu». (Emakume latinoamerikarra)

«Paperak eta lana lortzen baditut, hemen geratuko naiz; bestela, beste nonbaitera joango naiz». (Gizon pakistandarra)

«Hemendik alde egin eta Europako beste lekuren batera joan nahi dut, bizi hobea eta lanpostu finko bat lortu ahal izateko. Inongo laguntzen mende egon gabe». (Gizon gazte magrebtarra)

«Nazionalitatea lortzeko itxaroten nago. Gauzek horrela jarraitzen badute, nahiago dut beste herrialde batera joatea, seme-alabentzat etorkizun hobe baten bila». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«Frantziara joan nahi dut. Lana falta delako eta ez dudalako laguntzen mende egon nahi». (Gizon gazte magrebtarra)

Badaude beren jatorriko herrialdera behin betiko itzultzeko aukera buruan darabiltenak, baina gutxiengoa dira.

«Niri neure herrialdera itzultzea gustatuko litzaidake. Joateko irrikan nago. Ez Gasteizen nirekin gaizki jokatu dutelako, nuen helburua lortu dudalako baizik». (Emakume latinoamerikarra)

«Ni hegoamerikarra naiz, alde egin nahi dut». (Emakume latinoamerikarra)

«Marokora bizitzera joan nahi dut, eta oportretan soilik etortzea. Erlaxatua go bizi nahi dut». (Gizon gazte magrebtarra)

Azkenik, etorkizunari begira, atzerritar jatorriko Gasteizko biztanleek uste dute etorkizuneko belaunaldiak aukera gehiago izango dituztela beraiek orain dituztenak baino. Hala ere, integrazioa eta gizarte-inklusioa lortzeko lan egitea gakoa iruditzen zaie.

«Aukera asko izango dituzte, baina arazoa integrazioa izango da. Ez bada

Parte-hartzaile gehienen itxaropenen artean daude, oro har, hurrengo urteetan familiaren bizi-kalitatea hobetzea, eta bereziki, seme-alabei etorkizun hobea eskaintzea.

ondo lantzen, ez da ezer aldatuko inklusio- edo integrazio-arloan». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«Berdintasun handiagoa lortu behar da, hurrengo belaunaldiek aurrera egin dezaten». (Gizon gazte magrebtarra)

«Etorkizuna desberdina izango da. Etorkizuneko belaunaldiek ez dituzte arazo hauek guztiak izango». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«Etorkizuneko belaunaldien egoera hobea izango da, baina hori landu beharra dago. Ez da normala hemen jaioetako haur batek paperik ez izatea. Gurasoek agiririk ez izan arren, hemen jaioetako haurrak hemengoak dira. Paperak izan behar dituzte». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

«Ez dituzte guk ditugun arazoak izango, oraingo gure borrokak lagundu egingo dielako». (Saharaz hegoaldeko gizon gaztea)

Kuadrilletako dinamiketako kontakizunetan, ez da sorpresarik egon eta Gasteizkoen antzeko sentimenduak eta etorkizuneko aurreikuspenak jaso dira.

Oro har, epe motzean ez dute jatorriko herrialdera itzuli nahi. Parte-hartzaile gehienek itxaropenak hurrengo urteetan familiaren bizi-kalitatea hobetzea, eta bereziki, seme-alabei etorkizun hobea eskaintzea dira.

«Momentuz ez dut Errumaniara itzultzeko asmorik. Etorkizunerako ez dut plan hori. Nire semea hemen jaio da eta nire senarra euskalduna da. Egoera onean nago». (Emakume errumaniarra)

«Ez nintzateke nire herrialdera itzuliko, han ez baitut senitartekorik. Nire etorkizuneko asmoak hemen daude, ditudan familiartekoekin batera. Lanen bat lortzea gustatuko litzaidake, independizatu ahal izateko». (Emakume magrebtarra)

«Hemen geratu nahi dut betiko. Etorkizun hobea ikusten dut hemen, eta gustatzen zait». (Gizon magrebtarra)

Migrazio-esperientzia txarra izateak eragin negatiboa du atzerritar jatorriko jendearen etorkizuneko aurreikuspenetan, eta batzuek Arabatik joatea pentsatzen dute bizi-kalitatea hobetu ahal izateko.

Etorkizunean jatorriko herrialdera itzultzea gustatuko litzaiokeen jendea ere badago. Batzuek adinean sartutakoan han egotea nahiko lukete. Baina beste batzuek onartzen dute, seme-alabek beren etorkizuna hemen finkatzen badute, zaila egingo zaiela beren jatorriko herrialdera behin-betiko itzultzea.

«Begira, nik uste dut nire alabak dauden lekuan geratuko naizela, eta uste dut hemen geratzea pentsatzen dutela. Gainera, orain oso zaila da hara itzultzeko pentsatzen hastea. Gauza eta leku asko galdu ditugu». (Emakume latinoamerikarra)

«Ez dut hemen geratu nahi betiko. Hamahiru urte egin ditut hemen eta lan asko egin dut, Errumanian erretiro-egoera hobea izateko. Erretiratu-takoan, nire burua hobeto ikusten dut han. Han daude nire familiarteko gehienak». (Emakume errumaniarra)

Etorkizunari begira dituzten nahi nagusietako batzuk hauek dira: administrazio-egoera erregularra lortzea, osasun-txartela eskuratzea, lan finkoa aurkitu eta independenteak izatea, etxebizitza bat eskuratzea eta familiaren ongizatea hobetzea.

«Nire asmoa hemen jarraitzea da. Nire alabak ikasten ari dira eta bizi lasaia dut. Eta batez ere segurtasunagatik, han delitugintza handia baita-go». (Gizon latinoamerikarra)

«Etorkizunean, nire negozioa errentagarriagoa izatea espero dut, eta ahal bada, etxebizitza propioa izatea, baita seme-alabek hezkuntza hobea jaso eta ikasketa onak egitea ere. Uste dut orain daukagun bizi-mailari eutsiko diogula, baina etorkizunean beti hobetu daiteke. Seme-alabei buruz, iruditzen zait lan-aukera onak badituzte etorkizun hobea izango dutela». (Gizon pakistandarra)

«Espero dugu gauzek hobera egitea, krisialditik ateratzea eta lanpostuen baldintzak eta soldatak hobetzea. Astelehenetik igandera lanean aritu naiz, seme-alabek eta nik etorkizunean ezeren faltarik ez izateko». (Emakume errumaniarra)

«Eskatzen dugun bakarra hemendik ez bidaltzea eta orain gauden moduan egoten uztea da. Oraingo, behar dugun guztia dugu hemen». (Emakume errumaniarra)

«Ezagutaraz gaitzatela gehiago, jakin dezatela nolakoa den gure kultura. Hitzaldi gehiago jatorri desberdinetako jendearekin». (Gizon magrebtarra)

«Osasunaren kontua oso garrantzitsua da. Hemen gizarte-segurantza dugu, izan ditzake gauza onak eta txarrak, baina badakizu arreta eman-go dizutela. Artatzen zaituzte eta behar duzuna ematen dizute. Han ez, nik egoera gogor bat pasatu nuen senarrarekin». (Emakume latinoamerikarra)

Harremana euskal erakundeekin

Atzeritar jatorriko pertsonen euskal erakundeekin duten harremana eta haiei buruz duten irudia Arabako kuadrilletako dinamiketan landu da batik bat; Gasteizen egindako dinamiketan, berriz, parte-hartzaileek arreta gehiago jarri diote, elkarrizketen amaieran, eskakizunak eta ekintza politiko eta sozialerako proposamenak egiteari. Kuadrilletan parte hartu duten pertsonen euskal erakundeei buruz duten irudia udaletxeekin lotuta dago batik bat, askoz eremu landatarragoak direlako eta errealitatea erakunde handietatik –Eusko Jaurlaritza eta Aldundia– oso urrun dagoelako. Oro har, udalak gertukoak, erraztaileak eta informatzaileak direla uste dute.

Arabako kuadrilletan, erakundeek ematen duten gizarte-babesaren sentimendu handiagoa nabari da, hirigune handiagoetan baino.

Arabako kuadrilletako herrietan, zuzeneko harremana dute udaleko erreferentziazko pertsonekin, eta harrera egiten dietela eta integrazioan laguntzen dietela sentitzen dute. Jendearen diskurtsoetatik ondorioztatzen da, udalerrri txikietan bizita, erakundeek gizarte-babes handiagoa ematen dieten sentsazioa dutela.

Immigranteen bizitzetan presenteen dauden eragileak alkateta eta gizarte-langileak (Gizarte Zerbitzuak) dira.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, osasun-, segurtasun- eta hezkuntza-alderdiekin lotutako iruzkinak bildu dira batez ere. Horri dagokionez:

- Osasungintza asko balioesten dute, *“arreta publikoa kalitate onekoa eta azkarra”* dela uste baitute.
- Segurtasuna. Jatorriko herrialdeetan baino *“seguruago”* sentitzen dira.
- Hezkuntza. Hezkuntza-eskaintza *“publikoa”* positiboki baloratzen da.

Gizarte-laguntzen gaia ateratakoan, deserosotasuna sortu da. Taldeetako partaideen artean ez da oso begiko gaia. Uste dute gaiari buruz eman den gizarte-irudiak ez duela islatzen errealitatea, eta eztabaida distortsionatuta dagoela.

Taldeetan adierazi dutenez, gehienek inoiz ez dute gizarte-laguntzarik eskatu, eta eskatu dutenek, oro har, ez dute jaso.

«Etortzen den jende askok itxaropena du erroldatzea lortu eta hiru hilabetera laguntzak jasotzen hasiko dela. Orduan, pertsona horiek laguntzetatik bizitzen hasten dira, ezin dutelako legezko lanik egin. Kontratuarekin eta abar, esan nahi dut. Laguntzekin bizitzeko asmoa dute. Eta laguntzak galantak dira, e?». (Emakume latinoamerikarra)

«Ezagutzen ditudan herrikideek, edo ez dute laguntzarik jaso, edo fabrike-tan lan egiten dute. Nahikoa lan ez duten immigrante batzuek laguntzaren bat jasotzen badute, hilaren amaierara iristen ez direlako da, familia dute-lako eta behar dutelako». (Gizon pakistandarra)

«YNik laguntza bat jasotzen dut eta kontuak ematen ditut. Baina soldata bat dudanean, eskerrak emango dizkiot lagundu didan pertsonari... izan ere, oraingoz ezin dut lanik egin, paperengatik. Baina paperak ditudanean egingo dut. Izan ere, nire kideak esaten zuen moduan, hemen nahikoa lan dago. Lanik ez dagoela dioten kontu hori gezurra da, lana bada-go». (Gizon latinoamerikarra)

«Gasteizen Lanbidera joaten naiz eta jende mordoak egoten da atean zain. Beltzak, marokoarrak, pakistandarrak, portugaldarrak, espainiarrak... Ene Jainkoa, nahigabea ematen du hara joateak! Horrenbeste jende ikusten da DBEa kobratu nahian, normala iruditzen baitzait guztioi ez ematea». (Gizon portugaldarra)

«Begira, nik hamar urte daramatzat hemen, eta inoiz ez dut jaso ez langa-bezia». (Gizon errumaniarra)

Immigranteen beraien artean, magrebtar jatorriko pertsonen buruz diote lanerako asmorik gabe etortzen direla eta zuzenean laguntzak eskatzen dituztela, eta *“beti ematen dizkietela”*. Egoeraz gehiegi baliatzen direla sentitzen dute, eta horrek aurreiritzi negatiboak sorrarazi dituela immigranteekiko.

«Esan dizut ez naizela arrazista, baina Marokotik etortzen dira eta laguntzei esker bizi dira. Marokoar eta arabiar ugari. Ikusi dut batzuek 800 euroko telefonoak dituztela eta laguntzetatik bizi direla. Hor zerbait gertatzen da. Nik ez ditut lanean ikusi, eta zu egunero lanean arituta baino hobeto bizi dira». (Gizon errumaniarra)

«Nik ezagutzen ditut laguntzez asko abusatzen dutenak, biek kobratzen baitituzte, beren herrialdean etxea eta jabetzak izanda ere. Osasuntsu eta lanerako ondo daude, eta ez dute lanik egiten. Harrapatuko balituzte eta dirua itzularazi, ni poztu egingo nintzateke, estatuen laguntzez abusatzen ari baitira». (Emakume errumaniarra)

Azkenik, talde guztietan –bai Gasteizen bai Arabako kuadrilletan– parte hartu duten pertsonen proposamen eta/edo eskakizun batzuk bildu ditugu.

Mahai-gaineratu ditugun galderak, besteak beste, honi buruzkoak dira: erakundeek zer egin dezaketen Gasteizen eta Araban integrazio-prozesua hobetzeko, eta erakundeek zer programa, zerbitzu eta/edo ekintza abiarazi beharko lituzketen elkarbizitzaren, lan-integrazioaren, hezkuntzaren, berdintasunaren eta erlijioaren arloetan.

Elkarbizitzari eta integrazioari dagokienez, hobetzeko proposamen eta iradokizun batzuk egin dituzte. Horietatik nabarmendu dena erakundeek integrazioa hobetzeko programak garatzea izan da.

Beste iradokizun bat beren ahotsak entzunarazteko eta trukerako espazioak sortzea da.

«Ba begira, Kanadan nazionalitatea ematen dizutenean ekitaldi bat egiten dute... oso sinplea, baina egiten dute. Ekitaldi horretan, nazionalitatea lortu duten pertsonen harrera egiten zaie, kanadarrak direla ikusarazteko» (Emakume latinoamerikarra)

«Adibidez, nazionalitatea lortu nuen, eta orain ADRa joan naiz ikastaro batera. Eta nazionalitatea dudanez, ezin izan dut egin. Hortaz, irabazten atera beharrean galdu egin dut. Niri papertxo hori eman zidatenean, esan nuen: 'Eta orain non kokatzen naiz?'. Eta horixe galdetzen jarraitzen dut. Ados, ez dut lanpostu bat izan behar lan-baimena izateko. Oso ondo. Baina guk babestuta sentitu behar dugu. Zenbat jende nazionalizatu da azken sei hilabeteetan? Askok. Ba, Udalak edo Eusko Jaurlaritzak ekitaldi bat egin dezake zer garen aitortzeko. Gauza sinpleak dira eta ez dute diru asko gastatuko, baina zentzu horretan babestuta sentituko ginateke». (Emakume latinoamerikarra)

«Kultura desberdinetako ekintzak egitea, herritarrek ezagutu ahal izateko». (Gizon magrebtarra)

«Integrazio handiagoa lortzeaz arduratzea». (Gizon gazte magrebtarra)

«Jendea gidatzea eta gomendioak ematea, bizi duina izan dezan». (Gizon gazte magrebtarra)

«Jatorduak antolatu beharko lirateke, nazionalitate desberdinetako pertsonak elkartzeko. Horrek guztiak hobetzen lagunduko luke. Nahikoa lan dago eta positiboa da guztiok lan duina izatea». (Gizon magrebtarra)

Beste iradokizun bat beren ahotsak entzunarazteko eta trukerako espazioak sortzea da.

«Erakundeek gurekin gauzak trukatu eta elkarrizketatzeko espazioak antolatu eta erraztu behar dituzte. Eta ez hori bakarrik. Espazioa eta ahotsa eskaini behar dizkigute erabakitzeke uneetan. Modu aktiboan parte hartu behar dugu immigrazioari eta immigrantei buruz hartzen diren erabakietan». (Saharaz hegoaldeko gizon gaztea)

«Gure iritzia eman ahal izateko espazioak». (Emakume magrebtarra)

«Gauza gehiago egitea, gu ezagut gaitzaten». (Emakume magrebtarra)

«Hitz egin ahal izateko espazioak behar ditugu. Agintariekin hitz egiteko aukera izatea nahi dugu, gure arazoak azaltzeko. Ez dute gure ordezkari baki behar». (Saharaz hegoaldeko emakumea)

Erljioarekin lotuta, eskaeren artean nabarmentzen dena zentro publikoetan (ikas-tetxeak, ospitaleak, etab.) halal menuak kontuan hartzea da. Erljio-praktikari buruzko iradokizunak ere egin dira, askatasun gehiagorekin praktikatu ahal izatea eskatzeko.

«Halal janaria eskolako jantokietan, ospitaleetan, musulmanentzako hilerriak». «A, ez dago halal janaririk ikastetxeetan?». «Ez, ez, menu begetala bakarrik dago». (Emakume magrebtarra)

«Jatetxe batera joan nahi dugu eta ez dago halal janaririk (barreak), zerbait egin beharko litzateke...». «Arazoa da enpresak mugitu behar direla gai horretan». (Emakume magrebtarra)

«Otoitzak ozen entzuteko aukera izatea». (Gizon gazte magrebtarra)

«Nahi dugun lekuan erreztatzea». (Gizon gazte magrebtarra)

«Gure erlijioa eta ohiturak ezagutaraztea». (Gizon gazte magrebtarra)

Pentsatzekoa denez, kezka handia eragiten duen kontu bat agiriekin eta administrazioarekin loturikoa da. Atzerritar jatorriko pertsonak gizartean integratzea errazteko auzi gakoetako bat da. Taldeetan sortu den eskaeretako bat ahal den heinean dokumentuen izapidetzea erraztea da (baimenak, administrazio-egoera erregularra edo Espainiako nazionalitatea lortzea):

«Dokumentazioa lortzeko bidea hobetzea». (Gizon gazte magrebtarra)

«Paperik ez duen gizarteratutako jendeari bidea erraztu eta agiriak ematea». (Gizon gazte magrebtarra)

«Gizarte-laguntzaileek batzuetan ez dituzte ulertzen immigranteen errealitateak. Zenbaitetan, haiengana joan eta laguntza eman beharrean, zure egoera okertu besterik ez dute egiten». (Saharaz hegoaldeko gizon gaztea)

«Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak lagundu egin behar diete nire egoeran dauden pertsona guztiei, dituzten arazoekin, bizileku- eta lan-baimena lortzeko izapideak egitean ditugun arazoekin. Hiru urte igarotakoan, eskakizun guztiak betetzen dituzunean –lan-eskaintza berrak eta atzerritarren bulegora joaten zarenean paperak eramatera, nire ustez bulegokoek paperak eta baimena ematea erraztu behar diote pertsona horri, lan-merkatuan sartu ahal izateko eta laguntzen mende ez egoteko. Malgutasuna izan behar dute gai batzuetan, gizar-te-errotzearekin eta lanarekin lotuta, jendeak bizileku- eta lan-baimena izan dezan, eta laguntzarik kobratu beharrik izan ez dezan». (Gizon pakistandarra)

«Lan-arloan laguntza gehiago ematea agiririk gabekoei. Horiek lortzeko epea laburragoa izan dadila. Baina uste dut errazena lan-programa bat sortzea dela». (Gizon latinoamerikarra)

«Ez dago nazionalitatea lortzeko azterketarako ikastaroa egiteko lekurik. Jendeak Donostiara eta Bilbora joan behar izaten du». (Saharaz hegoaldeko gizon gaztea)

Lan-integrazioari dagokionez, taldeek lan egiteko aukera gehiago izateko eskaera egin dute. Proposamenen artean, lan-munduan txertatzeko programak aipatzen dira.

«Baina nik berriz diot, enplegu-programa gehiago sortzea, lanpostuak baino pertsona gehiago daudelako, benetan». (Emakume magrebtarra)

«Lehen lan egiteko aukera gehiago zeuden udaletxearen bidez, mota horretako programak, jendearentzat. Hori da lehendabizikoa. Nire ustez, bigarrena, orain ezingo nintzatekeela DBH ateratzen hasi, eta horretan malguagoak izan beharko lirateke». (Emakume magrebtarra)

«Arauetan malgutasuna; batzuetan, oso zorrotzak dira». (Emakume magrebtarra)

«Ez, lanerako arauak. Sarbidea ez dadila izan horren zaila». (Emakume magrebtarra)

«Enplegu-egoera hobetzea». (Emakume magrebtarra)

«Lan gehiago sortzea». (Gizon gazte magrebtarra)

«Gizarte-laguntzak erregulatzea». (Gizon gazte magrebtarra)

«Sor dezatela enplegu-programa bat paperak dituzten eta laguntza jasotzen duten pertsonentzat. Horrela, hilaren amaieran, kobratzen dutena soldata baten modukoa izango da, eta ez laguntza bat». (Emakume magrebtarra)

«Immigranteentzako enplegu-programak behar ditugu. Urte asko dira lan bila nabilela, lan egin nahi dut, baina ez dut ezer aurkitzen». (Emakume magrebtarra)

«Immigranteak lan-merkatuan sartzeari errazteko programak eta ekimenak egin behar dira. Erakundeek lan egin behar dute, pertsona gisa ditugun eskubideez gozatzea galarazten diguten hesiak ezabatze». (Saharaz hegoaldeko gizon gaztea)

«Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako egiten den moduan, lan-arloan ere kuotak ezarri beharra dago, immigranteek ere lan egin ahal izateko». (Saharaz hegoaldeko gizon gaztea)

«Beltzei prestakuntza eman behar zaie, lanpostu duinagoetara sarbidea izan dezaten. Ez bakarrik garbiketa-lanetara edo adineko pertsonen zain». (Saharaz hegoaldeko gizon gaztea)

Jatorri atzerritarreko pertsonen iritiz, hezkuntza-arloa gakoa da pertsona guztiak gizartean integratzeko, eta horregatik uste dute beharrezkoa dela hezkuntzara sarbidea erraztea, ikasleei bekak emanez. Magrebtar jatorriko gizon gazteen iritiz, hautazko arabiera-eskolak ere eskaini beharko lirateke.

«*Hezkuntza, eskuragarriago*». (Emakume magrebtarra)

«*Ikasleentzako bekak erraztea*». (Gizon gazte magrebtarra)

«*Hautazko arabiera-eskolak ikasgela*n». (Gizon gazte magrebtarra)

«*Hautazko arabiera-eskolak ikasgela*n

Hezkuntza-arloan, sarbidea erraztu behar zaie pertsona immigranteei.
(Saharaz hegoaldeko gizon gaztea)

Amaitzeko, etxebizitzarekin loturiko eskaerak bildu dira. Taldeetan sortu diren eskaerak, funtsean, etxebizitza duin bat eskuratzeko aukera-berdintasuna ahalbidetzeko ekintzekin, alokairuen prezio altuekin, etxebizitzaren alokairuarekin eta etxe-jabeekin loturikoak dira.

«*Argiaren eta gasaren fakturak merkatzea*». (Gizon gazte magrebtarra)

«*Neguko hilabeteetan diru-laguntza handiagoak*». (Gizon gazte magrebtarra)

«*Erraztasun gehiago etxebizitzak aurkitzeko*». (Gizon gazte magrebtarra)

«*Aukera berdina izatea etxebizitza bat alokatzerakoan*». (Gizon gazte magrebtarra)

«*Pertsona immigrantei etxebizitza eskuratzeko erraztea*». (Saharaz hegoaldeko gizon gaztea)

«*Ezinbestekoa da etxe-jabeen eta pertsona immigranteen arteko bitartekaritza-lege bat izatea*». (Saharaz hegoaldeko gizon gaztea)

«*Nire ustez, Aldundiak alokairu merkeko etxebizitzak lortzea erraztu behar dio jendeari. Izan ere, lanek ez dute pisuak ordaintzeko adina diru ematen, alokairuaren kostua oso handia baita. Oso garestia da Gasteizen bizitzea. Eta berdintasun-arloan ere hobekuntzak egin behar dira, guztiok tratu bera izan dezagun*». (Gizon pakistandarra)

«*Nik uste dut Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza beharra duten pertsonen etxebizitza-arazoaren konponbidea prestatzen ari direla. Gustatuko litzaidakeena da Aldundiak interesa izatea erakunde publikoen bulegoetan ditugun arazoak konpontzeko; mahai bakoitzean era bateko informazioa ematen digute, eta izapidetzeko orduan beti daude zailtasunak, egun batean gauza bat eta hurrengoan beste bat esaten digutelako, mahai bera izanda ere, beste pertsona bat baldin badago eskakizunak edo baldintzak aldatzen dizkigulako*». (Gizon pakistandarra)

Laburpena


Dinamiketan parte hartu duten pertsonen diskurtsoak aztertzean, ikusi dugu bizilekua aldagai gakoa dela bakoitzaren gizarte-errealitatea hobeto ulertzeko. Ez da gauza bera tamaina ertaineko hiri batean, Gasteizen, bizitzea, edo Arabako kuadrilletako udalerri landatar txikiagoetan bizitzea. Alderdi batzuetan, bi errealitateak bat datoz, edo gutxienez antzekotasun gehiago dituzte desberdintasunak baino. Hala ere, beste kontu batzuetan desberdintasunak ageri dira prozesuetan, harremanetan, ingurunean, etab.

Laburpen gisa, 1 taulan aurkezten ditugu gure ikuspuntutik nabarmenenak diren gaiak, bai bi espazioek –hiritarra eta landatarra– konpartitzen dituzten gauzei dagokienez, bai desberdintasun esanguratsuak dituztenei dagokienez.

1. TAULA. GASTEIZEK ETA ARABAKO KUADRILLEK DITUZTEN DESBERDINTASUNEN ETA ANTZEKOTASUNEN LABURPENA

AZTERTUTAKO ARLOAK	ARABA: ANTZEKOTASUNAK	GASTEIZ	KUADRILLAK
EMIGRATZEKO ERABAKIA ARRAZOI NAGUSIAK	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Langabezia, segurtasun falta sozial eta pertsonala, seme-alaben etorkizunerako ziurgabetasuna. ✓ Lanerako, gizarte-inklusioko eta zerbitzuak eskuratzeko aukera gehiago, besteak beste. ✓ Iristean izaten diren arazo nagusiak: administrazio-egoera, tristora-sentimendua, lekuko funtzionamenduaren ezezagutza.. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Hiriko bizi-kalitatea, giro ona, hiriren beraren egitura, tamaina, etab. ✓ Eskaintza handiagoa zerbitzuetan, aukeretan, etab. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Lan-aukerak (nekazaritza, industria...). ✓ Inguruan migrazio-kultura finkatuta egotea eta helmugan senideak edo lagunak izatea. ✓ Geografia-antzekotasunak jatorriko herrialdeekin.
ELKARBIZITZA ETA INTEGRAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Kasu batzuetan, kultura-ohitura batzuen ulertu ezina, hala nola beloa janzea lanean, ospitalean, kiroldegian... 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Kontrol-sentimendu gutxiago. ✓ Auzoko giroa: elkarbizitzaren ikuspegi positiboa nagusitzen da; hala ere, auzo batzuetan segurtasun falta sumatzen da, eta segurtasun eta kontrol gehiago eskatzen dira. ✓ Ez dago kontaktu handiegirik bizilagunen artean, giro positiboa nagusitzen da, baina bizilagun-komunitate batzuetan gizalege-faltagatik kexak daude. ✓ Jatorri batzuen estigmatizazioa, hala nola pakistandarrena (komunikabideetan agertu diren gizarte-laguntzen abusuengatik, etab.), eta duela urte batzuk baino polizia-kontrol handiagoa. ✓ Ez isolatzearen garrantzia. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Gizarte autoktono, integratzaile, hurbileko eta tolerantzat hartzen da. ✓ Pertsonen kontaktoa hurbilekoa da, herriko bizitzako partaide sentitzen dira. ✓ Edozein hiritan baino lasaitasun gehiago, bizi-kalitate hobea eta segurtasun handiagoa.
FAMILIA, ETA INTEGRAZIOA GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Eremu pribatua da beren kulturari eusteko espazio nagusia. ✓ Eremu publikoan erlijioa praktikatzearekin loturiko arazoak. ✓ Hezkuntza gizarteratze-prozesuko elementu gako gisa hartzea. ✓ Euskara ez dute beharrezkotzat jotzen lan-jarduerarako, baina bai etorkizuneko belaunaldiak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ikastetxe batzuk ghetto bihurtzeko beldurra. ✓ Ekonomia-arloan oztopoak eskolako-materiala, jantokia, garraioa eta abar ordaintzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Kuadrilletan, eskola-integrazioak zailtasun gutxiago ditu. Pertsonen onarpen eta aitortza handiagoa dute.

AZTERTUTAKO ARLOAK	ARABA: ANTZEKOTASUNAK	GASTEIZ	KUADRILLAK
PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGUA	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Gehienak lan bila dabilta edo lanean ari dira. ✓ Lan-munduan txertatzeko desparrekotasunak daude, jatorriaren arabera. ✓ Lan-nitxo oso zehatzak gizon zein emakumeentzat: garbiketa eta zaintza emakumeen kasuan; nekazaritza, eraikuntza eta industria gizonenean. ✓ Kasu askotan, prestakuntza akademikoarekin loturarik ez duten lanak. ✓ Lan-arloko konformismoa. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Lan-munduratzeko zailtasunak, batez ere Afrikako jatorriko pertsonen. ✓ Lan-munduratzeko erraztasun gehiago beste jatorri batzuetakoek; adibidez, latinoamerikarrek. ✓ Negozioak zabaltzeko aukera gehiago: lokutorioak, jatetxeak... 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Lan-nitxoak, batzuetan nekazaritzarekin loturikoak, etab. ✓ Kasu batzuetan, sasoiko lanak. ✓ Nekazaritza, bilketa, abeltzaintza, eraikuntza, industria. ✓ Enplegu-erraztasun handiagoa hiriarekin konparatuta.
MIGRAZIO-PROZESUAREN BALANTZEA ETA AURREIKUSPENAK	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Oro har, balantze positiboa. Gelditzeko asmoz iritsi dira. ✓ Aurreikuspena: Araban jaio diren hurrek ikasketa- eta lan-ibilbidea oztoporik gabe egin dezaten saiatzea. 		
HARREMANAK ERAKUNDEEKIN	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Integrazio-prozesua hobetzeko proposamenak eta iradokizunak gai hauekin lotuta daude: integrazioa hobetzeko programak garatzea, imigranteen ahotsa entzun dadin lortzea, erlijioa askatasun gehiagorekin praktikatzeta, etxebizitza duinak eskuratzea eta administrazio-izapideak erraztea. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Besteak beste, administrazio- eta zuzenbide-izapideak hobetzea. ✓ Etxebizitza-alokairuen baldintzak hobetzeko eskaera (prezio altuenatik). ✓ Hiriko zenbait tokitan, garraio-konexioak hobetzeko eskaera. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Erakundeek ematen dieten babesaren sentimendu handiagoa. ✓ Herrien eta hiriaren arteko garraio-konexioak hobetzeko eskaera.



Gakoak eta Aholkuak

2

Ikerketaren atal honek Arabako atzerritar jatorriko herritarren ahotsak biltzen ditu, eta zabaldu eta jarraipena eman nahi dio 2014an Gasteizko Udalarentzat egin genuen ikerketa diagnostikoari. Diagnostiko hartan ere atzerriko biztanleriak esan eta kontatutakoa bildu genuen metodologia kualitatiboaren bidez, eta zortzi taldeko dinamika egin genituen, jatorri desberdineko herritarrekin, kolektibo horien ikuspegi osoa lortu genezan.

Oraingo ikerketa honek badu, ordea, 2014ko horrekiko bereizgarri bat. Oraingo honetan, Gasteizko udalerrira bakarrik mugatu beharrean, Arabako kuadrillean bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen gizarte-errealitatera ere hurbildu gara. Hori horrela, Gasteizen sei talde-dinamika egin ditugu, eta beste hamabi, gainerako sei kuadrillean (bi talde-dinamika kuadrilla bakoitzeko). Hartara, Arabako lurraldean gurekin batera bizi diren atzerritar herritarren eguneroko errealitatea xehetasun osoz irudikatu ahal izan dugu, bai Gasteizko hiri-eremuan, baita landa-eremueta-ko kuadrillean ere; hau da, Añanan, Aiaraldean, Kanpezu-Arabako Mendialdean, Guardia-Arabako Errioxan, Arabako Lautadan eta Gorbeialdean.

Arabian bizi diren atzerritarren kontakizunei heldu aurretik, bada azpimarratu nahiko genukeen zerbait. Atzerritarren hizketaldiak irakurri eta entzutean, pertsona horiek gure inguruan pozik dauden sentipena eman digute, eta gure herri, auzo eta hirietan gustura bizi direla dirudi, migrazio-prozesuak berezko dituen eragozpen eta zailtasunez haratago. Beraien bizipenak entzun eta irakurtzen ditugunean eze- ren beharrik ez dutela dirudi, eta gure gizarteak behar duten guztia eskaintzen diela, migratzera bultzatu zituen bizi-proiektuko helburuak bete ahal izateko. Hau da, beren adierazpenetan gauza positiboak nabarmentzen dituzte, eta negatiboak txikitzen.

Txosten honi dagokion beste atal batean, bertako euskal biztanleek atzerriarrekiko duten jarrera eta harrerari buruzkoan, beste zerbait ere hauteman dezakegu, oro har: gure jarrera hobetu dezakegu arren, euskal herritarrek nahiko ondo hartzen dutela atzerriar jatorriko pertsonak bertara etortzea, pertsona horien etorrerak dakartzan aldaketak kontuan izanda.

Ikuspegi berbera islatzen du, batzuetan ia idilikoa den arren, lau urtean behin argitaratutako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eragiketa estatistikoak, hots, Etorkin Atzerriarrei Buruzko Inkestak (EABI)². Atzerriar jatorriko biztanleek gure gizartean duten ongizatearen zeharkako adierazle ugari daude, baina hiru nabarmendu ditzakegu: gure inguruan diskriminazio-motaren bat jasan dutela dioten pertsonen kopurua, EAEn geratu nahi duten pertsonen kopurua eta bertako biztanleriaz irizpen oro har positiboa duten pertsonen kopurua. Emaitzak ildo beretik doaz, ordea: 2010ean, atzerriar jatorriko biztanleen % 19,6k bakarrik adierazi zuen uneren batean arrazismoa/xenofobia edo bazterkeria jasan izana, eta kopuru hori % 17,5 izatera igaro zen 2014an (2018ko datuak oraindik ez dira argitaratu). Arazo larriei dagokienez, % 6,5ak besterik ez zituen izan 2010ean, eta % 4,2k 2014an. Jatorri euskalduneko biztanleriari buruz ere informazio bera bilduko bagenu, ez litzateke harritzekoa izango zifra horiek gainditzea...

Gerora begira, datozen bost urteetan EAEn geratzeko asmoa zuen atzerriarren % 89,6k 2010ean, eta % 87,8k 2014an. Zifra horiek EAEn epe luzeagorako geratzeko asmoei buruz galdetzean baino ez zuten behera egiten: 2010ean % 75,9 eta 2014an % 80,0. Hau da, gehien-gehienek gure inguruan geratzeko asmoa dute.

Atzerriarrei, bestalde, bertako biztanleei buruzko iritzia emateko ere eskatu zitzaaien. % 87,0k iritzi positiboa zuen 2010an, eta kopuru hori zertxobait igo zen, % 88,6ra arte, 2014an.

Hala ere, ikusi ahal izan dugunez, atzerriarren egoera ez da hain idilikoa. Izan ere, badakigu migrazio-prozesu bat burutu duten pertsonak erresilientzia handia dutela; hau da, adre handikoak direla, eta oztopoak jasateko eta toleratzeko gaitasun handia dutela, migratzeak dakarren ikaskuntza-prozesuagatik bakarrik. Gainera, beren hautuen bidez arrakasta lortu dutenen kontakizunei argi egin diegunez, beren bizipenaren alde onak nabarmentzen dituzte, eta traba eta arazoak txikiagotzen.

Pertsona batek migrazio-prozesu bati ekitean, horrek dakartzan zailtasun eta arazo guztiak bere gain hartzen ditu, eta datozen belaunaldiek, bere seme-alabek, bizi-proiektuetarako aukera hobeago zein anitzagoak izatean jartzen du gogo. Haiek etorkizun hobeia izan dezaten nahi du, funtsean. Horregatik, diskriminazio-egoerak jasateko gaitasun handia dute.

Diskriminazio-mota horri “toleratutako diskriminazio” esaten diogu. Diskriminazio-egoera horiek ez dira azaleratzen edo ezagutzera ematen, hori jasaten duten

² Etorkin Atzerriarrei Buruzko Inkesta hori Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitako Estatistika Organo Espezifikoa lau urtean behin egiten duen eragiketa bat da. Orain arte, 2010eko eta 2014ko datuak argitaratu dira. Une honetan 2018ko inkesta osatzen dihardute. Laginaren tamaina 4.739 pertsonakoa izan zen 2010ean, eta 4.873 pertsonakoa 2014an. Horrek esan nahi du, hurrenez hurren, +/- 1,59 eta +/- 1,58 bitarteko gehienezko lagin-errore batekin dihardutela lanean, eta fidagarritasun estatistikoa % 97,5ekoa dela (suposiziorik okerrera hartuz, hots, $p=q=0,5$).

pertsonek toleratu egiten baitituzte. Izan ere, beste helburu dute buruan, beraientzat garrantzitsuagoa dena: beraien seme-alaben etorkizuna bermatzea, hain zuzen. Joera hori bereziki hauteman genuen 2012an Emakunderentzat egin genuen ikerketa batean³. Bertan bildutako testu-adierazpenetan ere jokabide bera ikus genezakeen, eta ez zituztela salatzen egoera pertsonal benetan gogorrak eta sakrifiziokoak, seme-alaben etorkizuneko ongizatea bermatu nahi zutelako.

Etorkinek gurekin gustura daudela esaten diguten arren, ezin dugu, besterik gabe, atsegin hartu. Diskriminazio-egoerak saihesteko lan egin behar dugu, eta etorkizunean tratu-berdintasuna sustatzeko errutinak sortzeak izan behar du gure helburu nagusia. Izan ere, etorkizunerako gizarte-eredu bateratu bat sortzea dago jokoan, eta, gure iritziz, ereduok hiritargoaren eskubide eta betebeharretan nahiz tratu-berdintasunean oinarrituta egon behar dute, eta ez pertsonen arteko diskriminazioan. Izan ere, egungo diskriminazio-egoera saihestu eta gizarte euskaldun bidezkoago baten zimenduak eraikiz gero, etorkizuneko diskriminazio-arazoak saihestu ahal izango genituzke. Ezinbestekoa da, horretarako, ekintza politiko irmo eta argi bat antolatzea. Atal hori argitu ondoren, entzun dezagun Araban bizi diren atzerritar etorkinen ahotsa.

Lehenik eta behin, talde horien kontakizunetatik jakin ahal izan dugu pertsona horiek ez direla hona ausaz iritsi: bertan bizi nahi zutelako etorri dira Gasteizera eta/edo Arabara. Askotan, familiako kideek, lagunak eta/edo pertsona ezagunek aldeztu aurretik esandakoa dute erreferentziatzat; gure inguruaren ezaugarri eta abantailen berri eman diete, eta hona etortzea erabaki dute. Euskadik irudi ona ematen du, zentzu guztietan: gizarte aurreratua da, langabezia-tasa baxuak ditu eta gizarte-ongizate maila altua du: gizarte segurua da. Gasteiz eta Araba inguru lasaitzat hartzen dira, eta gizarte-eskala oso kontrolagarria dute. Gainera, euskal gizarteak kanpotik datozen pertsonekiko jasanbera eta irekitzat hartzen da; bertako erakundeak inklusiboak dira, eta atzerriko etorkinen ongizateaz arduratzen dira. Interes hori agerikoa da osasun- eta gizarte-estalduretan, hiritargo osoarentzat eskuragarri baitaude.

Faktore horien guztien eraginez, orokorrean, atzerritar etorkinek Arabako lurraldea izan ohi dute jomuga, eta beraien kontakizunak ere positiboak izan ohi dira: gustura daude gure artean, eta gehien-gehienek bertan bizitzen jarraitu nahi dute.

Atzerritarrek non bizi erabaki behar izan dute: Gasteizen edo Arabako gainerako lurraldeetan, hots, hiri-eremuan edo landa-eremuan. Dirudienez, beraien hautuak zerikusi gehiago izan du norberaren gustu eta lehentasunekin, eremu batak edo besteak dakartzan abantaila objektiboekin baino. Batzuk nahiago izaten dute udal-erri txikietako lasaitasuna, beraien jatorriko ingurua gogorarazten dielako; beste batzuk, ordea, nahiago dituzte hiri-eremuko aukera zabal eta anitzagoak. Kontakizun guztiek inguruari buruzko iritzia positiboa emate dute ordea, Gasteiz neurri egokikoa eta kontrolagarria den hiri bat baita, ez txiki ez handi. Landa-eremuak, halaber, klima atsegina eta giro lasaia ditu bereizgarri.

³ NEmakundek editatutako 31. txostenari buruz ari gara, "Atzerriko emakume etorkinak EAEn/Mujeres Inmigrantes extranjerias en la CAE" txostenari buruz, hain zuzen. 2012ko abenduan argitaratu zen Gasteizen. Adibide bat aipatzearren, txosten horretako 280. orrialdean errumaniar emakumezko baten aipu bat dago, eta honela amaitzen da: "(...) Guretzat zaila da, baina haiek gauzak aldatu behar dituzte, eta etorkizun hobea izan behar dute"...

Kontuan izan behar da kuadrilletako landa-eremua inklusiboagotzat hartzen dela hiri-eremua baino. Izan ere, landa-eremuk hurbiltasunak hein handiagoan sustatzen ditu elkarrekintza mistoa, hurbileko harremana, kultura-arteko ezagutza eta gizarte-sareen sorrera, hiriko bizitza desbertsonalizatuago eta anomikoagoak baino. Aldiz, hiri-eremuak kultura-arteko elkarrekintza apalagoa du eta gizarteratzea zailtzen du, baina lan- eta gizarte-aukera gehiago daude bertan, eta kultur-, bizi- eta aisia-eremu anitzagoak eskaintzen ditu, baita kontrol sozial txikiagoa ere. Hala ere, berriro diogu, gure lurraldean bizi diren atzerriko etorkinak oso pozik daudela, oro har, bizi diren inguruarekin.

Atzeritarren adierazpen eta kontakizunak aztertzean, ordea, badira itzal egiten duten zenbait alderdi. Batzuetan, beren kontakizunek zuzenean ateratzen dituzte argitara, eta isilpean, bestetan. Horrek guztiak, ordea, esku-hartzeko aukera dugula pentsarazten digute, gure hiri, auzo eta herrietan gizarteratze-, inklusio- eta elkarbizitza-prozesuak hobetu ahal izan ditzagun. Argi egin nahi diegun alderdi horietako batzuk azalduko ditugu.

1. **Kultura-portaeren arteko aldea.** Hainbat taldetan adierazi denez, zenbaitetan, atzeritar etorkinen eta euskal gizartearen kultura-portaeren arteko ezin ulertuek arazoak sortu dizkie. Atzeritik datozen pertsonen euskal gizartearen kultura-portaerak aztertzeke eskatzen zaie; hala nola eremu pribatuetan edo familia-eremuan nola erlazionatzen garen, generoen arteko harremanetan idatzi gabeko zer errespetuzko arau ditugun, genero-desberdintasunak hobetzeko zer ahalegin egiten ari garen, lan-esparruan nola funtzionatzen dugun, agintaritzaren aurrean nola jokatzeko dugun, ikastoletan zein ikaskuntzarako rol dauden eta abar. Era berean, atzeritar etorkinek aitortzen dute euskal gizarteak ez dituela zenbaitetan haien kultura-portaerak ulertzen, erlijio-sinesmenei, jantziei (zenbait emakume musulmanen buruzapiarekin) edo gizarteratzeko erari dagokienean, kasu.

Litekeena da auzi horrek tokiko lan-eremuarekin (auzoak, herriak) zerikusia izatea. Alderdi horiek lantzen ari dira dagoeneko, baina ez lirateke soberan egongo kultura-jardunbideei buruzko ezagutza faltari aurre egiteko ekintza gehiago. Kultura-jardunbideen arteko ezjakintasuna murriztea, hain zuzen, kulturartekotasuna lantzeko era argia eta praktikoa da.

2. **Toki-eremuak eta aisialdia.** Eztabaida-taldeetako pertsonen kontakizunetan ikus daiteke toki-eremuak eta aisialdia, biak batera, ezin hobeak direla jatorri desberdineko pertsonen arteko elkarrekintza errazteko, elkar hobeto ezagutu eta enpatia landu dezaten. Izan ere, ezinbestekoak dira berdintasunezko tratua eta diskriminaziorik eza lortzeko. Litekeena da prozesu horiek kuadrilletako landa-eremuetan nabariagoak izatea, herritarren arteko hurbiltasuna eta kultura arteko elkarrekintza handiagoa baitira bertan. Hala ere, hiri-eremuan ere joera hori nabari da.

Gauza berria ez den arren, kontuan izan behar da haurrek aisiarako abagunea izatea oso garrantzitsua dela harreman eta interrelazio mistoak sustatzeko, ez jatorri desberdineko haurren artean bakarrik, baita hiritargo helduaren artean ere.

Gure ustez, heldu, gazte eta haurren aisia-esparruetan lanean jarduteak (be-reziki tokiko eta hurbileko eremuetan; Gasteizko auzoetan eta herrietan, kasu) elkar ezagutzea errazten du, eta horrek bizikidetza hobeago bati ateak zabal-tzen dizkio.

3. **Askotariko euskal izaera.** Nahiz eta ez den beste ikerketetan bezain agerikoa izan, elkarrizketatutako hainbaten kontakizunek islatu izan dute, zenbaitetan, atzerritar etorkinek euskaldun bezala bizitzeko zailtasunak izaten dituztela. Izan ere, euskal gizarteak berak kendu ohi diete euskaldun sentitzeko esku-bidea, kanpoan jaio direlako, beste kultura bat dutelako edo azalaren kolorea desberdina delako.

Ez da erraza bertako euskal herritarrei ekintza zehatzak proposatzea, pertsona bat euskaldun egiten duten baldintzei buruz hausnartu dezaten, euskaldun hitzaren zentzu hertsian. Hala ere, “euskaldun” izatearen definizio humanista batek asko erraztuko luke auzi hori. Euskal izaerak hainbat dimentsio ditu bai-tan; funtsean, hemen bizitzea da, hemen lan egitea, harremanak hemen iza-tea, euskal kultura eta euskara maitatzea, gure lurraiekiko lotura izatea, seme-alabak hemen izatea, etorkizuna hemen ikustea... laburbilduz, bene-benetan euskaldun sentitzea.

Gure ustez, euskal izaeraren aurreko arketipoaren ordezkari ikuspegi humanis-tago bat ezartzea xede duten ekintzek ahalbideratu egin dezakete atzerritar jatorriko pertsonen gizarteratzea.

4. **Hezkuntzaren garrantzia.** Alderdi hau xehetasun osoz landu genuen 2014an, Gasteizen egindako ikerketan. Heziketa sustatu eta hezkuntzaren garrantziaz kontzientziatu nahi da, etorkizuneko gizartearen eta mugikortasun bertikala-ren sustatzaile gisa: hezkuntza inbertitzea, ahaleginaren eta prestakuntzaren balioak etorkizun hobearen bermatu dezan.

Une hartan, pertsonak beraiei seme-alaben hezkuntza modu berean balora-tzen ez zutela iruditu zitzaigun. Hala ere, oraingo honetan ez da alde handirik ageri atzerritar jatorriko pertsonen adierazpen eta kontakizunen artean; ba-dirudi gero eta gehiagok balioesten dutela hezkuntza, seme-alaben etorkizu-nerako, batez ere. Taldeetan parte hartu zutenek seme-alabek prestakuntza jasotzea nahi dute, hezkuntza-maila altuak lortu eta, hartara, gizarte-maila hobeagoa lor dezaten.

Honen ildotik, garrantzitsua da irakasleen artean hautemandako estereoti-poak ere baztertzeko ahalegina egitea; izan ere, atzerritar jatorria duen per-tsonak prestakuntza profesionalera bideratzeko joera nabari da zenbaitetan, nahiz eta unibertsitate ikasketak burutzeko gai diren.

5. **Euskararen garrantzia.** Oraindik ere, nabari da atzerritar jatorriko pertsonak ez diotela euskarari euskal gizarteak beste garrantzia ematen. Izan ere, ez du gizarte-hobekuntza edo lan-merkatuak sarrera bakarrik errazten, pertsona batzuk hala uste duten arren: funtsezko kultura-elementu bat ere bada, gizarte baten mundu-ikuspegiaren adierazpena; euskal gizartearena, hain zuzen.

Taldeek kontakizunak agerian uzten dute euskarari bigarren mailako eginkizun bat esleitzen zaiola. Hizkuntza ez ikastea justifikatzen dute Arabako gizartearen behar-beharrezkoa ez dela esanez, gutxi erabiltzen delako, batez ere Gasteizen eta zenbait kuadrillean, edo gaztelaniaz bakarrik hitz egiten den lurralde mugakideetan. Bestalde, bizilekuz aldatzea erabakitzen badute ez zaiela erabilgarri izango diote, nahiz eta, oro har, kontakizunok halakorik egingo ez dutela dioten.

Horrez gain, euskarak zaila izatearen estigma bat duenez, elkarriketatu baten baino gehiagoren arbuioa izan du.

Atzeritar jatorriko pertsonen euskararen balioari buruz sentibera bihurtzea helburu duten ekintzak, euskal herritarren kontu folkloriko eta sentimental bat baino gehiago eta kultura-elementu garrantzitsua dela jakin dezaten, baita lan-merkatutarako sarrera, etorkizunerako gizarte-mugikortasun bertikala eta gizarteratze-prozesuak errazten dituela ere. Garrantzitsua da atzeritar jatorriko pertsonen euskararekiko jarrera positiboa hautematea eta helaraztea.

6. **Lan-esparru esleituak.** Atzeritar jatorriko pertsonen uste dute sar daitezkeen lan-esparruei buruzko aurreiritzi eta estereotipoak daudela; horrek kalte egiten die, eta mugatu egiten die kualifikazio altuagoko edo bestelako enplegutarako sarrera.

Euskal gizarteak ere, orokorrean, atzeritar etorkinei lan-esparru estereotipatu batzuk esleitzen dizkie: etxeen eta pertsonen zaintza, arrantza, ostalaritza, nekazaritza, urte-sasoiko lanak, eraikuntza eta abar. Gehienak lan ezegonkorak, nekezak eta/edo arriskutsuak dira, bertako biztanleek nahi ez omen dituztenak.

Atzeritar jatorriko pertsonen adierazpenetan estereotipo horiek alde batera uzteko berariazko aldarrikapen bat ageri da, konturatzen direlako kalte egiten diela lan-mugikortasun horizontalean eta, bereziki, bertikalean.

Orokorrean, dinamika horietan parte hartu duten pertsonen uko egin diote lanbide-estratifikazioaren behealdeko lan-esparruetan jarduteari, baina beldur dira, joera hori betikotu eta seme-alabek, hezkuntza-profil hobea izan arren, lan-diskriminazio bera jasango duten.

Irudi estereotipatu horiekin haustea eta bestelako prestakuntza-profil eta lan-esparruen berri ematea helburu duten ekintzek erraztu egin dezakete egungo belaunaldien gizarte- eta lan-mugikortasuna, eta bereziki, datozen belaunaldiena.

7. **Atzeritik datozen pertsonen zenbait talde estigmatizatzen dituen aurreiritzi eta estereotipoen aurre egitea.** Aurreko puntuan esandakoaren ildotik, ez diegu lan-esparruko aurreiritzi eta estereotipoen bakarrik aurre egin behar, gure gizartearen gailentzen diren aurreiritzi guztiei baizik.

Aurreko puntuetan aipatu ditugun ekintza batzuk ere lagungarriak dira atzeritar jatorriko pertsonen lotutako estereotipo faltsuei aurre egiteko; izan ere, kulturen arteko ezagutza eta elkarrekintza errazten eta sustatzen ditugunean, zeharka baliatzen ditugu bestelako jatorria duten herritarrekiko aurreiritziei ere aurre egiteko.

Aurreiritzi horiek afrikar jatorriko atzerritarrek jasaten dituzte gehienbat. Litekeena da, zenbaitetan, aurreiritziok pakistandarrek ere jasan behar izatea.

Pertsona horiek, migrazio-prozesuaz gain, horrek dakartzan arazo gehigarriekin behar diete aurre; hala nola herritartasuna lortzeko legedi gogorrago eta murriztaileagoari, hizkuntza arrotz bati edo bereaz bestelako erlijio bati (kasu gehienetan). Gainera, inkestek erakusten dute euskal herritarrek atzerritarrekiko duten begikotasuna baloratzean talde horiek egon ohi direla zerrenden amaieran.

8. **Erljio-praktikak bateratzea eta diskriminaziorik eza.** Eztabaida-taldearen kontakizunetan, Gasteizen zein gainerako kuadrillean, atzerritar jatorriko pertsonen nabarmendu dute erlijioak garrantzi handia duela beraien bizitzetan, eta diskriminaziorik jasan gabe praktikatu beharko luketela. Horrez gain, zenbait kontakizunek salatu egiten dute, dirudienek, behar bezala praktikatzeko leku eta/edo une egokiak falta direla.

Garbi dago pertsona bakoitzari bere erlijio-askatasunerako eskubidea gauzatzeko aukera eman behar zaiola. Hala ere, badira zehaztu beharreko zenbait neurri, gizarte euskaldunak, eta baita gizarte horren partaide den atzerritarrek ere, gizarte laiko eta ez-konfesional batean gaudela jakin dezan. Horren arabera, erlijio batek ezin du eremu arautzaile sozial eta politikoa beretu, eta bere eragin eta praktika esparru pribatura mugatuta dago.

Gure gizartearen oinarria zuzenbide-estatu da, herritar guztien eskubideen (eta betebeharren) defentsa berdintasunean egonez, eta horrek izan behar du ekintza politikoen jomuga, erlijio askok sustatzen duten genero-desberdintasunean arreta berezia jarritz. Beraz, garrantzi handia du erlijio-askatasunaren eta askatasun hori gauzatzearen mugak zehaztea, gure zuzenbide-estatuarekin aurkako izan ez dadin.

9. **Erakundearen hurbiltasuna eta atzerritar jatorriko pertsonen parte-hartze soziala.** Gasteizen eta Arabako kuadrillean egindako dinamika alderatuta, azken horietan gizarteratze-prozesuek erakundearen babes eta interes handiagoa dutela hauteman dugu. Ildo horretatik, egokia izan daiteke erakunde publikoak atzerritar jatorria duten edo atzerritarren ondorengoak diren pertsonen hurbilpen sendoago, hedatuago eta orokorrago bat egiteko ekimenak bultzatzea, Arabako gizartearen bizi-estiloan gehiago parte hartu dezaten.

Arabako lurraldean elkarlanerako sareak eta tresnak sortzea proposatzen dugu, atzerritar jatorria edo nazionalitatea duten edo atzerritarren ondorengo diren pertsonen hurbilpen-estrategia bat garatzeko.


10. **Emakumezko atzerritarren gizarteratzea, laneratzea eta bizikidetzatzea.** Interesgarri gerta daiteke Araban bizi diren emakumezko atzerritarren lan-, gizarte- eta familia-errealitatearekin lotutako zenbait alderdi azpimarratzea, bereizgarri batzuk baitituzte.

Ikerketan elkarriketatutako pertsonen artean ikusi ahal izan dugu, bizitza sozialean duten parte-hartzeari dagokionez, emakumezkoak irekiagoak direla eta laguntza emateko joera handiagoa dutela, baita itxiagoak diren jatorrietako emakumezkoek ere. Aldiz, gizonezkoak parte-hartze txikiagoa dute

oro har bizitza sozialean, kirol-arloan salbu. Hala ere, emakumezkoek diote familia-kargek aisialdia mugatzen dietela eta, ondorioz, baita gizartean duten parte-hartzea ere. Horregatik, jarduera horiek seme-alabak ikastolan daude-nean besterik ezin dituzte burutu. Elkarrizketatutako emakumezkoek aukeratu egin behar izaten dute, oro har, seme-alabak zaintzearen edo etxetik atera eta behar besteko soldata lortzearen artean. Batzuetan ez dute lagunduko dien bikotekiderik, eta, beste batzuetan, nahiz eta bikotekidea izan, seme-alaben zaintza emakumezkoei esleitzen zaie. Gehienetan, ordea, ez dute familia-sare-rik edo seme-alabak zaintzeko kanpoko laguntzarik. Horren ondorioz, ohikoa da zenbait emakumezko atzerritarrek etxetik kanpo lanik ez egitea erabaki, eta denbora guztia familia zaintzeari eskaintzea. Nolanahi ere, etxetik kanpo lan egin edo ez, seme-alabak zaintzearen ardura emakumezkoena izateak murriztu egiten die gizarte-partaidetzarako abagunea. Bestalde, bertako biztanle-riarekin zuzeneko eta bizikidetzazko harremana dutela aitortzen dute, baina oraindik beraien jatorrizko herrialdeei lotutako estereotipoek heldzen zitzaie; emakumezkoen kasuan, bereziki. Horren adibide garbiak dira islama praktikatzen eta buruzapia daramaten emakumezkoak jasaten dituzten aurreiritzi eta zailtasun gehigarriak. Zailtasunok nabariak dira jendaurrean lan egiteko enplegu bat lortu nahi dutenean, enplegu-emailek ez baitute, oro har, erlijio-sinesmenak jendartean erakuts daitezen nahi. Kultura-talka handi bat nabari da, dudarik gabe. Izan ere, bertako biztanleak “esanahi kulturalaz” jabetzen ez direla dioten arren, litekeena da emakume horiek ere ez konturatzea bertako biztanleek zer esanahi sinboliko hautematen duten; hau da, erlijio-sinesmenez haratago doana, mendekotasun eta matxismoarekin lotutakoa. Nolanahi ere, buruzapiak edo hiyab delakoak landu beharreko auzia dira, eragin zuzena baitute buruzapia daramaten emakumezkoen eguneroko bizitzan; zaildu egiten die lan-merkatuan sartzea, eta, ondorioz, beraien autonomia ahultzen du.

Lanean diharduten atzerritar jatorriko emakumezkoei dagokienez, jarduerata tasa altuak ageri dira, bereziki, errumaniar eta latinoamerikar jatorriko emakumezkoen artean. Adierazpenen arabera, lan-merkatura sartzeko erraztasun handiagoa dutela dirudi, ikerketa honetan parte hartu duten afrikar emakume askok eta horien emakumezko lagunek edo ingurukoek jasaten dituzten zailtasunekin alderatuta. Agerikoa da emakume horiek enplegua lortzeko aukera gutxiago dituztela. Emakume horiek, kasu gehienetan, beraien denbora fami-liari eta ordaindutako lanaren artean banatu behar dutela aitortzen dute. Hau da, etxeko lanak egin eta seme-alabak zaintzeaz gain, soldatapeko lan bat dute etxetik kanpo. Gehienek zerbitzuen sektorean egiten dute lan, eta, zehazki, etxeko lanekin, garbiketarekin eta ostalaritzarekin lotutako lan-esparruetan. Gainera, parte hartu duten emakumezkoen adierazpenetan ageri da zailta-sun handiak dituztela maila bertsuko lan-esparruetara (mugikortasun hori-zontala) eta lan-kategoria handiagoko lanpostuetara sartzeko (mugikortasun bertikala). Emakumezko askok diote jatorrizko herrialdeetan kategoria altuko lanpostuak zituztela, eta migrazio-prozesuaren ondoren, enplegu ezegonko-rrak eta kalifikazio gutxiak besterik ezin izan dituztela lortu. Egoera nekeza izan arren, badira egoerak hobera egin duen zenbait seinale, emakumezkoen gizarteratze- eta laneratze-dinamikei dagokienez. Izan ere, bertan jaio diren (EAEn) eta atzerritarren ondorengo diren emakumezko askok EAEn egin di-tuzte ikasketak, eta lanpostuak lortu dituzte hezkuntzan, gizarte-lanetan edo beste zenbait sektoretan. Ikerketan parte hartu duten emakumezkoek ondo-rengoengan jarri dute hobekuntzarako itxaropena, eta seme-alabek etorkizun hobeagoa izan dezaten nahi dute.

ALDERDIAK	GAKOAK	EKINTZAK
KULTURA-PORTAERA	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Hainbat taldetan adierazi denez, zenbaitetan, atzerritar etorkinen eta euskal gizartearen kultura-portaeraren arteko ezin ulertuek arazoak sortu dizkie. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Tokiko lan-eremuak (auzoak eta herriak). ✓ Kultura-jarduerei buruzko ezagutza faltari aurre egiteko ekintzak.
AISIA ETA DENBORA LIBREA	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Aisialdia eta toki-eremuak ezin hobeak dira jatorri desberdineko pertsonen arteko elkarrekintza errazteko. ✓ Hirietan, gazteak zentro zibikoetara joaten dira beren denbora librean. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Haur, gazte eta helduentzako ekintzak burutzea aisialdi-guneetan. ✓ Haur, gazte eta helduen aisialdia hobetzeko ekintzak, tokiko eta hurbileko eremuetan: Gasteizko auzoetan eta kuadriletako herrietan, hain zuzen.
ASKOTARIKO EUSKAL IZAERA	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Euskal izaera, alderdi askoko elementu gisa. ✓ Hainbat dimentsioko euskal izaera, Euskadin bizi, lan egin eta harremanak izatera, euskal kultura eta hizkuntza maitatzera eta euskal kulturarekiko lotura izatera bultzatzen duena. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Euskal izaeraren arketipoen orde, ikuspegi humanistago bat ezartzeko ekintzak garatzea.
HEZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Adierazpenetan hezkuntzaren garrantziaz mintzo dira, seme-alaben etorkizunean duen garrantziaz, bereziki. ✓ Hezkuntza gizarteratzeko eta gizarte-mailan gora egiteko tresna gisa. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Heziketa sustatzea eta hezkuntzaren garrantziaz kontzientziaztea, etorkizuneko gizartearen eta mugikortasuna bertikalaren sustatzaile gisa. ✓ Atzerritar gazteen prestakuntzari lotutako estereotipoei aurre egitea, prestakuntza-ziklo bat egitea haien aukera bakarra izan ez dadin.
EUSKARA	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ez diote euskarari euskal gizartearen duen bezainbesteko garrantzia ematen. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Atzerritarrek jakitea eta konturatzea euskarak gure gizartearen garrantzia kultural eta sinboliko handia duela, eta etorkizuneko gizarte-mugikortasuna eta lan-merkatutarako sarreraren erraztaile dela.
LAN-ESPARRUAK	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Lan-esparru esleituak. Atzerritar jatorriko pertsonak uste dute sar daitezkeen lan-esparruei buruzko aurreiritzi eta estereotipoak daudela; horrek kalte egiten die, eta mugatu egiten die kualifikazio altuagoko edo bestelako enpleguetarako sarrera. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Irudi estereotipatu horiekin haustea eta bestelako prestakuntza-profil eta lan-esparruen berri ematea helburu duten ekintzak, egungo belaunaldien gizarte-eta lan-mugikortasuna, eta bereziki, datozen belaunaldia errazteko.
ESTEREOTIPOAK	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Afrikar jatorriko pertsonak jasaten dituzte gehienbat, eta, zenbaitetan, pakistandarrek ere bai. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Atzerritar jatorriko pertsonen eragiten dieten estereotipo faltsuei aurre egiteko ekintzak sendotzea.
ERLIJIO-PRAKTIKAK	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Erlijioak garrantzi handia du jatorriko pertsonen bizitzan. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Gurtza- eta erlijio-askatasuna sustatzea, eta, horrela, erlijio-gurtzaren ondoriozko diskriminazio-egoerak saihestea. ✓ Erlijioen eragina mugatzea: herritarren eskubide eta betebeharrak erlijio-jardunaz gaindi daude. ✓ Erlijio-sinesmenak ezin dira diskriminazio-jardunaren eragile izan, are gutxiago generoari buruzkoak badira.
GIZARTE-PARTAIDETZA	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Erakundeen hiritarrekiko urruntasuna Gasteizen eta hurbiltasuna kuadriletan. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Elkarte-sarea baliatzea lankidetzarako tresnak sortzeko, atzerritar jatorriko pertsonen gizarte-partaidetza sustatu, eta, halaber, erakundeak eta hiritarrak elkarrengana hurbildu ditzan.



Eranskina

3

DINAMIKAREN IRISMENA

Ikuspegiren eta gauzatzen ari den ikerketaren aurkezpen laburra. Hasiera batean, saiatu Arabako Foru Aldundiarekiko lotura oro saihesten, parte-hartzaileek beren iritzia libreki adieraz dezaten. Hori lortzeko, gogorarazi, halaber, ez dela parte-hartzaileen nortasuna inolaz ere jakitera emango.

1. AURKEZPENA (10 min)

Hasi aurretik, zeuen buruari buruz hitz egin dezazuen nahiko nuke. Aipatu, aurkezpen txiki baten bidez, zuen izena, adina, jatorria, familiarik baduzuen...

2. MIGRAZIO-PROZESUA: JATORRIZKO HERRIALDETIK GASTEIZERA/UDALERRIETARA (15 min)

- Nolakoa zen bizitza jatorrizko herrialdeetan? Ongi bizi al zineten?
- Zerk bultzatu zintuzten zuen jatorrizko herrialdea uztera? Nola hartu zenuen erabakia? Nola egiten da migrazio-prozesua?
- Zer espero da migrazio-prozesu bati ekitean? Aurreikuspenak.
- Helmuga aukeratzea: aurretik beste lurralde batetik igaro al zineten? Zergatik Gasteiz? Zergatik udalerrri hau?

3. INGURUNEA: AUZOA ETA ETXEBIZITZA (15 min)

- Nolakoa da zuen auzoa? Zer deritzozue? Zer gauza on ditu? Zer gauza txar ditu? Zer falta zaio? [...]
- Zer giro dago auzoan? Nor bizi da bertan; beste jatorri batzuetako jendea, jatorri oso anitzeko jendea, gehienbat bertako jendea, etorkinak...?
- Nolakoa da zuen auzoa, zuen ustez (adjektiboak)?

- Eta bertako etxebizitzak, nolakoak dira? Jabetzako etxebizitzak edo etxebizitza alokatuak al dira? Egoera onean ala txarrean daude? Ezer falta al zaie? Zer ekipamendu dute?
- Zenbat pertsona bizi dira zuen etxebizitzan?
- Nolakoa da zuen etxebizitza, zuen ustez (adjektiboak)?
- Zailtasunak al dituzue alokairua ordaintzeko? Baliatu al duzue estrategiarik etxebizitza-kostuak murrizteko (partekatzea, berralokatzea, berogailurik ez piztea...)?

4. BIZIKIDETZA ETA INTEGRAZIOA (15 min)

- Eta behin Gasteizen/udalerrri honetan bizitza erabaki ondoren... Zer moduz zaudete hemen? Zer iruditu zitzaizuen? Eta jendea?
- Familiaren eta norberaren ongizatea: Nolakoa da bizitza hemen? Ongi bizi al zarete?
- Zer falta zaizue ongi sentitzeko? Ba al dago arazorik? (baliteke lanari buruzko gaiak aipatzea, saia zaitez horri buruz gehiago hitz egin dezaten...)
- Zer deritzozue inguruko jendeari? Zer deritzote guri buruz? Diskriminazioari dagokionez: nola eragiten digu?
- Estereotipoak eta aurreiritzi negatiboak
- Bizikidetza: Ba al duzue harremanik gasteiztarrekin, zuen udalerriko herri-tarrekin? Zer-nolako harremana da?
- Parte hartzen al duzue Gasteizko/zuen udalerriko bizimoduan? Elkarteren batekoak al zarete? Joaten al zarete kontzertu, hitzaldi, liburutegi, festa, kirol-jarduera eta abarretara?
- Ba al duzue harremanik beste jatorri batzuetako biztanleekin eta euskal biztanleekin?
- Zein dira gizarteratzearen giltzarriak? Zer da garrantzitsuena?
- Eta euskara? Gizarteratzeko garrantzitsua al da? Zer muga dakartza ez jakiteak?
- Migrazio-prozesuari buruzko balantzea eginez gero, positiboa edo negatiboa da?

5. LANA (15 min)

- Zer prestakuntza duzue? Ba al duzue lanik? Non egiten duzue lan? Langa-bezian al zaudete? Lan bila al zabiltzate? Lan egin nahiko zenukete? Non? Lanik egiten al dute, kasu, zuen bikotekideak eta zuzeneko senideek?
- Zer lan-esparrutan egiten duzue lan? Zuen ustez, non egin dezakezue lan?
- Zein zen zuen egoera ekonomikoa jatorrizko herrialdean? Eta orain, migratu aurretik baino hobeagoa edo okerragoa da?

- Nolakoa da zuen ongizate ekonomikoa? Gizarte-laguntzarik behar al duzue? Zer motatakoak? [...]
- Gizarte-laguntzak: Nahikoa al dira? Erraza/zaila al da gizarte-laguntzak lortzea? Laguntza horien inguruan gehiegikeriak edo iruzurak daudela esango zenukete?
- Lanean ari bazarete, zer asebetetze-maila duzue lanarekin eta egoera ekonomikoarekin?
- Zer lan-aukera ikusten dituzue etorkizunean?
- Baliabideen zer proportzio bidaltzen duzue?
- Zer arazo dituzue? (lan ezegonkorra, osasuna, familia zaintzea...)
- Zer laguntza-saretara jo duzue familia zaintzearekin lotutako arazoak saihesteko? Senideengana, lagunengana, bizilagunengana...?

6. HEZKUNTZA (15 min)

- Ba al duzue seme-alabarik? Zer adin dute? Zer eredutan egin dituzte ikasketak: A, B edo D? Non ikasten dute: ikastetxe publikoetan, itunpeko ikastetxe laikoetan, itunpeko eskola erlijiosoetan...? Euskararen garrantzia etorkizuneko belaunaldientzat.
- Eremu komunak –ikastetxea. Ikastola harremanetarako eremu bat al da? Zer garrantzia ematen diogu gure eta gure seme-alaben hezkuntzari? Ba al dago zailtasunik, eremu honetan, atzerritar jatorriko pertsonentzat? Zer alderdi positibo ditu? Diskriminatuta sentitzen al zarete? Eta zuen seme-alabak?
- Etorkizunera begira, zer asmo duzue seme-alaben hezkuntzari dagokionez? Eta zer asmo duzue seme-alaben lanbideari dagokionez? [...]
- Denbora librea, eskolaz kanpoko jarduerak... garrantzitsuak al dira? Neskek eta mutilek desberdin gozatzen dute denbora libreaz.

7. ESPARRU PRIBATUA (15 min)

- Generoari buruz hitz egingo dugu. Nolako harremana dute gizonezkoek eta emakumezkoek zuen udalerrian? Nolakoak dira senideen arteko harremanak? Norekin duzue harremana etxean, aisialdian...?
- Semeak eta alabak berdin hezten al dira? Ahaleginik egiten al duzue eskubide berdinak izan ditzaten, hala nola hezkuntza-eskubidea, lan-eskubidea, gizarte-eskubidea, banakako eskubidea eta abar?
- Ba al dute bertako edo jatorrizko herrialdeko genero-indarkeriaren berri?
- Erlijioa. Garrantzitsua al da zuen bizitzan? Nolako garrantzia du erlijioak zuen bizitzan?
- Zuen erlijioa askatasunez praktikatu al dezakezue? Zer arazo dituzue? Zerk mugatzen zaituzte, mugarik baldin badago?

- Denbora libreari dagokionez, zer egiten duzue? Nola baliatzen dugu gure aisialdia? Arabarren beste modu batera baliatzen al dute?
- Aisialdia zuen baliabideek baldintzatzen al dute?

8. ETORKIZUNeko ITXAROPENAK (15 min)

- Hemen geratzeko asmoa al duzue? Zergatik bai/ez?
- Etorkizunari begira, gure egungo egoeratik zer hobetu dezakegu? (Egin zerrenda bat) Errealistak baldin bagara, zerrenda honetatik zer aldatu ahal izango dugu, eta zer ezingo dugu aldatu? Zergatik?
- Zuen aurreikuspenak asko aldatu al dira prozesua hasi zenetik gaur arte?
- Zuen ustez, nolakoa izango da zuen eta zuen familiaren bizitza etorkizunean? Bestelakoa izango al da zuen egoera eta seme-alabena? Zuen ustez, nola biziko dira zuen seme-alabak udalerri honetan? Nolakoa izango da egoera 25 edo 30 urte barru? Nolakoa izango da egoera datozen belaunaldientzat, hau da, seme-alabentzat eta bilobentzat?

9. UDALETXEA/FORU ALDUNDIA (15 min)

- Zer egin dezake udaletxeak edo Foru Aldundiak, udalerri honetan hobeto bizi zaitezen? Zer programa eta/edo ekintza antolatu beharko lituzkete? Zer zerbitzu?
- Aurrez landutako eremuak: bizikidetza, gizarteratzea, lana (lan-merkatua), zaintzak, hezkuntza, berdintasuna, emakumeen aurkako indarkeria, erlijioa, eta abar.

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

1. DINAMIKA Nº	LEKUA	PROFILA	ADIN-TALDEA			EGONALDIAREN IRAUPENA		SEME- ALABAK		BIKOTEKIDEA		LANA	
			18-24	25-44	45-64	6 urte baino gutxiago	6 urte baino gehiago	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
1	GASTEIZ	Magrebtar jatorriko emakumezkoak		✓		✓			✓		✓	✓	
2	GASTEIZ	Magrebtar jatorriko emakumezkoak			✓		✓	✓		✓			
3	GASTEIZ	Magrebtar jatorriko emakumezkoak		✓			✓						
4	GASTEIZ	Magrebtar jatorriko emakumezkoak		✓			✓	✓		✓			✓
5	GASTEIZ	Magrebtar jatorriko emakumezkoak	✓				✓		✓		✓		✓
6	GASTEIZ	Magrebtar jatorriko emakumezkoak		✓			✓	✓		✓			✓
7	GASTEIZ	Magrebtar jatorriko emakumezkoak	✓				✓	✓		✓			✓
8	GASTEIZ	Magrebtar jatorriko emakumezkoak		✓			✓		✓	✓			✓

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

2. DINAMIKA Nº	LEKUA	PROFILA	ADIN-TALDEA			EGONALDIAREN IRAUPENA		SEME- ALABAK		BIKOTEKIDEA		LANA	
			18-24	25-44	45-64	6 urte baino gutxiago	6 urte baino gehiago	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
9	GASTEIZ	Saharaz hegoaldeko jatorriko emakumezkoak		✓		✓		✓		✓			✓
10	GASTEIZ	Saharaz hegoaldeko jatorriko emakumezkoak		✓		✓			✓	✓			✓
11	GASTEIZ	Saharaz hegoaldeko jatorriko emakumezkoak		✓		✓		✓			✓		✓
12	GASTEIZ	Saharaz hegoaldeko jatorriko emakumezkoak		✓			✓		✓		✓		✓
13	GASTEIZ	Saharaz hegoaldeko jatorriko emakumezkoak	✓				✓		✓		✓		✓
14	GASTEIZ	Saharaz hegoaldeko jatorriko emakumezkoak	✓						✓		✓		✓

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

3. DINAMIKA Nº	LEKUA	PROFILA	ADIN-TALDEA			EGONALDIAREN IRAUPENA		SEME- ALABAK		BIKOTEKIDEA		LANA	
			18-24	25-44	45-64	6 urte baino gutxiago	6 urte baino gehiago	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
15	GASTEIZ	Latinoamerikar jatorriko emakumezkoak			✓	✓		✓		✓		✓	
16	GASTEIZ	Latinoamerikar jatorriko emakumezkoak		✓		✓				✓			
17	GASTEIZ	Latinoamerikar jatorriko emakumezkoak		✓			✓		✓		✓	✓	
18	GASTEIZ	Latinoamerikar jatorriko emakumezkoak		✓			✓	✓				✓	
19	GASTEIZ	Latinoamerikar jatorriko emakumezkoak		✓			✓	✓		✓			✓
20	GASTEIZ	Latinoamerikar jatorriko emakumezkoak		✓			✓	✓					
21	GASTEIZ	Latinoamerikar jatorriko emakumezkoak		✓			✓		✓		✓	✓	
22	GASTEIZ	Latinoamerikar jatorriko emakumezkoak			✓		✓	✓		✓			✓

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

4. DINAMIKA Nº	LEKUA	PROFILA	ADIN-TALDEA			EGONALDIAREN IRAUPENA		SEME- ALABAK		BIKOTEKIDEA		LANA	
			18-24	25-44	45-64	6 urte baino gutxiago	6 urte baino gehiago	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
23	GASTEIZ	Pakistandar jatorriko gizonetzkoak			✓	✓		✓		✓			
24	GASTEIZ	Pakistandar jatorriko gizonetzkoak			✓	✓			✓	✓			
25	GASTEIZ	Pakistandar jatorriko gizonetzkoak		✓			✓						
26	GASTEIZ	Pakistandar jatorriko gizonetzkoak		✓			✓	✓			✓		✓
27	GASTEIZ	Pakistandar jatorriko gizonetzkoak		✓			✓	✓		✓			
28	GASTEIZ	Pakistandar jatorriko gizonetzkoak			✓		✓	✓		✓		✓	
29	GASTEIZ	Pakistandar jatorriko gizonetzkoak		✓			✓	✓		✓			
30	GASTEIZ	Pakistandar jatorriko gizonetzkoak		✓			✓		✓		✓	✓	

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

5. DINAMIKA Nº	LEKUA	PROFILA	ADIN-TALDEA			EGONALDIAREN IRAUPENA		SEME- ALABAK		BIKOTEKIDEA		LANA	
			18-24	25-44	45-64	6 urte baino gutxiago	6 urte baino gehiago	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
31	GASTEIZ	Magrehtar jatorriko gizonetako gazteak	✓			✓							
32	GASTEIZ	Magrehtar jatorriko gizonetako gazteak	✓			✓		✓			✓		✓
33	GASTEIZ	Magrehtar jatorriko gizonetako gazteak	✓			✓		✓			✓		✓
34	GASTEIZ	Magrehtar jatorriko gizonetako gazteak	✓			✓		✓			✓	✓	
35	GASTEIZ	Magrehtar jatorriko gizonetako gazteak	✓			✓		✓			✓		✓
36	GASTEIZ	Magrehtar jatorriko gizonetako gazteak	✓			✓					✓		✓
37	GASTEIZ	Magrehtar jatorriko gizonetako gazteak			✓		✓	✓	✓				✓
38	GASTEIZ	Magrehtar jatorriko gizonetako gazteak		✓			✓	✓		✓		✓	
39	GASTEIZ	Magrehtar jatorriko gizonetako gazteak	✓				✓	✓		✓			✓
40	GASTEIZ	Magrehtar jatorriko gizonetako gazteak	✓				✓	✓	✓				✓
41	GASTEIZ	Magrehtar jatorriko gizonetako gazteak		✓			✓	✓	✓			✓	

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

6. DINAMIKA Nº	LEKUA	PROFILA	ADIN-TALDEA			EGONALDIAREN IRAUPENA		SEME- ALABAK		BIKOTEKIDEA		LANA	
			18-24	25-44	45-64	6 urte baino gutxiago	6 urte baino gehiago	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
42	GASTEIZ	Saharaz hegoaldeko jatorriko gizonetako gazteak	✓			✓			✓		✓		✓
43	GASTEIZ	Saharaz hegoaldeko jatorriko gizonetako gazteak	✓			✓			✓		✓		✓
44	GASTEIZ	Saharaz hegoaldeko jatorriko gizonetako gazteak		✓		✓			✓		✓	✓	
45	GASTEIZ	Saharaz hegoaldeko jatorriko gizonetako gazteak		✓		✓			✓		✓	✓	
46	GASTEIZ	Saharaz hegoaldeko jatorriko gizonetako gazteak		✓		✓		✓			✓		✓
47	GASTEIZ	Saharaz hegoaldeko jatorriko gizonetako gazteak		✓		✓		✓		✓			✓
48	GASTEIZ	Saharaz hegoaldeko jatorriko gizonetako gazteak		✓		✓							

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

7. DINAMIKA Nº	LEKUA	PROFILA	ADIN-TALDEA			EGONALDIAREN IRAUPENA		SEME- ALABAK		BIKOTEKIDEA		LANA	
			18-24	25-44	45-64	6 urte baino gutxiago	6 urte baino gehiago	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
49	AIARA	Errumaniar jatorriko emakumezkoak		✓		✓			✓	✓		✓	
50	AIARA	Errumaniar jatorriko emakumezkoak	✓			✓			✓	✓		✓	
51	AIARA	Errumaniar jatorriko emakumezkoak		✓			✓	✓		✓		✓	
52	AIARA	Errumaniar jatorriko emakumezkoak		✓			✓	✓		✓		✓	
53	AIARA	Errumaniar jatorriko emakumezkoak			✓		✓	✓		✓		✓	
54	AIARA	Errumaniar jatorriko emakumezkoak		✓		✓		✓		✓		✓	
55	AIARA	Errumaniar jatorriko emakumezkoak		✓			✓		✓	✓			✓
56	AIARA	Errumaniar jatorriko emakumezkoak			✓		✓	✓			✓		✓

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

8. DINAMIKA Nº	LEKUA	PROFILA	ADIN-TALDEA			EGONALDIAREN IRAUPENA		SEME- ALABAK		BIKOTEKIDEA		LANA	
			18-24	25-44	45-64	6 urte baino gutxiago	6 urte baino gehiago	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
57	AIARA	Latinoamerikar jatorriko gizonezkoak		✓		✓		✓		✓			✓
58	AIARA	Latinoamerikar jatorriko gizonezkoak		✓		✓		✓		✓			✓
59	AIARA	Latinoamerikar jatorriko gizonezkoak		✓		✓		✓		✓			✓
60	AIARA	Latinoamerikar jatorriko gizonezkoak		✓			✓	✓		✓		✓	
61	AIARA	Latinoamerikar jatorriko gizonezkoak		✓		✓			✓		✓		✓
62	AIARA	Latinoamerikar jatorriko gizonezkoak		✓		✓		✓		✓			✓
63	AIARA	Latinoamerikar jatorriko gizonezkoak		✓			✓		✓		✓	✓	

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

9. DINAMIKA Nº	LEKUA	PROFILA	ADIN-TALDEA			EGONALDIAREN IRAUPENA		SEME- ALABAK		BIKOTEKIDEA		LANA	
			18-24	25-44	45-64	6 urte baino gutxiago	6 urte baino gehiago	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
64	KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEA	Magrebtar jatorriko emakumezkoak		✓		✓		✓		✓			✓
65	KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEA	Magrebtar jatorriko emakumezkoak		✓		✓		✓				✓	
66	KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEA	Magrebtar jatorriko emakumezkoak		✓		✓		✓		✓			✓
67	KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEA	Magrebtar jatorriko emakumezkoak			✓	✓		✓			✓		✓
68	KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEA	Magrebtar jatorriko emakumezkoak			✓		✓	✓		✓		✓	
69	KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEA	Magrebtar jatorriko emakumezkoak		✓		✓		✓		✓			✓

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

10. DINAMIKA Nº	LEKUA	PROFILA	ADIN-TALDEA			EGONALDIAREN IRAUPENA		SEME- ALABAK		BIKOTEKIDEA		LANA	
			18-24	25-44	45-64	6 urte baino gutxiago	6 urte baino gehiago	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
70	KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEA	Errumaniar jatorriko gizonezkoak		✓			✓	✓		✓		✓	
71	KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEA	Errumaniar jatorriko gizonezkoak			✓		✓	✓		✓		✓	
72	KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEA	Errumaniar jatorriko gizonezkoak		✓			✓	✓		✓		✓	
73	KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEA	Errumaniar jatorriko gizonezkoak			✓		✓	✓		✓		✓	
74	KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEA	Errumaniar jatorriko gizonezkoak		✓		✓			✓	✓		✓	

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

11. DINAMIKA Nº	LEKUA	PROFILA	ADIN-TALDEA			EGONALDIAREN IRAUPENA		SEME- ALABAK		BIKOTEKIDEA		LANA	
			18-24	25-44	45-64	6 urte baino gutxiago	6 urte baino gehiago	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
75	GUARDIA-ARABAKO ERRIOXA	Latinoamerikar jatorriko emakumezkoak			✓		✓	✓					✓
76	GUARDIA-ARABAKO ERRIOXA	Latinoamerikar jatorriko emakumezkoak			✓		✓	✓				✓	
77	GUARDIA-ARABAKO ERRIOXA	Latinoamerikar jatorriko emakumezkoak			✓		✓	✓					✓
78	GUARDIA-ARABAKO ERRIOXA	Latinoamerikar jatorriko emakumezkoak		✓		✓		✓		✓		✓	

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

12. DINAMIKA	Nº	LEKUA	PROFILA	ADIN-TALDEA			EGONALDIAREN IRAUPENA		SEME- ALABAK		BIKOTEKIDEA		LANA	
				18-24	25-44	45-64	6 urte baino gutxiago	6 urte baino gehiago	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
	79	GUARDIA-ARABAKO ERRIOXA	Portugaldar jatorriko gizonezkoak	✓				✓		✓		✓		✓
	80	GUARDIA-ARABAKO ERRIOXA	Portugaldar jatorriko gizonezkoak		✓			✓	✓		✓			✓
	81	GUARDIA-ARABAKO ERRIOXA	Portugaldar jatorriko gizonezkoak		✓			✓	✓		✓			✓
	82	GUARDIA-ARABAKO ERRIOXA	Portugaldar jatorriko gizonezkoak			✓		✓	✓		✓		✓	

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

13. DINAMIKA	Nº	LEKUA	PROFILA	ADIN-TALDEA			EGONALDIAREN IRAUPENA		SEME- ALABAK		BIKOTEKIDEA		LANA	
				18-24	25-44	45-64	6 urte baino gutxiago	6 urte baino gehiago	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
	83	AÑANA	Portugaldar jatorriko emakumezkoak		✓			✓	✓		✓		✓	
	84	AÑANA	Portugaldar jatorriko emakumezkoak		✓			✓	✓		✓		✓	
	85	AÑANA	Portugaldar jatorriko emakumezkoak		✓			✓	✓		✓		✓	
	86	AÑANA	Portugaldar jatorriko emakumezkoak	✓				✓		✓		✓		✓
	87	AÑANA	Portugaldar jatorriko emakumezkoak		✓			✓	✓		✓			✓
	88	AÑANA	Portugaldar jatorriko emakumezkoak		✓			✓	✓		✓		✓	

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

14. DINAMIKA	Nº	LEKUA	PROFILA	ADIN-TALDEA			EGONALDIAREN IRAUPENA		SEME- ALABAK		BIKOTEKIDEA		LANA	
				18-24	25-44	45-64	6 urte baino gutxiago	6 urte baino gehiago	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
	89	AÑANA	Magrebtar jatorriko gizonezkoak			✓		✓	✓		✓		✓	
	90	AÑANA	Magrebtar jatorriko gizonezkoak		✓		✓			✓	✓			✓
	91	AÑANA	Magrebtar jatorriko gizonezkoak		✓			✓	✓		✓			✓
	92	AÑANA	Magrebtar jatorriko gizonezkoak		✓		✓		✓		✓		✓	
	93	AÑANA	Magrebtar jatorriko gizonezkoak	✓			✓			✓		✓		✓
	94	AÑANA	Magrebtar jatorriko gizonezkoak		✓		✓		✓		✓		✓	
	95	AÑANA	Magrebtar jatorriko gizonezkoak			✓	✓		✓		✓			✓
	96	AÑANA	Magrebtar jatorriko gizonezkoak	✓				✓	✓		✓		✓	
	97	AÑANA	Magrebtar jatorriko gizonezkoak			✓		✓	✓		✓			✓
	98	AÑANA	Magrebtar jatorriko gizonezkoak	✓			✓			✓		✓		✓

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

15. DINAMIKA	Nº	LEKUA	PROFILA	ADIN-TALDEA			EGONALDIAREN IRAUPENA		SEME- ALABAK		BIKOTEKIDEA		LANA	
				18-24	25-44	45-64	6 urte baino gutxiago	6 urte baino gehiago	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
	99	GORBEIALDEA	Latinoamerikar jatorriko emakumezkoak		✓			✓	✓		✓		✓	
	100	GORBEIALDEA	Latinoamerikar jatorriko emakumezkoak		✓		✓			✓	✓		✓	
	101	GORBEIALDEA	Latinoamerikar jatorriko emakumezkoak			✓		✓	✓		✓		✓	
	102	GORBEIALDEA	Latinoamerikar jatorriko emakumezkoak	✓			✓		✓		✓		✓	

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

16. DINAMIKA	Nº	LEKUA	PROFILA	ADIN-TALDEA			EGONALDIAREN IRAUPENA		SEME- ALABAK		BIKOTEKIDEA		LANA	
				18-24	25-44	45-64	6 urte baino gutxiago	6 urte baino gehiago	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
	103	GORBEIALDEA	Latinoamerikar jatorriko gizonezkoak		✓		✓		✓		✓		✓	
	104	GORBEIALDEA	Latinoamerikar jatorriko gizonezkoak		✓		✓		✓		✓			✓
	105	GORBEIALDEA	Latinoamerikar jatorriko gizonezkoak			✓	✓		✓		✓			✓
	106	GORBEIALDEA	Latinoamerikar jatorriko gizonezkoak			✓		✓		✓		✓	✓	

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA


17. DINAMIKA	Nº	LEKUA	PROFILA	ADIN-TALDEA			EGONALDIAREN IRAUPENA		SEME- ALABAK		BIKOTEKIDEA		LANA	
				18-24	25-44	45-64	6 urte baino gutxiago	6 urte baino gehiago	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
	107	ARABAKO LAUTADA	Magrebtar jatorriko emakumezkoak			✓	✓		✓		✓			✓
	108	ARABAKO LAUTADA	Magrebtar jatorriko emakumezkoak		✓		✓		✓		✓			✓
	109	ARABAKO LAUTADA	Magrebtar jatorriko emakumezkoak		✓			✓	✓		✓			✓
	110	ARABAKO LAUTADA	Magrebtar jatorriko emakumezkoak	✓				✓	✓		✓			✓
	111	ARABAKO LAUTADA	Magrebtar jatorriko emakumezkoak		✓			✓	✓		✓			✓
	112	ARABAKO LAUTADA	Magrebtar jatorriko emakumezkoak		✓		✓		✓			✓		✓
	113	ARABAKO LAUTADA	Magrebtar jatorriko emakumezkoak		✓		✓		✓			✓		✓

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

18. DINAMIKA	Nº	LEKUA	PROFILA	ADIN-TALDEA			EGONALDIAREN IRAUPENA		SEME- ALABAK		BIKOTEKIDEA		LANA	
				18-24	25-44	45-64	6 urte baino gutxiago	6 urte baino gehiago	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
	114	ARABAKO LAUTADA	Pakistandar jatorriko gizonezkoak		✓			✓	✓		✓		✓	

5

ONDORIO OROKORRAK



XXI. mendeak aldaketa ugari ekarri dizkio Arabako gizarteari, eta planetan gertatzen ari diren prozesu sozial, ekonomiko eta politikoen globalizazioa da nagusia. Ezin dugu gure inguru hurbilean gertatzen ari dena ulertu gure planeta osoan gertatzen ari diren prozesuei eta aldaketei arretarik eman gabe.

XXI. mendeak hasiera-hasieratik iragarri zizkigun aldaketa transzendentalak, eta 2008ko munduko ekonomia-krisiak agerian utzi zuen euskal gizarteak, espainiarrak, europarrak eta mundukoak elkarrekiko mendekotasun handia dutela. Munduan garatzen ari diren prozesuak ulertu behar ditugu, gure lurraldean, Araban, gertatzen ari dena ulertzeko eta ekintza politikoko estrategiak, mekanismoak eta tresnak martxan jartzeko.

Munduan gertatzen ari diren aldaketa garrantzitsuenen artean, hauek dute Arabako eguneroko bizitzan eragin handia:

- Eskuin muturreko populismoen gorakada. XXI. Mendean, eskuin muturreko ideologiaren eta alderdien gorakadaren lekuko izaten ari gara, ez bakarrik Europan (Italia, Frantzia, Holanda, Alemania, Britainia Handia, Grezia, Hungaria, Polonia, Espainia...) eta mendebaldean (AEB), baizik eta baita munduko beste txoko batzuetan ere (Brasil, Filipinak eta abar). Ideologia horrek desberdintasun soziala, menpekotasuna, bazterketa eta gatazka oinarri dituen bizikidetzak bat proposatzen digu, kastetan banatutako gizartea eredu hartuta. Gizarte-eredu hori asimetrikoa da guztiz, eskubi-deei eta betebeharrei dagokienez.
- Pertsonen mugikortasuna esponentzialki haztea, hainbat modalitatetan: immigrazioa, iragaitzazko migrazioa, adingabeak, babes-eskatzaileak... Mugikortasunari dagokionez, egungo eta etorkizuneko joera goranzkoa da. Gaur egun, hainbat arrazoiengatik, nabarmen handitu da beren sorterrria behin betiko zein aldi baterako uzten duten pertsonen kopurua: mugimendu horiek nazioen edo kontinenteen barnean gertatzen dira, baina baita nazioen eta kontinenteen artean ere.
- Teknologiaren erritmo zorabiagarria. Gure gizartean, arlo teknologikoa gero eta bizkorrago ari da garatzen, eta bizitzako esparru guztiei eragiten die: pertsonen arteko harremanei eta harreman sozialei, Interneten eta sare sozialean euskarri berriak eta aplikazio berriak garatuz; ongizate sozialari eta osasunari, etengabe agertzen ari diren aurkikuntza zientifikoak gaitzak prebenitzeko eta pertsonen osasuna hobetzeko aplikatuz; kontrol sozialei, kokapen-teknologiaren nonahikotasunarekin, ezaugarri fisikoak ezagutzeko sistemekin, gure bizitza pertsonaleko eta eguneroko datuak biltegitratzeko eta tratatzeko bideekin (big data); lan-merkatuari, lehenago eskuzkoak ziren sektore eta lanpostu ugariaren automatizazio gero eta handiagoa denez, eredia eraldatzen ari da; etab.
- Eraldaketa sakonak lan-merkatuan. Aipatu berri dugunez: teknologia berriak lan-merkatuan aplikatuta, gaur egun pertsonak egiten dituzten ohiko zeregin asko automatizatzen eta robotizatzen ari dira. Adituek aurreratu dute inguruabar horrek gero eta dualtasun handiagoa ekarriko duela lan-merkatura: batetik, kopuru handiagoetan eskatuko da lan espezializatua, maila teknologiko eta balio erantsi handiduna; bestetik, hor jarraituko dute kualifikazio baxua eta balio erantsi txikia duten langileentzako lanpostuek,

eta horien kopuruak ere gora egingo du. Polarizazio horrek lan-merkatuan dagoeneko existitzen diren bereizkeriak handitu egingo ditu.

- Klima-aldaketa. Belaunaldi gazteak oso kezkatuta daude, eta ez da gutxia-
gorako, gai horri zeinen garrantzia gutxi ematen zaion ikusita. Gizakiaren
jardunak eta/edo planetaren bizi-zikloek (ez gara teknizismoetan sartuko)
sorrarazi duten klima-prozesuak geldiezin dirudi, batez ere kontuan har-
tuta herrialde asko kezkatuago daudela politika aringarriek epe laburrean
beren emaitza-kontuetan izango diren ondorio negatiboekin, etorkizuneko
belaunaldientzako hobekuntza sozialak eta kolektiboak lortzen saiatzeare-
kin baino. Klima-aldaketa merezi duen arreta ez ematearen ondorioak,
ordea, bistakoak dira: muturreko fenomeno atmosferikoak, goseteak, per-
sonak lekualdatzea, babes- eta asilo-beharra, etab.
- Desberdintasun txikiagoak munduko gizarteetan artean eta desberdinta-
sun handiagoak gizarte bakoitzaren barnean: kanpo-homogeneotasun
sozial handiagoa eta barne-heterogeneotasun sozial handiagoa. 2008ko
krisi ekonomiko globalak aldaketa sakonak eragin zituen gizarteetan arte-
ko orekan. Batzuk krisian murgiltzen ziren bitartean, beste batzuek aza-
leratzeko eta goranzko posizioak indartzeko aprobetxatu zuten. Horrela,
'lehenengo' eta 'hirugarren' mundu deiturikoen arteko desberdintasunak
lausotu egin ziren, eta bide horretan jarraitzen dute egun ere. Aldi berean,
prekarietateak eragin handia izan zuen 'lehen munduan' eta, gaur egun
ere, hala jarraitzen du geruzarik ahulenetan; "hirugarren mundua" gure
erkidegoetara heldu zen, eta, ondorioz, gaur egungo gizarteetan, 2008ko
krisia baino lehenagokoetan baino desberdintasun handiagoak ditugu.
Arabako gizarteak ez dago, jakina, prozesu horietatik kanpo: "tenkatu" egin
da gizarteak, eta, ondorioz, handitu egin da geruza dirudunen eta ahulenen
arteko tartea; azken horiek zaurgarriagoak dira orain; prekarietate handia-
goa jasaten dute eta etorkizunari kezka handiagoz begiratzen diote.

EEgoera horrek pentsarazten digu ez gaudela Baumanek izendatutako "moder-
nitate likidoko" fase batean, baizik eta urrats bat haratago joan garela eta "post
modernitate gaseoso" baten atarian gaudela: "amorfoa" eta "kaotikoa" ezaug-
garri dituen testuinguru horretan, talde boteredunek nahieran erlatibizatzen eta
moldatzen dute errealitatea; egiak ez du esanahi adierabakarra, iraganak balioa
galtzen du, eta hori guztia etorkizunaren inguruko ziurgabetasun gero eta handia-
goa duen testuinguru sozial batean gertatzen da.

Mundu mailako interkonexioa ezaugarri duen testuinguru sozial horretan ari da
mugitzen Arabako gizarteak, eta hor jarraituko du datorren urteetan ere. Gure gi-
zarteak kulturantzuna da eta aniztasun hori gero eta nabarmenagoa izango da, gure
gizarteak lan-adinean eta ugalketa-adinean dauden atzerriko immigranteak behar
baititu EAEko eta Arabako lan-merkatuaren beharrei eta zahartzearen erronkari
erantzuteko. Datuek gure hipotesia baieztatzen dute: atzerriko immigrazioak haz-
ten jarraituko du datozen urteetan. Baliteke EAEko eta Arabako errealitate soziala
aldatu ahala immigrazioaren profila aldatuz joatea (hasi da dagoeneko aldatzen
eta goi-mailako prestakuntza duten profil berriak eskatzen), baina immigrazioak
gora egiten jarraituko du, horretan ez dago zalantzarik. Immigrazioaren bolumena
Arabako klase ertainaren sendotasunaren eta haren beharren arabera izango
da. Hori baita, gaur egun, immigrazioaren sustatzailerik handiena.

Immigrazio horrek aniztasun handiagoa ekarri digu Arabako gizartera, eta berri-tasun ugari: kulturalki zein geografikoki urruneko ditugun immigrante atzerrita-rrek hizkuntza, erlijio, kultura, tradizio, familiako rol, bikoteko rol, mundu-ikuskera eta espektatiba berriak ekarri dizkigute, besteak beste. Arabako gizarte duela bi hamarkada baino askoz ere aberatsagoa eta anizkoitzagoa da, eta, etorkizun hurbilean, ezaugarri hori indartu egingo da. Bada, nola egin aurre erronka horri? Badirudi, kultura desberdinak integratzeari dagokionez, asimilazioan oinarrituta-ko politikek eta estrategia sozialek ez dutela emaitza onik ekarri. Ez eta kultura-niztasunean oinarritutakoek ere. Badirudi, ordea, kulturartekotasunaren bideak emaitza sozial hobeak eman ditzakeela, gizarte bidezkoagoak, kohesionatuagoak, orekatuagoak, baketsuagoak, berdinzaleagoak eta bazterkeria gutxiagodunak sor ditzakeela, alegia. Hori guztia herritarren (stricto sensu hala direnen zein egoitza bertan dutenen) eskubideak beste edozein konturen gainetik jarritz.

Garrantzitsua da gizarte gisa hainbat kontu onartzea: immigrante atzerritarrek he-men geratzeko etorri dira, dei egin diegulako eta behar ditugulako. Eta erreality-te horrek ezinbestean eskatzen du gure gizartean aldaketa garrantzitsuak egitea, mestizaje maila handiagoa lortzea oinarri eta helburu izanda. Euskal herritarren eta arabarren artean, aniztasuna lehen baino handiagoa da, eta etorkizunean are handiagoa izango da. Garrantzitsua da onartzea egiturazko fenomeno delako eta datozen urte eta hamarkadetan hala izaten jarraituko duela.

Arazoi ekonomikoengatik immigrazio-mugimenduez eta bizitza-proiektuaren helmuga berariaz gure eskualdea dutenez gain, pertsonen mugikortasuneko eta mugikortasun sozialeko beste eredu batzuk ere hartu behar dira kontuan. Aipatu ditugu jadanik: hanbat arrazoiengatik ihesean ari diren eta babesa eskatzen du-ten pertsonak, hala nola jazarpen pertsonalarengatik, gerrarengatik, goseteenga-tik, hondamendi naturalengatik, espolioengatik. Azken urte hauetan, batez ere, Europan 2015an 'errefuxiatuen krisia' izeneko fenomeno gertatu zenetik, beste herrialde eta kontinenteetatik datozen eta babesa eta aterpea eskatzen duten per-sonen mugikortasun-prozesuak ugarituz joan dira. Joan den mendean, horrela-ko pertsonentzat zailagoa zen egoera kritikoetatik ihes egitea; gaur egun, ordea, baliabide fisiko eta informatiboek adre ematen diete etorkizun hobe baten bila edo, bederen, etorkizun baten bila abiatzeko, beren jaioterrian besoak gurutzatu-rik geratu beharrean.

Gure ingurune fisikoa, EAE, Afrikako kontinentetik Europa erdialdera eta iparral-dera migratzen duten pertsona talde handien igarolekua ere bada, 2018az geroz-tik. Pertsona horiek senide edo lagunekin elkartzeko edo, besterik gabe, bizitza-proiektu bat garatzeko jotzen dute Europako gunetara.

Azkenik, bada kasuistika berezia duen beste prozesu bat, bidaidetik gabeko adin-gabe atzerritarrena, alegia. Fenomeno sozial hori indarra hartuz joan da Espainia-ko Estatuan, EAEn zein Araban, 2012tik aurrera batez ere.

Eskura ditugun datuek erakusten dute (ziurrenik testuinguruak eta akordio edo gatazka geopolitikoek eragindako gorabeherak izango diren arren), epe laburrera begira behintzat, datozen urteetan migranteek gure lurralde historikora etortzen jarraituko dutela: arrazoi ekonomikoak dituztenak, bizitza-proiektuaren helmuga-tzat gure eskualdea dutenak, babes eta aterpe bila datozenak, beste nonbaitera bidean hemendik igaro behar dutenak baita bidaidetik gabeko adingabe atzerri-

tarrak ere. Gaur egun, Araba ez da etapa garrantzitsua migratzaileen ibilbidean (Bilbo eta Irun garrantzitsuagoak dira, zalantzarik gabe, arrazoi desberdin eta nabariak direla eta, besteak beste, egonaldiak eta muga, hurrenez hurren), ez eta bidaiderik gabeko adingabeentzako helmuga nabarmena ere; izan ere, horiek nahia-go izaten dituzte Bilbok eskaintzen dituen aukerak eta "guneak". Egoera horrek ez gaitu, ordea, fenomenoari jaramonik ez egitera eraman behar, euskal gizarte berri honek herritarren kulturartekotasunari eta eskubideei dagokienez dituen erronketako bat baita, eta, horrenbestez, herri-proiektuaren partetzat hartu behar da.

Ez dugu uste atzerriko etorkinen profila epe laburrean aldatuko denik. Profil horretako pertsonak etorriko dira hemendik aurrera ere: latinoamerikarrak, gizonezkoak baino emakume gehiago, eta afrikarrak, magrebtarrak zein Saharaz hegoaldekoak, emakumeak baino gizon gehiago. Hori bai, datuen arabera, beste jatorri batzuetako kopuruak handitu egingo dira, esaterako, Araban, Pakistango jatorria dutenen kopurua hazi egingo da, nahiz eta geografikoki oso lokalizatuta dagoen komunitate horren kopuruak nahiko handiak diren jada Araban.

Horregatik, garrantzitsua da azterketa honek erakusten dituen zenbait adierazle aintzat hartzea, horiek nabarmentzen baitute kolektibo batzuk zaurgarriagoak direla, gizarte-bazterketa jasateko arrisku handiagoa dutela eta neurrien beharra dutela duintasunez bizitzeko eta Euskadiko eta Arabako gainerako herritarrekin berdintasunean bizi ahal izateko.

Etxebizitza eskuratzeko atalean lortutako datuek ohartarazten digute jatorria atzerrian duten biztanleek jatorria espainiar Estatuan dutenek baino zailtasun handiagoak dituztela alor horretan. Horren arrazoiak faktore koiunturalak (2008ko krisia eta haren ondorioak) zein egiturazkoak (beren lan-egoera prekarioa dela eta maileguak eskuratzeko zailtasun handiagoak izatea) dira, baina baita atzerritarrak izatearen ondoriozko bazterkeria-egoerak jasan behar izatea ere. Maileguak eskuratzeko zailtasun horrek eragiten du, besteak beste, atzeritar gehienek alokairuan bizitzea hautatzea. Datuek erakusten dute atzeritarren etxebizitza baldintzak okerragoak ere badirela.

Gizarte-zerbitzuen, prestazio ekonomikoen eta DSBEaren atalean lortutako datuek erakusten dute gizarte-bazterkeriak ez diela pertsona guztiei berdin eragiten. Zerbitzu eta dirulaguntza sozialen eskaerari loturiko adierazleek hori erakusten dute, eta familia-unitateak eta DSBEen hartzaileak aztertzean, Lanbidek eman zizkigun datuen ildo berean kokatzen dira: Arabako lurraldean, badira kolektibo jakin batzuk egoera prekarioagoan daudenak, zaurgarritasun handiagoa erakusten dutenak eta gizarte-bazterketa eta bazterketa ekonomikoa jasateko arriskuan daudenak, eta jatorriz eta/edo nazionalitatez atzerrikoak diren biztanleen kolektiboa hor kokatzen da. Zerbitzuak eta laguntza sozialak eskatzen dituzten pertsonen zifrei begiratuta, ikusiko dugu atzeritarrek talde handia osatzen dutela; hau da, proportzionalki zati handiagoa hartzen dutela zifra horietan euskal gizarteko banaketa osoan baino. Hainbat arrazoiengatik gertatzen da hori: egoera administratibo ahulagoan bizi dira; lan-geruzaketaren barruan, lan neketsuenak egiten dituzte, krisiak gogorrago jo ditu eta susperraldia neurri txikiagoan iritsi zaie, haien lan-egoera askoz prekarioagoa da orain...

Jatorriz eta/edo nazionalitatez atzerritarrek direnen artean, Afrikako biztanleen taldeak nabarmentzen dira, Magrebekoenak batez ere; hots, zerbitzuen eta laguntza sozialen eskaeran duten presentzia proportzionalki oso handia da.

Premiazkoa da “pobreziaren eta gizarte-bazterketaren etnifikazio progresiboa” ekiditeko neurriak martxan jartzea, dagoeneko nabarmendu dugun bezala. Azken urteotan, krisia hasi zenetik, baina baita suspertze makroekonomikoan ere, jatorri afrikarreko pertsonen posizio ekonomikoak, lan-arlokoak eta sozialak okertuz joan ari dira etengabe. Talde horiekiko dugun urruntasun kulturalak (hizkuntza, erlijioa, ohiturak, familiako rolak, rol sozialak, tradizioak, mundu-ikuspegia...) ez du laguntzen elkarrekiko enpatia eta kultur-trukaketa prozesuak sortzen. Urruntasunak ez-jakintasunera eta aurreiritzietara garamatza eta, hortik urrats bat emanda, bazterkeriara. Irudimen handia izan behar dugu eta hori ekiditeko ekintzak martxan jarri.

Azterritarren enpleguari buruzko datuek argi-itzalak erakusten dituzte; izan ere, azken urteotan Gizarte Segurantzaren afiliatutakoen kopuruak gora egin, kontratuak ugaritu eta langabezia-zifrek behera egin badute ere, begi-bistakoa da lan-txandakatzea neurtzen duen indizeak ere gora egin duela, eta haien enpleguak kualifikazio-maila txikikoa eta prekarioa izaten jarraitzen duela. Gainera, epe luzeko langabezia asko kronifikatu da. Bestalde, atal honetan azpimarratu nahi genuke langabezian dauden taldean emakumeen presentzia handiagoa dela oro har, eta proportzioa kezkatzekoa dela (gizon bakoitzeko bi emakume) honako kuadrilla hauetan: Guardia-Arabako Errioxa, Arabako Lautada eta Kanpezu-Arabako Mendialdea.

Gainera, guztiz prekarizatuak, nekezak, arriskutsuak eta gaizki ordaindutakoak diren lan-hobi jakin batzuk atzerritarren kolektiboarekin identifikatuta egoteak ere asko kezkatzen gaitu. “Beirazko teilatua eta paretak” hautsi behar ditugu, lan-mugikortasun horizontal (lan-hobi desberdinak) eta bertikalak (lan hobeak) sustatzeko eta “etniagatiko lan-ghettizazioa” ekiditeko.

Hezkuntza-ataleko datuei dagokienez, ikusi dugu Arabako unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sisteman segmentazio bikoitza gertatzen delako ebidentziak. Alde batetik, jatorri atzerritarreko biztanleria sare publikoan matrikulatuta dago gehienbat, eta jatorriz Estatu espainiarrekoa den biztanleria, berriz, modu orekatuagoan banatzen da sare guztien artean. Bestalde, A ereduan, jatorri atzerritarreko biztanleen presentzia jatorriz Estatu espainiarrekoak direnena baino askoz handiagoa da.

Horrez gain, hoguei ikastetxe ingurutan (gehienak titulartasun publikokoak), erreallitate multikulturala nabaria da; hau da, jatorri atzerritarreko ikasleen kopuru handiak direla-eta, kontzentrazio etniko handiko ikastetxeak dira. Gainera, ikastetxe horietako bostetan, jatorri desberdinetako ikasle atzerritarrek gehiengoa osatzen dute.

Halaber, garrantzitsua da azpimarratzea jatorri atzerritarreko ikasleei lotu ohi zaizkien estereotipo negatiboek kalte egiten diela ikasle horiek joaten diren ikastetxei: hezkuntza-proiektuaren kalitatea gutxitzea leporatu ohi zaie eta aitzakiatzat erabili ohi dira ikastetxe horietako matrikulak ezeztatzeko.

Gure ustetan, hezkuntza-sistema publiko on batek gure gizartean dauden desberdinkeria sozialak murrizteko eta berbideratzeko balio behar du. Horren adibide argia da euskal hezkuntza-sistemak diktadura osteko trantsizioan eta joan den mendeko 80ko hamarkadan bizi izan zuen hobekuntza: tresna eraginkorra izan zen berdintasun soziala lortzeko eta belaunaldien arteko mugikortasun bertikala ahalbidetzeko bidean, eta meritokrazian oinarritu zen, eta ez, jaiotzagatiko abantailetan.

Gaur egun, jatorri atzeritarreko pertsonen etorrerak desafioa ekarri dio gure hezkuntza-sistemari, eta bistaratzen ari da ez dagoela egun bizi dugun errealitateari aurre egiteko diseinatuta. Gure ustez, beharrezkoa da gure hezkuntza-sistema publikoa birdiseinatzea eta egungo errealitate sozialarekin lerrokatzea, berriz ere berdintasun sozialaren eta belaunaldien arteko mugikortasun bertikalaren sustatzaile izan dadin.

Uste dugu ezinbestekoa dela berriro ere kalitatezko hezkuntza-sistema publiko baten aldeko apustua egitea, baliabide handiagoak eskainiz, hezkuntza-sistema pribatuarekin eta kontzertatuarekin buruz buru lehiatzeko gai izan dadin. Ez dugu uste konponbidea sistema batean zein bestean derrigorrezko pertsona-banaketak edo kuotak ezartzea denik, errealitateak argi erakutsi baitigu familiek ikastetxe mota bat edo bestea hautatzea ez dela inola ere ausazko erabakia, eta ikastetxeak ere ez direla tolesgabeak eta inpartzialak jatorri bateko edo besteko ikasleak onartzean. Gure proposamena argia da, eta gure intentzioa, irmoa: hezkuntza-sistema publiko baten aldeko apustua egitea eskatzen dugu, gure hezkuntza-sistema berriz ere berdintasun soziala, kohesioa eta belaunaldien arteko mugikortasun bertikala sustatzeko tresna izan dadin. Horrela soilik lortuko baitugu jatorri atzeritarreko ikasleak esleitzeko garaian ikastetxe publiko eta pribatuen artean dauden desberdintasunen inguruko eztabaida gainditzea.

Hala ere, hezkuntza-sistema publiko sendo bat finantzatzeak ez du bermatzen jatorri atzeritarreko ikasleak hartzeko garaian ikastetxe guztien artean banaketa orekatua izango denik, ez eta haiei prestakuntza ematean ahaleginak parekoak izango direnik ere. Ikasleen profila haien jatorria, nazionalitatea eta/edo leinua kontuan hartuta aztertuz gero, ikusiko dugu egun desberdintasun argiak daudela hezkuntza-sare publikoko ikastetxe batzuen eta besteen artean. Horri erantzuteko, ikastetxeei kulturartekotasun-maila altuagoa ematea eta eskola-proiektu irmoak eskaintzea proposatzen dugu. Horretarako, baliabide pertsonal eta material ugariagoak, baliabide pedagogiko hobeak, giza-baliabideetan ahalegin handiagoak eta ikasgelako ratio txikiagoak beharko dira. Hau da, zentro horietan, diskriminazio positiboaren aldeko ekintzak bultzatu eta gauzatu beharko dira, ikasleen etorkizuneko aukerak (hezkuntzakoak, prestakuntzakoak, pertsonalak, lan-arlokoak...) berdindu ahal izateko.

lkerketa honetan, bigarren mailako iturrietatik datu soziodemografikoak, ekonomikoak, lana-arlokoak, ongizate sozialari loturikoak eta abar jasotzeaz gain, jatorriz bertakoak diren eta/edo bertoko leinua duten pertsonen galdetu diegu zer iritzi, pertzepzio eta jarrera dituzten nazionalitate, jatorri edo/eta leinu atzeritarren inguruan. 'Iritzi-barometro' baten bidez egin dugu hori, eta ondorioztatu dugu talde horrek gure lurraldean gertatzen ari diren migrazio-prozesuak ez dituela arazo gisa hautematen. Aintzat hartzen dituzte atzeritar jatorriko jendea etortzeak dakartzan onura ekonomikoak eta lan-arlokoak, ezinbestekoak baitira

kualifikazio baxua eskatzen duten eta Arabako gizartean balorazio sozial eskasa duten lanpostuak betetzeko, besteak beste, nekazaritza, eraikuntza, ostalaritza, merkataritza, pertsonen zaintza eta etxeko lanen sektorearekin zerikusia dutenak.

Baina, behar ditugula jakin arren, Arabako gizarteko talde horrek atzerritarrak etortzearen inguruko mesfidantza-puntu bat ere erakusten du, batez ere, gure ongizate-estatuari eusteari eta pertsona horiek prestazioak eta gizarte-laguntzak eskuratzeari lotuta. Migrazioen teorikoek esapide bakarrean laburbiltzen dute dilema ezagun hori: *'Needed, but not wellcomed!'*.

Hala eta guztiz ere, oro har esan daiteke Arabako gizarteko jatorri atzerritarra duten pertsonetik jarraituz eta jokabideak positiboak direla, baina hobetzerik badago. Izan ere, gure auzo eta herrietan pertsonen arteko elkarbizitza oro har on den arren, badira aurreiritzi eta estereotipo negatiboak gure artean elkarbizitza hori pixka bat okertu eta jatorri atzerritarreko pertsonak bidegabeki eta era kolektiboan gaitzestea dakartenak. Garrantzitsua da atzerriko immigrazioaren inguruko estereotipo negatibo horien aurka egitea, jarrera xenofoboak eta jokabide diskriminatzaileak justifikatzeko aitzakia baitira. Ildo horretan, garrantzi handia du zurrumurruen aurkako estrategiarekin zerikusia duen guztiak, tresna paregabea baita tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko eta jarrera intolerante eta baztertzaleei inpunitea ekartzen dieten guneak ezabatzeke. Gainera, ezin ahaztu mugimendu eta korrante post faxista eta ultraeskuindarretako zenbait profeta jarrera horiei arnasa ematen ari direla atriletatik, eta horrek, jakina, horrelako jokabideen aurka egiteko beharra handitzen duela.

Jatorriz bertakoak diren eta/edo bertako leinuak dituzten herritarrek ardura handia dute atzerritarrak gizartean integratzeko eta auzokoen arteko elkarbizitza hobetzeko prozesuetan, baina, zalantzarik gabe, baita jatorriz atzerritarrak diren edo atzerriko leinuak dituztenek ere. Hori dela eta, azterketa honek pertsona horien arazoibidea eta narratiba ere biltzen ditu.

Gakoen eta gomendioen atalean azpimarratu ditugu jadanik atzerritar jatorriko Arabako biztanleen narratiba eta arazoibideen ezaugarri nagusiak. Hemen hiru gai soilik nabarmenduko ditugu:

1. Pertsona horien gehiengoak adierazi digu beren immigrazio-proiektuaren balantzea egiten dutenean pozik sentitzen direla beren sorterrian hartu zuren erabakiarekin eta gure artean daramaten bizimoduarekin. Horren erakusgarri da gehien-gehienek beren bizi-proiektua Araban finkatzea erabaki dutela.
2. Araba aukeratu izana ez da kasualitatea: hona iritsi diren atzerritar gehienek berariaz aukeratu dute gune hau, Araba eta Gasteiz (beren bizilagun eta guzti) leku egokiak eta tamaina onekoak direlako bizi-proiektu bat garatzeko: lan-aukerak eskaintzen ditu, erakunde konprometituak ditu, gizarte- eta osasun-zerbitzuak ditu, hezkuntza ona eskaintzen du, bertako biztanleak, oro har, irekiak eta tolerantak dira, hemen bakean bizi daiteke eta etorkizunerako bizitza-espektatibak ematen ditu.

3. Haien narratibek elkarren ezagutza sustatzeko, enpatia lantzeko eta kulturarteko eta auzokoen arteko elkarbizitza hobetzeko zer espaziotan hartu behar dugun esku identifikatzen laguntzen digute. Ildo horretan, ezinbestekoa iruditzen zaigu pertsonen arteko kultur-urruntasuna laburtzea, jatorri atzerritarreko pertsonen euskaldun sentitzen lagunduko dien neurriak hartzea, gizartearen arrakastaz integratzeko eta etorkizunean gizarte-mugikortasuna eskuratu ahal izateko hezkuntzak eta euskaraz eta gaztelaniaz jakiteak zer-nolako garrantzia duen ikusaraztea, tokian tokiko espazioak eta aisialdi-guneak kultur-trukaketa eta interakzio soziala sustatzeko aprobetxatzea, biztanle atzerritarrei lan-mugikortasun horizontala eta bertikala izatea galarazten dieten oztopoak haustea, pertsona atzerritarrez osatutako kolektibo batzuen estigmatizazioa dakarten aurreiritzi eta estereotipo negatiboak aurre egitea, erlijio-askatasuna pertsona guztiok berdintasunerako dugun eskubidearekin uztartzea, eta pertsona ororen parte-hartze soziala eta politikoa bultzatzea.

Hitz batez, une zinez zirrargarria ari gara bizitzen Arabako gizartearen bilakaerari eta garapenari dagokionez, ezaugarri nagusitzat aniztasunaren eta kulturaren aniztasunaren etengabeko hazkundea duen unea baitugu orainkoa. Mestizajea ardatz duen garai erabakigarri honetan egindako kudeaketaren mende egongo da etorkizuneko arabar eta euskal gizartearen arrakasta edo porrota. Ez dago zalantzarik gizarte gisaoso proiektu garrantzitsuak ditugula esku artean, esaterako, '4.0 industria', teknologia berriak eta horien '5G sareak,' edo European proiektu komun bat eraikitzea, baina are garrantzitsuagoa da "euskal gizartearentzako 5.0 eredu berria" gauzatzeko erronka. Horrek, tratu-berdintasuna, diskriminaziorik eza eta herritarren eskubideak ardatz hartuta, gai izan beharko du gizarteko prozesuak kulturartekotasunetik abiatuta kudeatzeko eta gizarte kohesionatu, bidezko eta berdinezale bat eraikitzaera eramango gaituzten neurri eta estrategia politikoak ezartzeko.

Gizarte eredu hori Arabako gizartearen osatzen dugun pertsona guztion artean erai-ki beharko dugu, baina ahaztu gabe fenomenoaren haratago ere badoala, ahalegin horrek herri-proiektu baten parte izan behar duela eta espainiar estatuarekiko eta Europar Batasuneko gainerako herrialdeekiko konplizitatea eta aliantzak ere beharrezkoak izango direla etortzeke dauden erronkei egokiro erantzuteko proiektuak josi eta estrategiak diseinatzeko.



▶ Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
▶

ikus
pegi

Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración

